

ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

senez

MARTUTENEKO ITZULTZAILE ESKOLAK 10 URTE

EUSKAL ITZULTZAILE IKASKETEN ETORKIZUNA



5. urtea

1-2

zenbakiak

1989

Portada: LAURA ESTEVE

ISBN: 84-7086-254-5

Legezko gordailua: SS 126/90

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 -Zarautz

Senez

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

8

**V urtea
1 - 2 zenbakiak**

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin

E.I.Z.I.E

Senez

Itzulpen eta Terminologiako Aldizkaria

Erredakzio Batzordea:

Zuzendaria:

Jesus M. Zabaleta

Koldo Biguri

Idazkaria:

Lurdes Auzmendi

Hizkuntz arduraduna:

Koro Navarro

Batzordekideak:

Jose I. Berasategi

Iñaki Ibañez

Xabier Mendiguren

Andoni Sarriegi

Beatriz Zabalondo

Maketa eta konposizioa:

Jesus M. Zabaleta

Helbidea:

EIZIE

Etxague jenerala, 6

DONOSTIA

Telefonoa: 42 91 66

Aurkibidea

Ale honetan	9
Gaiak	
Euskal Itzultzaileen Ikasketak: Hamarkada baten ikuspegia. <i>Xabier Mendiguren</i>	15
Martuteneko Itzultzaile Eskolaren ibilbide historikoa: sorrera, emandako pausoak eta gaurko egoera. <i>Joseba Urzelai – Lurdes Auzmendi</i>	27
Euskal itzulpengintzaren gaurko egoera	35
Euskal Itzulpenaren Berezitasunak (Zenbait gogoeta). <i>J. M. Zabaleta</i>	43
Itzultzaile ikasketen etorkizunerako argibideak. <i>J. M. Zabaleta</i>	61
Itzultzaile ikasketen diseinua	77
Espainiako Estatuko hizkuntzen arteko literatur itzulpena: Euskara. <i>J. M. Zabaleta</i>	83
Koldo Izagirre. <i>Koldo Izagirre</i>	101
Itzulpenaren benekotasuna eta kalitatea. <i>Peter Gwan</i>	109
Puntuz puntu	
Itzulpenaren etorkizuna 93ko Europan. <i>Maria Jose Velasco Ulazia</i>	127
Zinpeko interpretariak. <i>Carmen del Río</i>	137
Interferentzia ikustezinen xerkan. <i>Juan Garzia</i>	141
Itzulpengintza: Terminologia eta sintaxi mailako zenbait arazo. <i>Mikel Garmendia Ugarte</i>	155
Manual de español urgente. <i>Koldo Biguri</i>	171
Jatortasun egokitu beharrekoa. <i>Txiliku</i>	181
Aparteko zailtasunak. <i>Andoni Sarriegi</i>	187

Iruzkinak

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea	191
Bibliografia	207
STOLZE, Radegundis: Grundlagen der Textübersetzung	
REISS, Katharina / VERMEER, Hans: Grundlegung einer allgemeinen Translations- theorie	
KOLLER, Werner: Einführung in die Übersetzungswissenschaft	

Berri eta Albiste

Interpretaritzari buruzko ikastaroak Gasteizen. <i>Koldo Biguri</i>	215
Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak. <i>Jose Inazio Berasategi</i>	221
Klasikoen itzulpen plana dela eta. <i>Juan Garzia</i>	231
Euskal Autonomi Elkarteko Itzulpen-Zerbitzu Ofiziala sortzekotan. <i>Eneko Oregi Goñi</i>	235
Itzulpen sariketak eta beste. <i>Mikel Garmendia</i>	237
Testu filosofikoen itzulpenak. <i>Xabier Apaolaza</i>	240
UBI mailako filosofi testuak euskaratzeko proiektua. <i>Koldo Biguri</i>	242
Primer Coloquio Internacional de Traductología. <i>Beatriz Zabalondo</i>	244

Ale honetan

Ikasturte honekin batera Martuteneko Itzultzaile Eskola sortu zeneko hamar urte betetzen dira. Horixe izan zen, bitartean egin ziren beste ikastaro labur batzuk kenduta, euskal itzulpengintza bideratzeko, aztertze eta irakasteko asmoz sortu zen lehendabiziko erakunde iraunkorra.

Urtemuga hori dela eta, ale honetan itzultzaile ikasketek gure artean duten egoeraz gogoeta apur bat egitea hartu zen asmoa. Aurten izan ere, urtemuga horren ospaketaz gainera, itzultzaile ikasketetan aldaketa handiak izan litezkeenak hasi dira gertatzen: orain arte itzultzaile ikasketarako zeuden erakundeen ordez, ikasketak horiek unibertsitate barruan kokatzen hasteko lehendabiziko pausoak hasi dira ematen: Euskal Herriko Unibertsitatearekin tratuak izan dira horretarako, eta beste aldetik Deustuko Unibertsitateak Itzulpeneko Master ikasketak jarri ditu martxan.

Ikasketak unibertsitatean kokatzearekin, ordea, ez dira besterik gabe, gaur egun dauden arazo guztiak konpontzen, ukendu majikoren batez igurtzi balira bezala. Jakin badakigu, tamalez, unibertsitateak barrenetik botere aparailu autoerreproduktibo

bezala ere funtzionatzen duela, horixe bait da hain zuzen unibertsitari askoren kexua. Are kexuago, hala ere, letretako alorretan.

Gaur egun Espainiako unibertsitateetan itzulpen ikasketak planteatzen ari direnean, itzulpenaz bestelako interes gehiago ageri dira, aparailu akademikoaren barreneko berziklaketa interesak batez ere (Filologia irakasleen berziklaketa interesak, itzultzaileen artean behin eta berriro salatzen ari diren bezala), itzulpenari buruzko jakintza eta gai hori egoki bideratu eta irakaskuntza baliozkoa banatzekoak baino.

Beldur gara gure artean ere gisa beretsuko interesak tartean sartuko ez ote diren, eta euskal itzulpenak ezaugarri bereziak dituen bezala, ezaugarri bereziak behar lituzkeen itzultzaile ikasketak eta irakaskuntza ez ote duten ito bidean jarriko akademizismoz jutzen diren aparatu-interes aitortu gabe eta aitortu ezinek.

Euskal itzultzaileak prestatzeko antolatuko den ikasketa sistematik euskal itzulpenaren premiei behar die erantzun. Horretarako premia horiek ondo aztertu behar dira lehendabizi: merkatu premiak, jakintza premiak, berziklaketa premiak, status premiak. Itzultzaile ikasketek, edozein hizkuntzatik edozein hizkuntzatarakoak direla ere, amankomunak diren hainbat ezagutza behar badituzte ere, itzulpena komunikazio egintza denez beti, hizkuntzari dagozkion beste edozein ikasketak baino estuago daude lotuta komunikazio hori gertatzen den hizkuntz egoerari. Euskarari dagokionez, ordea, berorren egoera soziolinguistikoa inguruko hizkuntzena ez bezalakoa da, aski berezia, gure inguruan itzultzaile eskolak dauden herrialdeetako hizkuntzekin konparatuz gero batez ere.

Horregatik, ale honetan, Martuteneko Itzultzaile Eskolaren hamargarren urte hau nolabait ospatzeko asmoa dugun honetan, euskal itzulpenak bere izaeraz dituen eta euskal itzultzaile ikasketek, benetan eragikorrek eta frutukorrek izango badira, kontutan hartu beharko lituzketen berezitasun horiek aztertzen ahalegin berezia egin da.

Bestetik, itzultzaileentzako interes berezia duten beste zenbait gai jakini buruzko artikulua bereziak bildu dira, itzulpenetan ageri diren zenbait interferentzia motari buruz bereziki, eta teoria eta praktikako beste zenbait punturi buruz. Orobat bildu dira hemen EIZIE Elkartaren izenean edo bestela zenbait insituziotara aurkeztu diren dokumentuak, euskal itzulpenaren egoera argitzeko balio duten neurrian.

Agurra

Senez aldizkari hau aldatuz doa. Orain dela gutxira arte Martuteneko Itzultzaile Eskolaren ardurapean argitaratzen zen, eta handik zuen izendatua zuzendaria. Azkeneko aleaz gero, aldizkari honen jabegoa eta ardura EIZIE Elkartaren esku dago. Elkar-
tea indartuz eta sendotuz doan eran, legea da bertako eginkizunak, sorkuntzan eta hasieran ezinbestez pertsona gutxiengan bilduta egon ohi badira ere, gutxika-gutxika zabalduz, eta pertsona gehiagoren eskutara aldatuz joatea. EIZIEren zuzendaritza urtetik urtera aldatuz eta pertsona berriz osatuz joan den bezala, Senez honek ere ordua zuen aldaketarako.

Hala, azkeneko alean, aldizkariaren jabe Elkar-
tea egitean, erredakzio batzordea aldatu zen, eta Elkarteko sail bakoitzeko ordezkariak osatu zen berritik. Oraingo honetan zuzendaria da aldatzen dena. Orain arte J. M. Zabaleta, Martuteneko Itzultzaile Eskolako irakasle eta EIZIEko idazkariak zerabilen lema, Koldo Biguri, Gasteizko Udaleko itzultzaile eta HAEE-ko itzultzaile Eskolako irakasle denak hartuko du. Aldizkari zuzendaritzan ez du lehendabiziko esperientzia, balioa erakutsi du, itzulpena eta interpretaritza bere lanbidetik ezagutzen ditu, ideiak baditu; esku onetan geratzen da beraz Senez aldizkari hau, hoberako izango du zuzendari aldaketa.

Altxatzen nahiz bada, eta Koldori uzten diot aulkia. Idazmakina eta telefonoa aurrean ditu.

GAIK

Euskal Itzultzaileen Ikasketak: Hamarkada baten ikuspegia

Xabier Mendiguren

Duela hamar urte, gerora Martuteneko Itzultzaile-Eskola izenpean ezagutu izan dena sortu eta abiarazteko eskaria hartu nuelarik Euskaltzaindiaren zuzendaritzatik, ezer baino lehenago dossier-aurreproiektu gisako bat egiteari ekin nion **Itzulpenaren Mundua eta Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola** (1980-III-28) izenburupean “Euskera”-n argia ikusi zuen txosten luze haren bigarren atalean ordura arte itzultzaileak prestatzen egin ziren ahaleginen berri eman ondoren (Arrasate, Ustaritz eta Santutxuakoak aipatzen ziren) eta aldi beretsuan orduko itzultzaileen artean burutu nuen inkestak adierazten zuenez, lanean ari ziren gehienak erabat autodidaktak eta inolako prestakuntza teorikorik gabeak zirela ikusirik, berriki sortzekoa zen eskolaren programak alderdi teoriko-praktiko orekatuak izatea derrigorrezkoa zuela ikustera iritsi nintzen.

Nahiz eta abiaraziko genuen eskola muga ekonomiko eta pertsonal jakin batzuen barruan sortuko zela aurretiaz garbi jakin, Europan zehar sakabanaturik zeuden C.I.U.T.I. erakundeko Itzultzaile eta Interpretari Eskolen programak aztertzeak sendotu ninduen erabaki horretan. Gainera, ordura arte aipaturiko ikastaldietan itzul-

tzailak prestatzen emandako pauso herabetiek ere irakatsia zidaten kasuistika eta adibide konkretoen erabilera ezinbestekoa izan arren traduktologiaren didaktikan, oso labur geratzen dela gutxieneko jeneralizazio eta teorizaziorik gabe, are gehiago bere buruaren eredu finkatzen ari zen gurea bezalako hizkuntza baten baitan.

Honela, aipaturiko txostenaren hirugarren atalean heldu nion etorkizuneko eskola haren programa izan zitekeena taiutu eta gauzatzeari honako gidoiaren arabera: antolaketa-faseak, helburu nagusiak eta bereziak, asignaturak, irakaslegoa eta ikaslegoa eta funtzionamenduari buruzko zenbait ohar eta gogoetarekin.

Bi arrisku zeuden sarrerako gogoetetan aditzera ematen zenez: *“alde batetik, gaizki ulerturiko efikazia edo eginkortasun berehalakoaren izenean, presakako prestakuntza lardaskatu, asistematiko eta teorizapen eskasekoa emateaz nahikotzearen tentazioa”*, zerna-hi egiten zelarik ere ordura arte ez bezalako ahalbide eta ikuspegiak itzultzaileari derrigor emango zitzaizkiola uste izanik.

Bestetik, ordea, teorizapen abstratoegitan, bitxikeria formaletan eta zehazkeria estilistikotan irakasle-ikasleak galtzearen arriskua, kasuistika eta teknika konkretoak gutxietsiz.

Gainera, lehen esan bezala, guzti hau bere burua bateratzen eta finkatzen ari zen eta normalkuntza sozio-linguistikoaren bila zebilen hizkuntza baten baitan sortzen diren auzi eta arazo guztiak kontutan izan behar zituen prestakuntza baten markoan sartu beharra zegoen.

Eskolaren antolaketa faseak

Nazioarte mailan zeuden Itzultzaile eta Interpretari Eskolen filosofia eta programak arakatzean, berehala nabari zen *“hitzaldi-interpretari” (conference interpreter)* edo *“zinpeko interpretarien” (sworn interpreter)* gero eta eskari handiagoak zenbaterainoko eragina izan zuen erakunde haien sortze eta gauzatzean. Interpretari hauen lana, normalean, mundu teknologiko, juridiko, eta komertzial arautu eta finkatu batean garatzen zen eta hizkuntza atergabe berriz-

tatuz joan arren, oinarri finko, zehaztu eta homologatu samar bat aurkitzen du Europako hizkuntza moderno garatuen eta hiztuntsuetan. Gure kasua bestelakoa zen: gizarte elebidun desorekatuan eta euskararen erabilera diglosikoan aurkitzen ginen (eta gara) eta aurrena zientzi eta jakite alor ezberdinetako hizkuntza sortzea eta finkatzea ezinbestekoa zen bai itzulpenetarako eta bai interpretaritzarako, nahiz eta azken zerbitzu honetarako eskariak artean oso urriak izan euskal gizartean.

Garai berean U.Z.E.I. erakundeak argitaratu zuen “**Euskara Administrazio Publikoan**” deituriko idatzian ere “*itzulpen arruntetarako ikastaroen*” beharra arrikusten zuen, ondoren Administrazio-itzulpenetarako ikastaro berezituak egin ahal izateko.

Beraz, Euskaltzaindiaren eskariz diseinatu zen lehen Itzultzaile-Eskola hartan, jardun-eremua itzulpen arrunterako, hots, itzulpen espezialduak aurreuposatzen duen kultura orokor mailako itzultzaile prestakuntza batera mugatu beharra argiro ikusi zen, nahiz eta maila arrunta edo orokorra eta ezpezialduaren arteko mugak aski lausoak izan.

Garai hartan aurkeztu zen modelu-ereduan honela geratu zen ikasketa-prozesua:

- Oinarrizko Itzultzaile-Prestakuntza urte 1
- Itzultzaile Prestakuntza-Bereizitua urte 2 eta erdi
- Interpretari Prestakuntza 6 hilabete

Gaur egun European burutzen den itzulpen-lizentziaturaren iraupen bera zuen, nahiz eta gerora proiektu hau arrazoi eta eragozpen ezberdinengatik lehen promozioan bi urtetara eta ondokoetan hirura mugaturik geratu zen, eta interpretaritzako prestakuntzarik emateko ez bitartekorik eta modurik ez izan eskolak.

EIOPE (Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola)ren helburuak

Euskara eta gaztelaniazko hizkuntz ezaguerak eta literatur historiak eta autoreen obrak sakonduz, testu faktual (pragmatiko) eta

literarioak idatziz bi zentzutan itzultzeko gaitasun orokorra, eduki teorikoen eta ariketa praktikoen bitartez ikasleei eskuratzea zen EIOPEren helburu nagusia.

Horretarako, ondorengo azpi helburu hauek lortzea derrigorrezkotzat jotzen zen:

- Euskararen baliakizun berezietz jaberazi ikaslea.
- Euskarak gaur egun dituen mugatasunen kontzientzia zehatza harrerazi.
- Itzulpena burutzean sortzen diren zailtasun morfosintaktiko, lexikal, kultural eta estilistiko arruntenez jaberazi eta berauek gainditzeko teknikez hornitu ikaslea.
- Euskal itzulpenaren historia kritikoki aztertzeraz eta baliotzera bultzatu ikaslea.
- Azken urteetan euskal itzulpen dinamikoaren eta aurrerakoien emandako urratsen berri eman ikasleari.

Beraz proposaturiko helburu hauen arabera, honako ikasgai hauek osatzen zuten EIOPEren lehen curriculumaz:

- 1.–Euskal Morfosintaxia eta Lexikologia.
- 2.–Euskal Literaturaren Historia
- 3.–Teoria Linguistiko Orokorra
- 4.–Itzulpenaren teoria eta testu mailakatuen itzulpen ariketa
- 5.–Euskal itzulpenaren historia kritikoa
- 6.–Gaztelaniazko gramatika, lexikologia eta Literatur Historia.

Hasiera batean EIOPEren mugatasun praktikoengatik erdal hizkuntza bakaraz gaztelania izango zen, baina ondoren inguruko erdararik garrantzitsuenak (ingelesa-frantsesa) programetan sartzeko asmoa zegoen, ikaslegoaren gaitasun eta eskariaren eta irakaslegoaren baliakizunen arabera.

Hasieran aipatu dugun txostenak ondoren banan-banan aztertzen ditu ikasgai hauek eta bakoitzean landu beharreko edukinen orientabide bat eskaintzen du lehenik, Eskola eratuko zuten irakaslegoaren eta ikaslegoaren bereizitasunak aipatzeko ondoren.

Azkenik, Eskolaren erakundetzeaz, egoitzaz eta abarrez zenbait puntu zehaztu ondoren, ikasturteaz kanpoko ekintzak ere aipatzen ziren, euskal itzultzailearen prestakuntza eta profesionalizazioak eskolaren jarduera arautu eta akademikoaz aparte beste sail batzutan lan egitea eskatzen zuenez gero: UEUko Lan-Jardunaldiak egitea, Itzultzaileen Boletin bat ateratzea, Itzulpenari buruzko oinarrizko testuak eta bibliografia argitaratzea, ikerketa lanak burutzea eta hurrengo urtean plan bera Bilbora hedatzea, besteak beste, zeren hasieratik beretik EIOPE euskal itzulpenaren problematika osoari, ahal zuen neurrian, erantzuten eta laguntzen ahalegintzeko asmoarekin sortu bait zen.

Historiaren gorabeherak

Orain arte aipatu dudan guztia mahai gainean zirriborratutako egitasmo soila besterik ez zen, asmo ederregi bat geroko urrats neketsu eta zenbaitetan debekatuek erakutsiko zuten.

1980ko udazkenean ireki zituen bere ateak EIOPEk Donostiako Aurrezki-Kutxa Muzizipalak behinbehinekoz utzi zizkion geletan eta 30 ikaslek osatu zuten 1980-82 urteetako lehen promozioa. Ohar daitekeenez, lehen promozio honentzat bi urte diseinatu ziren eskolak bere burua sendotu eta esperientzia hartu arte, gehiegizko iritzi bait zitzaion bapatean proiektuari bere osotasunean heltzeari, zeuden muga ekonomiko eta materialak kontutan izanik. Bi urte hauen balantzea eginez gero garbi ikusten da lehen urtearen behinbehinekotasuna eta inprobisazioa piskanaka desagertuz joan zela bigarren urtean eta bigarren ikasturtean edukinak eta ikasmaterialak hobeki prestatu eta banatu zirela. Ahalegin honen emaitza izan ziren 83-84 ikasturterako argitara eman ziren testuak (*Itzulpen teoriatzko ezagupenak, Itzulgaiak: testu pragmatiko eta literarioak, Euskal Itzulpenaren Antologia I*)

Ondoren etorri ziren Bigarren Promozioa (1981-84), Hirugarren Promozioa (1982-1985) eta Laugarren Promozioaren aldia (1984-87) Eskolaren sendotzearekin, eredu-krisiarekin eta plangintza-aldaketarekin amaitzen da. 1981etik 1987rako urte hauetan Itzultzaile Eskola Euskaltzaindiaren eskuetatik Eusko Jaurlaritzarenera aldatzen da, baina behar adinako bermerik eta etorkizunari buruzko argikuspenik gabe. Ondorioz Martuteneko Lanbide-Eskolan lortzen du egoitza Eusko Jaurlaritzaren eskaintzaz baina ordurako gauzatua zuen Eskola-proiektua ez da sendotzen diru-laguntzak FP 2aren moduluen arabera eskaintzen zaizkiolarik eta aurrez diseinaturik zegoen Eskola-proiektuak arazo ekonomiko larriak pairatzen hasten da, gobernu aldaketa bat tarteko den bitartean. Egoera hau nolabait gerora konponduko zen uste ustelak Eskolaren proiektu garatu bat aurrera eramatera adoretu zuen zuzendaritza eta irakasle-goa, baina azkenean Administrazioarekiko tirandura eta arazo ugari-oren ondoren, hasierako promozioak prestatu zituen plana desegin eta urteroko plan xumeago eta apalago batzuk egitera behartu zuten Eskola. Hasieran arazo ekonomikoa zen hau, titulazio bat ikasleentzat lortzeak ageri zituen eragozpen akademikoekin elkartzeak, beste bide batzuetatik aurrera jotzea gomendatu zuten.

SENEZ aldizkariaren 1. zenbakian (1984) Koro Navarrok, garai hartan Eskolako Irakasle eta Ikasketaburu zenak, ia bost urtetako esperientziaren balorapen bat eginez dio "*gure (Eskolaren) lana baldintzatzen duten faktore soziolinguistikoak azpimarratu behar direla uste dugu:*

- *Itzulpen-teoriak eta praktikaren ezagupen sistematizatu eta didaktizatu batek zeresan eta garrantzi handia du gaurregu-neko euskara eta euskal kulturaren egoeran eta beraien garapenean, komunikabideei eta irakaskuntzari dagokienean batipat.*
- *Hala eta guztiz ere, lanpostu gutxi daude itzultzaile profesionalentzat eta dagoeneko jende gazte samarrez beteak gehientsuenak.*

Beraz ez dugu uste Itzultzaile Eskolak urtero profesional kopuru jakin bat (hogeiren bat pertsona urteko) merkaturatuko dituen ira-

kastegi soil eta komentzionala izan behar duenik. Aitzitik, langune ezberdinetan barreiatu beharko lituzke bere indarrak, eta itzulpenarekin zerikusia duen guztiaren zentru dinamizatzaile izan beharko luke. Honek suposatzen du: a) Eskola ez dela mugatu behar goizetako kurtsuok egitera; b) bestelako lan motak ere bere gain hartu behar dituela. Honen ondorioz matrikulatze-epaia bi urtez behin irekitzea erabaki zen, horrela asti gehiago sor zedin laneko profesionalak birprestatzeko, itzulpen teoria eta praktikaren ikerketa aurrera eramateko eta aldizkaria eta argitalpenak bultzatzeko”.

Lehenago esan denez, Eskolaren Proiektu garatua (bost irakasle eta hiru ikasturteko promozioena, ingelesa barne zuela eta interpretaritze lantzeko oinagituraren bila zebilena) bertan behera geratu zen, zeren Eskolak aspaldidanik arrastaka zekarren zorra arintzeko gaztelania eta linguistika, euskara eta ingelesa irakasten zuten irakasleak alde egin beharrean aurkitu bait ziren eta Eskolan geratu ziren bi irakasleak (itzulpen-teoria eta praktika irakasten zutenak) beste proiektu bat diseinatu eta gauzatu beharrean aurkitu ziren, Eskola erabat desagertzea nahi izan ezik behintzat.

Birprestakuntza ikastaldiak

Gorago aipatu denez, lanean ari ziren profesionalengandik atergabe Eskolara iristen ziren eskariei erantzunez, aste burutako ikastaldi bereziak sortu zituen maila ezberdinetan sailkatuak eta urte batean baita arratseko eta aste barruko ikastaldiak ere. Saio hauetan goizeko ikasturte arautuetan ematen zenaren laburbilduma bat ematen zen teoria eta praktika modu orekatu batean uztartuz, eta berrietako ikasleekin sortzen zen harreman eta eztabida oso fruitukorra gertatzen zenbait kasutan irakaslegoaren teorizazioak eta eguneroko praktikan sortzen zen kasuistika eta arazoen artean zubigintza egiten laguntzen zutelako. Ikastaldi hauen bitartez gaur egun administrazioan, komunikabideetan eta beste alor batzutan lanean ari diren itzultzaile askorengana iristea, traduktologiaren berri ematea eta gerora EIZIE sortzeko beharrezko izan den legamia itzultzaile orotan sarreraztea lortu delakoan gaude. Jarduera honetan laguntza

handiko gertatu da gorago aipatu den eta Eskolak sortu zuen *SENEZ* Itzulpen eta Terminologiazko aldizkaria argitaratzea ere, berau izan baita euskal itzultzaileen artean itzulpen arazoak, bibliografia eta kontzientzia profesionala hedatzen ahalegindu den bitarteko bakarra.

Idazketa eta Itzulpen-Ikasturteak

Azken bi urte hauetan -1988 eta 1989an- goizero lau orduz bi irakaslerekin Eskolak banatu duen eta banatzen duen irakaskuntzak goiko izenburu horri erantzun nahi dio, nahiz eta itzulpenari dagokion alderdiak pisu espezifiko handiagoa izan idazketa soilarenak baino.

Itzultzailea funtsean “irakurle ona eta erredaktatzaile ona” delakoan oinarriturik, alde batetik, eta gaurko lanpostu askotan itzultzaile profesionala adina testu-erredaktatzaileak ere behar direlakoetik abiatuz, bestetik, ikasturtearen lehen hiruhilekoa hizkuntz-eredua, erretorika-estilistika, kazetaritza, diskurtsuaren analisisa eta abar bezalako gaiak lantzetik hasten da. Sarrera luze honen helburua euskara sakontzea eta aberastea da eta idazketaren hasi-masiak gaingiroki bederen aztertzea. Baina guzti hau euskalki ezberdinetako testuak eta gaur eguneko lexikogintza aztertzen den bitartean burutzen da.

Hizkuntza arrotzei dagokienez, ingeles eta frantsesezko testuetatik zuzenean itzulpenak burutzeko gaitasuna duten ikasleekin astero zuzenketa-mintegiak antolatzen dira.

Ondorengo bi hiruhilekoetan itzulpen teoria eta praktika soilera mugatzen da irakaskuntza, nahiz eta aurretik ere zenbait testu itzul-tzen eta konparatzen ari izan ikasleak. Hizkuntza eta idazketari buruzko sarreraren ondoren, ikasturtearen gainerakoa testu pragmatiko eta literario mailakatuak itzultzeak eta zuzentzeak hartzen du denborarik gehiena.

Itzulpen-teoriari dagokionez, Eskolak aurreko urteetan zehar osatu zuen liburutegia bereziari esker, azken hamarkadetan mundu-

mailan nabarmendu diren traduktologi eskola ezberdinei buruzko informazioa banatzea izaten da helburua. Honetarako sarrera historiko bat egitetik hasten da: historiaurreko interpretaritzza, protohistoria, greko-erromatarak, Bibliaren itzulpengintza, Erdi Aroko itzulpengintza, Errenazimendua eta itzulpenaren berrikuntza, "Les belles Infidèles" eta Klasizismoa, Erromantizismoa, XX mendea eta Euskal Herriko Itzulpengintza gai nagusi direlarik.

Itzulpen-teoriari dagokionez, oinarrizko alderdiak eta itzultzailearen prestakuntza bezalako gaiak jorratu ondoren, bereiziki XX mendearen azken hamarkadetan nagusitu diren traduktologo eta eskolen berri laburra ematen da, besteak beste, **Kloepfer, Levy, Jumpelt, Vinay-Darbelnet, Seleskovitch, Catford, Nida-Taber, Kade, Neubert, Reiss, Koller, Vermeer, Fedorov, Komissarov, Ljudskanov** eta abarren ekarpen nagusien berri ematen delarik.

Sistematizazio ahalegin bat eginez, itzulpen-zientziaren objektua, egitekoak eta egitura, itzulpen definizioaren definizioak eta ereduak eta azkenik, itzulgarritasuna eta itzultze-prozedurak bezalako gaiak ere lantzen dira. Azken gai honetan, itzulgarritasuna ikuspuntu filosofiko-linguistikotik aztertu eta Itzulezintasunaren kritika eta Itzulgarritasunaren oinarritzapena egin ondoren, Itzulpen-korrespondentzien sailera jotzen da, puntu honetan hizkuntzalaritzza kontrastiboaren eremuan sartuz. Ondoren dimentsio konnotatibo eta estilistikoak, hizkuntz jokua eta forma literario eta estetikoen itzulpenaren gaiak ematen zaio amaiera gaiari.

Prozesu guzti honetan, bai idazketa eta bai traduktologiari dagokionez, garrantzi berezia ematen zaio ikaslea eta bibliografiaren artean zubia egiteari, izan ere gaztelania eta euskaraz aparte beste hizkuntzaren bateko testuak irakurtzeko aukerarik ez duena informazio mugatu samarrarekin gelditzeko arriskua bait du. Itzultzaile-Eskolak, une honetan zuzenean edo zeharka traduktologiarekin zerikusi estua duten ehunen bat obra eta aldizkari dauzka bere liburutegian eta titulu-kopuru handiegia ez bada ere gai honetan gero eta handiagoa den bibliografiaren hedadurarako, traduktologo ingeles, frantses, alemaniar, espainiar eta sobietar garrantzitsuenei bu-

ruzko informazioa badu, eta **Babel, Meta, Contrastes, Cuadernos de Traducción** eta abar ere hartzen ditu. Halaber, euskarazko eta hizkuntza nagusienetako hiztegi kopuru garrantzitsua izatea lortu du azken boladan eta une honetan banatzen ari den irakaskuntzaren premiak duinki asetzeko eran dagoela esan daiteke.

Azken ondorio gisa

Azken hamar urteotako esperientziaren argi-ilunen berri ematen hasiz gero, lehenengo eta behin hasiera batean amets egindako gailur eta sakonera guztiak ez lortu izana aipatzetik hasi beharko genuke. Baina itzulpenaren didaktika egunean egunean hainbeste urtez irakasten ari izanak “linguistizismo” eta “filologismo” antzuegiak gainditzen eta berauek sarritan ikaslearen buruetan ezarri dituzten eske-ma zurrune-giak malgutzeko estilistika funtzionala, diskurtsuaren analisia eta hizkuntz erabilearen attergabeko azterketa eta baloraketa zeinen ezinbestekoak diren ikustea jotzen dut ekarpen nagusientzat.

Linguistika kontrastiboaren bidetik, euskara eta beste hizkuntzen arteko ikerketa gehienak egiteke daude —Vinay-Darbelenet ingele-sa eta frantsesaren artean, edo Malblanc-ek frantsesa eta alemanie-raren artean egindakoak datozkit burura— eta inguruko erdara na-gusien eta euskararen arteko hizte-girik eta gramatkarik ez izateak asko zailtzen du euskal itzultzailearen prestakuntza ezezik egunero-ko lana ere. Bestalde, euskarazko gramatika eta hiztegi arauemaile bururatuak ez izatea ere eragozpen handia izan da gure lanean.

Baina eskasiak eta eragozpen guztiak gorabehera, eta komunika-bideetako euskarak, onean zein txarrean, daraman abiadura zorabia-razlearekin, ikasle eta profesional multzo bati gogoetagaia eta lane-rako abiapuntu batzuk ezartzeko modua izan dugulakoan nago. Eta azken finean, horixe da edozein eskolak bere buruari opa liezaio-keena: eskolarik hoberena den eguneroko lana burutuz attergabe bere burua birprestatuz eta birmoldatuz aurrera joateko gaitasuna izateko lehen urratsak ematen laguntzea.

X. Mendiguren

SINTEISIS

Los estudios de Traductor de Euskara: análisis de una década

Hace diez años, Euskaltzaindia (Academia de la Lengua Vasca) me pidió que llevara a cabo la creación y puesta en marcha de lo que luego se conocería como Escuela de Traductores de Martutene. Para ello, elaboré en primer lugar un dossier-anteproyecto, publicado por la revista "Euskara" (28-3-1980). Una vez publicado el proyecto, y tras el estudio de las diversas Escuelas de Traducción e Interpretación de Europa, se dan los primeros pasos para la puesta en marcha de la Escuela. Hay que señalar que esto ocurre en el contexto de una lengua en fase de normalización y unificación, lo que influye decididamente en el mundo de la traducción vasca; por ello, la labor de normalización en las diversas ramas de la ciencia y el saber es fundamental en el desarrollo de los estudios de traducción.

Así, en 1980 nace el EIOPE ("Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola", Escuela para la Preparación Básica de Traductores Vascos). Aunque al principio dependía de Euskaltzaindia, entre 1980-1987 pasa a las manos del Gobierno Vasco, y se sitúa en Martutene, dentro de las dependencias de una Escuela de Formación Profesional. Entre los planes de la Escuela, además de la enseñanza convencional (que se fijó por tres años), estaba también el proyecto de llevar adelante planes de investigación, publicación de textos y bibliografía (se publicaron 4 libros, y nació esta revista, SENEZ), extensión de la escuela a Bilbao, creación de seminarios de traducción del inglés y del francés, cursillos intensivos de reciclaje, etc.

El paso al Gobierno Vasco se hizo sin embargo sin la debida estructuración y sin una clara de visión de futuro; así, tras la salida de cuatro promociones, los problemas económicos y la falta de titulación académica hacen que el proyecto desarrollado de la escuela desaparezca; de cinco, quedan sólo dos profesores que se ven forzados, si la Escuela no va a desaparecer, a diseñar otro proyecto más sencillo y menos ambicioso.

Así, en los años 88-89 comienzan los "Cursos de redacción e interpretación". Partiendo de que el traductor es "buen lector y buen redactor", y de que hoy en día, y más en nuestro contexto, la figura del corrector es tan importante como la del traductor, se organizan cursos intensivos de duración anual, que tienen, por un lado, la finalidad de profundizar y enriquecer el euskara, y, por otro, en lo que respecta a la traducción, se tiene en cuenta tanto la teoría como la práctica, se lleva a cabo la comparación de textos, y se insiste en el conocimiento por parte de los alumnos de la bibliografía referente a tema que la escuela ha reunido durante estos años.

Para terminar, si bien no se han alcanzado los objetivos soñados al principio, debido a los problemas antes apuntados, diremos que como logro importante está el hecho de haber superado un "lingüisticismo" y "filologismo" estériles, para dar paso a la estilística funcional, al análisis del discurso y a la crítica continua del uso de la lengua.

SYNTHESIS

Basque Translators Studies: The Analysis of a Decade

Ten years ago, Euskaltzaindia (The Basque Language Academy) asked me to carry out the task of creating and put into motion what would later become known as the Martutene Translators School. For this reason, at first I elaborated a dossier-preliminary sketch, published in the magazine *Euskara* (28-3-80). Once the sketch was published, and after studying the different Translation and Interpretation Schools of Europe, the first steps are taken to put the Martutene School in motion. We must point out that this occurs in the context of a language in periods of standardization and unification, which decidedly affects the world of Basque Translation; the work of standardization in the different branches of science, and knowledge is fundamental in the development of the translation studies.

This way, in 1980 EIOPE ('Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola', 'Basic Training School for Basque Translators'). Although in the beginning it was dependant on Euskaltzaindia, between the years 1980-1982 it passes into the hands of the Basque Government, it is situated in Martutene, within the premises of a Professional Training School. Within the schools plans, apart from conventional teaching (established for three years) was also included the project of carrying out investigation plans, the publication of texts and bibliographies (4 books were published, and the magazine *Senez* came out), the extension of the school to Bilbao, the creation of seminars of Translation from English and French, short intensive courses on retraining, etc.

When it was taken over by the Basque Government this was done with the necessary structure and without a clear view of the future; after four classes come out, the economic problems, the lack of an academic qualification make the developed sector disappear; of the five original teachers there are only two left, if the school is not to disappear, the designing of a simpler and less ambitious project is needed.

In the years 88-89 the courses on writing and interpretation. From the basis that a translator is 'a good reader and a good writer', and that nowadays, and more in our context, the figure of a proof reader is as important as that of a translator, 1 year intensive courses are organized; they have, on the one hand, the purpose of delving into Basque language, and on the other hand, with respect to translations theory and practice are brought into account. The commentary of texts is carried out, and the students' knowledge is developed. They must also have knowledge of the bibliography in reference to the theme that the school has put together over the years.

Lastly, although the initial aims have not been reached at the beginning, due to the aforementioned problems, we will say that an important achievement is the fact of having surpassed a futile 'linguisticism' and 'philologicism', giving way to the functional stylistic, to the analysis of speech, and the continuous criticism of the use of the language.

Martuteneko Itzultzaile Eskolaren ibilbide historikoa: sorrera, emandako pausoak eta gaurko egoera

Joseba Urzelai
Lurdes Auzmendi

Sarrera

1980ko udazkenean ireki zituen ateak Donostiako Itzultzaile-Eskolak, Euskaltzaindiaren eskutik. Hasieran, Itzultzaile-Eskolaren jardun eremua itzulpen arruntak egiten irakastera, itzulpen espezializatuak aurrez behar duen kultura orokor mailako itzultzaile prestakuntza eskaintzera mugatu zen. Honela geratu zen finkaturik EIO-PE (Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola) deituaren helburu nagusia: *“Euskara eta gaztelaniazko hizkuntz ezagupenak eta literatur historiak, autoreen obrak aztertu eta sakonduz testu pragmatiko eta literario orokorrak bi zentzutan idatziz itzultzeko gaitasuna ikasleei eskuratzea”*. Helburu hauek betetzeko ahalginean jardun ondoren, lau promozio atera dira Donostiako Eskolatik, lau promozio normalizatu eta bat plangintza erabat desberdinekoa.

Emandako pausoak

Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren Arbideko Dorreetako batean ireki zituen ateak Itzultzaile Eskolak. Lehenengo ikastur-

te honetan 30 ikasle matrikulatu ziren eta hauen ezaugarriarik nagusienak aipatzekotan, zera azpimarratuko genuke, alde batetik adina, batez beste 30 urteko jendea zen; bestetik, euskararen irakaskuntzan edo hizkuntzarekin zerikusia zuten lanetan arituak ziren edo ari ziren.

Eskolak markatuak zituen helburuak betetzeko lehen ikasturtean teoria eta praktika mailako asignatura ugari eman ziren, hala nola Itzulpenaren Teoria eta Historia, Linguistika, Gaztelania, Euskara, etab. Helburua garbi zegoen, hain garbi ez zegoena helburua lortzeko jarraitu beharreko bide pedagogikoa zen. Zaparrada baten modura bota zitzaaien ikasleei kontzeptu eta informazio mordoa eta guzti hauek asimilatzea lan eskerga zen ikasleentzat, hauek itzulpen ikasketei buruzko aurrizki bat bazuten eta zaila gertatzen zen teoria praktikarekin lotzea. Hizkuntzaren, hots euskararen normalizazio ezetik sortzen ziren eztabaidarik gehienak itzulpenaren muinean sartzeko bideak oztopatuz. Esan daiteke, orohar norberak zuen esperientzia autodidaktak baldintzatu zuela neurri handi batean ikasturtearen martxa. Promozio honek (1980-1982), bigarren eta azken ikasturtea praktikak egitera bideratu nahi izan zuen, baina talde lan gutxi egin zen eta ondorioz ikasleek behar zuten adinako etekinik ez zuten atera. Gainera kontutan izan behar da lehenengo promozioak bigarren ikasturtea hastearekin batera bigarren promozioak hasi zituela bere ikasketak eta Eskolaren azpiegiturak, irakasleen esperientziak eta ikasleen dedikazio mailak baldintzaturik gehiago egitea zail egiten zuten.

1981ean hasi zituen beraz ikasketak bigarren promozioak (1981-1984) eta egoitza berria estrenatu zuen —Martuteneko Lanbide Eskola. Irakasleek ikusi zuten lehenengo promozioak ez zituela eman nahi ziren fruituak eta ikasketa plan berri bati ekin zioten. Bi urteko ikasketak hirura pasatu ziren eta ondorioz ikasgai edo asignaturak gehitzea eta hauei denbora gehiago eskaintzea erabaki zen.

Promozio honetako ikasleen artean beti eduki genuen eskola-laborategi batean aurkitzen ginenaren sentsazioa; irakasleak esperimentatzean, bidea egiten ari ziren eta ikasleak, gazteagoak eta hizkuntzarekiko jarrera desberdinagoak zituztenak, ikasketen aurrean

beste planteamendu batzuk azaltzen genituen: zerresan handirik ez eta irakasleek ematen zigutena jasotzera gindoazen. Denborak erakutsi digu agian esperientzia hau ez zela hain negatiboa izan, baina garai hartan mesfidantza eta ezinegon ugari sortzen zizkigun.

Bigarren eta hirugarren promozioetan (1983-1986) ikasgai berdinak eman ziren:

Lehenengo ikasturtea.— Ingelesa, Gaztelania, Euskara, Itzulpen Teoria, Itzulpen Historia eta Itzulpen Praktikak.

Bigarren ikasturtea.— Ingelesa, Euskara, Literatura (teoria eta praktika), Itzulpen Teoria, Itzulpen Praktika eta Itzulpen Historia.

Hirugarren ikasturtea.— Ingelesa, Euskal Literatura, Erdal Literatura eta Itzulpen Praktika.

Itzulpen konparaketa, hizkuntz sakonketa eta beste gai batzuk ere tartekatzen ziren ikasketa hauetan. Programa zabala zen, ezin zitekeen bestelakoa izan Euskal Herrian hastapenetan aurkitzen zen Itzulpen Ikasketentzat.

Eskolaren bigarren, hirugarren eta laugarren promozioa (1985-1988) izan dira normalizatuena eta orohar, bizi izan dituzten arazoak ere berdintsuak izan dira. Hiru bloke nagusitan bildu daitezke hauek.

Eskolaren azpiegitura.— Esan dugu Eskola 1981-1982 ikasturtean Martutenera pasatu zela. Lanbide Heziketa Eskola honetan hiru gela utzi zitzaion Itzultzaile Eskolari eta egoitzaren baldintzak negargarriak ziren: zaharkitua, zikina, hotza, etengabe obretan, hitz batean, ikasteko militantzia maila handia behar zen. Piskanaka baldintza orokorrak hobetzen joan ziren, halere ikasleek behar zuten askatasun eta giroa lortzeko motz geratu ziren. Ez dugu esango gaurko egoera hoberena denik, ezta ere Lanbide Heziketarako proposenak ez denik ere, baina garbi dago itzulpen ikasketak burutzeko baldintzak ez direla txapistak prestatzeko behar diren berdinak.

Beste maila bateko azpiegiturara pasatuz, liburutegiari dagokionez esan behar da Eskolak zituen bitarteko apurrak ongi erabili zirela eta liburu mordo bat bazegoela, aldizkari, hiztegi eta antzekoz hornitua. Bestalde, Eskolak irakasleei eman zien esperientziari eta hauen ahalegin txalogarriari esker zenbait testu liburu ere argitaratu ziren (*Itzulpenaren Teoria eta Historia, Linguistika, Itzulpen gaiak*) eta lehenago genion bezala, laborategiko esperientzietatik gauza positiborik atera zen beraz.

Eskolaren egoera ekonomikoa.— Irakasleen lan baldintzak ere aipatu beharrekoak dira. Haseran puntualki ordaintzen bazitzaien ere, gerora arazo ugari izaten zituzten garaiz kobratzeko, askotan hilabete askoren atzerapenarekin soldata jasoaz eta honek, bistakoa den bezala, seguritate falta ikaragarria sortzen zuen irakasleen artean. Ondorioz, Eskolari ezin zioten erabateko dedikaziorik eskaini eta gainera esan behar da arazo ekonomikoak Eskolaren martxa orokorrean eragiten zuela, askotan egon bait zen Eskola itxi behar-ko ote zenaren ikara; gaur oraindik Eskolaren etorkizuna ez da ezagutzen, urtez urte proiektua egin behar izaten delarik.

Itzultzaile titulua.— Hiru urteko ikasketak gorpuztu zirenean, ikusirik Euskal Herrian itzultzaileen premia gehitzen zihoala eta Eskolan ikasketak burututa izateak halako errekonozimendu instituzional eta sozial bat bazuela, bai irakasleek eta bai ikasleek erabat beharrezkotzat jotzen genuen ikasketen ondoriozko titulua izatea. Tituluaren arazo honek urte ezberdinetan eztabaida eta azterketa berdinak sortarazten zituen, Magisteritzaren pareko titulua eskatzen zen, noizbait Lanbide Heziketako goi mailakoa emango zitzaigula esan zitzaigun eta azkenean ez genuen lortu ez bata eta ez bestea. Ikasketak amaitu ondoren besapean ziurtagiri bat genuela atera ginen, ziurtagiri honek balio akademikorik ez du, baina halere esan behar da Euskal Herrian lizentziatura izatea modan jarri zen arte zenbait lanpostutara aurkezteko eta gainera lanpostua lortzeko merituen artean aintzakotzat hartua izaten zela.

Gaurko egoera eta ondorioak

Eskola ofizialki errekonozitua izateko aukera eta esperantza guztiak galdutzat eman ondoren, honek beste errekonbertsio bat

bizi izan zuen. Laugarren promozioaren bigarren ikasturterako bi irakasle bakarrik geratu ziren eta 88-89 ikasturtea planteamendu erabat berri batekin hasi zen.

Bosgarren promozioa sartu zenerako Eskolak erabakita zeukan urtebeteko ikastaroa emango zuela promozio bakoitzarentzat eta berziklaketa antzeko lanak egitera bideratu nahi zen. 40 ikasle matrikulatu ziren, gehienak Magisteritza edo beste ikasketa batzuk burutuak. 89-90 ikasturte honetan planteamendu berdinarekin jarraitzen da eta etorkizunari begira ez da ezer ezagutzen.

Orain arte arazoak aipatu ditugu. Baina esan beharra dago emaitza ugari izan dituela eta hauek gainera oso positibotzat jotzen ditugula eta jotzen direla.

Euskal Herrian itzulpengintza hedatzen hasi zen urte haietan Eskolak irakasle eta ikasleen bidez lan handia egin zuen eta hau bi mailatan, alde batetik ikasleak itzulpengintza jardunera hurbilduz eta oinarrizko baina aldi berean funtsezko prestaketa sakon bat emanez, eta hemen irakasleek beraiek eskuratu duten praktika eta eguneroko jardunak eman dien ahalmena itzulpenaren inguruko arazo berrietaz jabetzeko ere sartu behar da; eta bestetik, Eskolari esker euskal itzulpengintzaren azterketa bereziki eta itzulpenarena orohar seriooki planteiatu da eta gaur egun aportazio serioak egin daitezke itzulpengintzaz eta honek beharko lukeen ikasketa jardunaz. Eskolari esker euskal itzultzaileen arteko harremanak hasi eta sendotzeko bidean daude, ezin bait da ahaztu Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartearen ardura Eskolako irakasleena izan zela. Euskal Instituzioek ez ezik Estatukoek ere aintzakotzat hartu beharko lukete Eskola honen esperientzia aurretzean Itzulpen Ikasketen inguruan eman nahi diren pausoak aztertzeko orduan. Hala gerta dadila.

SINTESIS

Trayectoria histórica de la Escuela de Traductores de Martutene: Creación, pasos dados y situación actual

La escuela de Traductores de Donostia abrió sus puertas en 1980, dependiente de la Academia de la Lengua Vasca. En un principio, se limitó a la traducción de textos de cultura general, traducción previa a cualquier especialización.

De la primera promoción (1980-1981), se puede decir que fue experimental. Por ser la primera, tanto para alumnos como para profesores, y además porque, entre otras razones, las discusiones en torno al euskara mismo —en torno a la unificación y normalización del euskara—, impidieron muchas veces el poder abordar directamente la traducción.

Con la segunda promoción, la escuela tiene ya unos locales definitivos en la Escuela Profesional de Martutene; con la experiencia del año anterior, se amplía la duración de los estudios a tres años y se reestructura el plan de estudios. Poco a poco, y aunque entre los alumnos existe la sensación de formar parte de un laboratorio, la situación se va normalizando. Subsisten sin embargo muchos problemas: a) de infraestructura. En efecto, los locales están en un estado lamentable, lo que no propicia el ambiente de estudio. Aquí hay que destacar sin embargo la biblioteca de la Escuela, en la que se invirtió con acierto. Añadiremos también que la Escuela misma, con gran esfuerzo por parte de los profesores, publicó varios títulos en los años 82-86. b) problemas económicos. En algunos momentos fueron muy graves, e impidieron la marcha normal de la Escuela. Aún hoy tiene un futuro incierto. c) titulación. Dado que la necesidad de traductores de euskara iba en aumento, y que la Escuela comenzaba a adquirir cierto prestigio, era necesaria la institución de un título con valor académico. Se pedía un título similar al de magisterio, y el Departamento de Educación del Gobierno Vasco ofreció el título superior de Educación Profesional. Al final, no se logró ni lo uno ni lo otro. Pero hay que decir que el título de Martutene, aun sin validez académica, comenzó a contarse como mérito a la hora de acceder a ciertos puestos de trabajo.

Una vez que la Escuela perdió toda esperanza de reconocimiento oficial, hubo que hacer una reestructuración. Con sólo dos profesores, en 1988 y 1989 se organizan nuevos cursos de duración anual, y cuyo contenido se centra más bien en el reciclaje.

Como conclusión, diremos que la escuela ha dado muchos frutos, que consideramos y se consideran muy positivos: primero, en ella se lleva a cabo por primera vez una reflexión profunda sobre los problemas de la traducción en euskara. Y, gracias a ella, se han estrechado las relaciones entre los traductores euskaldunes; en efecto, la creación del EIZIE (Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes del País Vasco) ha sido labor de los profesores de la Escuela de Martutene.

SYNTHESIS

The Historic Evolution of the Martutene Translator School: Begining, Steps Taken, Present Situation

The Donostia Translators School opened its doors in 1980, supported by The Basque Language Academy. In the begining, it was limited to translating general culture texts, prior to any specialized translation.

Yo could say that the first year (1980-1981) was experimental. As being the first, as much for the students as for the teachers, and, among other reasons, the discussions about the Basque itself—about unity and standardization of Basque—often impeded the possibility of confronting translation directly.

*With the second year, the school aquired premises within the Martutene Professional School, with the previous years experience, the study period was extended to three years and the syllabus was revised, little by little, an although among the students there is a feeling of being part of a laboratory, the situation is settling down. There are many problems that still exist: a) **The infrastructure**, in fact the premises are in a deplorable state, which does not favour a good atmosphere to study in. Although here we can point out the school library was provided for wisely. We can also add that the school itself, with great effort and behalf of the teachers, published various books in the years 82-86. b) **Financial problems**. At certain times they were very serious, and hindered the normal running of the school. The future is still uncertain. c) **Qualifications given**. As the need for Basque translators was rising, and as the school quired a goog name, it was necessary to establish a qualification with academic value. Something similar to teaching was demanded, the Department of Education of the Basque Government offered The Higher Qualification of Professional Education. In the end neither were obtained. But we must say that the Martutene qualification although without academic value, is begining to be taken into account when trying to get certain jobs.*

Once the school had lost all hope of official recognition, reorganization was necessary. With only two teachers, new one year corses wew formed, dealing mainly with retraining.

As a conclusion we can say that the school has given many benefits, which we consider and are considered by others as very positive: basically here the first serious thinking on the problems of the translation of basque was done, and thanks to this, the relationship between Basque translators have become closer. To this effect the creation of EIZIE (The Association of Translator, Proof-readers and Interpreters of the Basque Country) has been the work of the teachers from the Martutene School.

Euskal itzulpengintzaren gaurko egoera*

80-88 arteko bilakaera eta ondoriozko premiak

Espainiako Estatuan eta ondorioz Euskal Herrian ere aldaketa politiko handiak bizi izan dira azken urte hauetan, bereziki hamarkadaren ateetan. 1978 urtean onartu zen Autonomi Estatutuak euskara hizkuntza ofizialtzat hartzen du euskara, eta euskararen normalkuntzarako prozesuaren pauso handitzat jo behar da hau.

Hala ere euskal itzulpengintzak, orohar, ez du bere prozesuan, eta beti itzulzaileen ikuspegitik, oso aldaketa nabaririk izan. Itzulzaileak oso ugalduta dira, hori bai, baina itzulpenaren hedaketak ez du maila gehienetan beharrezko sakontze eta indartzerik ekarri.

Esan daiteke aldaketa politikoak euskara gehiago erabiltzera eramane gaituela, eta ondorioz gehiago itzultzera. Ondoren aipatzen diren prozesuak izan dira itzulpengintza hedatu arazi dutenak.

* Dokumentu hau EIZIE Elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Kulut Zuzendaritzari euskal itzulpengintzaren egoerari buruz bidalitako txostenaren zatia zen. Itzulzaileentzat gogoetagai izateko balio duela uste dugu. Z.O.

- * Irakaskuntza.— Ikastolez gain irakaskuntza publikoak eta unibertsitateak euskarazko irakaskuntzan premia berriak sortzen dituzte, euskaraz irakatsi beharrak, testu liburuak euskaraz eskaini beharra dakar, eta testu liburu asko sortu egin badira ere, beste asko eta asko itzuli behar izan dira.
- * Administrazioa.— Euskal Herriko asministrazioek barne funtzionamendu eta herritarrekiko harremanetarako euskalduntze prozesuari ekin behar izan diote, eta honetarako administrazioan euskara idatzi mailan menderatzen zutenak oso gutxi zirenez, ez direnez askoz gehiago gaur egun, itzultzaileez baliatu behar izaten dute.
- * Komunikabideak.— Euskal Telebistak, Euskadi Irratiak eta zenbait egunkarik beren jaiotzarekin itzultzaileen premia ekarri dute. Informazioa, filmeak, dokumentalak eta abar gaztelaniaz nahiz atzerriko beste erdara batzutan iristen dira langilearen eskuetara. Hemen ere beraz, itzulpenaz baliatu behar izaten da ikusle-irakurle-entzuleei eskaini nahi zain informazioa prestatzeko.
- * Interpretaritza.— Euskarak lekutxo bat hartua du dagoeneko, geroz eta gehiagora doana, hainbat mediotan izaten den komunikazio eleaniztunaren praktikan: Komunikabide, batzar, bilera, etab. Administrazioa izan da interpretaritzazko itzulpen-modu honez baliatzen hasi den lehena. Gaur egun ordea, administrazioaren mugak aspaldi eta neurri handian gainditurik, geroz eta sarriago egiten dute interpretaritza, iharduera horretan espezializatu diren itzultzaileek.

Literatur itzulpena ere aurreko atal horien artean sartzeko baldintzetan egotea komeniko litzateke, baina itzulpen literarioan hankamotz baldar eta esperantzaren hegalpean jarraitu beharra dugu, literatur itzulpena baldintzatzen duen merkatuzko dinamikak ez bait du uzten, gaur den egunean, bestelako animotarako betarik.

Beraz, urte gutxiren buruan, itzultzaile lanpostu ugari sortu da, eta ezer gutxi itzultzetik, asko itzultzera iritsi gara. Hala ere, ga-

rrantzia eta munta handiko gabeziak ditugu oraindik ere gure aldean: itzultzailearen prestakuntza motza, hizkuntzaren beraren ahulezia, itzulpenak gure herrian duen eginkizuna ulerturik behar lukeenaren aldetiko inbertsio politika urria, eta koordinazio laburra, hitz batean laburtuz itzulpen politika garaturik ez edukitzea.

Itzultzaileen iritziak. Bi inkesta eta Itzultzaileen Elkar-tearen datuak

Euskal itzulpenaren mendez mendeko ikuspegi orokorra ematerakoan aipatu da 1980an euskal itzultzaileen artean egin zen inkesta bat (Ikus **Euskera** - XXVI (2. aldia)). Handik sei urtera, 1986an beste inkesta bat egiten da euskal itzultzaileen artean (Ikus **Senez**, 3. urtea, 1 zkia.). 1988ko urtarrilean Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarte sortu zen. Hiru datu iturri handion konparaketaz baliatuko gara euskal itzulpengintzaren eta itzultzaileen bilakaera aztertzeko.

Inkesten emaitza kontrastatuak

- a) Itzultzaileen datu soziologikoetatik abiatuak lehenik eta adinari bagagozkio, gaztetasuna behar da azpimarratu. 1980an %75a 26-45 urte artean zegoen, 86an %50 22-32 urte artean eta gaur egun Itzultzaileen Elkarteko bazkideen gehiengoak 28-30 urte ditu.

Bi ondorio atera litezke datu soil horietatik:

- 1.-Lehenik, Euskal itzulpengintzak ez du profesionalizatzeko betarik eta aukerarik eman orain arte. Itzulpenean aritu izan direnak, itzulpengintza utzirik, beste lanetara bideratu dira adin batera iristean, eta gutxik jarraitu izan dute lanbide horretan.
- 2.-Oso denbora laburrean itzultzaile lanpostu berri asko sorturik, lanpostu horietan itzultzaile berri-berriak jarri dira, beren ofizioaren ikasketarik gabeak (ikasketa formalak, estudioz

eginak, nahiz formalizatu gabeak, “eskarmentuak” ematen duen ikasketa modua). Honek, aldi berean, “ofizioaren” transmisioa eragotzi du.

- b) Jatorriari dagokionez ere ez da aldaketa nabaririk antzematzen. Hirutik bi gipuzkoarrak dira, nahiz eta gaur egun bai Bizkaian eta bai Araban ere itzultzaile mordo bat egon. Nafarroan bereziki Iruñean, Administrazio alorrean badira hamarren bat itzultzaile, eta Ipar Euskadin lehenagotik dauden hiruzpalau itzultzaileez gain beste sei-zazpiren bat bada lan honetan diharduena.
- c) Itzultzaileen ikasketa maila igo egin da 80ko datuekin konparatzen baldin bada. Orain dela 8 urte %70ak zuen unibertsitate edo gisako titulua (Seminarioetakoa, normalean). Gaur egun berriz, %70-75 artean kokatu behar da portzentaia hori. Tituluei dagokienez, Euskal Filologia, Irakasle Ikasketak eta nagusiki Giza Zientzien alorretako ikasketak dituzte itzultzaileek. Euskal itzultzaile tipoaren dibertsifikazioa gehituz doa, ikusten den bezala, hasieran aski homogenea zena.
- d) Hona hemen, eta sarreran ere esaten zena frogatuz, itzultzaileen lanbide banaketa:

1980	1986	Gaur egun
%46,6 itzultzaile lanak	%84,21 itzultzaile lanak	%88 itzultzaile lanak
%30 Udaletxeetan	%50,87 Administrazioan	%55,4 Administrazioan
%26,6 UZEIn	%36,84 Komunikabideak	%40,60 Komunikabideak %4 interpretariak

Hemen ez da ageri irakaskuntzaren alorra, irakaskuntzarako egiten diren itzulpen gehienak irakasle lanbidea dutenek edo UZEI, Elhuyar eta gisako zerbitzuek egiten dituztelako. Bestalde literatur itzulpenak ez du ematen horretatik bizimodua

ateratzekorik, eta beste era askotako itzulpenak eginez edo beste lanbideren batez batera behar du itzultzaileak bere bizi-modua.

- e) Hizkuntz ezaguera mailan, berriz, Europako hizkuntza batzuren gorakada nabari da. Itzultzaile gehienek, guztiek ez esateagatik, itzultzen dute gazteleratik euskarara, eta euskaratik gaztelerara. Jarraian lehenago frantsesak zuen bigarren lekua, gaur egun ingelesak hartzen du, eta datozen urteetarako ere ingelesaren ikasketari ematen zaio lehentasuna itzultzaileen aldetik. Italiara eta alemaniera oso atzetik doaz, portuguesarekin batera. Eta galegoa eta katalanera ere oso gutxi erabiltzen duten beren itzulpenaren sorburu hizkuntza bezala, %5ak bakarrik. Ikusten da beraz, ikuspegi hau ere ez dela planifikatu, lehentasunezko premia bezala finkatu direnetarako prestatu da jendea, baina literatur mundurako eta orohar etorkizunean sortuko diren itzulpen premiei erantzuteko, sorburu hizkuntzen aniztasunaren aldetik, behar-beharrezkoa da itzultzaileak, eta arazoa dagokion oro, beharizan hauez kargutu eta itzultzaileak beste hizkuntza asko eta asko ikastearri eta bideratzea.
- f) Orain itzulpengintzaren datu kualitatiboak isladatzen diren atalak aztertuko ditugu. Itzultzailearen prestakuntzari dagokionez, begi bistakoa da itzultzaile gehienak autodidaktak direla. 80an %86,6ak aitortzen zuen autodidakta zela. 86an %68ak aitortzen zuen gauza berbera. Eta gaur egun egun proportzio hori ez da aldatu. Euskal itzultzaileen artean itzulpen ikasketak burutu dituztenak Martuteneko Itzultzaile Eskolan egin dituzte, eta hauetako askok ez dute itzulpengintzan jarraitu, beste lanbide batzutan baizik (Euskadi Irratia, Euskal Telebista, Euskal Administrazioa). Martuteneko Itzultzaile Eskolak eta Herri Arduralaritzarako Euskal Erakundearen Itzultzaile Eskolak banatzen dituzten ikasketak ez dira ordea aski: 86ko inkestan %41ak lizentziatura bat eskatzen zuen, %30,35ak diplomatu izatea, eta %19,60ak Euskal Herriko titulu extraakademikoren bat.

- g) Itzultzeko zailtasun edo eskasiak aipatzerakoan, lexikoak eta morfologia-sintaxiak jasotzen dituzte puntu gehien. Euskararen ahuleziak neke eta frustrazio ugari sortzen du oraindik itzultzailearengan, nahiz eta bestalde, itzultzaileek gauz egiten duten lanaren bidez ere finkatzen aritu. Honek alde ona badu, baina arriskua ere bai. Kontrol seriorik ez dagoenez, hizkuntz ohitura txarrak zabaltzen ari dira, eta gu honetaz ohartzen gara, eta baita euskal hiztun asko eta asko ere.

Guzti honen zergatia, maila handi batean, itzulpen politika definiturik ez izatean datza, besteren artean. Ez Eusko Jaurlaritzak, ez Euskal Administrazioaren beste mailek, ez argitaletxeek ez dute itzulpenaren arazoa serio planteatu, eta sortzen ari diren, eta sortuko diren premiei erantzuteko plangintza sakon pentsatu bat ezinbestekoa da. 86ko inkestan %96ak aitortzen zuen itzulpen politika bat diseinatzeko premia zegoela. Euskal Itzultzaileen Elkarteak sortu zenetik hori aztertzen eta eztabaidatzen, eta behar eta ahal den lekuan alternatibak proposatzen ari da.

Itzulpena eta hizkuntz normalkuntza

Normalkuntza, egoera normalean ez dagoen eta egoera normalean eraman nahi den hizkuntza baten prozesua da, eta teoriarik prozesu horretan aurkitzen da euskara, eta bideraketa ahalegin horretan aurkitzen gara itzultzaileok ere.

Normalizazio egoeran itzulpenak komunikazio zeregina betetzen du batez ere, baina hizkuntz normalizatu gabe egon eta itzultzen denean, zein zeregin betetzen du itzulpenak? Euskal Herriaren egoera hau da, euskara normalizatu gabe dago, eta itzuli gurdika itzultzen da. Honen ondorioz oraindik ezin dira neurtu, historiak epaitu edo neurtu beharko ditu, baina hizkuntza normalizatuetan itzulpenak izaten dituen ondorioak ikusita, suma daiteke gurean zer gerta daitekeen.

Hizkuntza normalizatuetan eta itzulpenaren ondorioz, lexiko mailako kutsadura ugari izaten da, baina gramatika eta usadiozko

egiturak asko aldatu gabe. Normalizatu gabe daudenetan, aldiz, euskarak duen egoera soziolinguistikoko berezian daudenetan batez ere, kutsadurak larriagoak izan daitezke, eta horren susmoak daude euskal itzultzaile eta euskal hiztun ugariren baitan. Gaur egun, bestalde, itzulpenari, itzulpen txarrari, leporatzen zaio zenbaiten euskarari somatzen zaion trakestasuna, gogortasuna, elkortasuna, gozakaiztasuna eta gisako akatsak.

Euskal Herrian, ezinbestean, itzulpenaren aldeko apustua eginik dago. Bi zentzutan eginik:

- 1) Egoera normal batean dagoen hizkuntzen kasuan bezala, euskarara ere albo hizkuntzetan korritzen duen informazioa itzultzen da, neurritxo batean. Itzulpenak “euskaldunak munduan euskaraz eroso egoteko” balio behar badu, itzulpen modu honek betetzen du eginkizun hori, betetzen duen neurrian.
- 2) Euskal Herria, ordea, auto-itzultzailea da neurri handi batean. Euskal Herrian bertan gaztelaniaz (batez ere) sortzen den testua itzultzen da, euskaraz “ere” egon dadin. Itzulpenak, zentzu honetan Administrazioari (batez ere) euskaldun izateko balio dio, Administrazioaren maila guztietan. Administrazioa, zentzu honetan, Administrazioa bera eta bere eskupean dituen tresna guztietara zabaltzen da: telebistara batez ere. Esan liteke, beraz, euskarara egiten den itzulpenaren partidarik garrantzizkoen biak Administrazioa euskaldun agertzeko baliakizun bezala eginak direla. Alderantziz, egoera normalean dauden hizkuntzetan gehien egiten den itzulpen modua areagotzeko eta gehitzeko —izan behar duen lekua emateko— Administrazioak apenas batere ahaleginik egin duen, eta protagonismorik ez du batere izan.

Euskal Itzulpenaren Berezitasunak (Zenbait gogoeta)

Josu Zabaleta

Sarrera

Ondoko lerrootan gogoeta bat egin nahi dut, itzultzaile naizen aldetik, neure lanaren egoeraz. Esperientziak erakutsi dit uste ez genuen bezalako trebezia dugula —euskal sintaxiak esaldi berbera hainbat ordena desberdinetan esateko ematen digun aukera horrek bidea errazten digulako edo— itzulpenari buruz ideia berberak, topiko bihurtu eta zahartuta ere, aurrera eta atzera, ezker-eskubi, errepikatze, geure esanaren oihartzunak majiaz edo erantzunen bat, aurrerbidea egiteko iritzi edo oinarri berriren bat, ekarri behar-ko baligu bezala.

Euskal itzulpenak dituen ezaugarri bereziak definitzen ez dugu, zinez, askorik aurreratu. Zenbait intuizio zuzen, aspalditik ari dira eta gara errepikatzen, baina errepikazio horrek ez ditu, horrenbeste, gezur egiten, topiko baizik: oinarrian egia bat dute topikoek, errepikazioaren errepikazioz indargetuak.

Bi ideia dira, zentzu horretan, fortuna eta arrakastarik handiena izan eta gehien errepikatu izan direnak: euskara eta itzulpenen sorburu hizkuntza bezala erabiltzen diren gainerakoen errotiko desber-

dintasun uka ezina; itzulpena biziki nekezten duena, ustez. Euskara ez da inguruan dituen hizkuntzen egitura bera ez antzekoa duena: haiek erromanikoak dira, edo indoeuropeoak, eta euskara ez. Antzekotasun-desberdintasun parametroak erabiltzen dira itzulpen-nekearen iturburutzat. Alde horretatik, gramatikazko terminotan planteatzen dira gehienetan itzulpen-zailtasunak, eta zailtasun horiek susmarazten dizkiguten euskal itzulpenaren berezitasunak: euskarak duen adjetibo-urritasuna edo gaztelaniazko testuetako erlatiboak itzultzaileari jartzen dizkion oztupoak dira, diskurtsu modu honetan, adibide tipiko eta topikoak. “Hikuntza erromanikoen arteko itzulpenak ez du euskararakoak duen nekerik erlatibozko esaldiak itzultzeko”, esaten da.

Harrigarria da, hala ere, aipatzen direnak baina desberdintasun handiagoa duten beste hizkuntz-alor batzuk (esalmoldeak balio badu), nola neke-iturburu bezala itzultzaileen artean aipatzen ez diren: euskal eta gaztelaniazko aditza, esate baterako.

Beste alde batetik, euskararen normalizazio falta aipatzen da askotan, normalizaturik ez dagoen hizkuntza batera itzuli beharra, euskal itzulpenaren berezitasun bezala. Euskara lehen ez zituen hizkuntz-erabilerako alor berrietara zabalduz joan den ahala nabari izan da batez ere berezitasun hori, eta horrexegatik hain zuzen, J. Leizarragak Testament Berriaren sarreran Nafarroako Erreginari egiten dion aurkezpen gutunean jarri zituen hitz berberak “*nacussanean hambatez ere empresa handiago, zembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetarie eta diuersenetarie: eta oraino, trāslationetā behintçat, vsatu gabea*” parafraseatu dira hainbestetan, “trāslationetā” ordez “cientietā”, “administrationean” edo “televisionean” aldatuz.

Puntu honek bera, hainbestetan errepikatu eta mintzagai izanagatik ere, baditu toles ezkuatuak, argia sartu ez denak, eta zentzu horretan ahaleginduko naiz horiek ere haizetaraten.

Euskal itzulpenaren berezitasunak definitzeko orduan aipatu ditudan topiko horiek barrenean daramaten egia ez du ukatu nahi. Bistakoa bait da, gainera. Topikotasunak, ordea, egia bera ezkutatu

gabe, ikustezin egiten du, topikoak berak ematen digun ulertu izanaren ziurtasunak galdera itotzen bait du, erantzuna barik.

Alde horretatik ondoko lerrootan doazen ideia hauek guztiak, erantzunak ez baina, galderak dira, askotan egiten ez diren galderak, tamalez, itzulpenari buruz idatzi direnetan, are euskararen egoera soziolinguistikoak idatzi direnetan ere, ez bait dira sobera ageri, eta alde horretatik dira berriak ere.

Galdera direnez, hain zuzen, iristen dira gaiaren gunera alde askotatik, ikuspegi askotatik batera, elkarrekiko lotura soberarik gabe batzuetan, ikuspegi inpresionista samarra, zertzelada solteka egina, puska guztiak elkarrekin ongi bat egin gabez loka antzan dagoen egitura balitz bezala.

Galderak berea du solte izatea. Har bedi hau halakotzat, ez beza inor segurutu, eta balio beza euskal itzulpenari buruzko gogoetak oinarri zabalagoa har dezan.

Normaltasun/Eznormaltasun

Aurrera baino lehen, ordea, ustekabez bezala, baina ezinbestez nonbait, sartzen zaigun kontzeptu bat jarri behar dugu auzitan: hizkuntz-egoeraren normaltasuna. Euskal itzulpenaren egoera aztertzen dugun orotan, normaltasunezko egoeran dauden hizkuntzetako itzulpengintzarekin konparatu ohi dugu. Euskara normaltasunera iritsi ez delako, egoera normalean ez dagoelako, datozkio arazoak euskal itzulpenari —itzultzaileari eta itzulpengintzari orohar—. Gauza jakina da, baina, “normaltasuna” dela hain zuzen normalean aurkitzen gauzarik zailena. Eta “normaltasuna” da orobat, definitzen zailena.

Normaltasun kontzeptu hori, lehenik eta behin, ez da unibokoa, esanahi bakarrekoa; ordena eta maila bat baino gehiago ditu. Badu ikuspegi politiko bat: estatu edo gizarte batean ofizial izatea —ofizial ala ofiziala—. Ikuspegi honetatik beronetatik begiratuta ere ez da, baina, unibokoa kontzeptu hori. Territorialtasun premiaren eztabaida hortxe dago, erabaki gabe, gogoratzeko.

Aurrekoarekin lotuta, hizkuntz nomaltasunaren alderdi edo ikuspegi soziologikoa dago: hizkuntza jakin bat gizarte maila guztietan eta gizarteak bere antolamendurako dituen erakunde eta instituzio guztietan erabilia izatea.

Hirugarrenik, ikuspegi linguistiko dei litekeena ere bai, baina ikuspegi soziologikotik inola ere banandu ezin daitekeena: hizkuntza jakin bat gizarte jakin batek dituen komunikazio premiak betetzeko gai izatea esan nahi duena. Hizkuntza horrek, ordea, soziologikoki konpartitua behar du izan, bere egoera normaltzat eman nahi bada; alegia hizkuntza horren erregistroak eta mailak ezagutuak eta onartuak behar dute izan, gizartean bete behar dituen komunikazio funtzioak bete ahal izan daitezten.

Hizkuntza, ordea, gertakari sozialetan sozialena denez, Comtek zioen bezala, historiak baldintzatzen du guztiz, eta alde horretatik begiratuta, hizkuntza bezala hizkuntz nomaltasunaren kontzeptua bera ere historiaren fruitua da. Hala, gaur egun zabalduen dagoen nomaltasun kontzeptuak, estatu modernoan sorreran estatuaren batasuna indartzeko definitu eta eratu ziren hizkuntz-politiken isla da dirudi. Hizkuntz-batasuna da (hizkuntzaren erabilera alor guztietan) estatuaren batasun-faktorarik eragileen eta oinarrizkoenetakoa, erlijiozko batasunaren gainetik, erlijioari hil ala biziko garrantzia ematen zitzaien garaietan bertan.

Normaltasuna egonkortasunaren edo iraunkortasunaren sinonimoa dateke, ikuspegi politikotik. Egoera iraunkorra egoera normaltzat jotzen da. Segurtasuna, ordea, gailentasunaren sinonimotzat hartzen da, tamalez politikan. Jakin badakigu, gaur egungo estatu antolamendua ez bezalako beste gizarte egitura batzutan normaltasun kontzeptua ere bestelakoa izan dela, eta egoera diglosikoak izan direla beharbada egoerarik egonkorrenak. Europako hirietan lehenagoko garaietan hizkuntza gehiago mintzatzen ziren aldi berean orain mintzatzen direnak baino (gaur bertan ere bai, komunikabi-deetako "ofizialtasunean" ageri direnak baino: galdetu beharko litzateke zenbat hizkuntzatan mintzatzen den Londresen, zenbat txino, vietnamiera, arabiera, portugesez hitzegiten den Parisen, zenbat turko Hanburgon).

Normaltasunaren kontzeptua ezin da, beraz, kontzeptu absolutua balitz bezala hartu; kontzeptu fetitxea balitz bezala erabili.

Hizkuntz egoera jakin baten esperientzia —beste hizkuntzetan emandako mezuekin topo egitea, edo beste hizkuntzetan mintzatzen diren eta norberarenean ezin duten pertsonekin topo egin izanarena— momentuko ideologia jakin baten arabera interpretatzen da beti. Hizkuntzaren ideologia hori era askotakoa da gizarte desberdinetan eta gizarte berbereko gizarte maila desberdinetan.

Ideologia horren ondorioak zuzen-zuzenean sumatzen dira itzulpengintzan. Geuk dakigu beste inork baino hobeto, zenbat itzulpen eragin ez duen hizkuntz ideologia jakin batek, eta geuk dakigu nolako itzulpenak eragin dituen ere.

Hala eta guztiz ere sarritan erabiliko dugu normaltasun kontzeptua, labur beharrez. “Hizkuntza normalizatu” kontzeptua, bere lausotasun guztian, territorialitate jakin baten barruan, gizarte baten komunikazio premia arrunt guztiak betetzeko gizarte horretako biztanle gehientsuenek darabilten hizkuntza normalbizatu eta ofizial dena hartuko dugu, beraz.

Sarritan, itzultzaile hitza esaten denean, mundu osoan berdina den figura bat datorkigu burura, mundu guztian itzultzailearen egoera eta eginkizuna berdina ez bada berdintsua behintzat badelakoan. Bere jarduera betetzen duen ingurunearen eta baldintzen abstrakzioa egiten da. Abstrakzio horrek izan, badu izateko arrazoia. Itzulpen-eginkizunaren berdintasun hori ezin uka bait daiteke neurri batean, itzultzaile figuraren unibertsaltasuna ere —denboran eta espazioan— uka ezin daitekeen bezala.

Hala ere, hizkuntza eta gizarte bakoitzaren egoerak arras baldintzatzen du itzultzailearen lana, erraztuz ala nekeztuz, estimatuz ala gutxietsiz, lanaren edukia bera, komunikazioaren zer komunikatua, baldintzatuz. Alde horretatik, euskal itzulpenerako dauden baldintzak, eta beste horrenbestez itzultzaile prestaketarako daudenak, ezin dira askorik konparatu beste hizkuntza normalizatu batzuetako itzultzaileek dituztenekin.

Arrazoi asko daude baieztapen hori egiteko. Hiru alorretan bana litezke arrazoiok: itzultzailearen joku edo eginkizun komunikatibo eta soziolinguistikoari berari dagozkionak dira batzuk; beste batzuk itzultzaileak berak bizi duen hizkuntz egoeran xede hizkuntza bezala erabili behar duen hizkuntzaren (euskara gehienetan) ezaguerari dagozkionak; eta bere itzulpen lanetan erabili behar dituen hizkuntz-bikoteen berezitasunari dagozkionak azkenik.

Atalka aztertuko ditugu.

Euskal itzultzailearen eginkizun komunikatibo eta soziolinguistikoa

Euskal itzultzailearen egoera nahikoa berezia da bere eginkizun komunikatiboari eta joku soziolinguistikoari dagokienean. Horrez ohartzeko aski litzateke hizkuntz egoera normalizatueta itzultzaileak dituen eginkizunak —"normalizatu" hitza goian aipatu den eran hartuta— eta erabili ohi dituen itzulgaiak alde batetik, eta bestetik gure artean eskatzen zaizkion erantzukizunak eta ematen zaizkion itzulgaiak alderatzea.

Zenbat eta erantzukizun handiagoa eskatzen zaion itzultzaileari, are eta ikasketa berezi eta sakonagoa, axioma behar luke dagoeneko.

Baldintzak eta erantzukizunak, elkarrekin loturik doaz denak; hala ere banan banan aletzen saiatuko naiz:

Aspertzeraino errepikatu eta entzun izan dugun bezala, euskara ez dago normalizatuta oraindik (aitorpena). Euskarak goian aipatu diren hiru zentzuetan falta du normaltasuna, bai euskararen erabileraren gure gizartean mintzagai diren alor guztietara zabaldua ez dagoen zentzuan, hizkuntzaren normatibizazioa burutua ez dagoen zentzuan, eta bai berorren erabilerak gizarte osoan zabaldua behar lukeen eta ez dagoen zentzuan ere.

Eta itzultzailea ari da euskara normalizatzen neurri handi batean. Itzulpenez normalizatzen da euskara (aitortzen ez bada ere, egia,

beste horrenbesteko neurrian) Goian aipatutako hiru zentzu horietako bitan batez ere euskararen normalizazioaren protagonistetako bat da itzulpena.

Ezin du bestetara izan, gainera. Lehenik eta behin, hain zuzen ere, euskal gizartearen baitan beste hizkuntza batean (gaztelaniaz batez ere, itzulpen ahaleginik handiena Bidasoaz honunztik ari bait da egiten, baina baita frantsesez ere) adierazten diren edukinak euskaraz adieraziz bait da normalizatzen euskararen egoera gizarte honetan. Euskal Herrian euskaraz besteko hizkuntzan adierazia euskarara itzuliz adierazten du herri honek bere izatea euskaraz, neurri handi batean. Diglosiazko egoeratik irten eta egoera minorizatuan dagoen hizkuntza goi mailako komunikazio bideetara jaso nahi bada, auto-itzulpenezko saio handia egin beharra du, definizioz, egoera horretan dagoen gizarte orok; edo isildu bestela, ez pentsatu berea izatea nahi duen hizkuntza ikasi arte, eta gero derrepentetik hitzegiten hasi (absurdoa).

Hain zuzen, diglosiaren eredu paradigmatico bat hartuko balitz, B hizkuntzan, bigarren mailako hizkuntzan, nolabait esateko, normalean itzultzeko ez diren mezuak ematen bait dira hain zuzen aditzera, banakako harremanean, edo harreman partikular eta domestikotan sortzen diren mezuak, eta A hizkuntza, edo goi mailako hizkuntzan, hizkuntza ofizialean itzul daitezkeen mezuak, interes orokorra duten mezuak edo komunikabide formalez bideratzen direnak, ematen dira (bestelakoak ere bai, noski, gure artean bezala A hizkuntzak komunikazio funtzio guztiak bete ditzakeen lekuetan).

Egoera hori aldatzeko bidearen baliapide bat itzulpena da ezinbestean, B hizkuntzan bideratzen ez den mezua, itzulpenaren bidez A hizkuntzatik hartaratzea, eta horrenbestez, B hizkuntza A hizkuntzarentzat gordetzen diren eginkizunetarako baliatu eta haren mailara jasotzea.

Euskararen egoera ez da, honetan, diglosiaren eredu paradigmatico honen islada zehatz doia. Bistan da. Baina ezin uka daiteke hala ere, euskararen erabileraren zenbait alorretan (pentsa administratza) hizkuntzen erabileraren banakera aipatu denera oso hurbiltzen ez denik.

Horretan du lehenengo diferentzia handia euskal itzultzaileak beste hizkuntza normalizatu edo garatuetakoekin. Bi zentzutan:

- a) Itzultzeko testua itzultzailea bera bizi den gizarte berean sortua izan ohi da askotan, esan den bezala. Zenbat eta hizkuntz errekuerazioari abiada handiagoo eman nahi zaion, gainera, orduan eta auto-itzulpenezko eskabide hori handiagoo. (Euskal itzultzaileetatik erdiak era horretako itzulpenean ari dira ia erabat, eta gainerakoek egiten duten itzulpenetik ere puska handi bat era horretakoo da: Administrazio publikoak euskaraz argitaratzen dituen testuak itzuliak dira ia guztiak, ia beste horrenbeste esan daiteke beste hainbat administrazio pribaturi eta bestelako enpresa eta erakunderi buruz (finantza munduan, irakaskutnza munduan, politika munduan, etab.).

Zentzu honetan euskal itzultzaileetako proportzio handi batego ez du betetzen egoera normalizatu batean legokeen itzultzaile standardaren eredu (itzulgaia duen informazioa hizkuntzaz ez ezik jatorriz ere arrotza izatea, eta ez gizarte berean sortua).

- b) Bestetik, XHaren (gurean gehienetan euskara) hizkuntz erabilera zabaltzen ari den alor berrietako hizkuntz ereduak (teknolektoak, soziolektoak...) sortu edo asmatzeko erantzukizuna ere, gure artean, itzultzailearen gainera dago botata neurri handi batean; zenbait alorretan hala ere eginkizun horren zama eta erantzukizuna itzultzailearen bizkarrera botata dagoela erabat, esatea ez da batere esajerazioa.

Zergatik hala den ez da asmatzen zaila, eta egin berria dugun deskribapenetik bertatik ondorio zuzenez ateratzen da: B hizkuntza A mailara itzulpenaren bidez jasotzen baldin bada, B hizkuntza A hizkuntzaren erabilera eremu propio zirenetan erabilgarri izateko trebatzea ere itzulpenaren bidez egin beharko da, derrigor.

Honek ez du esan nahi, noski, normalizazio bide bakarra itzulpena denik, baina bai deskribatu duguna bezalako normaliza-

zio prozesuetan, lehenengo urratsa itzulpen bidezkoa dela beti, ezinbestez, nahiz haren ondotik bestelakoak ere etor litezkeen.

Zentzu horretan itzultzaileari eskatzen zaion erantzukizuna ez da txantxetakoa, ondo egiazkoa baizik. Munduko herri guztietan esan izan dira hitz itsusiak itzultzaileez (zerbaitengatik du itzultzaile hitzak lehendabiziko dakarren gogorazioa, "traduttore, traditore"); herri gutxik hitzgingo zuen, hala ere, gureak bezainbeste eta gureak bezain gaizki bere itzultzaileez.

Puntu honek, zinez, arreta berezia merezi du: itzultzaileak, izan ere, egoera normalean, ez du itzultzen hizkuntza batetik beste hizkuntza batera soilik, hizkuntza batean mezu mota eta komunikazio egoera jakin bati dagokion hizkera motatik beste hizkuntzan egoera horixe dagokion hizkerara baizik. Hala gertatzen ez diren kasuak trataera berezia dute traduktologian: klasikoen itzulpena (itzulpen diakronikoa), testu etnologikoen itzulpena, etab.

Bi hizkuntza normalizatu eta garaturen artean itzultzen ari den itzultzaileak, itzulpenean darabilen gaiari dagozkion hizkera horiek (terminologiaz, erredakzio estiloz, etab.) definiturik izan ohi ditu bai SH-n bai XH-n.

Euskarara egiten den itzulpenean oso maiz gertatzen den gauza izaten da SH-n terminologiaz, estiloz eta gainerako ezaugarri guztietan definiturik dagoen testuaren ordainez, XH-n itzultzaileak berak sortu behar izatea gaiari dagokion terminologia, estiloa, eta gainerako ezaugarriak. Euskarak pairatu izan duen diglosia erabat radikala izan da, izan ere, hizkuntzaren erabileraren zenbait alorri zegokionean batez ere. Alor horietan historiak utzi dituen hutsuneak betetzeko ahalegin luzea eta neke handiak beharko dira oraindik. Terminologia, fraseologia estiloak, ia berritik sortu beharko dira hainbat teknolektotarako. Alferrik itsutuko gara eta esango dugu gauzak horrela ez direnik; gure egoeran itzultzaileak terminologia sortzen ez badu, destterminologia bait du sortuko, estiloaren ordezkari desestiloa, eta hala segidan deskalabrora arte.

Egoera horrela dago orain, eta halaxe jarraituko du puska batean, erremediorik ematen ez bazaio. Ez bait da aski terminologiak definitzea, konpartitzen ez badira. Baina ez “konpartitu” akordio bat edo bilera biren bitartez, komunikazioz eta funtzionaltasun bidez baizik. Euskararen erabilera hedatzen ari den (itzulpenez hedatzen) alor berrietako hizkerak (tekno- eta soziolektoak) ez dira finkatuko finkatutzat pertzibitzen ez diren arte, alegia komunikazio eginkizuna betetzen duten testuak azaldu, eta denbora luzez komunikazio eginkizun hori betetzen den arte.

Euskal itzulpenaren komunikazio funtzioari dagozkion guztiak ere arreata bereziz beharko lirateke aztertu, susmoa bait dago, oinarri hartzeko estatistikarik ez badugu ere, itzulpena baliatzen den hizkuntz erabileraren alor askotan, beronen komunikazio baliapena oso urria dela. Era askotako, eta ez beti berdinetako, arrazoiengatik urri ere. Esaera da, dagoeneko, eta itzultzailearen sufrikario eta etsimenerako bide, administraritzako euskal testuak ez dituela inork irakurtzen, aginduta dagoelako itzultzen direla testu horiek. Zientzidibulgaziozko testuari dagokionean —eta agian literatur itzulpenean beste horrenbeste pasatzen denik seguru behintzat ezin daiteke erabat ukatu—, testu horiek erabilera pedagogikorako bideratuak direla bistakoa da, eta horrexegatik itzultzailea —eta itzultzailearen gizarte multzoa, adinez behintzat— oso gutxitan besterik ez da alor horretan itzulpenezko testuen kontsumitzaile. Itzultzaileak eta bere belaunaldiak ez dute ia testu itzulirik irakurtzen: susmoa besterik ez da —susmo gaiztoa—, ezin daiteke zehatz eta zinez frogatu, baina aztertu beharko litzatekeen hipotesia. Hipotesi hau hala bada —eta oso urrun ez dagoela hartzen da hipotesi bezala lan honetan—, horrek berak lagunduko du geroago “euskararen ezaguera eta egoera soziolinguistikoari” buruz esango dena ulertzen.

Berriro hizkeren eta ereduaren gaira itzuliz, haien definizioa itzultzailea ari da burutzen, aitortzen dena baino askoz ere alor gehiagotan, eta garrantzia eta eragin sozial handia duten hizkuntz erabilera alorretan gainera.

Terminologia hitza aipatzen denean irakaskuntza, zientzia eta administrazioko itzulpena aipatzen direla ematen du. Terminologia

hitzak berak itzulpena ekartzen du gogora, berez bezala, gure artean, hala zertan izanik ez badu ere. Esangura handiko sintoma da gure arteko terminologiak hiztegi elebidun sailtxo batetara eta ia ez bestetara mugatzea. Eta egia da, euskararen erabilera itzulpenezkoa da ia erabat administrazioan, oraingoz behintzat; zientziatzko argitalpenak, are zientzi-dibulgaziozkoak ere —argitalpenak behintzat—, edo zuzenean itzuliak, edota handik eta hemendik jaso, zatika itzuli eta birmoldatuak dira ia guztiak. Testu horiek, jakina, ez dira itzulitza azaltzen, eta ez dira halakotzat jasotzen argitalpenen estatistiketan. Irakaskuntzak testu horietan hartzen du oinarria.

Eta hala ere gaitzerdi.

Zeren ez da ahaztu behar beste zenbait erabilera alorretako hizkuntz eredia ere neurri on batean itzulpenaren bidez ari dela finkatzen: komunikabideetako batez ere (filmeak ez ezik albistegiak etabar ere bai). Nahiz —egiari zor bait zaio— alor horietan eginkizun horren erantzukizuna beste protagonista batzurekin banatua duen itzultzaileak: bikoizlari, ahots emaile, etab.

Euskararen ezaguera eta egoera soziolinguistikoa

Itzultzaileak, UNESCOk Nairobín sinatu zuen Gomendioaren arabera, ez du itzuli behar bere ama hizkuntzara baizik, edo “ama hizkuntza bezain ongi darabilen beste hizkuntza batera” (hamabi urtez bigarren hizkuntza hori lehen hizkuntza bezala erabili izana gomendatzen du erakunde horrek gutxienezko muga bezala).

Itzultzaileari bere ama hizkuntzaren ezaguera ona sekula ez zaio zalantzan jartzen, normalean. Itzulgaiaren sorburu hizkuntza eskatzen zaio itzultzaileari ondo ezagutzea. Euskal itzultzailea ordea, ez da bizi hizkuntz egoera normal batean, oso ezaugarri bereziak dituen hizkuntz egoera batean baizik. Bizi duen hizkuntzazko giro horrek, hizkuntzazko presio sozialak —esateko moduak balio badu— ez dio kontrastasunik sortzen bere hizkuntz eredia desbidera ez dakion.

Hiru aldetatik begiratuta batez ere:

- Presio sozial kuantitatiboa, batetik: Euskal itzultzailea bizi den lekuan euskalduna gutxiengoa da, eta euskaldun dena elebiduna da gainera ia guztia. Horrenbestez itzultzailearen hizkuntz erabilera komunikatiboa —komunikazioaren sujetu aktibo nahiz pasibo bezala—, bere lanbidez kanpo ere, ez da ele bakarra, elebiduna baizik, eta askotan eleaniztuna.

Hori, jakina, ez da gure artean bakarrik gertatzen dena, bestetan ere badira antzeko egoerak (pentsa bedi Europako instituzioetan ari diren itzultzaileengan adibidez). Gure artean, ordea, jenerala da egoera hori, euskal itzultzaile guztiak bizi dira Luxemburgoren batean.

- Bigarrena: Euskal itzultzaileak bere bizitzan bere hizkuntzan (euskaraz) darabilen informazio masaren puska handi bat zuzenean edo zeharbidez itzulia da aldi berean. Hizkuntz kontaktuzko egoeran eta hizkuntz interferentziak eragiten dituzten faktorez inguraturik bizi den populazio elebidun baten bizi da itzultzailea. Askotan, hizkuntz eredu fidagarri bezala harturik duen testua ere —erredakziorako eredu on baten premiaz— proportzio handian itzulia izaten da (euskal klasiko bezala hartzen direnen kontuak ateratzea aski).
- Hirugarrenik, lehentxeago aipatu dugun bezala, euskal itzultzaileek sortzen duten testuaren puska handi batek oso komunikazio baliapen urria izaten du, zentzu bakar bateko komunikazioa izaten da (itzultzailearena orohar ere bai, neurri handi batean). Honek ere, bestela ere urria zen kontrastasuna, areago urritzen du.

Itzulpenak, onenean ere, lehen ikusira behintzat, interferentzia eta kutsaduraren arriskua esan nahi du (nahiz eta luzera itzulpena bera den, agian, interferentziaren mamuari arreta eta lehiarik handienaz ihesi nahi eta ezinik dabilen hizkuntz jarduera: garbizalekeriak itzultzailearen bat izaten du iturri).

Hizkuntza normalizatu batera itzultzen ari den itzultzaileak, berriz, hizkuntzazko kontrastasun sozial bortitza du, bai kuantitati-

boa, bai informazio masaren jatorriari dagokiona (eta hala ere interferentziak salatzen dituzte!). Horrelako egoera batean itzultzaile normal batentzat ez da batere gauza erraza, erredaktatu gutxienez, bere hizkuntzan gaizki erredaktatzea, oso itzultzaile txarra eta erredaktore oso nolabaitekoa ez bada behintzat.

Euskal itzultzaileari ez zaio horrelakorik gertatzen, edo oso gutxitan gertatzen zaio. Izultzaile izena aski du, kalitatea ez zaio eztabaidatuko: aitortu ala ukatu, eztabaidatu ez. Zergatik gertatzen den hala, aurreko paragrafoetan esan diren arrazoiak errepikatu beharko lirateke.

Eta hala ulertzen da, besteren artean, euskal itzulpenari buruz oso zabaldua dagoen auriritzi edo ustekizun bat: Testu itzulia ulergaitzagoa izaten da jatorrizko testua baino. Beharbada “euskal itzulpenari buruz” esatea ez legoke ondo esanda agian, zeren oso zabaldua dagoen iritzi baten arabera, lehen esana egia da, “gure artean”, “euskaraz” ari garenean; gaztelaniaz edo beste hizkuntza garatu bateko itzulpenez ari garenean, halakorik ez bait da aipatu ere egiten.

Euskararekin sortzen diren hizkuntz bikoteen berezitasuna

Euskal itzultzaile proportzio handi batek gaztelaniatik itzultzen du ia beti, beste talde handi batek ingelesetik eta ondoren, proportzio txikiagotan gainerako hizkuntzetatik itzulpenak datoz. Euskaratik bestetara askoz ere gutxiago itzultzen da, konparaziorik gabe, haietatik baino.

Euskal itzulpenean gehienetan gertatzen den hizkuntz-bikoteari (gaztelania-euskara) dagokionez batez ere, ohar batzuk egin beharra dago, beste hizkuntz-bikoteetarako ere, egin behar diren aldaketak eginda, balio lezaketenak: euskal itzultzaileak txiki-txikitatik ezagutzen ditu normalean hizkuntza horiek, baina ezaguera errefleju laburra izan ohi du —ezaguera konparatiboa laburrago— bi hizkuntza horiena.

Itzulpenaren teoriko eta azterlari batek baino gehiagok ohartarazia du itzultzaileak sarritan ez duela ongien itzuli ohi eguneroko hizkuntza arrunt bezala erabili ohi duen hizkuntzatik berera. Gauza jakina da, adibidez, itzulpenak jatorrizko testuaren bigarren (edo gehiagogarren) irakurketa eragiten diola itzultzaileari, testuaren lehenengo irakurketa arinak informazio aski ematen ez diolako itzuli ahal izateko. Horrelakoxe zerbait gertatzen zaio SH bere ama hizkuntza bezalaxe erabiltzen duen itzultzaileari: SH-ko testuaren irakurketa sakona egin beharrik ez duela sentitzen. Badirudi SH-n nekea behar duela itzultzaileak, jatorrizko testua egoki interpretatu eta XH-rekiko baliokidetasun sistema doia bilatzeko. Badirudi jatorrizko testuaren irakurketan SH hizkuntzaren ezaguera onak eragiten duen ebidentzia sentsazioa ezabatu eta zalantzan jarri beharra duela itzultzaileak, testuaren azterketa sakona egin ahal izateko. Laburtzeko: zenbat eta itzultzailea elebidun osatuagoa SH eta XH-n, orduan eta kontu handiagoa behar du itzultzaile eta ez egokitzaile izateko.

Horretarako, alde batetik testuaren oso irakurketa erreflejua behar du itzultzaileak, testuaren interpretatzaile trebea behar du izan; eta bestetik SH-XH baliokidetasun sistemaren ezaguera errefleju ona behar du.

Itzultzaileak bere lanean darabiltzan hizkuntzak zenbat eta elkarren desberdinagoak izan, gainera, are beharrago itzultzailearengan hizkuntza horien arteko baliokidetasun sistema zalantzan jarri eta aldioro berriro sortzeko trebakuntza, eta are beharrago errefleju hori bizkortu eta azkartzeko metodoak diseinatzea.

Euskal itzultzaileak trebakuntza berezia behar du alor honetan. Euskara-gaztelania (edo besteak) elkarren oso desberdinak direlako eta euskal itzultzaile gehienek hizkuntz bikote horren ezaguera, UNESCOk itzulpeneko A hizkuntza (lehen hizkuntza eta XH bezala definitzen duena) mailakoa dutelako.

Itzultzaileen artean uste izaten da zenbat eta SH eta XH egituraz elkarren desberdinagoak izan, orduan eta zailagoa dela itzulpenean hizkuntz interreferentziak izatea. Gure egoeran ongi ikasia dugu,

euskara eta gaztelania edo frantsesaren arteko desberdintasunak ez dituela galerazten interferentzia horiek. Interferentzien jatorria ez da, ezin du izan, hizkuntza horien antzekotasunak, bistan da, frantsesa eta gaztelania, edo gaztelania eta ingelesaren artean, izan litekeen bezala —Frantzia eta Espainiako itzulpenari buruzko aldizkari eta liburuetan hainbeste ageri den kezka—, lehenago aipatu dugun bezala, populazioa gehienbat elebiduna izatea, eta goi mailako hizkuntz erregistroak deitzen direnak, gaur egun eta lehenago ere, proportzio handian itzulpenaren bidez gauzatu izana baizik (1876ra artean euskaraz argitaratu ziren 194 liburuetatik, 94 itzulpenak ziren, adibidez).

Bestelako berezitasun batzuk

Euskaratik bestetara eta bestetatik euskarara egiteko itzulpenaren merkatua, estua ez ezik, berezia ere bada bere egiturari dagokionean, eta konparatzekorik ez du beste merkatu batzurekin. Merkatuaren itzulpen eskaera ez da normalizatua euskaraz.

Merkatu estua den aldetik —euskal bezeria urria da—, ez du profesionari askori lanbidea emateko ahalbiderik (euskal itzultzailegoak hazkundera baino berziklaketa du beharrago, alde horretatik).

Bestetik, euskal itzultzailearen bezeria urri hori bera ere elebiduna da, eta jarrera diglosiko nabarmena ageri du. Horren ondorioz euskarazko itzulpen eskaeraren banakerak berak ere ez du antzik, hizkuntza normalizatueta izaten denarekin. Pentsatu besterik ez dago, adibidez, “itzulpen komertziala” esan ohi dena (gutun, txosten, makinaria gida, etab.) %80-85 izan ohi dela horrelako hizkuntzetan, eta gainerakoa izan ohi da Administrazioarako itzulpena, literatura, komunikabideak, etab. Gurean itzultzaileen erdiak Administrazioarako ari dira; besteetatik puska bat komunikabideetarako (ETB); “itzulpen komertzialak” ia lekurik ez du.

Etorkizunerako ikuspegia ez da batere ziurra. Baliteke Administrazioarako itzulpenean oraindik profesionari gehiago sartzeko lanpostu edo lan (soilik) berriak sortzea.

Komunikabideei buruz ezin daiteke beste horrenbeste esan. Komunikabideetan ETB da itzulpen kontsumitzailearik handiena, eta horrenbestez eskari handiena zabaltzen duena; itzultzaile asko eta askoren lan bakarra instituzio horretarako izan da. Institutuzio publiko horrek bere etorkizunerako diseinatu duen politika berriaren ondorioz, eta ETB2-ren sorkuntzarekin batera ETB1-en aurrekontuak aldatu —urritu— zirenetik, azkeneko bi urte hauetan arras jaitsi da euskararako itzulpen eskaria (gaztelaniarakoa zertxobait igo da, baina ez euskarakoaren galera berdintzeko adina, ezta hurrik eman ere). Zenbait bikoizketa etxeren kasuan, batazbesteko, orain dela bi urte zenaren ehuneko hogeiraino gutxitu da itzulpen eskaria. Horrek, besterik gabe, esan nahi du, etxe horietarako ari ziren itzultzaileen bostetik lau lanik gabe geratu direla. Horrelako politikak ez du profesionaltasuna eta lanaren kalitatea askorik ziurtatzen.

Literatur itzulpenean eta liburu itzulpenean orohar, azkeneko urte honetan, Munduko Literaturaren Ondarea, eta Filosofiazko Obren itzulpen proiektuekin, etorkizunerako perspektiba zertxobait hobetu dela pentsa baliteke ere, iturburu horietatik sortzen den lan berriak ez du euskal itzulpenaren merkatua ez egituraz ez kopuruz, apenas hoberatzen. Horregatik, albo-lan eta merke-lan jarraitu beharko du hemendik aurrera ere, gauzak oso aldatzen ez badira.

SINTESIS

Algunas particularidades de la traducción al euskara

Existen algunas ideas acerca de la traducción al euskara que, a fuerza de repetirse, se han convertido en tópicos. Uno de ellos es que traducir al euskara es difícil porque es una lengua muy alejada tipológicamente de las que le rodean. Otro de los tópicos consiste en decir que la traducción es complicada por tratarse el euskara de una lengua en vías de normalización.

La normalidad/anormalidad son, además de lingüísticos, conceptos socio-políticos. En efecto, el concepto de normalidad más extendido tiene que ver en su origen

con la función reforzadora de la lengua en la unidad política en el origen de los estados modernos. Así, normalidad sería sinónimo de estabilidad y continuidad. Pero basta un repaso a la historia —incluso fijarnos en la actualidad— para ver que esto no ha sido siempre así, y que las situaciones diglósicas han sido a menudo lo “normal”. Con todo, y por comodidad, nos referiremos de aquí en adelante a esta idea de normalidad, es decir, a la lengua “normal” entendida como la que se usa en un territorio concreto, la lengua oficial y normativizada que usan la mayoría de los habitantes de esa sociedad para satisfacer sus necesidades comunicativas habituales.

Las condiciones en las que trabaja el traductor euskaldun no se pueden comparar con las de una lengua normalizada. Así, en lo que se refiere al papel comunicativo y sociolingüístico del traductor, podemos decir que es él quien está normalizando en gran parte el euskara. Al traductor se le impone la labor de crear la lengua para los usos en áreas hasta ahora nuevas: es él el que tiene que crear la terminología, el estilo... no sólo en las ciencias o la administración, también en los medios de comunicación. Lo que, por supuesto, no ocurre en lenguas desarrolladas. Pero el hecho de crear terminologías no es suficiente; sólo el uso real para fines comunicativos las fijará.

Otra particularidad del traductor euskaldun es la referente al conocimiento del euskara y la situación sociolingüística. Vive en una población bilingüe rodeada de factores que provocan constantemente interferencias lingüísticas. Así, traducción es a menudo sinónimo de interferencia y contaminación (aunque a veces sea el traductor quien más se enfrenta a ellas; el purismo aparece sobre todo en las traducciones).

Hay que hablar también de las parejas de lenguas que utiliza el traductor: el euskaldun normalmente traduce del castellano, es decir, de una lengua que es casi su segunda lengua madre; esto, según señalan algunos teóricos, es perjudicial para la traducción, porque la lengua de partida —el castellano— al ser tan conocida no se analiza con la profundidad debida en el proceso de la traducción.

Por último, señalaremos el hecho de que el mercado del euskara no sea un mercado “normal”: es pequeño, con una clientela muy limitada y además bilingüe y diglósica. En las lenguas desarrolladas, la traducción “comercial” supone un 80-85% del total. En la nuestra no tiene prácticamente lugar. La mayor parte la lleva la administración (lo que suele suponer autotraducción) y los medios de comunicación, es decir, ETB.

SYNTHESIS

Some Peculiarities of Translation to Basque

Some ideas existe concerning Translation to Basque, that for effect of repeating, have become commonplace. One of them is that to translate to basque is very difficult because it is a totally diferent language tipologically from the ones that it

is surrounded by. Another of the ideas consists in saying that translation is complicated because of fact of being a language in the process of standardization.

The normality/abnormality are, as well as linguistics is sociopolitical. Of course, the concept of widespread normality is in relation to its origins, within the reinforcing function of language in political unity at the beginning of Modern State. Then normality will be a synonym of stability and continuity. But it is enough to review history—even to focus on the present—to see that it has not always been like this, and that diglossic situations have often been the 'norm'. With all this, and for convenience from here forth we will refer to this idea of normality, by saying that the normal language is the one used in a defined territory, the official standardized language which is used by the majority of the inhabitants of that society in order to satisfy the habitual need of communication.

The working conditions of a Basque translator cannot be compared with those of a standardized language. That is, in reference to a translator's communicative and sociolinguistic rôle, we could say that it is he who is standardizing in a greater part of the Basque language.

The work of a translator includes the need to create the language to be used in up to now new fields: it is he who must create the terminology, the style... not only in science but also in Administration, and also in mass media. And that, of course, does not happen in a well established language. But creating terminology is not sufficient: only real use within communication will allow them to settle down.

Another peculiarity of the Basque translator is related to his knowledge of Basque and the sociolinguistic situation. In the society where he lives all the Basque speaking people are bilingual, and these circumstances constantly provoke interferences in his work. That's why, translation often is synonym of interference and contamination (although at times the translator is the facing them: purism appears above all in translations).

We must also talk about the pair of languages that a translator uses: The Basque usually translate from Spanish, that is to say, a language which is almost his second mother tongue, this—as said by some experts, is harmful for translation, because the original language—Spanish—with being so well known, in the process of translation it is not analysed enough.

Lastly, we will point out the fact that the basque market is not a 'normal' one: it is small, with very few customers and also bilingual and diglossic. In developed languages, 'commercial' translation reaches 80-85% of the total. In ours it is practically no place. The biggest part is carried out by the Administration (which usually means self translation) and the mass media, that's to say, ETB (Basque Television).

Itzultzaile ikasketen etorkizunerako argibideak

Josu Zabaleta

Euskal itzultzaileen ikasketek gorabehera handiak izan dituzte aski denbora laburrean. Orain dela hamar urte ez zegoen itzultzaile ikasketarik, Euskaltzaindiaren eraginez Donostiako Itzultzaile Eskola sortu zen arte. Geroztik Eskola honek beronek ere gorabehera handiak izan ditu, finantzaketa eta diru-laguntzen premia eta gabeziaren ondorioz batik bat, Senezen ale honetan bertan beste leku batean zehazten den bezala.

Geroztik HAEEk Lege alorrerako itzultzaile eskola sortu zuen Gasteizen, orain dela hiru urte pasatxo. Irakaslez eta ikaslez hornituta egon da hiru urte hauetan.

Orain berriro aldatu da, azkeneko ikasturte hau hastearekin batera, euskal itzultzailetarako ikasketen panorama. Martuteneko Itzultzaile Eskola, azkeneko krisialdiaz geroztik, urtebeteko ikastaroak banatzen ari da (itzulpen eta erredakzio ikastaroak), irakaslez hexurhexurretaraino murrizturik. HAEE-ko Itzultzaile Eskolak aurtengo urtean ez du ikasle berririk hartu, irakasketa horiek luzera gabe Euskal Herriko Unibertsitateak bere gain hartuko dituelako ustean, era horretara ikasketa horien araubide zehatzagoa eratuko dela iritzirik.

Orain arte itzulpen ikasketak burutzeko zeuden egiturak gainbeheran dira, beraz, ez ordea aldi berean aurrerako beste egitura batzuk sortu gabe. Martuteneko eta HAEE-ko Itzultzaile Eskolez kanpo, bestelako zenbait ikastaro ere sortu dira han-hemenka, zenbait batzokitan eta SAGAZDE-k Bilbon antolatu dituenak adibidez (“nuevas profesiones” izenpean hala ere, munduko ofiziorik zaharrenaren ondoren seguruenera bigarrena dugun hau).

Irailean hasi zen ikasturte honetarako zenbait elkarrizketa izan genituen Elkarte honen izenean Euskal Herriko Unibertsitatearekin, eta are Nafarroako Unibertsitate publikoarekin ere, itzultzaile ikasketak arautzeko proiektuez.

Nafarroako Unibertsitate publikoarekin izandako elkarrizketetan ez zen gauza handirik aurreratu, han unibertsitatea eratzeko proiektuan itzultzaile ikasketak bere baitan hartuko litzuzkeen Hizkuntz Institutu bat aurrikusita dagoen arren, oso luzerako gauza bait dirudi bide hori.

Gauzak gehiago aurreratu ziren Euskal Herriko Unibertsitateari dagokionean. Elkarte honetako ordezkarien eta Gasteizko Filologia Fakultatearen artean izandako elkarrizketa batzuen ondoren, Elkarte honen izenean, ikasketa hauetan zuzeneko interes berezia zuten erakundeetako zenbait arduradun bildurik (HAEE-ko eta Martuteneko Itzultzaile Eskoletakoak) ikasketa diseinu bat prestatu zen, proposamendu horren sarreran gero egingo ziren proposamenduak arrazoituz. Geroztik, ordea, bide honetatik ere ez da aurrerako pauso bat ere eman. Eta utzi ziren bezalaxe daude gauzak.

Bestaldetik, unibertsitateari dagokionez, aurtengo berria da Deustuko Unibertsitateak bere aldetik eta bere kabuz antolatu berria duen itzulpeneko Master ikastaroa. 1200 ordutako kreditutan dago banatuta; bi urtetako ikasketa aski trinkoak lirateke beraz.

Ikasketa hauek, gaur egun den egoeran beharko luketen etorkizunaz eta izan lezaketenez mintzatzen hasi aurretik, irakaskuntza eta ikasketa ahalegin horiek eman duten fruituaren balantze gisako labur bat egin nahi nuke, balantze zehatza izan gabe, balantze izan litekeen horren nondik norakoak arakatu bederen.

Gaur arteko ikasketa eta irakaskuntza ahaleginek fruitua izan dutela dudarik ez dago. Itzultzaile ikasketak Euskaltzaindiaren eraginez formalizatzen hasi zirenetik hona euskal itzulpengintzak, fenomeno sozial bezala, berebiziko aldea egin bait du. Alde hori irakaskuntzak eta ikasketek zenbateraino eragin duten, eta zenbateraino itzulpen eskariaren gorakadak berak, ez dago garbi, eta seguruenera definitu ere, ezin defini daiteke zehatz.

Zenbait aztarren, hala ere, atera daiteke, galderak behar bezala eginez gero.

Lehenengo galdera: gaur egun itzultzaile direnetan zenbaterainoko eta nolako eragina izan dute Itzultzaile Eskolek? Estatistikariek ez dago, eta zuzen ezin erantzun daiteke. Martuteneko Itzultzaile Eskolako ikastaro erregularrak burutu dituztenen zerrendak eta Elkarte honetako fitxategiak aztertu eta konparatuz ordea (HAEEkoak oraindik ez dira esanguratsuak, aurren amaitu bait du lehenengo ikasle promozioak han), intersekzio laburra dagoela ikusten da.

Erantzun liteke esanez, itzultzaile ikasketek hamar urte dituztela gure artean, eta euskal itzultzailegoaren hazkunde begetatiboa normala bada, talde horretako proportzio handi batek ikasketa horiek hasi aurretik buruturik behar zuela bere lanbiderako prestamena, eta lanbide hau harturik ordurako. Jakin badakigu, ordea, ez dela horrela. Euskal itzulpenaren hazkunde azkarra orain dela hamar-hamabi urte hasi zela, eta areago, lehenagotik itzulpenean ari ziren asko lanbide hau utzi eta bestelakoetan ari direla gaur egun. Hori ikusteko aski da lehenagoko argitalpenen itzultzaileak nortzuk ziren begiratzea; gaur ia "klasiko" joko genituzke haietako batzuk, itzulpenean geroztik batere agertu ez, edo oso gutxi agertu direnez. Esan beharra dago, beraz, gaur egun itzultzaile diren asko eta askoren prestamena ez dela prestamen hori banatzeko sortu ziren erakundee-tan burutu.

Ez da ahaztu behar, ordea, ikasketa arautuetatik kanporako bestelako ikastaro asko ere izan direla. Horietan bai, gaur egun itzultzaile diren askok eta askok hartu du parte. Askotan, ikastaro horietan parte hartu dutenen aitorenak jasoz, hortxe aurkitu izan dituzte

itzultzaileek beren lanbideari buruzko lehendabiziko razionaltasun ahaleginak eta aurrerabiderako abiapuntua. Eta ez da ahaztu behar, era berean, ikastaro horiek, itzultzaile lanbidea antolatuta dagoen bezala honen bakar-lana izanik, ikastaro horiek zenbateraino izan diren elkarrekiko topagune eta bakartasunaren hausle, itzultzaile kolektiboaren egituratzaile.

Orain arte itzultzaileen artean egin diren inkestek besterik ere erakutsi dute, ordea; orain arte itzultzaile ikasketak burutzeko izan diren erakundeei beste alde batetik izateko arrazoi sendoa ematen diena hala ere: euskal itzultzaile gehienek beren lanbiderako hartu izan duten prestamen teoriko “bakarra”, proportzio handi batean, aipatu ikastaroak eta Senez aldizkari hau berau izan dira. Zer ikasia ugarri ematen du honek etorkizunerako ere, pentsatzekoa bait da etorkizunean berzizklaketara bideratu beharko direla gehienbat —geroago arrazoituko dugun bezala— itzultzaile ikasketak, eta irakaskuntza horren zati handi batek ikerketa eta argitalpena beharko duela izan.

Eta azkenik, izulpenaren irakaskuntza ahaleginaren beste ondorio bat: itzultzaile lanbideak hemen eta konkretuan zituen baldintzei buruzko gogoeta ahaleginaren ondorioz, itzultzailegoaren antolamendu proposamenduak ere iturburu horietatik beretatik etorri izan dira euskal itzultzaileen artera. Halaxe sortu zen EIZIE Elkarte hau berau ere, Martuteneko Itzultzaile Eskolaren inizatibaz, handik kanpoko itzultzaile multzo batek bultzatu eta antolatutik.

Beste gogoeta bide bat oraindik: askotan esan izan dugu euskarak gaur egun duen egoera soziolinguistikokoaren ondorioz, hizkuntzaz baliatzen den hainbat jarduera, itzulpena hain zehatz ez dena, itzulpen jardueraz kutsatua, edo —“kutsatu”-k duen gaitz zentzu horri ihes egiteko— hanpatua dagoela. Gure artean, hala ere, gauden euskaldunak, ia guztiak, elebidun garelarik, eta batez ere elebidun jarduten dugularik —hizkuntzatik hizkuntzara berebiziko abiadan aldatuz—, hizkuntza batetik besterako etengabeko informazio truke hori —hizkuntza batean ikasia bestean adieraziz— etengabe gertatzen ari den femomenoa da. Alde horretatik esan daiteke, ia-ia, euskararen erabilera orok duela hurbileko zerikusia itzulpenarekin, eta

zenbat eta hizkuntz jarduera formalagoa —publikoan, idatziz, etab.—, orduan eta, esperientziak hutsegiteko aukerarik ez bait digu uzten, zerikusi estuagoa itzulpenarekin. Zerbaitengatik dago, egon ere, esaera, norbaitek gaizki hitzegin, edo idazten duela iruditzen zaigunean: “Seinale du, bai, gaztelaniaz pentsatu duela”. Hasieran bromatan esaten genuen, baina bromak ozpintzen ari zaizkiola errepikatu behar dugu berriro, gaztelaniaz pentsatzea ez dela gauza txarra, gaztelaniaz pentsatu eta euskarara gaizki itzultzea baizik.

Esandako honen haritik, orain arteko itzultzaile eskolen merezimenduen artean jarri beharra dago, hain zuzen, ikuspegi hau zabaldu izana. Ikasturte eta ikastaroetan parte hartu duten asko eta asko ez dira itzultzaile lanetan ari, bestelakotan baizik. Beste lanbide horietarako ere, ordea, itzulpen ikasketak eman lezakeen hizkuntz desberdintasunaren ohartasuna, eta hizkuntza desberdinetan mezu berbera aditzera emateko eraikitzen den diskurtsuaren egitura desberdintasunaren oharmena beharrezkoa da.

Gutxitxo hartu da hau kontutan gure artean, nahiz zuzeneko eragina duen irakaskuntzan, orokorrean, eta hizkuntz irakaskuntzan bereziki. Horretarakoxe argitaratu zen, adibidez, Senezen ale berezi bat “Itzulpena eta Irakaskuntza”. Gerora ere zuzenean itzulpen ez diren bestelako hizkuntz erabilerek gure artean batez ere duten itzulpen ikuspegi hau aztertu beharra izango da, ez da ahaztu beharko.

Itzultzaile ikasketa premiak

Itzultzaile ikasketek gure artean zer izan behar duten diseinatu ahal izateko, boteretik dekretuz gauzak egiteko ohitura arbuiatzen bada behintzat, eskaini nahi den zerbitzuak zein premia betetzen dituen aztertu beharko da lehenik, kale ertzean izozki denda xoko bat jartzeko kalkulatzan den bezalaxe. Premiak betetzeko helburua hartuta pentsatzeko obligazioa dugu, nahiz badakigun zenbateraino ohitura duen botereak inoren premiak boterearen mesedetan erabiltzeko.

Lehendabiziko premia, eta guztietan neurgarriena, premia kuantitatiboa da: zenbat itzultzaile berri beharko dira Euskal Herrian

hemendik aurrera, etorkizunari buruz egin daitezkeen hipotesiak kontutan hartuta. Merkatu azterketa beraz. Merkatuak izan lezakeen bilakaera aztertu beharko da, etorkizunean izan litezkeen itzultzaile premiak kuantifikatzeko. Guk ez dugu itzulpen alor osoa guztiz aztertzeko daturik. Bai ordea merkatu horren egitura, azkerketa saio honetatik atera behar diren ondorioak atera ahal izateko behar dugun fidagarritasuna emango diguten adinakoa.

Bi alor desberdin nagusitan banatzen da, batez ere, euskal itzulpen-gintza, edo hobeto esanda bi eratako jokaera moduak dituzten alorretan, bezeria zein, halakoak.

Alde batetik instituzio publikoek eratzen duten bezeria dago: Jaurlaritza, Diputazio, Udaletxe, EITB, etab.

Bestetik bezeria pribatua: argitaletxe, instituzio eta erakunde pribatuak, etab.

Bi alorrok ez dira elkarrengan eraginik ez dutenak, baina saio honen puntu honetan interesatzen zaigunetarako oso arinetik baizik ez ditugu ukituko eraginok.

Instituzio publikoen itzultzaile premiak

Orain arte instituzio publikoak izan dira itzultzailearekin harreman egonkorrenak eta haren bezeria finkoen eta oparoena. Instituzio publikoak izan dira, adibidez, itzultzaile lanpostu finko bakarrak —edo ia bakarrak— sortu dituztenak. Ia ehun itzultzaile ari dira, adibidez, Administrazio Publikoko itzulpenetan.

Bi azpi alor ditu: Administrazio Publikoaren egitura bera, eta bere esku dituen komunikabideak, telebista batez ere.

Administrazio Publikoko erakundeek itzulpen politika itxura hutszkoa izaten da askotan; itzultzaileak “euskaldun” agertzeko balio die, baina ez du ezertan aldatzen, ez onerako, ez txarrerako —oso salbuespen agurgarri eta ohoragarritan ezpada—, Administrazio horren izaera. Bertako itzulpenak oso komunikazio funtzio apurra betetzen du. Badira, hala ere, geroz eta gehiago gainera, itzulpenak

egiazko komunikazio funtzioa betetzen duen egoerak. Hori ordea ez da generalizagarria, ez eta gutxiagorik ere, oraingoz behintzat.

Komunikabideei dagokienez, bertan egiten den itzulpenak badu, definizioz, komunikazio balioa.

Bi erakunde mota hauek itzultzailearekin dituzten harremanei dagokienez, bi eratakoak dira harremanok: lanpostu eskaintza (kontratuz nahiz finko), edo merkataritzako erlazio askea. Erlazio hauek ere geroz eta finkoagoak dira, normala den bezala, eta hala itzultzaile jakinen eta instituzio jakinen artean merkatal erlazio iraunkorrak sortzen dira, bezeria finko bezala.

Proporzioz, Administrazio Publikoa eta bere esku dituen komunikabideak dira, konparaziorik ere gabe, euskal itzultzailegoaren bezeriaren zati handiena, itzulgai proporziorik handiena hornitzen duena, bai lanbidez erakunde horietan diharduten itzultzaileentzat, bait free-lance ari direnentzat ere.

Alde korretatik zinez esan daitete, Instituzio Publikoek nora, hara egiten duela euskal itzulpengintzak, ikuspegi kuantitatibotik, jakina.

Eta esan beharra dago, hariari jarraituz, lehenik eta behin, deskribatzen ari garen egoera honek dirudiena baino egonkortasun txikiagoa duela, eta badirela zer pentsatua ematen duten seinaleak. Bi batez ere: EITBk egin izan duen itzulpen eskariaren beherakada, bat batekoa, eta zinez handia (bikoizketa etxeren batean bi urteren buruan lehen zenaren ehuneko 20 baino ez izatera iritsi dira). Pentsa bedi EITB sortu zenean, bertarako egin ziren aurrikuspenetan itzulpen premiak eguneko 300 orri ingurutan kuantifikatu zirela. Honek guztiak zalantzazko egoera eta kezka handia sortzen du lanbide honetan ari direnentzat. Etorkizunerako profesionaltasun perspektibak ezerezera ekartzen ditu, eta azken finean noizbait kalitate maila hobea izango den esperantzak ad calendas graecas atzeratzen ditu.

Berez askoz ere finkoago eta egonkorragoa diruditen Administrazio Publikoko instituzioei dagokienez, beste horrenbeste esan ezin badaiteke ere, kezkaren atzimurra sentiarazten duten seinaleak

ageri dira. Besteren artean berriki aldarrikatu den Itzulpen Zerbitzu Ofiziala bera, Euskararen Normalkuntzarako Legearen indarrez sortzekoa zena, orain arte gauza ahaztuen linboan egona eta berzizklaketa usainez suspertua. Merkatua zer den dakienak badaki, kompetentzia gogorra egin behar diola ponte horretan izen horrekin baitaiatuta datorren kreaturak inizatiba pribatuan ari den itzultzaileari, orain arte Administrazio Publikotik kanpora bideratzen ziren itzulgaiei hara bidea erakusteko lehian batez ere. Kompetentzia are gogorragoa, alor honetako itzultzaileen bezeriak orain arteko guztian itzulpen kalitatearen eskakizun eta selekzio irizpidearen apurrenik ere erakutsi ez duelarik. Inoren gaitasuna gutxietsi ez eta inorena ebidentetzat eman gabe ere, gauza segurua bait da, itzulpen eskabi-dea egiten duenaren aldetik kalitate eskakizunik ez dagoenez, instituzio arrazoiak izan daitezkeela eragile eta nagusi.

Laburtuz, beraz, instituzio publikoen aldetik ez dirudi, kontu guztiak aterata, itzultzaile premia handitzera doanik, bestela baizik. Alde batetik, egia da, beste leku batean esan izan dugu, Administrazioiko itzulpengintzaren arazorik larrienetako bat lanaren antolamendua bera dela, eta antolamendua razionalizatzen den aldetik, itzulpen esakariaren kopuru globala ere baliteke gutxitzea. Ez dut uste, ordea, arrazoi horiek eragiten dutenik Administrazioiko instituzioek itzulpenari dagokionean darabilten politika.

Orainartekoak badu beste ondorio bat ere: itzultzailearen bezerorik handiena —alderik ere gabe— Administrazioa bada, itzulpengintzak dituen gorabeheren kontua ere, neurri berean eska dakioko Administrazioari, erantzukizun zuzena bait du honetan guztian.

Administrazioaren politika honen guztiaren barruan, itzulpena sustatzeko eta itzulpengintzari arnas berria emateko asmoz egiten diren zenbait egintza (Literatur Ondare Unibertsalaren itzulpen proiektua, Testu Filosofikoen itzulpen proiektua, UBIrako testu filosofikoena, sariak...), txalogarri izanik ere, eta beste ikuspegi batzutatik begiratuta ukatu ezin den garrantzia badute ere, ikuspegi kuantitatibotik begiratuta, itzulpenaren merkatura dakarten lanaren ikuspegitik begiratuta, pisurik batere ez duten anekdotak dira, eta ez diote ordainik ematen, ezta hurrik ere, Administrazio horrek berorek beste alor batzuetan sortzen duen eskasiari.

Administrazioarenak ez diren bestelako instituzioetako itzulpen eskaria (unibertsitatearena, etab.) tamainaz instituzio pribatuen artean kokatu ditugun zenbaitena bezalako da, herri honetako paradojen artean txikiena ez bada ere. Funtzionamenduari dagokionez, berriz, Administrazioak bezalatsu jokatzeko du, barneko premietarako itzultzaileak kontratatuz edo finko hartuz, eta bestelako itzulpenak merkatura ateraz.

Instituzio pribatuen itzultzaile premiak

Instituzio pribatuen artean, itzulpen eskariari dagokionez, era askotakoak daude. Lehenik eta behin, multzorik handiena, euskara eta euskaratiko itzulpen eskaririk batere ez duten erakundeak. Sarritxo ahaztuta uzten dira, baina egon, hor daude.

Itzulpen eskabidea egiten dutenen artean, modu askotakoak daude:

Batzuk instituzio publikoen eragin zuzenez —eskariz edo esigentziz— edo irudi publikoaren beharrez, eragiten dituzte itzulpenak. Jaurlaritzan aurkezteko txostenen itzulpena, Banketxeak, etab.

Beste zenbaitetan Administrazio publikoaren laguntzak egiten du posible itzulpena. Zentzu honetan ohargarria da orain arte euskaraz argitaratzen ez duten argitaletxeek —merkatua eskoletan dutenek batez ere— sortu duten eskabide berria, Jaurlaritzaren laguntzen anparoan, eta ohargarria halaber, zenbaterainoko lehia jartzen duten argitaletxe “autoktonoek” etorri berri horiek partitzeko dagoen pasteletik uxatzen, bide batez —eta zeharbidez— pastel horrek beren argitalpen politikan zenbaterainoko garrantzia duen ere aitortuz.

Hala bada, alor honetan ere, neurri handi batean behintzat, Administrazio publikoak definitzen du pribatuen politika ere, pribatuok alde horretatik, haren kirieleisonari kristeleisona jartzen diotela.

Itzulpen eskari hauez aparte, beste bazter eskari bat ere badago, inizatiba pribatu eta baliapide pribatu soilez, tantaka, arrakasta

baino meritu gehiagoz, nobela bana mereziko luketen bidez, itzultzailearengana iristen dena.

Jokabide horren zuzeneko ondorio bezala, alor honetan freelance ari den itzultzaileak harreman sare zabala behar du, eta beti ere instituzio publikoetaraino iristen diren telefono hariak, irauñ nahi badu. Lan modu hau oso sakabanatua da, oso argialetxe gutxi du itzulpen politika argi eta zehatz definitu bat, eta are gutxiago itzultzaile multzo finko iraunkor samarrak; liburu sailen baterako edo, gehienez ere. Itzulpen inizatiba, hain zuzen, itzultzaileak berak hartzen du askotan bere aldetik, jarraitasunik gabe, eta hala doaz ugalduz lehenengo edo bigarren itzulpenetik aurrera gehiago ezagutu ez diren liburu edo literatur itzultzaileak (*Timeo hominem unius translationis...*).

Guztia batera laburtuz, beraz, zentzurik ez duen gauza da, etorkizunean izan daitezkeen itzultzaile ikasketak etorkizun horretan, gaur egun itzulpengintza baldintzatzen duen politika aldatzen ez bada behintzat, oinarri hartuta diseinatzea (Europar, TAV-ak harra-patuko gaituen lekuan, Piriniotako Itunean, Akitaniakoan gaude, *it seems*, hiri anaiak, auzo arrebak, lehenegusina egondako tokiak, diaspora eta guzti, dugu han eta hemen). Politika hori alda daiteke, nahi bada; ez du den bezalakoa zertan izanik; liburu-jasotzaileak eraman daitezke kultur bidaietan, morroskoei ezer kendu gabe, etab. Balira eta lirateke horietan oinarriturik ordea, ezin da gaur egun gerorako ikasketa proiekturik finkatu.

Itzultzaileen premiak

Aurreko puntuan itzultzaile ikasketak diseinatzerakoan eragin handia izan duen tentazioa uxatu nahi izan dugu. Ikasketa horien premia ez da ukatzen, horrenbestez, bestela baizik, bestelako arrazoi asko daude itzultzaile ikasketen premia aldarrikatu eta ikasketa horiek behar bezala diseinatzen ahalegintzeko.

Lehenik eta behin, gaur egun lanean diharduten itzultzaileek behar dituzte ikasketa horiek. Bi eratako laguntza modua itxaro lezake

itzultzaileak ikasketarako egitura formalizatu batetik: berziklaketa lehenik. Eta bere statusaren duintasuna bestetik.

Berziklaketa premiari dagokionez, Senez-en ale honetan bertan beste artikulua batean esaten den gutzia ekar daiteke hona (*Euskal Itzulpenaren berezitasunak - Zenbait gogoeta*). Ez noa beraz hangoa berriro errepikatzeraz.

Itzultzaile statusaren duintasuna dagokionez, ikasketa mailarekin lotura estua du, zalantzarik gabe. Hain zuzen ere, euskal itzultzaileen artean egin diren inkestetan puntu honi buruz galdetu izan denean, eman izan zaizkion erantzunetan ikasketak lotuago agertu izan dira statusarekin prestamenarekin baino, ikasketen definizioak baino titulazioa eskatzen bait zen lehenago: lizentzia edo diploma titulua. Tituluaren latria bultzatzen den gizarte honetan, euskaldungoaren gehiengoa elebidun delarik, hizkuntz ereduaren zalantza eta definiziorik ezarekin uneoro topo egiten dela, ez da harritzekoa itzultzaileen artean halako gora nahi bat, bere statusa zalantzak uki lezakeen sailetik ateratzeko nahi bat somatzea.

Honi dagokionez, zertxobait aurreratzen hasia da Madrilen joan den Azaroan zinpeko itzultzaile izateko izan zen azterketarekin. Esperantza handia dago azterketa horretatik euskaratik gaztelaniarako zinpeko itzultzaile izendapen taldetxo bat iritsiko dela, eta era horretara euskal itzultzailegoak, bide batez, halako ofizialtasun mailatxo bat iristen du.

Hala ere, zenbait urteren buruan euskal itzultzaile ikasketak arautzearekin batera, gaur egun diren itzultzaileen status akademikoa arauzkotzeko bideak ere pentsatu beharra dago.

Lehen ere esana dugu, ordea, itzulpenaren eremua, euskarari dagokionean, zentzurik estuenean itzulpen jarduera dena baino askoz ere zabalagoa dela. Ikuspegi horretatik burutu daitezkeen lanak ere, itzultzaile ikasketak banatzeko ardura duen instituzio edo erakunde horrek beharko lituzke bideratu.

Instituzio honen lehendabiziko xedea, irakaskuntza banatzearekin batera, eta ahaleginetan haren aurretik edo goitik agian, ikerke-

tak beharko luke izan. Lehen aipatutako artikuluan behin eta berriro aipatu dudan euskal itzulpenaren berezitasunak mila zoko eta bihurrrera bait ditu, itzulpenaren teoria soilak argitzen ez dituenak, eta euskal itzulpenak, itzulpen doi, duin eta egokia izango bada, argitu beharko dituenak.

Zenbateraino hala den kontu egiteko, pentsa bedi besterik gabe, euskal itzulpenak, edo euskal erredakzioak besterik gabe, dituen hainbat paradojetako batean. Hizkuntz erabileraren hainbat alorretarako hizkuntz eredu faltaz, tradizio (laburrenaren ere) faltaz, hitz batean testuz gainerikoa kontestu zabal konpartitu baten faltaz, euskaraz askoz ere zehatzago eta doiago idatzi beharra dago egoera normal batean gaztelaniaz baino —teoriak eta ezagutza soziolinguistikoak hala eskatzen du— mezu jakin bat ulergarritasun berberaz ulertarazteko. Laburtuz, mintzatuz ez dela, idatziz baizik, euskaraz hobeto idatzi behar da gaztelaniaz baino, komunikazio funtzio berbera betetzeko.

Esan beharrik ez dago euskal itzulpenaren kalitatea, batz bestea, —eta euskal erredakzioarena ere ez nuke salbu eta akats gabe utzi nahi puntu honi dagokionez— aski urruti dagoela oraindik maila hori iristetik.

Ikerketa ahalegin handia egin beharko da alor honetan. Norbait esan zuen euskara batuaren bataila irabazita dagoela, estiloaren bataila irabazi behar dela orain. Estiloaren bataila itzulpenean jokatuko da neurri handi batean, eta ia erredakzio orok oinarrian itzulpen ahalegin bat duen egoeran —gurean— itzulpena ez den erredakzioan ere zer esan ugari izango du itzulpen esperientziatik ondorioz ateratzen den jakintzak.

Ikasketak unibertsitatean

Orain artekoan ez dut unibertsitaterik aipatu, itzultzaile ikasketak banatzeko insituzio edo erakunde bat baizik, horrelaxe, bere lausotasun eta zehazgabetasunean baizik. Honen aurreko puntua itzultzaileen eta euskal itzulpengintzaren premiei zegokiena bait

zen, izan ere, eta premiez ari garenean ilusioari hegoak ernetzen zaizkio. Unibertsitateaz ari garenean, berriz, izenaren distira guztiak arren, existentziaren mundu apal eta zapalean ari gara, ahalaren mundu laburrean ezinaren hesi altuak mugaturik.

Espanian, Europako beste herrialde askotan bezala —ez guztietan— unibertsitateak banatu ditu aspaldiko urteotan itzultzaile ikasketak. Frantzian ere berdin da. Ez ordea, Belgikan, adibide bat ekartzeagatik; han itzultzaile eta interpretari eskola nagusiena, Brussel-goia —ia 600 ikasle dituena— ez bait da unibertsitate barneko institutua. Gauza bera gertatzen da Mons-en. Unibertsitatearen irudia eta itzala ez dela gauza sakratu eta gorentzat hartu behar, besterik ez du esan nahi honek. Ikasketa hauetarako garantia eta irtenbide bakarra ez da unibertsitatea.

Egia da, hala ere, gu gauden gizarte honek unibertsitatearen esku utzi duela ikasketa sistemaren gailurra, ikasketa horien onarpena, eta horien ondotik eta ondorioz ikastunari datorkiokeen statusaren aitorpena.

Espanian, hala ere, alde batetik Europako Merkatuan sartu izanarekin eta unibertsitateko ikasketen erreformarekin batera, eta esan gabe filologiazko ikasketen krisiarekin, eta antolamendu eskasarekin, itzulpen ikasketak antolatzeko larria sartu zaie zenbait unibertsitateri. Fenomenu honi begira dauden askoren iritzian, berriz, itzultzaile ikasketak bide linguistizista edo filologista batetik bideratzea izango litzateke gaur egun ikasketa hauei gerta lekiekeen gauzarik makurrena.

Gai honetaz azkeneko Senez alean badira bi artikulu: *Itzultzaile eta Interpretarien ikasketen berrikuntzari buruzko kontsiderazioak*, HAAE-ren izenean idatzia, eta *Etorkizuneko itzulpen lizentziatura: zenbait ohar kritiko*, Xabier Mendiguren jaunarena.

Euskal itzulpena den kasu berezian, berebiziko malgutasuna beharko du unibertsitateak, definitu ditugun premiei eman lekiekeen erantzun egokiena eman ahal izateko. Nekez da espero izatekoa. Eta begiak itsu ez dituenak, gandu artean bada ere, sumatu

bederen egin du, itzulpenarenak ez diren interesak mugituko direla ikasketa horien formalizazioaren inguruan, ilusioa ito lezaketen interesak tamalez.

Hala ere unibertsitateak, Euskal herriko Unibertsitateak, bete lezake, bete behar du, itzultzaile ikasketak antolatu eta banaketzeko eginkizuna. Areago, unibertsitatea da, gaur egun eta hemen, itzultzaile premiak eta itzultzaileek dituzten eskariak ongien bete ditzakeen erakundea.

Optimismoa libre da, eta obligazioa batzutan baikor izatea; esperantzari leku eman behar zaio, bada, honetan, unibertsitateaz kanpo nekez ikusten bait da, dagoeneko emanik diren pausuak emanda, itzultzaile ikasketentzako lekurik. Barrutik eta kanpotik eskatu eta estutu beharra izango da, ikasketa horien inguruan eratzen den ikerketa eta irakaskuntz antolamenduak euskal itzulpenak eta euskal itzultzaileek dituzten premiei erantzun diezaien.

SINTESIS

Algunas notas sobre el futuro de los estudios de traducción

Los estudios de traducción al euskara han tenido muchos altibajos durante estos últimos años. En diez años, han nacido la Escuela de Traductores de Martutene y la de HAEE-IVAP (de traducción administrativa). Ambas se encuentran en fase de cambio profundo: la primera, por problemas económicos, se ha reducido considerablemente, y ahora se limita a impartir cursos anuales de traducción y redacción. La segunda ya no acepta nuevos alumnos, en espera de que sea la Universidad la que se haga cargo de estos estudios.

El balance de estos estudios es positivo; sobre todo, han servido como lugar de encuentro para los traductores, y su profesión, normalmente solitaria, ha empezado a ser colectiva. E iniciativas importantes, como esta revista, *Senez*, y la Asociación de Traductores, EIZIE, son fruto de la Escuela de Martutene.

Ahora que se plantea un gran cambio en estos estudios, y con la finalidad de hacer un diseño adecuado, trataremos de analizar las necesidades de los estudios.

En primer lugar, habría que preguntarse cuántos traductores hacen falta; es decir, hacer un estudio de mercado. Nuestro mercado se divide en dos grupos: en primer lugar, están las instituciones públicas (Gobierno, Diputaciones, Ayuntamientos, EITB). Esta clientela es, con mucho, la más importante cuantitativamente, y la única que ha creado para los traductores puestos de trabajo fijos. Se puede decir pues que, allí a donde vayan las instituciones públicas, allí va la traducción. Y, en estos últimos años, la cantidad de material a traducir, principalmente en ETB, ha bajado mucho, y también se prevee un cambio en este sentido con la creación del Servicio Oficial de Traducción. Aun cuando, por otra lado, hay iniciativas públicas destinadas a promover la traducción (diversos proyectos de traducción literaria, de textos filosóficos, etc.), estas iniciativas, desde un punto de vista cuantitativo, son meramente anecdóticas.

En las instituciones privadas (entidades bancarias, cajas de ahorro; editoriales, etc), la administración, indirectamente, tiene también un gran peso (exigencias de bilingüismo, subvenciones, etc), y es la que al final define la política de traducción de estas entidades.

En lo que respecta a las necesidades del traductor, en primer lugar, los más necesitados de estudios son los que actualmente están trabajando. De los estudios, lo que el traductor espera es reciclaje y la dignificación de su status, debido a la inexistencia de un título homologado.

Hay que subrayar la importancia que tiene la investigación dentro de un plan de estudios, debido, fundamentalmente, a la situación diglósica del euskara. Aunque esté, como se ha dicho, ganada la batalla de la unificación lingüística, queda aún la del estilo; y esta batalla se librará sobre todo en el campo de la traducción (directa o indirectamente, ya que muchos textos originales presuponen una traducción en el fondo).

Si estos estudios se llevan a cabo en la Universidad -lo que no tiene por que ser así forzosamente-, se necesitaría una gran flexibilidad para responder adecuadamente a las necesidades actuales de la traducción al euskara. Es sin embargo la Universidad la que mejor podría hacerlo.

SYNTHESIS

Some notes on the Future of Translation Studies

Translation Studies in Basque have had many ups and downs during recent years. In the last ten years the Martutene Translators School and HAEE-IVAP (Administrative translation) have come into existence. Both are now in a period of great change. The first school, due to economic problems, has been considerably reduced in size —and now is limited to teaching translating and writing. The second school no longer accepts new pupils in the hope that the University will take over these studies.

The balance of these studies es positive: above all, they have served as a meeting place for translators, and their profession generally being a lonely one has started to become collective. This magazine, Senez, an the Translators Association EIZIE are fruit of the Martutene School.

Now great changes in these studies are being considered, an with the ultimate aim being that of adequate design, we shall try to analyze the needs of the studies.

In the first place, we must ask how many translators are needed; that is to say, we must study the market. Our market is divided into two groups: first, there are the public institutions (Government, Deputation, Town Hall, EITB). From a quantitative point of view, they are by far our most important clients — and the only client that has provided permanent jobs for translators. It can therefore be said that whenever there are public institutions, there is translation. Recently, the quantity of work to be translated for ETB mainly has reduced considerably. Changes can also forseen be here with creation of the Official Tranlation Service.

There is public initiative aimed at promoting tranlation (various projectos to translate literary and philosophical texts) but this initiative quantitively speaking is merely anecdotal.

In private institutions (Banks, Saving Banks, editorials, etc) the administration, indirectly also weighs heavily, (demans made on bilinguism, financing, etc) and it is the administration which will ultimately define the politics of translation in these entities.

As far as the need of the translator are concerned—in the first place, those who are working at the present time are in fact most in need of studies, it is necessary to remember the importance of research —particularly when one considers the various different types of Basque.

While, as has already been mencioned, the battle for linguistic unification has been won, the battle for style is yet to be fought. This battle will take place mainly in the field of translation (directly or indirectly, as the translation many original texts is basically taken for granted as being necessary).

If these studies are carried out in the University—which is not absolutely necessary, great flexibility would be needed in order to adequately cater for the present needs of translation into Basque. The University, however, is where this could best be achieved.

Itzultzaile ikasketen diseinua (Euskal Herriko Unibertsitateari proposamendua)*

Lan honen beste leku batean euskal itzultzaileak besteekiko dituen zenbait berezitasun aipatu ditugu. Berezitasun horiek guztiak euskarak berak duen egoera soziolinguistikoak eraginak dira, ikusten denez. Euskal itzultzaileak, ordea, egoera horretarakoxe, egoera horretan erantzuteko, prestatu behar dira, ez hizkuntz egoera normalizatu batean erantzuteko.

Euskal itzultzaile ikasketak itzultzaileari eskatzen zaizkion eta erremediorik gabe bere gain hartzera —ondo ala txarki hartzera— derrigorturik aurkituko den eginkizun eta erantzukizun horiek bete ahal izan ditzan trebatzeko diseinatu beharko dira.

* Testu hau eta bertan egiten diren proposamena, bertan esaten den bezala, EIZIE, Martuteneko Itzultzaile Eskola eta HAEE-ko Itzultzaile Eskolako ordezkarien artean prestatu zen aurtengo ikasturtearen hasieran, Euskal Herriko Unibertsitateari, eta zehazki Gasteizko Filologia Fakultateari aurkezteko, bertako ordezkariekin proiektu honi buruz lehendabiziko bilera izan eta bertan Unibertsitateak zituen egiazko posibilitateak aztertu ondoren. Alde horretatik zentzu —eta muga— hori du: nahiko litzatekeena ahaztu gabe, baina posibilitateen muga kontutan hartuz burututako proiektua da. Proiektu horretan ez da aurrerako beste pausorik eman geroztik. Lekukotasun bezala eta gogoeta eta aztergai izan dadin aurkezten dugu hemen.

Oinarri-oinarrian itzultzaile trebakuntzarako burutu behar diren ikasketak gai berdinei dagozkie alde guztietan. Itzultzaile nahi duenari beste edozein itzultzaile eskolatan eskatzen zaion curriculum berbera eskatu beharko litzaiokie euskal itzultzaile profesionalari ere. Gurean ordea, gain-karga bat izan beharko du, biziko duen egoera berezira moldatzeko.

Orain arteko eskolen esperientziak berak ere erakutsia du —askoren harrimenerako, agian— translatozia eta hizkuntzalaritzazko ikasketa sakonagoak zeudela diseinatuta gure artean, izan ditugun eskolek zituzten muga guztiekin ere, E.U.T.I. gehienetan baino. Hasieratik ez zen hala izan, baina esperientziak berehalaxe behartu zituen eskolak horretara. Izan ere, gure arteko itzultzaile batek esana du —eta esajerazio puntua kenduta arrazoiari ez zaio asko urruntzen— Espainia edo Frantziako itzultzaile normalena, bere ikasketek ematen dioten prestaketarekin, barregarri geratuko litzatekeela euskarazko itzulpengintzan saiatuko balitz, bere ingurune soziolinguistikoaren segurtasunetik atera eta gurea bezain hizkuntz-bikote berezira sarturik.

Esajerazio horretan aditzera ematen zen sentimenak ordea arrazoi du euskal itzultzaileak prestamen berezia behar duela aditzera ematean.

Horregatik, gure iritzian, euskarazko itzultzaile ikasketak beste ikasketetatik hasierako urtetan behintzat bereizteko eskatzen du zuhurtasunak.

* * *

Unibertsitateak itzultzaile ikasketak bere gain hartzeko duen asmo honetan parte hartzeko prest gauden erakundeok —Itzultzaile Eskolak, EIZIE Elkarte— iritzi bat bera dugu puntu honi dagokionez: Euskarazko itzultzaile ikasketak, aipatu diren arrazoiengatik, beste hizkuntzetako itzultzaile ikasketetatik aparteantolatu behar dira.

Iritzi hori hartzeko bi eratako arrazoiak izan ditugu batez ere:

Batetik, euskarazko itzultzaile ikasketen diseinua bera: gaur gaurkoz bederen, zenbait gairen ikasketak beste hizkuntzetako itzultzaile-gaiekin batera antola litezkeenak baldin badira ere, gaur egun euskarazko itzultzailetzarako ikasketen ardatza izan behar duten gaiak ez bait dira amankomunak izango. Geroxeago zehaztuko dugu gehiago puntu hau.

Eta bestetik, Eskola, eta irakasle talde, edo Master ikasketen antolakuntzarako batera bildu eta martxan jarri beharra izango den arduradun taldearen eginkizuna ez bait da da mugatu behar, gure iritzian, beren esperientziatik iragazi eta teoriaren laguntzarekin formalizatu ahal izan dituzten irakasgai horiek ikasleei banatzera bakarrik. Euskararen egoeraren berezitasunarengatik beragatik, eta orain arte esandako guztiagatik, talde honen eginkizunik behinene-takoa, behinena ez bada, euskal itzulpengintza razionalizatu, pentsatu, eta eraturik dagoen itzultzaile kolektiboari —dagoen euskal itzulpengintzaren ardura duenari— gogoeta eta garapenezko aurrerabidea zabaltzea delako, gure iritzian. Honetan gure iritzi hau ezin adosago dator unibertsitatearen xedearekin: irakaskuntza ez ezik ikerketa ere bere bait du unibertsitateak.

Ikerketa hori bi alderdi edo frentetan burutu beharko litzateke batez ere:

- Munduan, European batez ere, itzulpen ikasketa eta ikerketaren inguruan egiten diren aurreramentu guztiak ezagutu eta gure artera ekartzen ahalegindu: teoriak, baliapide informatikoak, etab., horretarako behar den tokira joan eta behar den tokian parte hartuz.
- Euskal itzulpenaren ikerketa: historia, hizkuntz-bikotekako baliokidetasun sistemak, metodologiak. Orain arte antolakuntza oso ahuletan oinarrituta egin ahal izan dena jaso, sistematizatu, eta horretan oinarri hartuta aurrerako lanak programatu eta bideratzea.

Oinarritzko lan honetarako azpiegitura egokia jartzen ez baldin bada, Unibertsitateak euskal itzulpenaren alorrean

burutu nahi duen ahalegin hau hutsegitera geratuko da kondnaturik, hain beharra dugun itzulpengintzan aldaketa kualitatiborik ekartzeko bideak itxirik izango dituelako.

Berriro lehenengo puntura itzulirik, idazki honen ondoren doan curriculum proposamenduan ageri den bezala, Master ikastaroa osatuko luketen bi ikasturteetan **teoriazko gaien** eta **trebakuntzako ariketen** arteko banaketa bat dago.

Gai hauei begiratzen bazaie, Trebakuntzazko ariketa deituak, gaztelania-euskara itzultzailetzarako gai espezifiko bezala har litezkeenak dira ia guztiak (I ikaskurteko trebakuntzetako 3. puntua: Itzulpenerako lanabesak” kenduta). 2. puntuan ageri diren “Itzulpen estrategiak eta ariketak”, nahiz formulazioaren arabera edozein hizkuntz-bikoteko itzulpengintzan trebatzeko jenerikoa den, ariketa guztiak testu jakinen gainean egiten dira, eta hizkuntzaz definituta egongo dira horrenbestez.

Teoriazko gaietan ere batzuk alor honetako espezifikotzat jo daitezkeenak dira (“Euskara-gaztelania baliokidetasun sistema”). “Diskurtoaren azterketa (metodologia)” gaia, berez jenerikoa zertan ezin izanik ez duena, euskara-gaztelania bikotearen berezitasunagatik sartu da hain zuzen ikasgaion artean, euskal itzultzaileak bestek baino premia handiagoa –eta nabarmenagoa– bait du ikasketa gai hau ezagutu eta sakontzeko.

Ikasketen aldetik beraz, I Ikasturteko “Itzulpen teoria - itzulpenaren historia” “Testu jeneroen azterketa” “Itzulpenerako lanabesak” eta II ikasturteko **Teoriazko gaiak** geratzen dira beste hizkuntzetako itzultzaile ikasketekin bateragarri.

I Ikasturtea

Teoriazko gaiak

- | | |
|--|-----------|
| 1. Itzulpenaren teoria - Itzulpenaren historia | 9 kreditu |
| 2. Diskurtsoaren azterketa (metodologia) | 6 kreditu |
| 3. Euskara - gaztelania baliokidetasun sistema | 9 kreditu |
| 4. Testu jeneroen azterketa | 3 kreditu |

Trebakuntzazko ariketak

- | | |
|---|------------|
| 1. Euskara (hizkuntza sakondu eta aberasteko baliapideak) | 9 kreditu |
| a) Testuen irakurketa eta baliamendua (idazle klasikoak, euskalkiak, jenero desberdinetako testuak) | |
| b) Testu konparaketa | |
| c) Testu moldaketa | |
| d) Erredakzioa | |
| 2. Itzulpen estrategiak eta ariketak | 15 kreditu |
| a) Mezuaren jerarkizazio eta memoria ariketak | |
| b) Parafrasia | |
| c) X.H.ko laburpena eta bertsio librea | |
| d) Itzulpen doitua | |
| e) Egindako testuaren berrikusketa: | |
| - Konparaketa | |
| - Ebaluaketa | |
| - Kritika | |
| - Zuzenketa | |
| 3. Itulpenerako lanabesak (ziklo laburretan banatuta) | 9 kreditu |
| - Informazio bilaketa (hiztegiak, datu bankuak, terminologia bankuak...) | |
| - Informatikaren baliapideak | |
| - Gai osagarrien aurkezpena eta bibliografia (Hizkuntzalaritza, soziolinguistika, literatura, terminologia, psikolinguistika, semiotika...) | |

- Zenbait gai berezitarako gidaritza: zuzenbidea, ekonomia...

II Ikasturtea

Teoriazko gaiak

1. Gai nagusiak 15 kreditu
(espezializazioaren arabera: Literaturitzulpena ala Itzulpen juridiko-administratiboa)
2. Gai osagarriak 9 kreditu
(espezializazio osagarri bezala: testudibulgatibo-informatiboen itzulpena edo itzulpen zientifiko teknikoa) Azken biok ahal dela lehen lauhilabeteko aldian egin beharko lirateke, bigarrena tesina gisako lan pertsonal batetarako gidaritzarako utziz.
3. Gai espezifikoak: espezializazioaren arabera. 9 kreditu

Trebakuntzazko ariketak

A) Ariketa orokorrak

1. Euskarazko hizkuntz eredu aberastu eta finkatzeko metodoak (jarraipena) 9 kreditu
 - a) Testu irakurketa eta baliamentua
 - b) Testu konparaketak (itzulpenetan)
2. Itzulpen doitua: 18 kreditu
 - a) Gaztelania → Euskara
 - b) Euskara → Gaztelania

B) Ariketa espezifikoak

Testu mailakatuen itzulpena espezializazio bakoitzean.

Espainiako Estatuko hizkuntzen arteko literatur itzulpena: Euskara*

Jesus M. Zabaleta

Jaun/Andereak:

Penintsula honetako hizkuntzen arteko itzulpenak gure artean, Euskal Herrian izan duen historiaren azalpen labur bat egingo al dudan eskatu dit mintegi honetarako Espainiako Estatuko beste hizkuntzetatik euskarara eta euskaratik haietara izan diren literatur itzulpenen iragana eta oraina dut aditzera eman behar dizuedan gaia.

Ahalik eta azalpen laburrenean ahaleginduko natzaizue gai honetaz dudan ikuspegia aditzera ematen. Iragana eta oraina hartzen baditut gai, mugak jarri behar dizkiot iraganari harunztik eta orainari hemendik. Izan ere, nire ondoren Koldo Izagirre jauna mintzatze-koa da hemen aipatzen ari garen itzulpenaren etorkizunaz.

Iraganak hasieran bertan du berezko muga. Gauza jakina da euskal itzulpena hasi, J. Leizarragaren Bibli itzulpenekin hasten

* Ponentzia hau Madrilen **Espainiako Estatutuko Hizkuntzen Arteko Literatur Itzulpenari buruzko Jardunaldietan** irakurri zen. Geroztik **Nouvelles de la FIT - FIT Newsletter** aldizkarian argitaratu da (VIII - nº 1-2).

dela egiaz. Orainari, muga definitzeko, baina orainak etorkizuna dakarren moduan definitu hain zuzen, denborak dakarren abiadaren zentzua isladatuko den moduan alegia, zailagoa da, eta nonbait jar-tzeagatik 1986ko liburu argitaratuen zerrendetan jarri diot muga hori.

Ez nuke euskal itzulpenaren azaleko historiara eta joera forma-len azterketara mugatu nahi ordea nire azalpen hau: zertzuk eta nola itzuli diren euskarara zerrenda egin eta komentarioa azaltzera.

Deskribapen historiko soilak den horretatik abiaturik, historia hori eragin duen barne dinamika ulertzera hurbildu nahi nuke saio honetan. Deskribapen soilak ezkutuan uzten bait du maizenik gerta-kariaren funtsezko "zentzua"; Estatu honetako itzultzaileak elkarla-nerako eta elkarren ulermenerako bilduz joan nahi dugun honetan, gure jarduera profesionalak Estatu honetako hizkuntza bakoitzaren egoeran duen zentzua eta gaudenera ekarri gaituen bideak izan duena ulertzen ahaleginduz ekin beharko bait genioke sailari.

Euskal itzulpenaren ikuspegi historikoa

Euskaratik Espainiako Estatu barreneko beste hizkuntzetara eta haietatik euskararako itzulpen literarioa egiaz izan duen lekuan kokatzeko, euskarara eta euskaratik egin den itzulpena bere osota-sunean definitzen duten beste bi parametroen artean behar da koka-tu. Alde batetik Espainiako beste hizkuntzetatik euskarara eta kon-trako zentzuan egin izan diren itzulpenen artean literatur itzulpenak duen tokia aztertu beharko da, eta bestetik euskarara edo euskaratik egiten diren literatur itzulpenetan aipatu hizkuntzetara edo hizkun-tzetatikoak duen lekua begiratu. Kontutan hartu behar da, laburtze-ko, aztergai dugun itzulpen mota hau beste multzo handi batzuen azpimultzoa dela, eta halaxe begiratu behar dela bere garrantzia erlatiboa ezagutu nahi badugu.

Euskal itzulpenaren historiaz aritu direnek bi aldi nagusitan banatu ohi dute historia hori, euskal literaturaren historia banatu ohi den bezalaxe:

- a) Lehenengo aldia, euskarazko lehenengo liburua argitara ematen denetik, 1545an Bernart Etxeparek **Linguæ Vasconum Primitiæ** argitaratu zuenetik, edo guri dagokigunean Joanes Leizarragak **Jesus Christen Testament Berria** argitaratu zuenetik, 1876an Foruak galdu, edo 1879an Lore Jokoak ospatzen hasten diren arte doana, gertakari historiko jakin bat aldaketa baten islada izan litekeen zentzuan.
- b) Bigarren epe bat bezala hartu ohi da Lore Jokoen ospaketak hastetik gure garaietarainokoa. Literaturari dagokigunean garbi dago bigarren epe hau lehenengotik berezi litekeena dela. Data horietatik aurrerako literaturak aurreko aldietakoak ez bezalako arazoei erantzuten die. Aldaketa hori ez da bat batean gertatzen, uste izatekoa zenez, baina XIX mendearen azken laurdenean euskal gizartean agertzen hasten dira hurrengo hamarkadetan izango dena eragingo duten faktoreak. Gauza berbera gertatzen da literaturari dagokigunean, eta itzulpenak ez dio, noski, lege horri ihes egiten.
- c) Gaur egun bestalde, nahikoa arrazoi badugu, nik uste, azkeneko hamar urteotan, bai literaturan, eta seguruenik arrazoi askoz ere gehiagoz itzulpenean, lehenengoak ez bezalako aro desberdin batean gaudela uste izateko, haietan ez bezalako premiak ditugula, haietan ez bezalako dinamika bati erantzuten diola bai literaturak eta bai itzulpenak. Literaturaren historiatik begira ziurtzat eman litekeen hori, askoz ere ziurragotzat eman liteke, seguruenik, itzulpenaren historiaren ikuspegitik.

Hiru garaioek, ordea, ikuspegi soziolinguistiko batetik deskribatu beharra dago, labur-labur bada ere, itzulpenak beroietan izan zuen eginkizuna ulertuko bada; hain zuzen ere, beren hizkuntzaren historia, eta une bakoitzeko egoera, gurea ez bezalako izan duten beste-lako hizkuntz egoera batzuetatik ez bait da ulertzen erraza, nik uste, gurea bezalako historia.

a.- Lehen aldia

Euskal itzulpenaren eta literaturaren lehen garai hau hurrengoan desberdin egiten duten zenbait ezaugarri aipatu behar ditut lehenik.

Lehenik eta behin, aipatzen ari garen garaiotan Euskal Herria ia erabat euskalduna da, herri mailan bederen. Hizkuntzak geografiazko muga aski zehatzak ditu, mugaz alde batetik hizkuntza bat erabiltzen dela, eta bestetik bestea esateko moduan, beti ere hizkuntz mugetako bereziak diren fenomenoak ukatu gabe.

Ezin liteke gauza bera esan gizarte mailez.

Gizarte maila apalenak, laborariak, langileria orokorrean, euskaraz mintzatzen den barrutian, badirudi XIX mendea aski aurreratua den arte, euskaldun soilak, elebakardunak direla, gehienez. Aita Larramendik, Kardaberazek etabarrek diotena lekuko. J.I. Iztuetak 1847an argitara eman zuen **Guipuzcoaco provinciaren condairaren sarreran bertan**, umore ondo garratzez, dakartzan datuak adierazkor askoak dira zentzu honetan: *“Provinciar labur onetaco mugapean contatcen dira eun ta oguei milla arima bezalatsu; oetatic eun milla bederic izango dira Euskara beste itzcuntzaric ezdaqutenac: gaiñerontceco oguei milla-etan beguira izan eztiitezquean erdiac baño gueiago, Euscararen ugazume arrotz, nongoac eta noren odolecoac dira berac ere ez daqutenac, eta qzquenengo amar milla-etan ere izango dira guichienaz sei millaraño, Euscaraz charqui, eta gatzelaniaz gaizqui itzegiten dutenac, beren buru arroac guizon andi ta jaquintsu eguiteagatic”*.

Iztuetak berak ematen du aditzera gizarte maila aberatsagoak erdal zaleak direla bere garaian. Gauza bera salatua zuen Aita Larramendik. Eta historiak ere erakusten du: Euskal burgeseriak gatzeleraren alde jokatu zuen apustua ia salbuespenik gabe. Besteren artean, Gatzelaren eskribau hornitzaile izan zen.

Elizari aitortu behar zaio aldi horretan ia erabateko protagonismoa euskararen erabilera idatzian, liburugintzan. Protagonismo horren zentzua eztabaidatuagoa da. Eliza bera elebidun izanik, gutxienez —gogora bitez puntu honetan Larramendik hainbat hizkuntza garbi eta egokian predikatzeke gauza ez ziren predikariei egiten zizkien salakuntzak— bere pastoral premietarako erabili du bakarrik euskara beharbada. Esan izan den bezala, euskal kleroak bete du, XIX mende bukaerara arte, euskal herri xehe elebakardunaren intelektual organikoaren papera.

Zentzu horretan ez da harritzekoa Etxeparerengandik hasi eta 1879 bitartean argitaratzen diren 195 liburuetatik %89 erlijio gaiezkoak izatea. %11 liburu besterik ez dira euskaraz, hirurehun eta gehiago urte horietan argitaratutakoetatik, itzuliak nahiz sortzezkoak, erlijio gaia ez dutenak.

Testuinguru horretan oso zaila da literatur produkzio idatzia aurkitzea, eta are zailagoa literatur itzulpena. Eta uste izatekoa zen bezala gertatzen da, gertatu ere. Hiru mende igaroak hartzen dituen epe horretan literatur itzulpenezko banaka batzuk besterik ez dira:

- 1.—Bizenta Mogelen **Ipuin Onac** (1804): Esoporen fabulen itzulpena.
- 2.—P. Iturriagaren **Fábulas y otras composiciones en verso vascongado** (1842), Samaniegoren alegien eta Vigilioren eglogen itzulpena.
- 3.—P. Iturriagaren **Jolasac** (1842), euskaraz eta gazteleraz.
- 4.—Archuren **Fableac edo Alegiac** (1852) La Fontaineren fabulen itzulpena.
- 5.—Goyetcheren **Fableac edo Alegiac** (1852) La Fontaineren fabulen itzulpena.
- 6.—R. Dasconaguerreren **Atheka Gaitzeko oihartzunak** (1870), frantsesetik autorearen lagunen batek itzulia.

Horien artetik Espainiako Estatuko hizkuntzetatik itzuliak ez direnak bakantzen baldin badira, uzta laburra geratzen da aldi honetan aipatzen ari garen itzulpen modurako.

Literatur itzulpen hau, gainera, urria ez ezik, epe honetan egiten den itzulpen bikainena ere ez da.

Lehentxoago zorroztasun beharrez alde batera utzi ditugun erlijio gaiezko itzulpenak, erlijiozko literatur itzulpena kontutan hartzen baldin badugu, hartan aurkituko ditugu euskal itzulpenaren historiak bere lehen mendetan eman izan dituen itzultzaile handien eta aipagarrienak: Joannes Leizarraga, Silvain Pouvreau, Harane-

der, M. Chourio, B. Larreguy, M. Maister, M. Duhalde, M. Inchauspe, P.A. Añibarro, J.C. Echeverria, P. Uriarte.

Erljio gaiezko literatur itzulpenean ere, ordea, Espainiako Estatuko hizkuntzen artean egindakoak ez du aipatzea merezi duen pisurik, euskal literaturaren historiaren lehen mendeetan, XIXaren hasierara arte batez ere, Euskal Herriaren Ipar aldeko idazleek, gaztelaniazko literaturatik baino frantsesetik gehiago edaten zutenek, lehenatasuna izan bait zuten guztian.

Azkenik, lehen aldi honi dagokiona bukatzeko, begiratu beharra iruditzen zaigu, itzulpenak euskal liburugintzan izan duen, eta aurrerantzean ere izango duen pisua ezagutzeko beste indize bat, sormenezko eta itzulpenezko obren arteko proportzioa, alegia: Hala I. Sarasolak euskal literaturaren hastapenetik Lore Jokoen hasierara arte kontatzen dituen 194 obra desberdinen artean, 93 itzulpenak dira, eta 101 besterik ez dira sormenezkoak, nolahalako egokipena ere sormenezko hauen artean kontaturik.

Horrek, besterik gabe, garbi erakusten du euskal literaturaren itzulpenak hasieratik duen pisua.

b.- Bigarren aldia

XIX mendearen azken laurdenarekin batera garrantzi handiko aldakuntzak hasten dira gertatzen Euskal Herrian. Hego Euskal Herrian batez ere, bai politikari dagokionean, bai egoera soziolinguistikoari dagokionean: 1876an Foruak galtzen dira, 1879an, lehen esan bezala Lore Jokoa ospatzen hasten. Mendearen azken hamarkadak Euskal Herriko burgeseriaren zati bat bere baitan bilduz gerora Alderdi nazionalista bat izango denaren sorrera ikusten du, Alderdi sozialistaren sorrera ere ikusko duen bezala.

Burgeseriaren parte batek, beraz, aukera politikoarekin batera, hizkuntz aukera egiten du, euskararen alde. Euskal Herriaren nazio proiektuaren osagarri bezala euskara sartzen da.

Aldi beretsuan, ordea, Euskal Herriko gizarte maila guztiak elebidun bihurtzen hasten dira, luze iraungo duen prozesu batean.

Baina ordura arte gizarte maila apalenetan behintzat hizkuntzazko mugak geografiazko mugekin bat zetozenak, iragazkorragoak bilakutzen dira, eskolaren bidez batez ere.

Eta horrekin batera, hizkuntz eredua, ordura arteko tradizioan aski finkoa izana zena, zalantzan jartzen da, Hego Euskal Herriko idazle eta itzultzaileen artean batez ere. Tradizioaren aurrean era bateko edo besteko garbizalekeriak, XX mendea orain arte markatu dutenak eta oraindik ere zenbait bazter sektoretan indarra dutenak, eratzen dira.

Bere burua Larramendiren jarraitzaile nahi duen hizkuntz garbizalekeria porrokatua, euskaratik gaztelaniaren antza —gaztelaniarena bereziki— duen oro urrutira uxatu nahiko lukeena, neologismo sortzaile agortu ezina aldi berean, politikan Arana-Goiriren jarraitzaileen artean zabaldua eta justifikatua, batetik.

Bestetik garbizalekeria sotilagoa, bere burua garbizaletzat aitortzen ez duena, garbizalekeriaren arbuizatzailetzat baizik, garbizalekeria sintaxi alorrean duena, R.M. Azkue berarengandik hasi, eta gaur egun oraindik sektore aski zabaletan hitzez arbuiatu baina egitateetan indarrean dagoena.

Joera horiek Ipar Euskal Herriko idazleen artean ez zuten horrenbesteko eraginik izan, baina guri dagokigunean, Penintsulako hizkuntzetiko itzulpenak Hego Euskal Herrian egin bait ziren hain zuzen, berebiziko garrantzia izan zuten.

Lexikozko hizkuntz garbizalekeria ia itzulpenean besterik gauzatzen ez den joera da. Garbizalekeriarik lehiatuena itzulpenean burutzen da, eta ez sormenezko literaturan. Hartan, ordea, testuaren komunikaziozko funtzioa ia erabat deusezteraino iristen da. Hala ere garbizalekeriarik bortitzena poliki-poliki apalduz joango da.

Aldi honetan idatz ahalegin handia hasiko da egiten, ia bat batean, itzulpenean ere igarriko dena. Itzulpenetan erabiltzen diren gaiak dagokienez, kolpetik ez bada ere, ugalduz eta aniztuz joango dira, nahiz eta erlijio gaiezko literatura oraindik epe luzerako izango den, sorkuntzaz nahiz itzulpenez, gehiengoa izango duena. Hala

bestelako gai askoz hasten da garai horretan euskaraz argitaratzen: historia, gizarte gaiak, medikuntza, berria. Zentzu berean literatur itzulpenak ere nabarmenki ugaltzen dira epe honen hasieratik bertatik.

Itzulpen horiek gaztelania dute askotan jatorrizko hizkuntza, hizkuntzaren aniztasunerako eta zabalkunderako ahaleginik handiena euskara gaztelaniarekin harremanetan dagoen hego Euskal Herriko alde honetan ari bait da egiten, ari ere.

Hala, 1881ean L. Iza Agirrek **Zalameako Alkatia**, Calderonen obraren zati bat argitaratuko du, oso egokia ez den itzulpen batean.

1885ean Jose Coláren **Euskal naparren joera edo emigrazioa** argitaratu zen, Marcelino Soroak itzulirik.

1887an, sensu stricto literatur itzulpena ez bada ere, zinez aipagarria den itzulpen batean Sardá i Salvany-ren **Liberalen dotriña pecatu da** argitaratuko da, itzultzailearen izenik gabe, baina Gregorio Arrueren lumatik ziurrenera Bartzelonan.

1905ean Cervantesen **Kixote**-ren sarrera eta hasierako zenbait kapitulu eman ziren argitara, Duvoisin kapitainak euskarara itzuliak.

1900 aurreko urteetan garrantzi handiko papera jokatu zuten zenbait aldizkarik ere. Itzulpenari dagokionean aipagarri da **Euskaltzale** aldizkaria, Resurrección María Azkue jaunak argitaratzen zuena. Bizirik iraun zuen azkeneko urtean euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu bait zen, oso-osorik, "por orden gubernativa", gero hain ohiturik egongo ginen bezala.

Mende honetan aurrera sarturik, mende hasieratik gerra bitarteko aldiari begiratzen baldin badiogu (1900-1936), itzultzen den gaiari dagokionez aldaketa handirik ez da gertatzen, salbu eta gerra aurretxoan, lehenengo ikastolak sortzen direlarik, haietarako testugintzari ekiten zaiolako.

Liburu argitalpena ugalduz doan eran, itzulpenak ere leku gehiago du epe honetan. Hiru itzulpen mota nagusitan bana liteke, hiru

premia desberdini erantzuten diotelako, garai honetako literatur itzulpena:

Zenbait obra klasikoren itzulpenari ekiten zaio, gerra ostean fruitu ugariago emango duen itzulpen irizpide bat finkatuz. Horien artean **Tormesko Itsu-mutila**, Nikolas Ormaetxea "Orixe"-k itzulia, eta 1929an argitaratua, da aipagarrien eta esanguratsuen.

Bestaldetik, gerora fruitu ugari eman behar duten bi literatur itzulpen motari ekiten zaio garai honetan: Euskal folkloreak gaztelaniarako itzulpena: R.M. Azkueren **Euskalerriaren Yakintza – Literatura Popular del País Vasco** (1935-47), eta euskal gaiezko gaztelaniazko literaturaren euskararako itzulpena.

Hirugarren itzulpen mota garrantzitsua garai horretako euskal olerkaririk ezagunenen zenbait obren gaztelaniazko itzulpena da. Lizardi, Orixe, Lauaxetaren olerki bildumak gaztelaniara itzultzen dira, eta euskaraz eta gaztelaniaz bitara argitaratzen. Itzulpen horiek egileak berak paratuak izan ohi ziren maizetan. Ezin esan liteke arbuigarriak direnik, baina jatorrizko testuaren aldean indarge eta ilaun geratzen dira.

Bestalde, literatur itzulpenaren zati handi bat aldizkarietan, edo maizenik gaztelaniaz argitaratzen diren euskal kultura eta folklorezko aldizkariaren euskarazko gehigarrietan argitaratzen da oraindik.

Hala, adibidez, **Balmesen El Criterio euskaraz**. Irizpidea J. Zinkunegik itzuli eta 1919an Euskal Esnalea aldizkarian zatiz zati osorik argitaratua. Aldizkariotan, normala den bezala, liburu zatiak, kapituluak, ipuinak eta orohar pieza laburrak argitaratu ohi ziren maizenik euskarara itzulirik.

1936ko gerra zibilak erabat eten zuen haren aurre-aurrean erne eta loratzen ari zen hizkuntza, literatur eta kultur garapenerako mugimendua. Idazle eta itzultzaile asko gerran desagertu zen. Beste askok erbestera aldegin behar izan zuen. Gerra aurrean indartzen hasi eta etenik geratu zen mugimenduak, erbesteak eragiten dituen ezintasunetan garatu eta eman behar izan zituen fruituak.

Berrogeiko hamarkadan aurrera sartuta hasiko dira argitaratzen lehendabiziko euskal liburuak. Garai honetako itzultzaile guztien gailen den Orixeren eta **Euzko Gogoa** aldizkariaren inguruan gerra aurretik geratzen diren idazle eta itzultzaileak biltzen dira. Gerra aurretik pentsatuta zegoen hizkuntz politikari jarraitzen zaizkio, bi zentzutan batez ere: munduko literaturako klasikoen itzulpena, eta gaztelaniazko euskal gaieko literaturaren itzulpena bultzatzea batez ere.

Bestetik, euskal folkloreak gaztelarako itzulpena egiten jarraitzen da.

Hala, munduko literaturaren itzulpenari eta bereziki Espainiako Estatuak hizkuntzetako literaturarenari dagokionez, Shakespeare-
ren ondoan J.R. Jiménez-en **Platero eta biok** (1953) itzuliko du B. Amezagak.

Itunbe izenaren azpian ezkutatzen diren hiru itzultzaileek Hugo Wasten **Bide izkutua** itzuliko dute (1956).

Jon Etxaide Ithartek 1959an Pio Barojaren **Las inquietudes de Shanti Andia** itzuliko du, **Itxasoa laño dago** tituluarekin.

Garai berean beste hizkuntzetatik itzultzen dena konparatu ahal izateko, hona autore izen batzuk: Lonfellow, Sofokles, Shakespeare, Svenson, Homero, Platon, Hemingway, R. Tagore.

Bestaldetik, gerra aurretik datorren itzulpen politikazko iritzari jarraituz, euskal gaiezko gaztelarazko literaturaren itzulpenean ere egiten dira zenbait saio. Beste zenbait euskara-gaztelaniazko ediziotan argitaratzen. Aipatu dugu Pio Barojaren **Las inquietudes de Shanti Andia**-ren kasua.

1955ean **Elezaharrak - Arraun ta Amets** izenpean, Arturo Campionen **Narraciones Vascas**-etik hartutako zenbait kontakizun labur argitaratzen da euskarara itzulirik.

1958an A. Campionen **Erraondoko azken danbolinteroa**, argitaratzen du itzulita J.M. Mokoroak.

Urte berean euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen da Buenos Airesen E. Iberoren **Eusko Ami**.

1960an J.L. Muñoyerroren **Lartaun Eguzki-Semea** argitaratu-ko da baldintza berberetan.

Zentzu bera du geroago ere, 1963an E. García Vellosoaren **Ger-
nikako Arbola**, D. Jakak itzuliak.

Euskal folklore eta herri literaturaren gaztelararako itzulpenari dagokionez, **Euskalerrriaren Yakintza**-ren argitalpenaren jarraipena gainera (1947), J. Riezuren **Flor de las canciones populares vascas** (1948), J. Gorostiagaren **Antología de la poesía popular vasca** (1955) eta J.M. Barandiaranen **El mundo en la mente popular vasca** (1962) bildumak aipatzekoak dira.

c.- Hirurogeiko hamarkada: bitarte epea

Hirurogeiko hamarkadan hurrengo bi hamarkadetan euskal literaturan eta kultur mugimenduan protagonismoa bere esku hartuko duen belaunaldi berria plazaratzen da.

Horrela, hamarkadaren hasieran, aurreko epearen jarraipena besterik ez denik, hamarkadaren bukaerarako hirurogeitamarkadan euskal kulturaren sortuko diren fenomeno berrien azalera ikusiko du.

Euskal Herriko bizitza politiko eta kulturazkoak berebiziko radikalizazio bat ezagutuko du.

Politikazko radikalizazioarekin batera, garai beretsuan, ikastolen fenomeno zabalaren sorrera gertatzen da, hirurogeita lehenengoetan.

Hamarkadaren bukaerarako euskararen normatibizaziorako eta euskara batua finkatzeko urratsik oinarritzkoenak ematen dira.

Aldi berean euskal liburu argitalpenak ugalduz doaz urtez urte.

Egoera aldaketa geroz eta bizkorrago doa burutuz.

Hala hasieran aurreko urteetarako aipatu dugun dinamika ia ez da ezertan aldatzen, liburu eta itzulpen modu beretsuak argitaratzen dira.

1962an B. Gandiagaren **Elorri** poema liburua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen da. Salbuespentzat jo behar da, ordea, itzulpena "por orden gubernativa" egiten bait da. 1964an Gabriel Arestiren **Harri eta Herri** argitaratzen da, euskaraz eta gaztelaniaz. 1967an autore berak **Euskal harria / La piedra Vasca**. L.M. Muxikaren **Urdin eta Burni / Azul y Hierro** (1965) da euskaratik gaztelaniara itzulita bietara argitaratuko den beste poema liburu bat. 1969an J.M. Arozamenak **Ene ixil-oiuak / Voces de mi silencio** era berean argitaratuko du.

Euskal gaiezko gaztelaniazko literaturaren euskarazko itzulpenak ere argitaratzen dira: J. Acostak idatzi eta R. Muruak itzulita argitaratutako **Asarre bidetan / Peregrino de la ira** (1966). Hurrengo urtean, argitalpen mota berean J.L. Muñoyerroren **Iargian ere euskeraz**, eta R. Zulaicaren **Ipuin jatorrak** argitaratuko dira. 1966ko urte berean Tx. Agirrerren **Auñamendiko Lorea** kontakizuna I. Goikoetxeak egindako gaztelaniazko itzulpenarekin batera argitaratuko da.

Garrantzi handiko zenbait literatur itzulpen ere hasten dira argitaratzen:

1967: C.J. Celaren **Paskual Duarte**, Jautarkolek itzulia.

1968: T. Meaberen **Hamalau alegia**, G. Arestik itzulia.

Itzulpenen jatorria, Espainiako Estatuko hizkuntzen artean ere anizten hasten da:

1966an Egan aldizkarian S. Espriu-ren **El llibre de Sinera** argitaratuko da, Juan San Martin jaunak euskarara bihurturik. Autore berarenek, itzultzaile beraren eskutik hurrengo urteetan **Pais Basc** eta **La pell de brau** argitaratuko dira.

Urte horietan berorietan, katalanetik egiten diren itzulpenekin jarraituz, Pedrolo (**Homes e no**) eta Ricard Salvaten obrak itzuli eta antzesten dira.

1967an J.A. Etxebarriak **Kataluña'ko Olerkariak**, olerki bildumatxoa argitaratzen du.

Galegotiko lehenengo obra Gabriel Arestik itzultzen du 1969an: Marcos de Portelaren **Catecismo do labrego / Nekazariaren do-triña** izenburuarekin argitaratua. Hurrengo itzulpena 1976an argitaratuko da: A. Rdez. Castelaoren **Kristalezko begia**, Koldo Izagierre jaunak itzulia.

Hemendik aurrera aipamenak banan banan egingo bagenitu, titulu zerrendak luzatu besterik ez genuke egingo.

Egiaz garrantzia duena, une honetan, Euskal Herrian hizkuntzari dagokionez gertatzen den aldaketa da zinez. Izan ere, populazioaren zati handi baten aldetik aukera garbia eta oharrezkoa egiten baita herri honen bizitza euskaraz izan dadin, eta atzera ezinezko pausoak hasten dira ematen bide horretatik.

Itzulpena, hemendik aurrera, hizkuntz egoera normaldua duen herri bat izatera iristeko zentzuan planteatuko da geroz eta gehiago.

d.- Azken aldia

Hirurogeitamarreko hamarkadaren erdialdetik hona euskal itzulpenaren historian orain arte izan ez diren baldintzak sortu dira ia bat batean. Hirurogeiko hamarkadan sorturiko kultur eta politika mugimenduaren ondorioz, eta Autogobernua iritsirik, Euskal Herriaren gizarte bizitzazko eta kulturazko premiei euskaraz erantzuten parte hartzeko herronka dugu euskal itzultzaileok.

Euskal Herria berebiziko ahaleginak ari da egiten bertako biztanlegia eta gizarte bizitza euskalduntzeko. Alde askotan gauzatzen da ahalegin hori; gazte eta larrientzeko hizkuntz irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioaren euskalduntzean, hizkuntz normalizaziorako ahaleginetan.

Euskal itzultzaileok gaur egun dugun egoera ulertzeko kontutan hartu behar den lehenengo datua da Euskal Herria auto itzultzailea dela lehenik. Itzulpen ahaleginik handienak bertako gizarte bizitza eta bertan sortzen den testu produkzioa euskaratzera dago bideratua, Administrazioan, Irakaskuntzan, Komunikabideetan.

Egoera honetara ere ez gara iritsi, ordea, bat batean. Hirurogeita-marreko hamarkadaren lehen erdian, artean Autonomiarik ez zegoela euskarazko irakaskuntzaren proiektua aurrera ateratzea izan zen kultur herronkarik handiena. Hartara bideratu ziren ahalmenik eta ahaleginik handienak. Hartarako egin ziren itzulpen ahaleginik handienak ere. Irakaskuntzarako testu eta irakurgaien produkzioa.

Lehen urteetan, 70eko hamarkadaren hasieran, "Rosa Sensat" taldeak eta Kataluniako beste zenbait argitaletzek eragin handia izan zuten Ikastoletarako egin ziren lehenengo itzulpenetan. Harrez gero katalanetiko itzulpen ugari egin izan da haur literaturan.

1976-1986 hamarkadan 60 haur literaturako liburu edo liburuxo itzuli dira katalanetik euskarara. Honen arrazoia aipatu dugun hasierako itzala, edo Kataluniako argitaletxeek burutu duten zabal-kunde politika izan liteke.

Bestalde galdera ikur bat jarri beharra dago askotan itzulpenon sorburu hizkuntzari dagokionean, zeren kasu askotan zalantzarik gabe katalanetik itzuli baldin badira ere, beste askotan ez bait da gauza segurua, eta pentsatzekoa da gaztelaniazko itzulpenaz baliatuz burutu dela euskarazkoa; aipatzen ari garen liburu hauetako asko eta asko Kataluniako argitaletxeek beraiek argitaratu bai dituzte gaztelaniaz ere, eta gero euskaraz.

Azken hamar urteotan katalanetik euskarara egin den literatur itzulpena ia osorik haur literaturara mugatzen da.

Alor horretatik kanpora aipatzekoa da Mercé Rodoredaren 5 ipuinen itzulpena, M. Gonzálezek burutua eta **Ipuin Hautatuak** izenarekin argitara emana (1984).

Gaztelaniatik egin diren itzulpenei dagokienez, banaketa orekatuxeagoa da. Egia da lehenetsuna haur literaturazko itzulpenak duela honetan ere, azkeneko hamarkadan gaztelaniatik euskarara egin diren 134 itzulpenetatik 98 jenero horretakoak bait dira. Baina beste 33 obra literatur itzulpen soilak dira.

Berorien artean badira garrantzi handiko zenbait obra: Cervantesen *Kixote* (1976) Pedro Berrondok itzulia, G. García Már-

quezen **Heriotza iragarritako baten kronika** (1982), Xalbador Garmendiak itzulia, edo J. Rulforen **Lautada sutan** (1986), J. Etxabek itzulia.

Honetan, ordea, susmoa katalunieratiko itzulpenei buruz adierazi dugun bestelakoa da. Alegia gaztelania izan dela beste hizkuntza zenbaitetatiko bitarteko hizkuntza, haur literaturari dagokionean batez ere.

Galegotik berriz, urte asko joan dira ezer itzuli gabe, harik eta 1984an A. M. Labaienek R. Castelaoren **Os vellos non deben de namorarse** eta 1986an idazle beraren 4 obra itzuli eta argitaratu ematen diren arte: **Gauzak, Betiko biak, Beti Galizan eta Zirtzi-lak**.

SINTESIS

Pasado y presente de la traducción literaria entre las lenguas del estado español: El Euskara

(Ponencia presentada a petición de la Asociación de Traductores e Intérpretes Profesionales de España).

Hay que situar este tema dentro de un contexto más amplio, dando una visión histórica de la traducción en euskara, dentro de la evolución de la propia literatura, y teniendo en cuenta además cierta perspectiva sociológica, imprescindible para entender la situación específica de la lengua, literatura y traducción vascas.

Los historiadores suelen dividir en dos grandes partes la historia de la literatura vasca, que coincide con las de la traducción. Nosotros añadiremos otras dos, dentro ya de la historia contemporánea, y paralelas a los profundos cambios de estas últimas décadas.

a) La literatura vasca empieza en 1545, con la publicación de la obra de Bernart Etxepare *Linguae Vasconum Primitiæ*. La primera traducción, unos años más tarde, es la Biblia de Joanes Leizarraga.

En esta época —casi tres siglos, pues se extiende hasta casi fines del s. XIX—, las capas más bajas de la sociedad son sólo vascoparlantes. Las capas más altas, en

cambio, apostaron por el español casi sin excepción. Especialmente importante fue el papel de la Iglesia; así, siendo el clero bilingüe, y por necesidades del apostolado, cumplió el papel de intelectual orgánico del pueblo llano.

Así se entiende que el 89% de los libros de esta época sean de tema religioso. La traducción literaria se limita a unos pocos libros, publicados todos ya en el siglo XIX. Por otro lado, las mejores traducciones son las religiosas y hechas a partir del francés, lengua más importante que el español en los comienzos de la literatura vasca. Hay que señalar también que del total de 194 obras publicadas, 93 son traducciones, con lo cual es evidente el peso que ha tenido la traducción en la literatura vasca desde sus comienzos.

b) La segunda época comienza con la pérdida de los Fueros en 1876, o bien en 1879, con la creación de los "Juegos Florales". Junto a estos, hay también en esta época otros acontecimientos importantes: se crea el Partido nacionalista vasco, más tarde el Partido socialista; la población deja de ser monolingüe, y se empieza a poner en duda el modelo lingüístico, con la irrupción del purismo, más o menos agresivo o soterrado, y que tendrá grandes consecuencias en el futuro de la literatura y, sobre todo, en la traducción, hasta llegar a elaborarse textos incomprensibles; todavía hoy se puede apreciar la influencia del purismo en algunos sectores.

Las traducciones comienzan a ser más abundantes, más variadas, y a partir del castellano. Con la guerra civil se corta el movimiento cultural que iba en ascenso; no volverá a empezar hasta los años 40, sobre todo alrededor del gran escritor y traductor ORIXE, y de la revista "Euzko GogoA".

c) En los años 60, el pueblo vasco se radicaliza, cultural y políticamente: surgen las "ikastolas", se dan los primeros pasos para la unificación y normalización de la lengua, y se multiplica la producción literaria en euskara. Comienza a traducirse del catalán y del gallego (S. Espriu, Pedrolo, Ricard Salvat, Marcos de Portela, A. Rdez. Castelao). La traducción se plantea cada vez más como instrumento de normalización de la lengua.

d) Desde mediados de los años 70 han surgido, fundamentalmente con el Autogobierno, condiciones que nunca habían existido para la traducción. El País Vasco está haciendo un gran esfuerzo para euskaldunizar a sus habitantes y su vida social.

Alrededor de las ikastolas, muy relacionadas con Catalunya, se ha traducido mucho del catalán, tanto material didáctico como literatura infantil (aunque hay que pensar que a menudo se ha utilizado el castellano como lengua-puente); mucho menos la literatura de adultos. En castellano la proporción es más equilibrada. Por último, señalaremos que la traducción del gallego es escasa; a partir de 1984, se han traducido varias obras de Castelao.

SYNTHESIS

Past, Present, and Future of Literary Translation in the Languages of Spain. Euskera (BASQUE)

(Report presented at the petition of the Spanish Association of Professional Translators and Interpretes)

This subject should be placed in a wider context, offering a historical view of translation in Basque within the evolution of its own literature, taking into consideration a certain sociological perspective which is essential if we are to understand the position of Basque, both its literature and translation. Historians usually divide the history of Basque literature into two parts which coincide with those of the history of translation. We are now going to add another two parts within contemporary history, parts which are parallel to the radical changes experienced throughout the last decades.

a) Basque literature begins in 1545 with the publication of Benart Etxepare's 'Linguae Vasconum Primitiae'. The first translation a few years later is 'The Bible' —translated of Joanes Leizarraga.

During this period, which spans almost three centuries —almost to the end of the 19th century, the lower levels society only Basque speaking, whilst the higher levels opted, almost without exception, for Spanish. The rôle of the church was especially important, thus the clergy, being bilingual and by having to attend their apostolate became the intellectuals among the townsfolk.

It can hereby be seen why 89% of the books of this period are of a religious nature. Literary translation is limited to only a few books, all published in the 19th C. On the other hand, the best translations are religious ones, and done from French, which was a more important language than Spanish when Basque literature began. It should also be said that, of the 194 pieces of work published, 93 are translations —it is therefore evident that translation has played a big part in Basque literature since its beginnings.

b) The second period begins with the losing of the "Fueros" (political privileges) in 1876, or in 1879 with the start of the "Juegos florales" (literary events).

Other important events also take place at the same time: The birth of the Basque Nationalist Party followed by that of the Socialist Party, people start being bilingual, and doubts arise concerning the 'linguistic model', with the coming of purism, aggressive to a greater or lesser degree, which would have great consequences in the future of literature and in that of translation to the point where incomprehensible texts would be elaborated. The influence of purism can still be appreciated today in certain sectors.

There begin to be more, and more varied translation and from Castillian. With the civil war, the cultural movement which was growing, is detained, and will not start again until the 40's when it can be seen in the work of the great writer and translator ORIXE and in the magazine "EUZKO GOGOIA".

c) In the 60's the Basques become more radical, both culturally and politically: Ikastolas (Basque Schools) are set up; the first steps towards the unification and standardization of the language are taken, and literary production in Basque grows. Translations start to be made from Catalanian and Galician (S. Espriu, Pedrolo, Ricard Salvat, Marcos de Portela, A. Rdez. de Castelao).

Translation is considered more and more a way of standardizing the language.

d) Conditions which had never existed for translation have arisen mainly due to Self-Government which came about in the mid 70's. The Basque country is making a great effort to revive their language.

A lot has been translated from Catalanian, mainly didactic material and Children's literature, for the Basque Schools which have a certain link with schools in Catalonia (although Castillian has often been used as a 'bridge-language'). Translations from Catalanian of adult literature have been far fewer. In the translations done from Castillian, the amount of adult literature and children's literature is more equal.

Finally it must be said that translations from Galician are very few, since 1984 only a few pieces of work by Castelao have been translated.

Hego haizea eta euskal literaturan dituen ondorioak

Koldo Izagirre

Errezeloa dio euskaldunak hego haizeari: lurra herdoildu eta bu-
rua nahasi egiten bait du, zoratu. Hegoaldetik heldu zaizkigu hain-
bat oldarraldi linguistiko: Romaniak terminologia eman digu, sinta-
xia eman digu, lokuzioak eman dizkigu, eta baldarki antzeratu nahi
izan ditugun eredu literarioak ere. Zentzu honetan, esaten ahal dugu
euskara hegoaldeak kolonizatutako hizkuntza dela.

Eta euskarak nolabaiteko instituzionalizatze bat hartu duen ur-
teotan sartu zaigu ordea hego haizea zirimolan, eta oraino gelditzen
zitzazkigun duintasun linguistiko apurrez jasotako barrikadak po-
rrokatu ditu. Komunikabide berrietara (TB, Irratia) iristean, presaka
egin behar izan da lana, hutseneak beteaz, emanaldiaren jarraiak
gain hartzen ziola ematen zenaren nolakoari. Eta noski, euskara
galduan.

Nepotismoak, txantaiak, behartzeak, kanporatzeak partiduko
karneta ez izateagatik, hauexek dira euskararen profesionalak jasan

* Ponentzia hau Madrilen Espainiako Estatutuko Hizkuntzen Arteko Literatur
Itzulpenari buruzko Jardunaldietan irakurri zen. Geroztik *Nouvelles de la
FIT - FIT Newsletter* aldizkarian argitaratu da (VIII - nº 1-2).

behar izan dituzten portaera demokratiko zenbait, baskongadetako autonomia urteotan. (Nafarroan, euskarak, lingua navarrorum honenek, ez du hizkuntza trataeraren maila lortu oraindik). Honi guztiari gaineratzen baldin badiogu euskararen terminologia area berrietara egokitzeko izan den presa (zuek barre eginen duzue, baina euskara, hainbeste aparteko futbolariren hizkera jator eta egunerokoa izana, gaztelania 1910an bezalaxe aurkitzen da alor honetan), erraz aterako duzue komunikabideetako euskara gaztelaniaren arabera moldaturiko klitxez, esaldi erretorikoz, lokuzioz eta alderaketez josia dagoela. Eta komunikabideetako gaztelania, nik baino hobeki daki-zue zuek, eta nekezago pairatzen, noski, deitoragarria da.

Esan genezake euskara ere nahasia dagoela, zoraturia alegia. Hego haizearen pikardiak.

Alferrikako asmazio eta mailegu hutsezko galbide honetan, nahitara itsu eta haztamuka, hobeki entzun eta artaz haztatzearen dabilta literatoa eta itzultzailea testuak jorratzen eta irtenbide errazegiak ukatzen. Oraindik ere gaingitu gabea daukagu euskara baturaren erdialdia: maizegi oharrarazi behar dugu administratzaarako euskarak ezin duela izan kazetaritzaarakoa, eta kazetari hizkerak ezin eman dezakeela euskara literariorik.

Tamalez, irakasleak dira orain sarritan, kritikaren lekua hartuz, lan literarioak baloratzen dituztenak. Ondorioz literaturaren pedagogiazioa heldu da, eta eskolaren premien araberrako plangintza (?) itzulpenetarako. Argitaletxeak, noski, guztiz ados daude gehiegikeria honekin.

Iaz 600 titulu argitaratu ziren euskaraz, 1986ko maila berari utsiz. Hala ere, erdia baino apurren bat gehiago ziren Euskal Herrian idatzitako liburuak iaz. Gainerontzekoa itzulpenak eta berrargitarapenak ziren. Torrealdairen datuek diotenez, sorkuntza, zentzurik zabalenean, 10 puntutan jaitsi da 1985tik hona. Haren lepotik gizentzen dira, urterik urte, itzulpena eta berrargitarapenak.

Lehenengoz urte askoan, haur eta gazte literaturari dagokionez, itzulpen eta berrargitarapen gehiago publikatu ziren sortuak baino.

Gauza bera gertatzen da testu liburuekin: egun paretsu dabilta itzulpena eta sorkuntza.

Arrazoietakoa bat izan liteke euskal argitaletxeen hazkunde azkar eta ez gutitan erraldoia, zeinek, idazle ahoragarri gehiagoren eskasean, itzulpenetara jotzen duten (itzultzaileak argitaletxeen atze-harmada dira, eta buru-belarri egin behar izaten dute lana, baldintza ekonomiko gogorretan, kontraturik gabe askotan: iazko martxoan, adibidez, argitaletxeak sinadura bila ibili ziren Jaurlaritzari protesta altxatzeko itzultzaileen tarifak altuak zirela eta...). Editorialetako itzulpen-langileak, sarri, administraritzatik eta unibertsitatetik argitaletxera klandestinoki etorririko lan-esku merkea dira. Han, beltz lan eginez, beltzak dira bilakatzen, errean beztuak dauden bezala telebistarako egokitzaile eta azpitolatzaileak, itzultzailearen bariante berriak.

Aipagarria da liburu pedagogiko eta haur eta gazte literaturaren alorrean argitaletxe espainol boteretsuak ari zaizkigula apurka euskararen eremuan sartzen. Uste dut gauza bera gertatzen dela Galizian eta Catalunyan. Iaz Euskal Herriaz besteko editorialek 50ren bat titulu argitaratu zizkiguten. Argitaletxe hauek, euskaldunen bizkar irabazi politik egitearekin batera, zeregin politiko eta kolonizatzailea betetzen dute: beraiek argitaraturiko geografia manual gehienetan, Euskal Herria Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa hartzen dirtuen mapa bat da.

Euskaraz argitaratutako %17,5a suposatu zuen 1985an liburu itzuliak, 1986an %22a, 1987an %28a. Haur eta gazte literatura izan da nagusiki itzuli dena. Iaz argitaratutakoetatik, harena zen %44a, eta liburu pedagogikoarena %29a. Hizkuntzaka, honoko taula ezarri genezake:

Grekerak 2 titulu	Ingelesa 16 titulu
Alemanak 2 titulu	Catalana 16 titulu
Galegoa 2 titulu	Frantsesa 17 titulu
Italianoa 11 titulu	Española 98 titulu

Autore itzulien artean Anakreonte, Euripides, Rodari, Verne, London, Dickens, James Cain, Melville, Wilde... Ezin ziurta deza-

ket jatorrizko hizkuntzetarik itzuli diren guztiak, taula honek aldakuntzak hartzen ahal ditu beraz, eta españolaren alderako, uste dut. Garbi ikusten da arestian aipatzen nizuen hego haizearen oldarra ez zela asmazio poetiko bat, eta gogorra dela euskarak gaztelaniarekiko duen morrontza. Kontuan hartu behar da Euskal Herrian bertan produzitutako gaztelania itzuli behar duela euskarak maiz, ia inoiz ez baita euskara sortzaile administraritzan, ulerbide bat emateagatik. Elebitasun salomoniko bat erabaki dute agintariek euskara normaldu eta erdaldunak min ez daitezen, eta itzultzailea paratu dute bi hizkuntzen arteko borrokaren baregailu. Euskal Herria autoitzultzailea da, bere burua euskaldundu behar duelakoz lehenik, eta ondoren erdaldundu. Alegia, autoitzultzailea dela bi norabideetan, euskaratik erdarara, eta erdaratik euskarara, eta Euskal Herria laberinto bat dela sinesten dutenek frogatzat erabil dezaten, aitortuko dizuet euskaraz ari garenean ere, itzultzen ari garela, zenbaitetan. Traidorea bait da haize hegoa.

Aipatu dizkizuedan autoreengatik, aterako duzue egun idazle anglosajoiak daudela aparrean gure artean. Urte berean Wilderen bi obra euskaratu dira. Hori berria da gurean.

Beste ondorio bat, eta interesgarria hemen esateko, badirudiela autore español, galego eta katalanetarik haur eta gazte literatura interesatzen zaigula bakarrik, aurreko urteetan Rodoreda eta Castella itzuli izan badira ere. Peninsulako heroetarik, Rinconetek eta Cortadillok bakarrik lortu dute euskaraz mintzatu ahal izateko ohorea.

Hala ere gauzak aldatu egiten dira urtez urte. Inolako porrot editorialik ez baldin badago behintzat, laister, udazken honetan bertan, irakurri ahal izanen diegu Uxío Novoneira, Celso Emilio Ferreiro, Paco Martín eta Salvat-Papasseiti... Datozen urteetan, eta halako elkarretaratze bitxi bat dela kausa, literatura galegoaren emaitzarik hoberenak ezagutuko ditugu euskaraz. Kantauriko eta Atlantikoko urak batu egiten dira, eta ongi ezagutzen bait dugu ipar beltza, ekaitza dakarren haizea, ez larritu lagun galegook. Tinto pairatuko ditugu Blanco Amor, Neira Vilas, Manoel Antonio, Manuel María, Anxel Fole, Mendez Ferrin... Eta min ez zaitezten,

esan eginen dizuet zuria, euskaraz, alferkeriaren eta faltsukeriaren kolorea dela.

Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarteak denborarik izan ez baldin badu ere behar bezala eta egokiro garatu eta itzulpenaren desantolamendua astintzeko, Euskal Idazleen Elkartea saiatzen da, bere ahalmen eskasen neurrian, munduko eta bereziki penintsulako beste idazle elkarten berri izateko, eta bere zerbitzuei esker urtero ahalegintzen da euskal literatura klasiko eta eguneko obrak frantsesera eta gaztelaniara itzultzen. Berriki argitaratua du gaztelaniaz Euskal Narragintza Kontenporaneoaren Antologia bat. (Aurrerago itzuliko gara itzuli honetaz).

Iazko Idazleen Galeuzkan aho batez erabaki zenez, argitaratze-koak dira, epe jakinetan eta elkar hartuz, hiru nazioon obrak gaztelaniaren zubi luze, eta maizegi okerra, iragan behar izan gabetanik, elkar ezagutzeko. Aurten gure hiru poeta gorenen antologia hirueleduna publikatuko da: Aresti, Espriu, Ferreira eta narratzaile katalan, galego eta euskaldunen antologia bat, hizkuntza bakoitzean.

Ondikotz, eta onartzen baldin badidazue geure kolkorako oldozkuna da hau, euskaldunok bai hel gaitzkeela beste bazterrera gaztela-zubian abiatzeke (zer edo zertarako baliatu behar zitzaigun euskara filologia romanica ikasiz ikasi izana, edo galego multzo zalapartariak edukitzea bere mintzairari leial, edo katalanen portae-ra antzeratu nahi izana hizkuntzarenean...), baina beldur gara, oraingoz, katalanek eta galegoek ez ote dakiten nola gaindu euskararen ibaia. Etorri meheko erreka egia esan, eta horrexegatik alferrikakoa iriztea hartan bustitzeko arriskua izateari: har litezkeen aleak txipiak dira, legeak onartutako gutiengoa ere ematen ez dutenak apika.

Dean dela, eta gure lankide galego eta katalanen desenkusarako, aitortzekoa da gurea den bezain bestelakoak balira beren mintzairak, euskara eskastu, urrun eta emanezgarriak izanen liratekeela guretzat ere.

Baina euskal idazlea duela urte guti pentsa ezinekoa zen marketing lanean ari da ahalegintzen: itzuli egiten du bere burua hego

haizearen hizkuntzaz, zeinatik koldarkeria egozten zitzaien, arratoi-buru izateko idazten zuela euskaraz, gaur egun ere ez den eta ez dagoen literatura batekoa izatea salatzen zaion hizkuntza berberaz, euskal idazleak erdarazkoak diskriminatzen dituztela esaten den horretaz. (Parentesi artean, harrigarria da zeinen errentagarria den zenbaitentzat, hala politikan nola ekonomian, ez diren eta ez dauden gauzei buruz idaztea). Bada, idazlea bere buruaren itzultzaile bilakatu zaigu, eta erdal publikoari eta itzultzaile, demagun, trebatuen haizkora zorrotzari eskaini die, lehen aipatu dizuedan Antologia horretan.

Aitortu behar lukete idazleek ez dut esanen epai hilgarri bat hartu dutela, baina bai zentzagarri eder bat eman dietela itzultzaileek: testu jatorrizko eta itzulien alderatze kritiko batean frogatu diete putak etxemaitean bezala direla ibili, titi tenteak eskainiz lasto harroa besterik ez zegoenean: testu "hobekuntza", esaldi berri osoak asmatzea, alor semantikoen galtzea, jatorrizkoan ez zeuden deskribapenak ematea... hainbesteraino, non testu itzulia jatorrizkoa baino hainbat luzeago egin duten batere lotsarik gabe.

Ba ote du esplikaziorik honek? Hiru bat zergatikako bururatzen zaizkit:

- Etsaiaren eremuan begirunea derrihor irabazi nahia.
- Bere buruaren gutiestea, segurtasunik eza bere lanarekiko.
- Hizkuntza nagusi batekiko lilura, eta haren prosaren korrente indartsuak eraman dezan uztea.

Errezeloa behar diogu oraindik ere hego haizeari euskaldunok, eta baita haren jardunari ere, eskarmentu berrienek baieztatu egin dute behintzat geure eremu propialean tinko bermatzen ez bagara kalte handiak ekar diezazkigukeelako susmoa.

Aipatu dizuet, bidenabar antzean, Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarteak. Dudarik gabe, garrantzi handiko lana egin beharko du datozen urte hauetan han hemenka sakabanatuak dauden itzultzaile eta interpretarien eskubideak aldarrikatzen eta begiratzen (telebistan, administraritzan, editorialetan...), sari eta beken antolamen-

duan. Baina gobernu erantzunkizunak ere hartu beharko ditu, Euskal Herrian (Iparraldean, Nafarroan, Baskongadetan) ez dago inolako politikarik itzulpenari dagokionez, ezta argitaletxe bat ere itzulpen programa bat duenik. Denak oro daude datorrenaren zain, eta ez baldin badator, bost ajola. Berrinprimatu eta kito, merkeago. Noski, itzulpen literarioaz ari naiz.

Emanak daude zenbait urrats gure ikuilua hobeki gobernatzeko.

Eta hain mintzaldi egurasgarria amaitzeko, adierazi nahi nizuke gure herrian hego haizeari andreen haizea ere esaten zaiola, zeren la donna e movile cual piuma al vento. Gure hizkuntzak dituen sexu-keria guztiak jorratu eta ezabatze aldekoak garen arren, badakigu oraindik ere, eta puska batean, haizeek jo eginen gaituztela.

SINTESIS

El viento sur y la traducción en euskara

El euskaldun le tiene miedo al viento sur. Y del sur nos han venido terminologías, sintaxis, locuciones, modelos literarios que nos hemos esforzado en imitar (mal). El euskara es lengua colonizada por el sur.

Ahora que el euskara se ha institucionalizado de algún modo, el viento sur ha entrado en tromba: hay que trabajar (traducir) para los medios de comunicación, la administración, de prisa y mal. Y se copian clichés, expresiones, cuando es cosa sabida que el castellano de los medios de comunicación es lamentable.

La literatura se ha pedagogizado —la crítica la hacen los profesores—, y así hemos llegado a la planificación de la traducción para las necesidades de la escuela. En estos últimos años, con los datos en la mano, el porcentaje de la creación literaria ha bajado en beneficio de la reedición y la traducción. Una de las razones de este hecho puede ser el crecimiento de las editoriales durante estos últimos años, que, a falta de algo mejor, emplea a los traductores como mano de obra barata. Poco a poco van entrando además en nuestro mercado las grandes editoriales españolas, que, además de ganar dinero a nuestra costa, cumplen una clara función política y colonizadora.

De los autores catalanes, españoles y galegos parece interesar sólo la literatura infantil, aunque por lo visto pronto tendremos ocasión de leer en euskara a los mejores autores galegos. La Asociación de Escritores Euskaldunes se esfuerza en estrechar las relaciones con otras Asociaciones, y gracias a ella se dan a conocer también nuestros textos en otras lenguas. Esta Asociación publicó no hace mucho

una Antología de la Narrativa Vasca Contemporánea, en la que los escritores se convertían en traductores de sí mismos. Y los traductores nos han dado un buen escarmiento, poniendo de manifiesto cómo aquellos autores "mejoraban" sus textos, y los ampliaban... Como razones, un cierto complejo frente a una lengua "importante", inseguridad en sí mismos...

La Asociación de Traductores por su parte tiene una labor importante para llevar a cabo, defendiendo los derechos de traductores e intérpretes desperdigados en múltiples lugares, y forzando a instituciones y editoriales a elaborar un plan de traducción literaria.

SYNTHESIS

Translation among the languages of Spain: Present

The Basque speaker is afraid of the southern wind. Lots of terminologies, syntaxis, locutions, and literary models which we have tried to imitate (badly) have come from the south. Now that Basque has become somewhat institutionalized, the southern wind is blowing a gale: there is an urgent need to translate for the media, the administration. Translations are done in a rush, badly, expressions and clichés are copied when everybody knows that the Spanish of the media is ipitiful.

Literature has become pedagogical—the criticism here is made by the teachers—and hence we have come to planning of translation for the needs of the school. In these recent years, with data in hand, we can say that literary creation has diminished in proportion to re-editing and translation. One reason for this may be the growth of editorials in recent years which for the want of something use translators as cheap labour. little by little, the big Spanish Editorials are also making their way into our market, which means that they make money at our expense and fulfil a political and colonizing function.

Children's literature seems to be only thing that is interest from Catalan, Spanish and Galician authors, although soon, it seems we will have the chance to read the beste Galician authors translated into Basque. The Association of Basque Writres is tryin its best to make closer contact with other Associations—and thanks to this our texts will be read in other languages. This Association published, not long ago, an Anthology of Contemporary basque Narrative where the authors translated their own work. And those translators have taught us quite a lesson, showing clearlu how they, the authors, improved their texts, lengthened them... almost showing a lack of self-confidence when faced with an 'important' language...

The Translators Association itself has quite a job to carry out, defending the rights of those translators and interpreters who are scattered about all over the place, and obpling institutions and editorials to ellaborate a plan for literary translation.

Itzulpenaren benekotasuna eta kalitatea*

Peter Gawn

Itzulpen Bulegoa, Ottawa, Ontario, Canada

Kanadako administrazio publikoak beti aitortu izan du administratzaile nagusien hizkuntza hitzegiten ez duten pertsona edo taldeekin komunikatzeko mekanismo baten beharra. Kanadako historia ezagunaren hasieran hartutako mekanismoa hauxe izan zen: administratzaile eta administratuaren hizkuntzak komunikazio-zubi gisa jarduteko hainbatean mintzatzen zituen hirugarren bat hartzea. Jacques Cartier-ek Stadacona-ko bi Irokiar bahitu eta bere interpretari egin zituenez geroztik, 400 urte geroago maiz zubi xehe eta antigua-leko hori da oraindik kultura eta hizkuntzen arteko lokarri nagusia mosaiko kanadiarraren zati garrantzitsu batekin gobernu federalak dituen harremanetan.

Sobera frogatua da gobernu federalak nagusiki ingelesez lan egiten duena. Kanadiar frantsestunetikiko komunikazioak itzulpenaren zubia iragan beharra dauka, askok gaitzesten duen norabide bakarrean gainera.

* Kanadako Hizkuntzalaritza Aplikatuko Elkartearen 16. Urteroko Symposiumean aurkeztutako txostena, Montréal, 1985eko maiatzak 31.

1984ean Parlamenturako egindako txostenean, Hizkuntza Ofizialen Komisariak hala zion:

Gobernuari ingelesez heltzen zaizkion frantsestunen ikusmoldeak, ez dira jada frantsestun ikusmoldeak, eta hiritarren laurden batekin itzulpen eta interpretazio bidez entzun-min-tzatzen den gobernuak ezin eska dezake haiekin harremanetan egoterik⁽¹⁾.

Aipamen hori hona aldatu baldin badut ez da egia den ala ez eztabaidatzeko, gobernuak batez ere ingelesez lan egiten duela erakusteko baizik, bere mezuak ulertarazteko Cartierren Irokiar 'bolondresen' oinerdekoak erabiltzen dituelarik. Era berean D'Iberville Fortier* jaunak dio:

1983-1984ean barne erabilpenerako (gobernu federalean) testuen ehuneko 90 inguru ingelesez sortuak izan zirela⁽²⁾.

Hau begibistakoa da.

Hizkuntza Ofizialen Legearen indarrez (1968-1969), gobernuak bere dokumentu publikoak frantsesez eta ingelesez eman behar ditu argitara. Hizkuntza Ofizialen Komisariaren bi aipamenek azaltzen duten egoera kontuan izanik, ordea, jakina da Hizkuntza Ofizialen Legearen 4. Atalak aipatzen dituen arau, agindu, erregulazio, erregelamendu eta manuak ingelesez idatziak direla, eta gero frantsesez itzuliak.

Halako prozedurak istilurik ere sortzen du. Léo Létourneau, *Fédération des francophones hors du Québec*-eko lehendakariak, gobernuko departamentu eta agentzietako Hizkuntza Ofizialen programaren mamikuntza-arduradunen bilkura batean egindako aurkezpen gartsu batean, frantsestunekin komunikatzeko era "ingelestunek eta ingelestunentzat sortutako testuen itzulpenaren bitartez

1. Commissioner of Official Languages, *Annual Report*, 1984, 67. or.

* D'Iberville Fortier jauna Kanadako Hizkuntza Ofizialen Komisaria da (Itz. oh.).

2. *Ibid.*, 66. or.

(izatea)... itzulpenok diren onak direlarik ere”⁽³⁾ kritikatu zuen. Haren aburuz, itzuli beharreko dokumentuaren irakurlegaiaren ingurune berdinetik datozen frantsesetunek sortu eta moldatutako frantsesezko itzulpenak egin behar lirateke. Edo, bestela esanda, arazoa kulturaren alorrean jartzen zuen, hizkuntzaren alor zuzenagoan baino, era horretan kulturarteko aldaketak egiterik den ala ez den hausnartzeko bidea emanez.

Testuinguru horretan ikusirik, gizarteak itzultzaileari bizkarre-ratzen dion zeregina izutzeko modukoa ari da gertatzen. Itzultzaileak, esate baterako, heziketa zabaleko ekonomilari batek *Bay Street*-eko *financier* bat gogoan izanda idatzitakoaren mezua hartu eta *Hautes Etudes Commerciales*-eko graduatu batek *Rue Saint-Jacques*-eko *entrepreneur* bati idatziko balio bezala aldatzea espero dugu. Baina, hori al da espero duguna? Ez ote gaude lasaiago frantsesezko testua ingelesezko jatorrizkoaren ispilu hutsa, ingelesez konposatutako partitura musikal baten interpretazio fidel eta pedantea besterik ez denean?

Benetakotasunaz ari naiz mintzatzen, edota benetakotasunaren alderdi bati buruz. Jatorrizko testuak irakurleagan sortarazi nahi zituen efektu berdinak sortzen al ditu itzulpenak bere irakurleagan? Arazo honen interesa mugagabea da eta bere garrantzia nabarmena; ni ordea ez nago hura aztertzeke prestatua. Izan ere, teorikoa ez naizen neurrian zalantza egiten dut arazo horri aurre egiteko nahiko jantzirik ote nagoen.

Badago dena dela benetakotasunaren beste alderdi hurbilago bat: legez hizkuntza desberdinetan egindako itzulpen bi edo gehiagoren balio berdina. Kontuan izan behar da benetakotasunaren alderdi honek arazoak ekarri zizkiela Hizkuntza Ofizialen Legearen idazleei, baita legegileei ere ziur aski. Promulgazio baten bi bertsioak desberdinak izan litezkeela onartzen zuten. Inplikazioz, itzulpenik perfektoena, hau da, kulturarteko elkartrukea, edo baita lehe-

3. Hizkuntza Ofizialei buruzko Symposiuma, Cornwall, 1983ko urria (egilearen itzulpena argitaratu gabeko hitzaldi batetik).

nago aipatu dudan hizkuntzazko itzulpenik xehena ere, sekula burutzen ahal ez dela ere onartzen zuten. Arazo honi loturik, Hizkuntza Ofizialen Legearen 8(i) Atala labur bezain zehatza da: "Promulgazio baten moldaketan, Hizkuntza Ofizialetan egindako bi bertsioek dute benetakotasun berdina". Promulgazioa honela definitzen da: Kanadako Parlamentuaren edozein Lege, edo Kanadako aldizkari ofizialean argiratzeko den edozein arau, agindu, erregulazio, erregelamendu edo manu. Dena dela, Legearen hurrengo azpiatalak lau paragrafotan adierazten du zein azpiatal aplikatu behar den "promulgazio baten bi bertsioak edukiz bat ez datozela alegatu eta ageri denean". Halakoetan, diferentziak legeria edo erakundeen arteko ezadostasunek sortuak ez badira "lehentasuna, promulgazioaren izpiritu, asmo eta edukiaren arabera, haren xedeak erdiestea hobeki ziurtatzen duen bertsioari eman behar zaiola" ezartzen du azpiatal horrek. Arazoaren konponbide honek, jakina, izpiritua, asmoa eta edukia bi bertsioetatik hobeki zeinek jasotzen duen erabakitzen saiatzen diren pertsonen aldetik bi hizkuntzen ezagupen landua eskatzen du.

Legeria, eta batez ere Hizkuntza Ofizialen Legean ageri den gisako legeria subsidiarioa, itzulpen-lan prozesuaren goi-mailan kokatzen da. Itzulpen-lan prozesua diodanean xede-hizkuntzako testu baten bertsioa moldatzeko itzultzaile es den bestelakoren trebetasun eta ekarpenak erabiliz egiten den bidea adierazten dut. Bestela esanik, prozesu horren behe-mailan itzultzaileak erantzukizun osoa dauka xede-hizkuntzako testua berak bakarrik sortzeko; goi-mailan, ordea, bi bertsioak gai horretan aditu edo idazle direnek bateratsu prestatzen dituzte, agian inolako itzultzailearen ekarpenik gabe. Hauxe da gehienetan Kanadako Parlamentuaren legeen kasua, ez baina legeria subsidiario guztiarena. Izan ere, gobernuaren ebazpenak erregulazioz gidatzen den edozein jardueraren departamentu arduradunek prestatzen dituzte, eta horregatik, ikusi dugun bezala, jatorrizko testuen gehiengo osoa ingelesez prestatzen denez, gaiotan adituak direnak, lege-aholkulariak eta idazlerik gehienak ez bakarrik ez dira frantsesez idazteko gauza, baizik eta haiek frantsesez irakurtzeko ere ez dira gauza. Orduan, itzultzaileak duen zeregi-

na besteenari gailentzen zaio. Ia **LEGE BAT** formulatu daiteke: itzultzailearen balioa bezeroaren elebitasun mailaren edo xede-hizkuntzaren ezagupenaren proportzioaren alderantzizkoa da.

Zernahi dela ere, eta datozen oharrotan itzultzaileen gaitasuna eta kontzientzia inolaz ere gutxietsi nahi izanik gabe, nik dena dela zorrozki zalantzan jarri nahi dut nolatan dokumentu baten bi bertsiok balio berdinekotzat har ote genitzakeen, bertsiotako bat gai horretan aditu direnek idatzia baldin bada, agian beste aditu batek berrikusia, eta batzuetan goragoko buruzagiek nahiz idazle profesionalek zuzendua; eta bigarren bertsiok, berriz, itzultzaile batek egin duenean, askotan denbora labur-laburrean, agian bakarka lanegunik, eta gai hori xede-hizkuntzan eztabaidatzeko gauza diren adituengana jotzeko aukerak mugatuta dituelarik. Zenbat bider ez ote dugu irudi berdina ikusi: dokumentu bat ingelesez egiten da aste, hilabete edo areago urte luzetan zehar; eztabaida eta aholkuepean jartzen da; azken forma ematen zaio... eta orduan ia goizetik arratsera itzuli beharra dago. Eta frantsesez inolako terminologiarik onarturik ez duten gaiak aztertu, edo kultura frankofonoan parekorik ez duten kontzeptu edo erakundeak eztabaidatu, edo herrialde frankofonoetan orain arte egindako lanen aitzinetik diren aurrerakuntza teknologiko edo pentsamenduzkoak deskribatzen dituzten testu anitzetan pentsatzen dudanean, **BIGARREN LEGEA** osatzeko aburua sortzen zait: tartean diren bi kulturak zenbat eta parekoago, orduan eta itzulpena egokiago izan daiteke.

Agian deskribatzen saiatu naizen egoera adibide batez erakus dezaket, nolabait gogor samarra izanik ere ez bait da inolaz ere atipikoa.

Aditu ingelestunen talde batek lege-arloan prestatutako azterlan sakon bat denbora labur-laburrean itzultzeko eskabidea izan zen, luzaezinezko epea zuelarik. Epemuga horrekin zerikusirik zuten zenbait arrazoiengatik, lana itzultzaile bakar bati eman zitzaion, bere kasa ziharduena, eta bakarka lanegunik frantsesezko bertsiok ingelesezkoa prestatzeko erabilitako denboraren frakzio batean idatzi zuen. Ez zegoen aholku eskatzeko aditu frantsestunik, eta

itzultzaileak gutxienezko ikerketatxo bat egiteko astirik besterik ez zuen izan. Ziur nago itzulpengintzan eskarmenturik duen edonork jar dezakeela halako *Mission Impossible* hau bezain adibide gordinik. Nik adierazi nahi dudan kontua da halako egoeran egindako frantsesezko bertsioa jatorrizko ingelesezkoaren kalitatearekin neurtzea oso zaila izango dela, mirakuluak salbu. Izan ere, ez litzateke arrazoizkoa halakorik espero izatea. Era berean, ez da arrazoizkoa ere halako testuaren bi bertsioak benetakotzat hartu nahi izatea: onenean ere, frantsesezko bertsioa ingelesezkoaren ispilu-irudia izan daiteke; ziur aski desitxuratu gabeko irudia hala ere, eta ez haurren jolas-parkeetako ispiluek eman ohi duten irudi zarpailen gisakoa.

Bada benetakotasunaren beste alderdi bat, eta horrek nire bigarren gai nagusira narama: itzulpenaren kalitatea. Benetakotasunaren alderdi hau itzulpen bukatuari datzeko, hura idazketa-zati independente gisa, literatur tramankulu gisa harturik. Egiatzkoa al dirudi? Frantses egile batek, ingelesezko sorburu-dokumenturik kontuan izan gabe laneginik, idatziko lukeen bezalaxe itxura ematen al du? Ingelesezko jatorrizko testuaren egileak ezagutzen al du bere burua frantsesezko itzulpenean? Edukin-gaia aditu frantsestun batek egingo lukeen bezala deskribatzen al du? Xede-hizkuntzaren kultur arauak aintzakotzat hartzen al ditu?

Iruditzen zait zuetako asko bat etorriko zaretela galderoi "Ez beti" esanez erantzuten badiet.

Zilegi bekit orain hitzaspertu bat egitea, gobernu federalaren itzulpengintzak kultura frankofonoaren baitan duen kultur, literatur eta hizkuntz eraginaren norainokoa ebaluatzen saiatzeko. Ikusia dugunez, gobernu federalean itzulpenik gehienak ingelesetik frantsesera egiten dira. Bolumena guztira urtean 200 milioi hitz inguruan dabil. Horrek gutxi gora behera lanegun bakoitzeko dozenaldi liburukote esan nahi du. Jakina, liburukote guztiok ez dira *best-seller*-ak. Izan ere, testu askok irakurleko txikia izango du. Baina idazteko ohiturak, hiztegia, esaldiaren itzulginguruak, estiloa, erraz jaso ditzake irakurleak, eta irakurlearen beraren idazketara edo

mintzairaratu. Eta, gehienetan, itzulpen hauek jatorrizko idazkeraren benetakotasuna falta baldin badute, orduan Kanadako frantsesaren baitan duten eragin metagarria nabarmena da.

Zein dira benetakotasunaren testari aurre egingo dioten frantsezko itzulpenak egin ahal izateko aukerak murrizten dituzten faktoreak? Zerrenda ez da sobera luzea, eta faktoreok ezagun bezain begibistakoak dira. Horietako batzuk aipatuak ditugu dagoeneko. Faktorerik gehienak bi sailetara bil daitezke: batetik, bezeroaren edo itzulpena egiteko eskatzen duen pertsonaren erantzukizun diren edo izan daitezkeenak; eta bestetik, itzultzailearen edo itzulpenzerbitzu arduradunaren erantzukizun direnak.

Lehen sailean (bezeroaren arazoak), itzulpengintzarako erabil litekeen denbora, bezeroak kontrolatutako baliabideen eskuragarritasuna, sorburu-hizkuntzazko testuen kalitatea, itzulpen jarduketaren bakardadea, eta bezeroak itzulpenari aitortzen dion garrantzi-maila jarriko nituzke.

Bigarren sailean (itzultzailearen arazoak), itzultzailearen esperientzi, trebetasun eta gaitasun falta, lanaren antolakuntza eskasa, euskarri-sistema desagokiak, eta bezeroaren zentzugabeko eskabi-deetara gehiegi makurtzea jarriko nituzke.

Faktore hauetako bakoitzari buruz bizpahiru hitz esan nahi ditut. Baina horren aurretik iruzkin orokor bat egin behar dut. Nire ustez Kanadan itzulpen ez-literarioak duen xedea eta erantzukizunaren funtsezko gaitziritzia dago oraindik. Gaitziritzi horrek aipatu berri ditudan faktore anitzen iraunerazpena dakar berarekin, eta horrela ustezko benetakotasunari ere bide luzea ematen dio. Gaitziritzi hori era errazean azal daiteke: hots, itzulpena itzultzailearen erantzukizuna da. Eta segidaz, lerro hauen hasieran aipatu dudana nagusitasun anglofonoaren testuinguruan, gaitziritzia horrela aldatzen da: frantsesa itzultzailearen erantzukizuna da. Gainera, itzultzaile eta bezeroaren aldetik ikusirik, gaitziritziak azaltzen du bezeroaren egitekoa sorburu-testua ingelesez idaztea dela, eta itzultzailearena berriz hura frantsesez ispilatzea.

Hau gaitziritzia baldin bada, zein litzateke irizpen egokia? Laburki, bezeroaren erantzukizuna frantsesez nahiz ingelesez benetako izango den dokumentua sortzea dela, eta itzultzailearen erantzukizuna hari lan horretan laguntzea. Testuinguru honetan, gobernu federalaren gisako administrazioan bereziki, itzultzailea translazio intertestualeko aditutzat deskriba daiteke, Lepizig-eko eskolak proposatutako deskripzioa erabiliz, eta ez gehiago frantsesaren aingeru guardakotzat edo hizkuntzarteko translazioan den autoritate bakartzat.

Bezeroak testu elebidunaren bi bertsioak egiteko erantzukizun nagusia berea duela behin argituta, kalitatean eraginik duten faktoreak murriztu egin daitezke, eta itzulpen on eta benetako burutzeko probabilitatea handitu egin daiteke. Horrela, **HIRUGARREN LEGEA** eman genezake: itzulpenaren kalitatea bezeroak elebitasunarekin duen konpromezu-mailaren araberakoa da. Eta, ondorio gisa, aintzat har liteke bezero eta itzultzailearen arteko elkarlan-jarrera garbiak (era horretan, lehenengoak bere burua itzultzailearen lanarekin lotzen duelarik, aztertu eta maiz aurkako iruzkinak egiteko produktua jaso zai gelditu ordez) itzulpengintzaren kalitatea oztopatzen duten faktoreak deusezteko bidea oso erraztuko lukeela.

Gainbegira ditzadan orain faktore horiek. Lehenik, itzulpena egiteko denbora. Harrigarri bada ere, bestelako zerbitzu-jarduera profesional eta ez-profesionaletan aho batez onartutako usadioaren kontra, bezeroa da askotan itzulpena egiteko izango den denbora mugatu edo mugatzen saiatzen dena. Gehienetan, itzultzailearen erantzuna alde zurretik zein epe jar litekeen, edota halakorik jarri ere jar ote litekeen esatea izan ohi da, epearen baliozkotasuna zailantzan jartzea baino. Bezeroaren ikuspegia onartuz gero, itzulpengintza arazo logistikoa da, baliabide-kopuru kontua, ikerkuntza, plangintza, koordinazioa, produkzioa eta kalitate kontrola, etabar luzea eskatzen duen proiektua baino (bezero-talde beraren zereginen lehentasunari buruzko tirabirak konpondu beharraz mintzatu gabe ere). Horrela, itzultzailearen lana eskulangintzaren mailako ikusten da, produkzioa ahalegin hutsaren poderioz sortzen duena; bezeroak, alabaina, bere jatorrizko testuaren produkzioa zeregin

intelektual edota industrializat har lezake erraz asko, azken produktuaren sorkuntza, diseinu eta moldakuntzan horrek dituen inplikazio guztiak kontuan izanda.

Guztiok dakigu urte luzetan itzultaileek neurritz gaindiko ahaleginak egin izan dituztena bezeroak ezarritako epeak betetzeko. Jokabide horrek orain ukatzen zaila den aidurua sortu du. Eta ahal den guztietan, eta epeak justifikatuta daudenean, itzultzaileek bezeroaren eskakizunetara makurtzen segiko dute, eta hala egin behar dute gainera. Baina, hori egin ahal izateko askotan itzultzaileak, irudi musikala erabiliz, *virtuoso* baten trebetasun-maila lortu behar du. *Virtuoso*-ak denbora laburrean edo bapatean aurkez dezake saio txukun bat, bere trebetasun landuak, urtetako praktika, musikaren ezagupena eta artearen maisutasuna direla medio. Baina *virtuoso*-ak ere zailtasunak izango lituzke estudiatu ez duen pieza musikala lehenengo begiradan jotzeko, batez ere berak aldeztu aurretik ezagutzen ez duen egile baten lana baldin bada, eta beretzat ohizkoa ez den hizkeran egina baldin bada.

Musikari eta itzultzailearen arteko analogia oso egokia da. Biok testu edo partitura idatzi batez lanegiten dute; biok behar dute pieza hori aztertu eta egilearen aurreko lanak landu; biok behar dute hizkuntza jakin; biok ere jakin besteek nola askatu dituzten korapilo berdintsuak; biok, hitz batera, behar dute astirik ikertu eta praktikatzeko jardun aurretik. Itzultzailearen bezeroak *virtuoso*-aren saioa espero du beti ere: musikariaren bezeroak, berriz, saiorako parametroak gozatzea espero du.

Itzultzailearen saioaren parametroen zehazpen garbirik ez dago. Itzulpen-lanean erabil litekeen denbora, orrialde edo hitz kopuruaren eta batazbesteko abiaduraren arteko multiplo gisa ikusi ohi da. Lanbide honek mesede handia luke itzulpengintzaren baitan diren urratsak aztertuko balira, eta urratsok dokumentu elebidunen produktio-egutegi osoaren barruan itzulpen-denboraren plangintza egokiaren garrantziaz bezeroa jaberazteko hainbatean definituko balira. Itzulpengintzak hartzen dituen urratsik gehienak aipatuak dira lerrootan: lanean diren profesionalen haiek garatu eta osatzera egiten diet dei.

Zerrendatu dudan bigarren kalitate-faktorea bezeroak kontrolatutako baliabideen eskuragarritasuna da. Erreferentzi materialak, giza-baliabideak, itzuli beharreko dokumentuan eztabaidatzen den zernahirekin lotutako pertsonak, xede-hizkuntzan gai horretan aditu edo idazle direnengana jo ahal izatea, itzulpenaren erabiltzaile eza-gun edo gaiekin eztabaidatu ahal izatea, etabar ditut gogoan. Ez dago faktore honetan luzatu beharrik, hain da begibistakoa eta, maiz bazterrean uzten dela azpimarratzeko ez bada.

Hirugarrenik, sorburu-hizkuntzazko testuen kalitatea identifikatu dut. Hauxe bezeroaren erantzukizuna da argi eta garbi. Ez dago hain garbi, baina, itzultzaileak zenbateraino errefusatu edo berri-dazteko atzera bidali beharko lukeen dokumentu bat, haren iluntasun edo argitasun faltak itzulpena bera zaildu edo eragozten duenean. Irakurgarritasunari buruzko epaia emate horretan den subjektibotasuna aski izan da kontu hau nahastuko, eta joera itzultzailearen irakurmen-trebetasunak gutxiestea izan ohi da. Konputagailuz lagundutako idazketak, baita irakurgarritasunaren ebaluaketak ere, bezeroak eta egileak beren mezua ulertezina dela komentziarazten lagun dezake. *Language Bureau of the Northwest Territories*, Ifarmendebaldeko Lurraldeetako Hizkuntz Bulegoak ez du hizkuntza Indiar eta Inuit-era itzultzeko dokumenturik onartzen konputagailuaren azterketaz behar bezain argi gertatzen ez bada. Badago bestelako metodori, ez hain korapilotsu baina aski fidagarri eta errazik, testu bat ulertzeko behar den heziketa-maila neurtzeko. On litzateke elkarte profesionalek teknika horiek ebaluatu eta itzultzaileek bezero itsumen-zaleetan dituzten eztabaidetan erabili ahal izateko tresnaren bat prestatzea. Zernahi dela ere, arrazoizkoa dirudi bezeroak, testu bat hobetu litekeela eta, itzultzailearen iritzia onar dezan, itzulpenak berarekin duen azterketa zorrotzak jatorrizko testuaren akatsak ezinbestean identifikatzen bait ditu.

Bezeroarekiko laugarren faktorea itzulpen jarduketaren bakardadea da. Honen zenbait alderdi aipatua dut arestian. Gogoan dudan egoera usadio hadikoa da: bezeroak bere testua bukatu eta itzultzera igortzen du, itzultzaileak berandu gabe itzulpena bukatu bidaliko diolakoan, bata eta bestearen artean inolako harremanik izan gabe.

Halako sorginkeriaren poderioz, jatorrizko testua sisteman sartu, sistemak bere lana egin, eta itzulpena giza-eskuren ikuterik gabe aterako balitz bezala. Ez dut denbora gehiago alferrik galdu nahi faktore honetan, guztiz gaitzesteko ez bada.

Bezeroarekiko arazoetan azkena, bezeroak itzulpena, eta itzulpen ona gero, izateari aitortzen dion garrantzia da. Berriz ere, lerro hauetan arestian esandakoari aski deritzot. Bezeroak itzulpen ona nahi baldin badu, itzultzailearekin elkarlanean arituko da, eta itzulpena moldatzeko lanegingo du harekin.

Jo dezadan orain itzultzailearen arazoetara. Lau aipatu ditut. Lehenengoa itzultzailearen esperientzi, trebetasun eta gaitasun falta da. Lanean diharduen itzultzaile oro ez da *virtuoso*-a. Batzuk hasi berriak dira, besteak ajolatsuak dira lanean; batzuk ez dira aldakuntzen gurpilean bizi, besteek beren kabitxo halako xehetasun-beharririk ez duen beste edonolako lanbidetan bilatu beharko lukete. Itzulpengintza ez dago bi hizkuntzak ondo dakizkien edonorentzat eginna. Nahi eta nahi ez, elkarte profesionalek ziurtatu beharra daukate itzultzeko gai direnak bakarrik direla aitortuak halakotzat, eta enpleguemaileek horiek bakarrik direla kontratatuak. Lan handia dago egiteko itzultzaileari eskatu beharreko trebetasun, gaitasun eta presakuntza definitzen, ahalmenaren neurketarako testak garatzen, itzultzailearen lanaren kalitatea ebaluatzeko metodo objektiboak hobetzen, onargarritasun-mailak zehazten, testuen zailtasun edo konplexutasun-mailak eta ondorioz eskatzen dituzten gaitasun-mailak mugatzen, eta diagnostiko nahiz neurketa tresneria guzti hau arrazoizko eta tajuzko eran bideratzen. Azken batean, dena dela, praktikatzaileren erabakipean dago nork bere mugak jarri, gaitasun-arloak identifikatu eta horren ondorioz bizitza profesionala antolatzeara.

Lanaren antolakuntza da kalitateari dagokion bigarren itzultzailearekiko faktorea. Urte luzetan, itzultzailea *solista* bat izan da. Gaur egun, gero eta gehiago da talde baten partaide, ez agian orkestarena, baina zenbaitetan gertatzen den bezala, testu bat itzultzaile talde baten artean banatzen denean, itzultzailea laukote, zortzikote edo dena delakoaren partaide bilakatzen da. Mintzatu berria naiz

itzulpengintzaren urratsak aztertu beharraz. Halako azterketarik behin egiten denean, lana horren arabera antolatu beharko da —aurreko itzulpenik badagoen egiaztatzea, itzulgarritasunaren ebaluaketa, testuaren aurre-edizio eta prestakuntza, eredu eta erreferentzi materialak eskuratzea, terminologiako hornikuntza, laguntza-sistemen erabilpena, aldibereko kalitate-kontrolaren egiaztapena, lanaren antolakuntza hobetzeko irizpideak arian-arian izateko prozesua kontrolatzea, etabar. Itzulpena prozesu intelektuala da, baina gaur egun egiten den hizkuntza batetik besterako aldatze hori produkzio-prozeduraren zati bat besterik ez da, antolakuntza onez hobekien jantzi litekeenetakoa hain zuzen.

Lanaren antolakuntzaren alderdi garrantzitsu bat euskarri-sistemen erabilpen egokia da, alegia itzultzailearekiko nire hirugarren arazoa. Testu-trataerak eta terminologiako nahiz bestelako datubankuak itzulpen bulegoaren lagungarri nahiko arruntak dira, baina ez dira edonon eskuragarri. Horrez gain behar dena da itzultzaileentzat bereziki sortutako sistema nahiz programak egitea, eta horiek lantokian osotasun koherente batez txertatzea. Idazketarako laguntzak garatu edo hobetu litezke, erreferentzi dokumentazioa terminal eta pantaila bidez kontsulta liteke, testuak oinarrizko esaldi-elementuez osaturik sor daitezke, eta makina bidez egindako itzulpen-zirriborroa gehiago erabil daiteke, itzulpenerako *software*-a, hiztegi mekanizatuak edo memoriatik hartutako esaldi eta perpausak erabiliz. Aukerak badaude dagoeneko edo eskuragarri egoteko punttuan daude.

Itzultzaileak bete-betean atera behar die etekina sistema hauei, ez bakarrik haien baliagarritasunagatik, baizik eta itzulpengintzaren alderdi mekanikoak erretzen dituztenez itzultzaileari bide ematen diotelako itzulpen-jarduketaren muinari denbora nahiz kemen kreatzaile handiago eskaintzeko.

Aipatu dudan itzultzailearekiko laugarren eta azken arazoa bezeroaren zentzugabeko eskabideetara gehiegi makurtzea da. Denboraren faktorea luzaz zailtasunik nagusia bada ere, ez da hala ere oso harrizkoa itzulpen-eskabideetan jatorrizko testu ilunak, bezeroa-

ren erreferentzi material falta, bezeroarekiko oinarritzko loturarik ez izatea, bezeroaren inplikazio falta osoa, eta halakoak onartu izatea. Egoera hau arestian bezeroaren aldetik eztabaidatutako 'fandangoaren buelta' da. Gisa honetako lan-baldintzak onartzeko gehiegizko adostasuna izateak, ohitura txarrak iraunarazteaz gain, itzulpen onak egin ahal izatea eragotzi ezezik ezinezko ere bihurtzen du.

Lehenago esan dut itultzailea Kanadan ezin zitekeela gehiago frantsesaren aingeru guardakotzat hartu. Atentzioa jarri dut Kanadako gobernuko itultzaileek frantsesez sortzen duten idazketabolumen izugarriaz. Honi gobernuko beste mailetan eta sektore parapubliko nahiz pribatuetan itultzaileek emandako etekina erantsi behar zaio. Nahiko arrazoizko dirudi dena dela itultzaileak hizkuntzaren aingeru guardako ez izan arren, zernahi dela ere haren kalitatearen zaintzailerik behinenak direla adieraztea orain. Azalduak ditut itzulpenaren kalitate-maila txukunaren probabilitateak gehitzeko bitarteko desberdinak. Benetakotasunari buruzko ohar batzuz bukatuko dut.

Lerro hauetan itzulpen egokiak lortzeko giltzarria bezero eta itultzailearen arteko truke eta informaziozko elkarlana izan daitekeela proposatu dut. Benetakotasunak, ordea, bestelako elkar ulertze eta lana eskatzen du. Benetako testua —hitza erabiltzen ari naizen zentzuan harturik— sortzailearen, jasotzailearen eta mezuaren egoerari guztiz egokitzen zaiona da. Definizio honen arabera, literatura itzulpena nekez izan daiteke benetakoa.

Esate baterako, Nelligan-en poema baten ingelesezko bertsioa ezin liteke sortzailearentzat edota ustezko irakurlearentzat egokia izan, mezuarekiko orohar egokia izan badaiteke ere. Kanadako gobernuaren tankerako administrazio-erakunde batek argitaratutako dokumentu bat berriz benetakoa izan daiteke, eta hala behar du izan, administratziotik datorrelako hain zuzen, eta ez kultur afiliazioa erraz antzematen zaion figura publiko batengandik.

Zer egin liteke itzulpena benetakoa izan dadin? Ez dadila hain zuzen bezeroek askotan dioten "itzulpen hutsa" izan, egokitzapena baizik, batzuetan berek eskatzen duten bezala. Xede-hizkuntzazko

komunitatearen kulturari berezkoak zaizkion sortzaile, jasotzaile eta mezuari egokitua izan dadila. Zenbait bezerok gisa honetako bersortze-idazketak eskatzea oso pozgarria da. Beldur naiz hala ere bezero gehienak ez direla oraindik aski prestaturik jatorrizko testutik urrunegi doan itzulpena jasotzeko, ispilu-irudia ziurtatuko ez duena alegia. Oso komenigarria litzateke elkarte profesionalek itzulpen benetakoa zer den azalpen orokor bat egitea, hura lortzeko baldintza mesedegarrien zerrendarekin batera. Baldintza nagusia, berriró diot, bezeroak abentura honetan gogo onez parte hartzea da. Beharbada **LAUGARREN ETA AZKEN LEGEAZ** amai dezaiket: bezeroaren gogoia zenbat eta beroago, itzulpenaren benetakotasun-maila orduan eta gorago.

Itzulpena: Gotzon Egia.

SINTESIS

Autenticidad y calidad de la traducción

(Artículo publicado por PETER GAWN en *META*, 33,3. Les Presses de l'Université de Montréal, Montréal, 1988, pp. 456-460. Traducción de Gotzon Egia)

Está más que probado que el gobierno federal de Canadá trabaja sobre todo en inglés. En su comunicación con los ciudadanos canadienses francoparlantes, tiene que atravesar a menudo el puente de la traducción, en una sola dirección además.

Según la Ley de Lenguas Oficiales, el gobierno tiene que publicar sus documentos en francés e inglés. Pero resulta que estos documentos se crean en inglés, para ser traducidos luego al francés.

Se trata sin embargo de un cambio de culturas más que de idiomas. Desde este punto de vista, es terrible la labor que se le adjudica al traductor. Y se puede poner en duda si, por ejemplo, las dos versiones de la misma ley son válidas, es decir, la autenticidad de la traducción. Podemos así formular una primera LEY: El valor del traductor es inverso a la proporción del conocimiento de la lengua de llegada o al nivel de bilingüismo del cliente.

Artikulu hau *META* aldizkarian argitaratu zen (*META*, 33,3. Les Presses de l'Université de Montréal, Montréal, 1988, 456-460 or.). Haren baimenaz euskaratu eta argitaratua.

Comparando dos versiones de una misma ley, vemos que la primera la hacen expertos en el tema, tras múltiples consultas a profesionales y muchas correcciones; la segunda, un traductor a menudo con muy poco tiempo y solo, y sin posibilidades de efectuar consultas. Esta versión, como mucho, será un espejo que se limita a reflejar el texto inglés.

Así, formularemos la segunda LEY: cuanto más similares sean dos culturas, tanto más adecuadas serán las traducciones.

Entre muchos criterios falsos, trataremos de deslindar el criterio adecuado: la responsabilidad del cliente es crear un documento que sea auténtico tanto en francés como en inglés, y la labor del traductor es ayudar a aquél en esa labor. En este contexto, describiremos al traductor como experto en translación intertextual, y no como ángel de la guarda del francés o como la única autoridad en la translación interlingüística.

He aquí la tercera LEY: la calidad de la traducción depende del nivel de compromiso del cliente para con el bilingüismo.

El traductor, al contrario que en otras profesiones, tiene que doblegarse a las exigencias del cliente; además, tiene que lograr la destreza del virtuoso en su trabajo, interpretar piezas ajenas, pero a menudo desconocidas y sin tiempo para investigar y practicarlas como hace un músico. En lo que respecta a la organización del trabajo, ha sido hasta ahora un solista, aunque cada vez más trabaja en equipo. En este sentido, hay que señalar también la ayuda que presta al traductor la tecnología moderna, de la que tiene que sacar el mayor provecho posible, y quitarse de encima el trabajo puramente mecánico.

Es también totalmente perjudicial para el traductor aceptar sin más las exigencias del cliente: aceptar textos erróneos, etc., es perjudicar a la traducción.

Llegamos a la cuarta y última LEY: Cuanta mayor sea la voluntad del cliente, mayor será la autenticidad de la traducción.

La clave para lograr traducciones adecuadas está en el intercambio de información y la labor de equipo entre cliente y traductor. La autenticidad supone sin embargo más que esto. El texto auténtico es aquél que se adapta perfectamente a la situación de su creador, de su destinatario y del mensaje. Según esta definición, la traducción literaria difícilmente podría ser auténtica.

SYNTHESIS

Authenticity and Quality of the Translation

(Article published by PETER GAWN in META, 33.3. Les Presses de l'Université de Montréal, Montréal, 1988, pp. 456-460. Translation: Gotzon Egia)

It is clear to be seen that the Federal Government of Canada works mainly in English. When communication with French-speaking Canadian citizens is necessary, very often the 'Translation Bridge' has to be crossed — but is one very only.

According to law of Official Languages, the Government must publish all its documents in both French and English. What in fact happens is that the documents are written up in English to be later translated into French.

It's a question of change of cultures rather than languages. From this point of view, the work adjudicated to the translator is incredible.

For example are two translated versions of the same law valid? Here the authenticity of the translation is being put to test. So we can formulate a first law: The value of the translator is inverse to the proportion of the client's knowledge of the language translated into, or to his level of bilingualism.

On comparing two versions of the same law, we see that the first is done by experts in the subject, after consulting professionals and making many corrections. The second is done by a translator, often working alone, short of time and without the advantage of being able to consult. This version, at the most, will be like a mirror reflecting only the English text.

So then we make a second law: The more similar two cultures are, the more adequate the translation will be.

From among a lot of false criteria we must try to outline the adequate criteria: The client's responsibility is to create a document which is as authentic in French and English, and the work of translator is to help the former in his work. Within this context, we would describe the translator as an expert in intertextual translation, and not as the only authority on interlinguistic translation.

Now for the third law: The quality of the translation depends upon the extent of the client's compromise.

The translator, unlike other professionals, must bow to the demands of the client; what is more, he must become a veritable virtuoso in his work — playing other peoples' work, often unknown pieces and without time to look into them and rehearse them as a musician would do. So far as the organization of his work is concerned — he has been a soloist up until now — though more and more he works in a team. With reference to this, the help the translator has received from modern technology must be mentioned. The translator must take as much advantage of this as he can, an hereby unload himself of the purely mechanical work.

It is also very damaging for the translator the accept unquestioningly the conditions of client: accepting erroneous texts etc is detrimental to the translation.

Now we come to the fourth and final law: The more willing the client, the more authentic the translation.

The key of obtaining adequate translation is in the exchange of information and the team work between the client and the translator. Authenticity, however means more than this. The authentic text is one which adapts itself perfectly to the situation of its creator, receiver, and the message. According to this definition, literary translation could hardly be authentic.

PUNTUZ PUNTU



Itzulpenaren etorkizuna 93ko Europan*

María José Velasco Ulacia

Babelgo Dorreaz geroztik gizadia ez da sekula hain garbi eta kontzienteki jabetu bere ikaragarritzko hizkuntzaniztasunaz. Sekula ez dira behar izan gaur adina gizonezko eta emakumezko hikuntzanizdun, hauek direlarik gure munduko puntu guztietako gizakiak **komunikatzeko** egiazko bitartekoak.

Komunikatzeko hain estuki sartua dago gure bizitzetan ia ez garaela konturatu ere egiten. Orduoro, minutuoro, komunikabideek etengabe eskaintzen dizkigute aurrez itzuliak izan diren berriak; gau eta egun, irrati eta telebista bitartez agiri, komentario eta nazioarte mailako politika diskurtsuak entzuten ditugu. Egunero, mundu honetako ospetsuek errito ikuskizun berbera eskaintzen digute telebista kamaren aurrean, mundu mailako oihartzundun esaldiak elkar trukatur, eta bien bitartean dagozkien hizlarien atzekaldean gorde-rik dauden interpretariak dira ospetsuen hitzen zentzua erretransmititzen dutenak. Eta munduko hitzaldi areto guztietan, ohiturik gaude aspalditik ikusten interpretarientzat insonorizatuko kabinak eta

* Ponentzia hau Expolingua '89an aurkeztu zuen APETI Elkarteko Lehendakaria den María José Velasco Ulaciak.

ehundaka kongresista belárrietatik aurikularrak zintzilika, interpretarien bitartez datorkien mezua arretaz entzuten.

Gure irakurketei dagokionez, egunero irakurtzen dugunaren zati handi bat, oso ongi dakigu, beste hizkuntza batzuetatik itzulia da: gizadiaren erlijio eta filosofia liburu ospetsuetatik hasi eta gure mundu espezialdutako obra zientifiko eta teknikoetaraino, dibulgazio eta didaktika liburuetatik hasi eta prosa eta poesiarraino, eta azkenik polizia generoa osatzen duen ihespide literatura guztia. Idatzi eta filmatutako hainbat obra itzuliri esker, nazioarteko literaturaren aroa bizi du gizarteak.

Itzulpenaren garaian bizi gara beraz, eta honek esan nahi du itzultzaileak eta interpretariak egungo munduaren figura garrantzitsu bilakatu direla.

Testu idatzi eta inprimakien itzultzaileek, eta bereziki literatur testuenek begirune handiagoa dute gaur egun. Herrialde askotan, itzuli dituzten obren azalean azaltzen dira beren izenak (hori bai, hizki txikiagoz), eta liburuaren literatur kritiketan itzulpenaren kalitate eta akatsei buruzko oharpenak azaltzen dira. Irakurleko zati batek, oraindik txikia bada ere, jadanik itzultzaile baten edo beste baten itzulpenak eskatzen ditu.

Bestalde, Itzultzailearen lana saritzen duten Nazioarteko eta Nazio mailako Sariak daude.

Itzultzaile eta Interpretari lanbidea merkatuko premien arabera egokitzen eta espezializatzen doa. Denok dakigun bezala, hitzaldi kasuan kasuko, esanosteko eta aldebereko interpretaritzan, baina arlo zehatzetan ez da espezializatzen.

Alderantziz, itzultzailea, normalki, bere heziketa edo gustoekin adosago datozen testu motak itzultzera zaletzen da.

Honela, gaur egun berezten diren itzulpen espezialitate nagusiak ondoko hauek dira:

- a) **Itzulpen zientifiko teknikoa:** industria, komertzioa, ekonomia, informatika, telematika eta antzeko arloetako testuak sartzen dira bertan.

- b) Zinpeko interpretaritza eta itzulpena: zinpeko interpretaria itzulpenarentzat notarioa dokumentu publiko batentzat bezala da, hau da, gure mugen barruan edo kanpoan eragin legala izan beharko duen dokumentu baten itzulpena egiztatu behar du. Interpretari mailan, auzitegietan interpretari lanak egiten ditu. Orohar, itzultzaile eta interpretari multzo hau, zuzenbide munduarekin duen parekotasunagatik, derrigorrez zinpekoa ez den zuzenbide itzulpengintzara ere dedikatzen da.
- c) Literatur itzulpena: espezialitate hau zer den gorago ere azaldu dut.

Nazioarte mailan, zehazki **Itzultzaileen Nazioarteko Federazioan (FIT)**, espezialitate berri batez hitzegiten da, “Media Translators” edo Komunikabideetako Itzultzaileez. Hau, bereziki ematen da zabalkunde mugatuko deitzen diren hizkuntzak dituzten herrialdeetan, beste hizkuntza batzuetan iristen zaien albiste bolumen handi bat itzuli behar dutenetan, eta ez albisteak’ bakarrik, baizik filmeak, bideoak, etab. ere beraien produzioa urria dela kontuan izanik.

Orain arte azaldu dizuedan guztiagatik, agian pentsatuko duzue gure lanbide hau gizartean duintasun eta asentamendua duena dela. Baina tamalez esan behar dizuet hori errealitatetik oso urruti dagoela.

Zuzenbidearen teorian behin eta berriz esan badigute zuzenbidea egitea arautzera datorrela, gu, Itzultzaile eta Interpretariak hemen gaude frogatzeko arau orokor guztiak duela bere salbuespena, eta gu garela orain aipatu dizuedan hastapen juridiko honen salbuespena. Hala da, gure lanbidea, milaka urte dituen, Babelgo Dorrearekin sortu zena ez da arautua izan.

Lanbide Estatuturik ez dugu. Gure inguruko herrialde gehienetan, Espainia barne, noski, eta Dinamarkaren salbuespenarekin, gure eskubideak eta eginbeharrak, Lanbidera sarrera arautzen duen Lanbide Estatuturik ez dugu, ez dugu tradutorea nor eta traditorea nor den esango digun Estatuturik, eta adierazpen hau ez dut ohizko zentzuan erabiltzen, profesional/sasi profesional zentzuan baizik.

Espainolaren Erret Akademiak dioenez, "*profesionala bizi-zeko ohiz jarduera bat praktikatzen duen pertsona da*". Uste dut gure akademiko ospetsuek ez zutela "traditorea" kontuan izan esanahi hori finkatu zutenean, gure kasuan garbi bait dago itzulpenetik bizi den oro ez dela jarduera honen profesionala. Baina egia da baita ere are okerragoa dela oraindik lanbide honetan legez kanpoko ehiza balitz bezala sartzen direnena, lana egin nahi dutenak hizkuntzen ezagupide minimo batekin, baina hori bai, hizkuntzak menderatzen dituztelakoan.

Baina jarrai dezagun eta ikusi profesional hitzaren beste esanahi bat: "gaitasun eta ardura gailenarekin bere lanbidean jarduten duen pertsona".

Hona hemen arazoaren gakoa. **Gaitasuna**. Nor dago itzultzeko gaitua?

Dakigun bezala, lanbide hau, hain zaharra denez ia Historian eta denboran galtzen dena, ia denbora gutxirarte irakaskuntza mailako antolamendurik gabe egon da. Espezialitate desberdinen arabera apaiz, filosofo, idazle eta zientifikoz baliatu da, nahiz eta hauen lanbide nagusia hau ez izan, itzultzen zituzten hizkuntzak sakonki ezagutzen zituztelarik.

Denek aitortzen dute gure herrialdeak Itzulpenaren Historian duen garrantzia. Noski Toledoko Itzultzaile Eskolaz ari naiz, non XII mendearen lehen hamarkadetatik lan jarraitu eta egiaz emankorra burutzen hasi bait zen.

Historia bilakatzen da eta zirkustantziak egokitzen dira, eta duela gutxirarte aurkitzen gara Itzulpenaren edo Interpretaritzaren profesionala autodidakta bat dela, afizioz edo kasualitatez, lanbide honetan sartu dela horretarako prestaketa berezirik izan gabe.

Espanian, XII mendean itzulpenaren munduan aurrendariak izan bagina ere orain aitortu beharrean gaude, Eskola eta Itzultzaile eta Interpretarien prestaketari dagokionez, egungo historiaren trenak daraman azken bagoian geratu gerala.

Une honetan gure Itzultzaile eta Interpretari Eskolak ez daude Komunitateko herrialdeetako enparean. Behar da beraz egokitu gure errealitatea bizi garen ingurura.

Badakigu jakin Itzulpen eta Interpretaritza Lizentziatura baten ateetan gaudela, eta espero dugu benetan errealitate supranazionale-ra egokituko dela. Europako Merkatu Bakarra, 1993etik bere barruan biziko garenez, ezin dugu ahaztu. Langileen zirkulazio askea ezin dugu ahaztu. Gu baino hobeto prestatutako jendearekin lehiatu beharko dugu. Eta uste dut gure lehen bezeroetako den Administrazioa maila honetan Lanbide Estatutoarenean bezala ahalegin handi bat egin beharrean dagoela. EEEko nazionalen aurrean aukera berdinak izan ditzagun beharrezko lan tresnak eskuratu behar dizkigu.

Zuen baimenarekin, hemen **Itzultzaile eta itzulpenen babes juridikorako eta itzultzaileen egoera hobetzeko bitartekoei buruzko Nairobiko Gomendioa** aipatuko dut.

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak, 1976ko Urriaren 26tik Azaroaren 30era Nairobin ospatu zuen hemeretzigarren bileran, **gomendatzen die** kide diren Estatuak indarrean sar ditzatela itzultzaileen eta itzulpenen babesari buruz beharrezkoak diren erabakiak, honetarako beharrezkoak diren legedi nazionalak edo beste izaera batekoak onartuz Estatu bakoitzaren Konstituzio mailako praktika eta printzipioekin adostasunean, Itzultzaileen estatutu soziala eta klasifikazio profesionala hobetu ditzaten.

Era berean, kide diren Estatuak **gomendatzen die** itzulpena disziplina autonomoa dela onartzea, linguistika ikasketatik formazio desberdina eta formazio espezializatua eskatzen duena. Bestalde, kide diren Estatuak terminologia zentruak eratzeko aukera aztertu beharko luteke ondorengo ekintzak burutzen hasi daitezkeelarik:

- a) itzultzaileei eguneroko lanean beharrezkoa zaien terminologiaren korronteei buruzko informazioa adieraztea.
- b) munduko terminologia zentruarekin estuki kolaboratzea, terminologia zientifiko eta teknikoaren nazioartekotasuna norma-

lizatu eta garatzeko, honela itzultzaileen lana erraztu ahal izateko.

Eta bien bitartean Administrazioa, gure erreibindikazio zuzenen aurrean, irakaskuntza duin eta babestuko gaituen Lanbide Estatutua dela eta entzungor egiten da, Estatuko Elkarteak direlarik, eta gure kasuan APETI —Asociación profesional Española de Traductores e Intérpretes— Estatu mailan eta lurralde historikoetako Elkarteak, nazioarte mailan FIT bezala “lanbidearen antolamenduan” paper erabakiorra jokatzen dutenak, Itzultzaile eta Interpretariak defendatuz, orientatuz eta heziz kongresu, hitzaldi, berzizklaketa ikastaro, espezializatutako aldizkarien zabalkunde eta abarrekin, eta Itzulpenaren eta Interpretaritzaren profesionala eta bezeroa zainduko dituzten arbitrai batzordeak eta deontologiako kodeak finkatuz.

Beraz, berriro diot, espero dugu gure kasuan Espainiako Administrazioak gure kolektiboaren aurrean dagokion ardura hartuko duela, arazoa hor dago eta arautu behar du.

Eta egiteei buruz hitzegitean, barkatuko didazue zenbait datu estatistiko eskaintzen badituz, hauek beti dira hotzak, baina komeni da ez ahaztea iraganari eta etorkizunari aurre egin ahal izateko.

Itzulpen automatikoko SYSTRAN sistema erabiltzen duen Parisko GACHOT firmak argitaratutako EEEko estatistiken arabera, hau zen 1982an mundu mailako itzulpen merkatua:

150 milioi orrialde 175.000 itzultzaile profesionalek itzuliak, urtean 3 mila milioi pezeta suposatzen dituelarik. Merkatu hau etengabe hazten doa, urtean %10 inguruan.

Itzulpenak eta Interpretaritzak beraz, munduko herrialde guztietako bizitza ekonomikoi eta sozialean gero eta leku inportanteagoa hartzen du. Adibide gisa, jotzen da ONUk bere presupostuen %7, 70 milioi dolar bideratzen dituela itzulpena. Estudio berberarekin jarraituz, EEEak 1982. urtean 330 milioi Eku gastatu zituen Itzulpen eta Interpretaritzan, honek 42.742.000.000 pezeta suposatzen dituelarik.

Estatistika hauek proportzionalki sektore pribatuari ezartzen badizkiogu, lanbide honek munduan duen garrantziaz eta irakas-kuntza eta legedi mailan arautzeko dagoen premiaz ohartuko gara.

Alderdi juridikoan, esan dut lehen ere, Lanbide Estatutua behar dugu, Itzultzailearen eta Interpretariaren zereginak zehatz-mehatz mugatuko dituen eta nor eta zein gaitasunen arabera dauden lanbide hori burutzerako deituak erabakiko duen tresna behar dugu.

Irakaskuntza mailan, Eskola edo Fakultate on batzuk behar ditugu, ez heziketa zentru soilak izateko, baita ikerketan jarduteko ere. Jadanik badauzkagu zenbait herronka, hala nola ikerketa terminologikoa, itzulpen automatikoa, batzuen iritziz itzultzaile guztiak langabezian utziko gaituen "makina beldurgarria"... Adibide bat jar-tzearren, jakin nahi nuke nik nola konponduko duen makinak poli-semiaren arazoa.

Nolanahi ere, prestaturik egon begar gara. Uste dut benetan etor-kizun liluragarri bat daukagula, baina baita arazoz betea ere; halere ziur nago banan banan gaudituko ditugula, Itzultzaileak eta Inter-pretariak denok elkarrekin, Itzulpena eta Interpretaritza enbor bere-tik irteten diren bi beso bezala bait dira, gizartearengana luzatzen direnak **Komunikazioa** bilatzeko beraien eginkizunean.

Lurdes Auzmendik itzulia.

SINTESIS

El futuro de la traducción en la Europa del 93

(Ponencia presentada por María José Velasco Ulacia, presidenta del APETI, en Expolingua'89. Traducción de Lurdes Auzmendi.)

Jamás ha visto la humanidad tan claramente como ahora su propio plurilingüis-mo. La traducción está tan introducida en nuestro mundo que apenas si logramos darnos cuenta de ello. En los medios de comunicación, en los congresos, si se logra

la comunicación es por la labor que realizan constantemente intérpretes y traductores. En literatura, podemos decir que nos hallamos inmersos dentro de la literatura universal, y ello también gracias a la traducción, a la que, afortunadamente, se le empieza a reconocer su importancia, al menos en este campo.

La traducción asiste también a un proceso de especialización. Así, podemos decir que existe ya: a) traducción técnico-científica; b) intérpretes y traductores jurados; c) traducción literaria. Por otro lado, dentro de la FIT (Federación Internacional de Traductores) se habla ya de otra especialidad, del "media traslator", es decir, el traductor especializado en medios de comunicación, ya de noticias, como de películas, videos, etc.

Sin embargo, este trabajo tan cotidiano e importante no tiene aún en nuestro país la cobertura legal deseada, está sin normativizar: no todos los traductores somos profesionales, es decir, no podemos vivir aún de nuestra profesión; y, en el otro sentido de "profesionalidad", es decir, el de la competencia, también tenemos problemas, pues hasta hace poco tiempo no ha habido unos estudios específicos de traducción/interpretación. En este sentido, el Estado español no está a la altura de la Comunidad Europea, aunque estemos a las puertas de una Licenciatura en Interpretación y Traducción.

En este contexto, tenemos que nombrar la Recomendación de Nairobi, hecha por la UNESCO, para la protección del traductor y la traducción y sobre los medios prácticos para la mejora de la situación del traductor.

Y entretanto la Administración no hace caso de nuestras reivindicaciones de unos estudios dignos y de un Estatuto Profesional que nos proteja; y así, ese papel lo tienen que cumplir ahora las diversas asociaciones del Estado, y en nuestro caso, el APETI.

De cualquier modo, hemos de estar preparados para el futuro que nos aguarda, lleno de problemas seguramente, pero también esperanzador.

SYNTHESIS

The Future of Translation in the Europe of 1993

(Report presented by Maria José Velasto Ulacia, Chairwoman of APETI, in Expolingua 89.)

Mankind has never so clearly seen its own multilingual state. Translation is such a big part of our world that we hardly realize it exists. In the mass media, conferences, if communication is achieved it is thanks to the work of translator and interpreters. In literature, we could say that we find ourselves immersed in world literature, and this is thanks also to translations, which fortunately, are beginning to be recognized as important, at least in this field.

Translation is also taking part in a process of specialization. This we could say now exists a) Scientific-technical translation; b) Legal Translators and Interpreters; c) Literary translations. On the other hand, within the FIT (International Translators Federation) there is another speciality mentioned, that is the 'media translator', that is to say the translator which specializes in mass media, news, films, videos, etc.

Undoubtely, this task which so routine yet important, in our country still does no have the desired legal protection, it is without adequate standars: no all translator are professionals, that is to say, we cannot yet live off our work: and in the opposite way 'professionalism', that a say competence, we also have problems, up to short time ago there were no specific studies on translation/interpretation.

In this way the Spanish State is not at the same level as that of the Common Market, although we are on the verge of having a Bachelor's degree in Interpretation and Translation.

Likewise, we must name The Nairobi Suggestion, made by UNESCO, for the safeguard of the Translator and Translation and the practical way of improving the translator's position.

Meanwhile the Administration pays no attention to our claims for proper studies and a professional statute that will protect us; and this rôle must be played by the necessary bodies of the State Administration and in our case, APETI.

Whichever may you see it, we must be prepared for what future has in store, probably many problems, but also hope, we think.



Zinpeko interpretariak

Carmen del Río

Zinpeko interpretaria eta Atzerri Ministeritzako Hizkuntz Interpretaritza Bulegoko funtzionaria

Zinpeko Interpretaria, Kanpo-Arazoetarako Ministeritzaren menpe dagoen Hizkuntzak Interpretatzeko Bulegoak, "Oficina de Interpretación de Lenguas" delakoak, ordura arte berari bakarrik zegozkion konpetentzien barruan sartzen ziren eginbeharrak betetzeko gaitzen duenean azaltzen da Espainol Estatuan. Bulego hori gaztelerarako itzulpenen alorrean agintaritza gorena zen —eta da—, bere itzulpenak Estatuko edozein Auzitegiren aurrean fedemaileak eta balio osokoak zirelarik, guzti horientzako lotesleak izateaz gain¹. Hori zela eta, Estatuko Administrazioaren beraren agiriez gain, jendeak itzultzeko ekartzen zizkion guztiez ere arduratzen zen. Azken hauengatik arantzelak kobratzen ziren.

Joan zen menderako, pertsona eta merkatalgaien trafikoaren hazkuntzak nabarierazi zuen jendeari azkarrago erantzuten eta Bulegoari geroz eta pisuagoak gertatzen zitzaizkion eta izaera pribatua zuten lanak kentzen lagunduko zuten itzultzaile batzuk eduki beha-

1) Hizkuntzak Interpretatzeko Bulegoaren egungo konpetentziak, Zinpeko Interpretarienak barne direla, 1977ko Abuztuaren 27ko 2555/1977 Erret Dekretuan daude araututa.

rra. Behar hori hasieran Madridetik kanpo sumatu zen, beranduago Madrida bertara ere iritsiz. Beraz, zituen konpetentziez baliatuz, eta zenbait araudi eta agindutan azaldutako prozedura eta betebeharre jarraituz, Bulegoak Zinpeko Interpretariak izendatu zituen, horrela itzulpen fedemaileak egiteko gai egin zituela eta beren arantzelak kobratu ahal izan zituztela. Beraz, ikus dezakegu Zinpeko Interpretariaren figura jendeari notariak egiten duen moduan zerbitzu bat eskaintzeko xedez sendotu zela: Zinpeko Interpretariak fede ematen du. Eta, azken instantzian, bere itzulpenak Hizkuntzak Interpretatzeko Bulegoaren gainbegiradaren pean jar daitezke edonoiz.

Hemen argitu beharko litzateke zinpeko itzulpena ez dela itzulpen juridikoaren parekoa, nahiz eta zinpeko itzulpen horietako askok abokatuen bufeteetan edo epaitegietan izan jatorria, eta horietan bukatu. Zinpeko Interpretariaren lana fede ematea da eta aurkezten zaionaren fede eman behar du, erabilitako hizkuntza dena dela ere. Eta Zinpeko Interpretariok jakinaren gainean egon behar dugu, lan hori behar den bezalaa betetzen ez badugu, erantzukizun penala izan dezakegula.

Ez nuke inor beldurtu nahi zenbait abokatu zorrotz Zinpeko Interpretariaren lanari eragin nahiean imajinatuz, azken finean, aurrean duenak edo entzuten duenak esanahi hau edo hura izango bait du; hala ere, ez dut uste behar adina azpimarratuko dugunik Zinpeko Interpretariaren fideltasunak guztiz zehatza eta zatigaitza izan behar duela, eta itzultzen ari den testuaren edo interpretatzen ari den hitzaldiaren menpe egon bear duela erabat.

Erantzukizuna ez da nolana hikoia, baina bestalde —eta XXI menderako ez dira hamar urte baino geratzen— burutzen duen zerbitzua oso garrantzitsua eta gizartearentzat baliagarria da. Geroz eta alor gehiagotan oso bakanak izango dira interesatuak hizkuntza ezberdinetan eta toki ezberdinetan lotu ditzan agiririk gabe aurrera eramane ahal daitezen enpresak.

Erruztatu edo lekuko gisa Justiziaren aurrera agertu beharrean egongo diren ibiltari edo migrarien kopurua ez da gutxituko, gehitu baizik. Eta guztiek, bai legezko ondorioak izango dituzten agirien

itzulpenak ordaintuko dituztenek, eta bai Justiziak, zeinak behar den bezala administratua izateko Zinpeko Interpretarien zerbitzuen beharra duen, guztiek dute Zinpeko Interpretarien lanari suposatzen zaion bermea edukitzeko eskubidea.

Gaur egun, Espainol Estatuan, hizkuntzei dagokienean, gu guztiak alde batetik itxaropen handiz eta bestetik lanerako gogoz bete behar gaituen garaia bizi dugu. Zenbait hizkuntza koofizialak dira, erabilpenari dagokionean alor ezberdinetan bakoitzak bere aurrekin historikoak dituelarik; koofizialitate horrek askotan itzaultzailearengan, eta are larriagoki Zinpeko Interpretariarengan uzten du zerbitzu publiko hori betetzearen erantzukizun osoa, lan horretarako oraindik sendotasun handirik gabeko alorretan prestatu dutelarik itzultzailea edo interpretaria, oinarri handirik gabe eta izugarrizko lanaren aurrean sentituz bere burua. Eta ez badu egokiro egiten, horren ondorioak jendeak, hizkuntzak eta bere zerbitzuak erabiliko dituzten erakundeek jasango dituzte, eta, nola ez, bere izen onak.

Nola lagun dakioke erakunde horri sortua izan zeneko helburuak eraginkortasunez betetzen?

Gaur egun, Zinpeko Interpretari izendatua izateko prozedura, Hizkuntzak Interpretatzeko Bulegoak urtero deitzen duen azterketan² parte hartzeko eskaera egitean datza. Azterketa idatzizkoa da eta bi ariketa ditu. Lehenengoak ordubeteko iraupena du eta izaera orokorreko testu bat itzuli behar da hiztegirik gabe; horren helburua, hizkuntza orokorki ulertzeko eta ulertutakoa gatzeleraz emateko duen gaitasuna egiaztatzea da. Bigaren ariketan, testu juridiko edo merkantil bat itzuli behar da bi ordutan, hiztegia erabil daitekeelarik. Hemen izangaiak kontzeptu eta testu juridikoekin moldatzeko duen gaitasuna neurtu nahi da.

Zinpeko Interpretaritzan seriooki jardun nahi dutenen artean orokorki zabaldua dagoen sentimentua dugu, Espainol Estatuan onarpen eta laguntza ofiziala horren azkar jaso zuen lanbide honek funtsezko hobekuntzak eta presakako egokitzapenak beharrezkoak dituenarena.

2) Kanpo Arazoetarako Ministeritzaren 1988ko maiatzaren 30eko Agindua.

Estatuaren esparruan zehar hizkuntza ofizial bat baino gehiago egoteak, gaztelera ez den beste hizkuntzetarako eta beste hizkuntzen arteko itzulpen eta interpretaritza-lanak egiteko prestakuntza beharrezkoa egiten du. Bestalde, alor guztietan nazioarteko harremanak horren arruntak bilakatu izanak, edozein lanetan ohizko osagarri bihurtzen du Zinpeko Interpretaria. Garai batean Zinpeko Interpretariak beren ezagupenak zuzenean Bulegoko Hizkuntz-Interpretariengandik jasotzeko aukera zuten, horiek pertsonalki eskaintzen zieten beren esperientzia. Baina hori izaganaldiari dagokio eta Zinpeko Interpretariak, orain inoiz baino hobe prestatu behar duenez, horretarako baliabideak bere esku izan behar ditu —eta ez ditu—, bai eta orain behar den moduko erantzunik ematen ez zaienteko lanetarako bere burua gaitzeko lagunduko dioten erakunde-bideak ere bere esku izan behar ditu. Eta bere lana eraginkorra izateko, bere kompetentziak legez egokiro araututa izan behar ditu.

Zinpeko Interpretari direnek eta etorkizunean izatera heldu nahi dutenek, alor honetako kompetentziak dituzten instantziei ulertarazi behar diete beren iharduera berma dezaten neurriak hartzearen beharra eta lan horrek hartzen dituen estamentu guztien arteko lankidetzaz bilatu beharra, lankidetzaz hori komenigarria izan dadinean, izan ere, burutuko duten zerbitzuari benetan horrenbeste zor bait zaio.

Itzulpena: Lurdes Auzmendi

Interferentzia ikustezinen xerkan

Juan Gartzia

Itzulpen munduan ibilitako zein ibili gaberi ez zaio noski arrotz gertatuko “interferentzia” hitza. Gurearen kasuan dagoen hizkuntza orori planteiatzen zaion arazoa dugu hori, baina gurearen ezaugarriek —isolamendu tipologikoa, txikitasuna, normalizaziorik eza...— neurri arruntez gain areagotzen dutena.

Hala ere, susmoa baino gehixeago badut, interferentzien aurka-ko borrokan —inorena izatekotan itzultzailearena den eginkizun ezinbesteko horretan— ez ote den gure kontzientzia, onenean ere, maila lexiko-gramatikalean bukatzen, eta askotan garbizalekeriaren jarrera azientifiko bezain antzuarekin nahasten: erdarazkoaren antzik duen edozein hitz baztertu, ZEIN erako erlatiboak guztiz kondenatu, Altuberren teoriak morrontza bihurtu, e.a. Jatorrismo horrek duen arrakasta ideologikoarekin, ordea, harritzekoa da zein kaso gutxi egiten zaion praktikan zuzenketa jatorrari, arrazoizkoa ezezik nabarmena ere baden hainbat kasu behin eta berriro salatutan (bati-pat, uste izatekoa denez, lexikoki erdal itxurako elementurik ageri ez denean): “*ustekabe handi bat eman zen*”, “*bonba botako duenaren mehatxua*”, “*astelehenean ere beste gauza bat gertatu zen*”, “*area barruan sartzen denarekin batera*”... Halakoz eta bestelakoz

(hitzen ordenamendu nahasi maneragabea, anaforikoen erabilera senez kontrakoa, elipsien elipsia...) josita dago gaurko prosa, idatzi zein mintzatua, eta komunikabideek onerako egin lezaketen indar bera egiten dute okerraren zabalkunde eta finkapenean. Horrenbestez, esango nuke garbizalekeria buru anitzeko munstroa dugula gure artean, hitzun-idazlea kikildu, erregistroa murriztu, eta gainera, erremediatu behar lukeen gaitza —hizkuntza interferentzia gaiztoz garbitzea— mailarik axalenetik itxuraz erauzi arren, sakonean lehenean iraunarazten baitu, berak alternatiba gisa plazaraturiko “mor-doilo garbi”z berriturik batzuetan.

Ondoren datozen pentsakizunak, beraz, aurreko horretan aipatzen direnekiko kezka —eta haserrea— dutenei begira eginak dira, baina aipatu den maila lexiko-gramatikal horrez aurrerako alorra jorratu nahirik, zentzu zabalean “estilistika” deitu ohi dugunarena, alegia, hizkuntzaren erabilera espresibo bereziena. “Berezi” diogunean, ez dugu inolaz ere “ezohi” esan nahi, eta, hain zuzen ere, “hizkuntzaren beraren estilistika” deitu ohi dena dugu helbururik behinena, eta ez estilistika literarioari bereziki dagokiona. Pentsatzekoa denez, badute aztertuko ditugun puntuok hasieran aipatu direnekin zerikusirik, baina ezkutuago edo pasatzen dira, ez bait dira halako arau liburutan aurkitzen, eta, gure estilistikaren egoera dela eta, eztabaidagarriagoak ere gertatzen dira maiz.

Zoritxarrez hain barregarri ez den adibide bat eman dezagun, zertsu azertu nahi dugun argitzeko. Bere ikastolaren propaganda latza egiten zuen zuzendari batek, honela azaldu zigun behin, bere ikastolaren lorpen izugarrien sekretuaren giltza luze-zabal azaldu ondoren, andereño baten lan arrunta: Haurrak bere inguruan dituela, bakoitzari esaten dio: “*Ematen didazu gaileta bat?*”. Anekdotaren protagonista hortik atera litekeen baino euskaldun garbiagoa zen, dudarik gabe, eta agian hiperzuzenketaz edo egitea baliteke, baina hortxe dago okerra: esaldia gramatikalki zuzena izanik ere, astakeria espresibo latza, noski... latz bezain (ikusten ez duenarentzat) “ikuskaitza”.

Irribarre sufizientea aterako zaio agian irakurleari, baina ez da kasu guztietan hain kontu erraza, ikusiko dugunez. Oraingoz, adi-

tzaren erabileraren inguruan arituko gara, aldez aurretik garbi utzirik ez direla diren guztiak bilduko, eta adibide-balioa baino ez dutela. Irakurlearen senera gelditzen da, beraz, zertzeladok zabaldu eta kontrastatzea, bai aditzaren inguruko gorabeherak osoagotzeko, bai eta bestelako interferentzia estilistikoetara aplikatzeko ere.

Juxtu nahi dugunaren kontrakoa lortuko genuke, noski, inori, kezka sanao piztu eta lagunpideren bat eskaini beharrean, harako "ezina ekinez egina" lortzera iristeko esperantza eta kemena lehenaz gain urriagotuko bagenizkio, ikusten ez zuen arazorik ikusarazirik... Zer egingo zaio!

Eta ausart jokatu nahi genuke, iritziak lotsagabe plazaratu, kikiltasuna nagusitu zaigun alor honetan; ez, noski, dudatzeko prest ez gaudelako, "dena ona"-ren teoria teorizaziorik ezaren seinale delakoan baizik.

Guzti-guztiaren azpian irizpide garbi bat dago, ustez ez oso eztabaidagarria: diskurtsuaren maila guztietan gertatzen denez, prozedura estilistikoak ere birformulatu, dekodifikatu eta birkodifikatu egin behar dira hizkuntzaz aldatzerakoan. Prozedura estilistiko horiek ez dute berez zertan berdinak izanik bi hizkuntzatan, eta areago tipologikoki urrun daudenean. Beraz, ezin dira kalko estilistiko sistematikoak besterik gabe onartu. Geure sisteman halakorik ez dugun kasuan kalkoaz baliatzeari printzipioz uko egin gabe, baliokide den modu propio naturalik ez ote dugun begiratu beharko genuke aurrenik. Begi kritiko horren faltaz gertatzen da, besteak beste, sortzezko idazkeran guztiz arrunta den hainbat egitura testu itzulietan ia sekula ez azaltzea (nahiz gure artean, egia esan, sortze lan asko ere ez den libratzen murriz eta arrotzasunaren gaitz horretatik).

Hona, bada, adibide eta hausnargai batzuk, eta on deigutela denoi:

Orainaldia dela eta

Egia da gure forma konposatuak gai direla, adizki trinkorik ez denean, ekintza puntuala adierazteko: "*Oraintxe ikusten dut*", bai-

na begi-belarrien mingarri gertatzen da abusoa: “Agurtzen zaitut”, “Zoriontzen zaitut”, “Izenpetzen dut” ... Formula magikorik ez da egongo, baina nekez uka liteke inperatiboaren egokiagotasuna: “Har ezazu nire agurrik...”, “Bihoazkizu nire zorionik...”, edo elipsiarena: “Hona nire izenpea”. Bestelakoetan, nik neuk, sintetikoetara moldatzeko ahalegina egingo nuke aukeran: “Hemen bidaltzen dizut” baino senezko eta airosoagoa ez al da “Honekin batera doakizu”? Hala ere, gaitza guztiz sartua dugu dagoeneko, eta pedanteria mailegatuak zale amorratuak dauzka: nork ez du, gaurregun, nahiz ez den euskararen tradizioan halakorik aurkitzen “Ez da ondo aurkitzen” erabiltzen, “Ondoezik dago” edo esateko, erdarakadaren bizioa dotoreziatzko bertute bihurtu ustez? Idatzizkoetan baino kasu larriagorik topa liteke eguneroko elkarrizketa arruntetan: “Zazpiretan gelditzen gara... itxaroten didazu... eta gero joaten gara...”. Eta esparrua zabaltzen ari garenez, eta alderantzizko bidea saiatuz, nola emango genuke erdaraz deskribapenetako gure “ageri da” zorionekoa?: “se ve”, ezta?, ordain zuzenik ezean trebeak baikara, erdaraz, modulazioak ere aisa asko moldatzeko... Edo, beharbada, “puede verse” (hitzezingo dugu geroxeago “poder” aditzaz...). Ze demontregatik itzuli, hortaz, beti, “ikusten da” (edota “ikus daiteke”!)? Zer esanik ez, erdarak hain maite duen “deskribapen animatu” delakoaren kasuan: “asomaban”, “se alza”... “Gurutze handi bat altxatzen da”... bai horixe... Kalkoen mekanikotasunaren abantailak aipa litzake norbaitek, baina ortopedia sistematikoak frankensteinak sortzen dituela erantzungo nioke nik, eta esperantza dut literatur itzultzaileek behintzat garbi edukiko dutela txurrero batek baino beren sormenetik gehixeago gastatu beharko dutela, ongi hezitako imajinazioz eta tanteoz, “Bai jauna: fidel eta jator” preziatu hori eraulkiko badigute. (Nire partetik, aholkutxo bat, guztiz debaldeko eta seguru asko alferrikakoa: ez ahaztu elipsiaren aukera... Ez horregatik.)

Abiatu garen bidetik, zer esan “presente historiko” delakoaren erabileraz? Bereizketa bat egin beharko litzateke:

Narrazio aktualizatua, batetik, ekintzarekin batera goazelako efektu “zinematografikoa” duena, literatura modernoan hain erabi-

lia eta, bestetik, edozeinek nobela baten laburpenean, adibidez, edo filme bat kontatzean darabilena (nolabait, beti gertatzen ari bait dira; lehenaldiak, bestetik, "erreal" edo "sinistua" bihurtuko luke kontatua). Guztizko padura zingiratsuan sartzen naizelako kontzientzia osoz, esan dezadan ez dudala kasu honetan eragozpen bezirik ez eta bestelako aukera egiazkorik ikusten. Pasadizoen kontraera jatorrak orainaldi bukatua darabil askotan (elipsiarekin konbinaturik), baina ekintza kateak edo osatzeko, eta haien azken buruan, berriz, orainaldi puntuala: "Sartu da ba tipoa elizan, jo du apaizaren gana, eskupetarekin apuntatu, eta hantxe doa tiroa" ... nahiz "...eta hara non ikusten duen...", edota, besterik gabe, "...eta ikusten du..." Badirudi, beraz, hizkuntzon joera amankomuna dela kontaketa aktualizatuz dramatizatzea. Horrez gain, literatura zahar nahiz berriko emaitza seinaturik ere badugu gure urrian, beren narrazio estilo berezia molde horretan tajutua duenik: Laphitz, Saizarbitoria...

Besterik da, ordea, kronika tankerakoa, akzio dramatikoaren partez gertakariak edo biltzen dituena, aktualizazioa bainoago preteritoen monotonia agudoa (literalki: azentuaz ere ari bait naiz) haustea duelarik, xede: "Nace... estudia en... ingresa en... se ordena..." (Probatu bestela: nació, estudió...). Izan ere, futuroa ere erabili ohi da funtzio berdintsuan: "accederá luego a... y terminará por abdicar" ... Zer egin, beraz?: Nik futuroarena, geroko utzi gabe, naturalizat daukat euskaraz ere: "osabarenean biziko da ondoren bi urtez, eta bere ikasketak han bukatu (ko ditu)" Bestea, berriz, ez, goian aipaturiko nobela eta filmen testuinguru beretsuko kasuez aparte (aipatzen direneantxe "gertatzen" bait dira gauzak, behin eta berriro). Pertsonaia historiko baten datu biografikoetan, nekez onar genezake, adibidez: "Napoleon... urtean jaiotzen da". Elipsira joko genuke berriro: "...urtean jai(a)", edota berezko denboran utzi: "...jai(a) zen", non eta ikuspuntu benetan narratibo batera aldatu nahi ez dugun, noski, aurreko atalekoen sailera pasatuz: "Jai(a) zen da ba Napoleon... urtean, eta..."

Bitxia da, baina eskema honetan erabat logikoa, forma trinkorik duten aditzen portaera: semantikoki ekintza markatua adierazten

duenak erraz onartzen du sintetikoaren erabilera narratibo hori (“*badoa... eta hantxe dakar...*”, ustez, “*joaten da...*” eta baino egokiagoak); bestelakoak, berriz, “destrinkotu” beharra dauka ekintza adierazteko (“*atean egoten da pixka batean*”, “*ume bat edukitzen du*”... besterik dira, noski, testuinguru horretan —deskriptibo hutsak— “*dago*” eta “*dauka*”).

Kasu berezia dugu galderena. Ekintzak, galdetzen den unearen ondoren gertatzekoa denez, geroaldira (edo “*behar*”, “*-tzeko izan*”... egituretara) jotzen du euskarak, erdirako presentea darabilela: “*¿Hoy se quedan en casa?*” Aditz trinko batzuk aisago onartzen dute, orainaldiaren halako erabilerarik: “*Badator gurekin?*”) Proposamen eta eskaera galderak ez dira lehen eta bigarren pertsonako horren aplikazio berezia baizik: “*Igoko gara mendira?*”, “*Irekiko didazu atea?*”. Bi zentzuetako itzulpen literalek bestelako esanahia dute, denbora errearen: “*Etxean gelditzen dira?*” (egunero edo), “*¿Me abrirás la puerta?*” (gero). Bakarren bat goragoko “*Ematen didazu gaileta*” horrenaz jabetu ez bada (!), horra, bada, esplikazioa. Hutsegite galantagorik ere entzun liteke edozein tabernatan: “*Zer, goazen beste batera?*” (inperatiboa eta galdera mirakuloski bat eginez). “*Zer, bagoaz?*”, galdera hutsa litzateke, alegia, “*Mugitzen hasi dira jadanik besteak?*” edo; proposamena, berriz, “*Joango gara...*”

Erdarazko presentearen beste erabilera batzu ere nekezago onar litezke euskaraz: “*Para el año que viene soy el jefe*” (futuroaren aktualizazioa, presente historikoaren mekanismo paraleloz), “*Bajo enseguida*” (ingresiboa), “*Si apareces, te parto la cara*”, “*Tú te pones de rodillas ahora mismo!*” (apelatiboa, inperatiboaren ordezkoa)... Guztietan ere, aldaera estilistikorik gabera jo beharko da (futuroa, inperatiboa...), edota elipsira edo: “*Datorren urterako, neu ugazaba (!)*” (Esan dezagun, bide batez, esklamazioen espresibidade berezia hobeto ezkontzen dela, orohar, elipsiarekin ezin aditz jokaturekin baino). Berrito ere, ez da guztiz berdina trinkoen eta ez trinkoen portaera: “*Berehalaxe noa*” bai, baina “*Berehalaxe jeisten naiz*” baino zuzenago dirudi, zentzu horrekin, “*Berehalaxe jeitsiko naiz*”. Hala eta guztiz, ezin txartzat joko dugu honelako

esaldirik: *“Non jokutzen du Realak igandean?”*, *“Benitok Beotibarrren kantatzen du bihar”*... Kasuotan, geroaldiko NOIZ hitzek eragozten dute interpretazio frekuentatiboa, goragoko adibidean ez bezala (*“Berehalaxe joaten naiz”* inolako dudarik gabeko frekuentatiboa litzateke, izatekotan: *“Halakoetan beti berehalaxe joaten naiz”*). Errazago onartzen da trinkoa zentzu frekuentatiboan, alde-rantziz baino: *“Goizero lantegira doazenak”*.

Geroaldiaren inguruan

Ikusia dugu zenbait kasutan euskarak erdararen aldean futuroaz baliatzeko duen joera. Ez da, beraz, harritzekoa, erdarak futuroa estilistikoki darabilen kasuetan euskarak ere bide beretsutik jotzea.

Erabilera “potentziala” dugu, seguru asko, behinena, alegia, ziurtasunik eza edo adierazten duena: *“Estará aburrido”*, *“Tendrá cinco o seis metros”*... Ez dirudi eragozpenik dagoenik euskaraz ere halaxe emateko, bestelako aukerak gorabehera: *“Asperturik egongo da”* (*“dagoke”, “bide dago”, “antza, itxura denez, dirudienez...”*) Ekintzaren egiaztapena litzateke kasu guztiotan geroan legokeena, eta hortik futuroa. Balio kontzesiboa ere har lezake: *“Será lento, pero...”* Halakoetan, bestelako aukerarik badago, noski: *“Baliteke geldoa izatea, baina...”*, *“Geldoa zela, baina...”* Berriro ere, matizatu beharra dago galderaren kasua. Duda adierazteko esaldiotan jatorrago dateke “ote” partikularen erabilera, jator-tasun horretaz intentzionalki desmáratu nahi ez dugula behintzat: *“Etxean ote dago?”*, eta ez *“Etxean egongo (ote) da?”*. Berriro ere aukeraz abusatuz, esan dezagun ez dela harritzekoa galderen estatus berezia, informazioaren zehaztasuna guztiaren gaintetik zaindu behar bait da halakoetan, ahal denik eta anbiguetaterik gutxienez: *“Egongo (ote) da?”* (bihar). Estatus berezi bera dugu (genuen?) hitanoz, *“Ekarri dik?”* (hiri) eta *“Ekarri du?”* bereizten direlarik, nahiz *“Ekarri dik”* baieztapenetan anbigua izan.

Gainerantzeko kasuetan, nahikoa paraleloak dira erabilerak: apelatiboa (*“Isilduko ahal haiz!”*), mehatxuzkoa (*“Ikusiko duk!”*), ustekabekoa (*“Ez da izango!”*)... nahiz berdintasun oso-osorik ez

egon beti: “*No matarás*” (debekua), “*Usted dirá...*” (fatikoa). Edozein modutan, espresibitate bereziko kasuetan batipat, ez da soilik aditzaren denbora izango birformulatu behar dena: “*Será idiota este tío!...*”

Lehenaldiaz

Orainaldikoez esan ditugun asko zuzenean aplikatzekoak dira preteritoetan: “*Ageri zen*” edo “*Hantxe (zegoen)*” (“*Ikusten zen*”, “*Ikus zitekeen*” partez). Deskribapenetan larria da “-TZEN ZEN” egituraz arindu beharra, desegoki eta sen jatorraren kontrakoa ezezik, izugarri astuna ere gertatzen bait da. Ez gara luzatuko, baina ez kontuak garrantzirik ez duelako.

Erabilerarik idiomatikoek, esan gabe, doa, ez dute orohar itzulpen mekanikorik onartzen: “*Se llamaba usted...?*” (fatikoa), “*En este momento sólo necesitábamos...*” (nahikaria), “*Ahora que tenía ganas...*” (nahigabea) eta antzekoak. Dudazkoa gerta daitekeen erabilera bat aipatu besterik ez: “*Al cabo de tres años, se diplomaba en la Sorbona*” (Ekintza sail baten ondoren halako azken buru —helburu— batera iristen garela adierazteko aldatzen bide da lehenaldi bukatua: “*Nació... estudió... lograba*”). Euskaraz ere normaldua dagoela dirudi: “*Hamar eguneko setioaren buruan, Iruinera sartzen zen*” (Izatez, orainaldi “zinematografiko”aren iraganeko forma baizik ez da).

Iraganaldi bukatuaz ez dago zer esan handirik. Narrazio denbora nagusia delarik (ez da historikoki hala izan beti: Leizarraga...), forma konposatua dugu, eta horrek areagotu egiten du monotoniarren arriskua: “*Iritsi zen... ikusi zuen... eraman zuen...*” Elipsiaz gain (eta aurreko zein atzeko aditz laguntzailea ezaba daiteke!: “*Mutila ikusi, eta eskuaz agurtu zuen*” nahiz “*Mutila ikusi zuen, eta eskuaz agurtu*”), bada prozedura jator bat, estilo narratiboa markatzeaz bat, perpaus bukaeren berdintasuna hausten duena: aditza perpausaren hasierara ekartzea, alegia: “*Jaitsi zen zalditik, luzatu zion eskua...*” Horrek eta galdegai faltsuen erabilerak (“*Han(tx)e joan zen...*”), ekintza espresiboki azpimarkatzea dute helburu

(monotonia bide batez hautsiz), eta halakoen eskasiaz iruditzen zaigu hainbat testu bizitasunik eta ritmorik gabea (Narrazioz kanpo ere bada, tamalez, "euskal joskera jatorra" perpaus guztiak aditzez bukatzea dela uste duenik...) Puntu honetantxe bide du euskal idazkerak —ez itzulpenak bakarrik— konpondu gabeko bere auzi nagusietako bat hau ere, berbaldiaren, jardunaren —diskurtsuaren— beste alderdi guztiz funtsezko batzuk bezala, "ikustezina" bait da, hitzetan eta gramatikarik axalenean itsuturik dagoenarentzat.

Pluskuanperfektoek, berriz, problematika berezia dute, ez bait dute ordain zuzenik. Nabardura garrantzitsua denean, egoki da "gelditua zen" tankerakoetara jotzea, baina, beharrik ez dela, testua halakoz josi gabe, ez bait du merezi testua astuntzea, testuingurua nahikoa izanik gehienetan.

"Pretérito anterior" delakoa ("*hubo llegado*") bitxikeria da da-goeneko, eta are bitxikeriago haren ordain euskarazkoa ("*ikusi ukan zuen*"...).

Kortesiaren espresioaz eta bestez

Zenbaitetan, esamolde batzuk "zuzenegi", "lotsagabeegi" edo sentitzen direnez, haien "atenuazio" a bilatzen da, hain gordin gerta ez daitezen. Erdaraz, honako korrelazio bat ezar daiteke, adibidez, gauza bat eskatzerakoan (tratamentu eta formula esplizitoez aparte): "*Deme*", "*Me da?*", "*Puede darme?*" ("*¿Le importa darme?*"...), "*¿Me daría?*", "*¿Podría darme?*" ("*¿Le importaría darme?*"), eta are —kolokialki— "*¿Podía darme?*"... Baita —semantikoki atenuatuz— "*Quiero*", "*Quisiera*", "*Quería*" eta antzekoak ere. Hor inperatibo gordinetik ihes egiteko dauden aukeretatik batzuk (galdera, denbora-modu aldaketa, atenuazio semantikoa...) berdintsu erabil ditzakegu euskaraz (kontutan hartu, hala ere, aurrez egindako oharrak). Ez dut uste, ordea, "*poder*" aditzaren perifrasiak kalkatzea zilegi denik, eta, bestetik, hori gabe ere badugu nahikoa saltsa ahalezko adizkiekin: "*Pasa diezadakezu gatzontzia?*", "*Ekar zeniezazkiguke argazkiak?*" (Ez dira, noski, agramatikalak, baina benetako "ahal izate"-az galde egiten dute, ez dira kortesiazko

atenuazioak. "Pasako didazu?" eta "Ekarriko zenizkidake?" dira ordain naturalak).

Horretaz ari naizela, osa dezadan, eta zabaldu, "poder" aditzaren erabilera bereziaz esan dudana. Eta horretarako, aurrez, bi ohartxo:

Bat: aditz perifrasiak bakanka baizik ez daitezke erdaratik bere horretan euskaratu: "*Puedo ir*", "*Viene sucediendo*", "*Vuelve a llevarse*"... Izan ere, era askotariko xehetasunak biltzen dituztela (modalak, aspektualak...), oso idiomatikoak ohi dira.

Bi: "ahal izatea" bi era desberdinez interpreta daiteke: gertagarritasuna ("*gerta daiteke*", "*baliteke jakitea*"...) edo ahalmena, gaitasuna ("*egin dezake*", "*irakur lezake*"...). Eta ez pentsa hain erraza denik beti, testuingururik gabe eta semantikoki bi aukerak onartzen dituen aditzaren kasuan, anbiguetate hori hausten: "*Ibil liteke*", "*Irabaz lezake*"...

Badago erabilera ospetsu bezain madarikatu bat, hainbat buruhauste eragiten duena, lege eta administrazio arloko itzultzaile sufritu eta sufriarazleen artean batipat: erdarazko erlatibozko esaldi subjuntibozkoena, hain zuzen: "*Los daños que pudieran producirse...*" Guztiz aproposa dugu kasua interferentziak analisi bidez neutralizatzearen sistema batere sekretu gabe honen adibidetzat. Demagun garbi daukagula posible dela subjuntibozko formak erlatibo gisa txertatzea euskaraz ere (posible, diot, ez ohizko): "*Gerta daitezen kalteak*" ("*Gertatzen direnak*" besterik izan bait daiteke). Demagun, halaber, badakigula testuinguru horretan posible den forma bakarra orainaldia dela (esaldi nagusia orainaldian bait dago: "... *ordainduko ditu*"), eta, era berean, "*pudieran*" hori "*pudieren*" formaren aldaera oso zabaldu baina ez normatiboa dela, eta "*pudieren*", berriz, "*puedan*" orainaldia-ren baliokide zaharkitua (subjuntibozko futuroa); berdin zaigula, beraz, "*que se produzcan*", "*que se produjeran*" nahiz "*que se produjeran*" (*?). Frantsesak erruz darabilen "zurrumurrupotentzial" delakoa, galizismoztat gaitzetsi arren, gero eta zabaldago dago gaztelaniaz ere: "*X sería el candidato de la alcaldía por ...*", "*Se habrían producido*

varios actos de sabotaje.... Ez dirudi inork tentaziorik izan leza-keenik hori ere kalkatzeko. Horren ordeztu gaztelania zuzenez beza-latsu lexikoki adierazten da “zurumurrutasuna”: “*antza*”, “*itxura denez*”, “*dirudienez*”; edota partikula bereziz: “*omen*”, “*bide*”... Horretarako adizki berezirik ere badago, baina ez gehienon erabile-ra arruntean: “*dateke*”, “*duke*” (ez, noski, “*litzateke*”, “*luke*”). (Baldintzazkoetan ere sarturik dago nahastea: “*Si vinieran, serán recibidos*” (*! “*serían*” eskatuko luke baldintza horrek), eta euska-raz ere —nola ez!—: “*Epaimahaiak, hala baleritza, ... erabakiko du*” (*!!! Ez al da, zuzen eta egoki ezezik, aski dotore “*baderitza*”?)... Guzti hori argi badaukagu, geratzen zaigun bakarra da jakitea ea ze demontre adierazten duen “*poder*” hitzak egitura horretan, eta horretarako, parean jartzea dukegu egokiena: “*Los daños que se produzcan / que se puedan producir*” edota —aldaera estilistikoz, oker gramatikalez eta esaldi nagusiarekiko denbora-modu inkoherentziaz (halaxe erabiltzen bait da maizenik!)—: “*Los daños que se produjeran (?) / pudieran producirse, correrán a cargo de...*” Hain zuzen ere, desbiazio bitxi horrek argiago markatzen du ez garela ari benetako “ahal izate”az. Eta hortxe dago kakoa: esan nahi duena da balitekeela kalterik ez sortzea, halakorik gertatzen den kasurako ari dela (“*En caso de que...*”): “(*Deskuidoan*) kalte-rik sortzen bada (edota “*sor badadi*”, arkaismo dotore bila dabilenarentzat), *halakoak ordaindu beharko du*” (Forma jokaga-beek ere eskaintzen dute irtenbiderik, noski: “*Kalterik gertatuz gero...*” Bi kasuetan, bariazioen bat ere egin liteke: “*Kalteak, halakorik bada, bezeroaren kontura joango dira*”. Ez dirudi, egitura gramatikalak gorabehera, alderik dagoenik itzuli nahi genuenetik. Graduatu nahi bagenu, berriz —ez dut uste halako premiarik legokeenik— zergatik ez egin, adibidez, “*deskuidoan*” eta “*deskuido santuan*”... Nik neuk, lehenago joko nuke halako “herrikoikeri”-etara, kalkozko okerrera baino, baldintzazkoetan ere, gorago adierazi dugunez, inkoherentea bait da “*Kalterik sortuko balitz, halakoak ordainduko du*”, nahiz erdararen paralelismoz “normala” iruditu. Akaso deskuidatuta egongo naiz, baina “*deskuido (santu)an*” beza-lakoak —erregistroak erregistro— aurreritzi nabarmenez baizik ez dauzkagu zakurraren salara botetia. Esan dut, hala ere, eta berresan

dezadan, ez dagoela *berez*, erdararen (eta beti erdara horrexen) xehetasunak —eta are hutsegiteak— ridikuloraino sakralizatzen ez baditugu behintzat, ez graduazio guttiz paraleloa, ez eta egitura gramatikal berbera erabili beharrik beti, baliokidetasun egokia lortzeko. Askotan, ikusi dugunez, birformulazioak dexente “urrundu”ko gaitu, baina huraxe izango da itzulpenik hurbilen, doituena, eta ber-bertako itzulpena, berriz, kalko traketsa. Asmatzea da, noski, kontua. Ez da, hala ere, nik esana: “*Nor den itzultzaile ona?: itzulgaitik ahal bezain gertu eta behar bezain urruti doana*”.

SINTESIS

Interferencias invisibles

Uno de los problemas más graves que plantean las interferencias —que, en nuestro caso, y debido a diversas circunstancias, es ya un problema agudo— es que se suelen tratar solamente en el nivel léxico-gramatical; por otro lado, el problema se suele mezclar con un purismo mal entendido: si un texto no se parece al español, está bien. Y así vemos que nuestra prosa aparece repleta de órdenes sintácticos “desordenados”, mala utilización de los anafóricos, elipsis de las elipsis, etc. Hay que señalar también que a menudo hemos visto que interferencia se puede llegar a confundir con elegancia.

Hay que plantear el asunto a un nivel más amplio, el de la estilística de la lengua (no nos referimos a la estilística literaria). Este nivel no suele aparecer en nuestras gramáticas, con lo cual estas interferencias “estilísticas” pasan fácilmente desapercibidas.

El análisis de este trabajo se limitará al verbo (usos de los tiempos verbales). Nuestra idea, en el fondo, es que hay que reformular, descodificar y recodificar los procedimientos estilísticos al cambiar de lengua. No se pueden admitir sin más los calcos estilísticos; aun sin rechazarlos de plano, en primer lugar hay que tratar de buscar los correspondientes equivalentes naturales en la lengua de llegada.

Presente.

Los diversos valores del presente castellano no siempre se pueden traducir por presente en euskara. Además, a esto se suman en euskara los diferentes usos de los dos tipos de verbos, los sintéticos y los perifrásticos.

El presente puntual da lugar así a calcos muy graves, y sin embargo muy extendidos (a veces por la pretendida "elegancia" que hemos nombrado antes), y algunos casi normalizados. El presente histórico, en su empleo más característico, es decir, para dramatizar la narración, es más o menos equivalente en las dos lenguas. En cuanto al presente con valor de futuro, también es fuente de problemas. Así, el "nos vamos?" a menudo se oye como "goazen?", es decir traducido por un imperativo, algo muy lamentable y sin embargo, frecuente.

Futuro

El futuro español en sus diversos valores se acerca más al del euskara, con lo cual no da lugar a tantos problemas.

Pasado

Al pasado se le puede aplicar mucho de lo dicho para el presente. Subrayaremos que en sus uso más idiomáticos, no es aceptable la traducción más mecánica (fático, de deseo, etc). Por otro lado, siendo el tiempo narrativo por excelencia, y dada la estructura formal del pasado en euskara, puede dar lugar a un texto repetitivo y monótono. Para evitarlo hay sin embargo distintos recursos: elipsis, uso de tópicos falsos, cambio del orden en la frase.

Sobre las expresiones de cortesía y otros asuntos.

Se trata, en preguntas/peticiones, de huir del imperativo (que se siente como demasiado "fuerte"). Además, en estos casos se utiliza a menudo la perífrasis con "poder" (uno de los auxiliares modales más complicados del español). Algunas de las expresiones se pueden traducir sin más al euskara, pero otros muchos casos (con "poder" sobre todo) dan lugar a expresiones erróneas, además de complicadas y cursis.

No hay por qué usar, con respecto al castellano, ni una graduación totalmente paralela ni la misma estructura gramatical, para conseguir una equivalencia adecuada. La reformulación nos alejará a menudo del original, pero ésa será precisamente la traducción más ajustada y más apropiada.

SYNTHESIS

Invisible Interference

One of the things to be most seriously considered is interference which in our case, and due to the circumstances is already an acute problem — which is normally dealt with as being lexical grammatical. The problem however is often mixed in with purism which is not very well understood: if a text does not resemble Spanish, it is alright. And so we see that our prose appears full of 'disordered'

syntactic orders, bad use of anaphorics, ellipsed ellipsis etc. We have often seen too where interference can even become mistaken for elegance.

The whole thing must be considered on a wider scale — from a stylistic point of view (we are not referring to literary style here but language style). As this does not normally appear in the grammar books, these stylistic interferences often go unnoticed.

The Present

The different values of the Castilian present cannot always be translated as present in Basque. What is more, in addition there are different uses in Basque of two types of verbs, the synthetic and the periphrastic.

The punctual present makes for some serious copying — yet very widespread (sometimes due to the supposed 'elegance' above mentioned) and some which are almost normalized. The historic present, in its most characteristic use that is to dramatize a narration, is more or less equivalent in the two languages. The present as a future is also a source of problems. So we often here "nos vamos?" translated as "goazen?". Which means it is translated as an imperative — its very sad but very frequently heard however.

Future

The Spanish future in its various forms is more similar to the Basque, so it does not give rise to problems.

Past

Much of what we have said about the Present may be applied to the past. It must be specially noted that in its most idiomatic use the most mechanical translation is not acceptable (fatic, wishes, etc.).

On the other hand being the narrative tense par excellence and in view of formal structure of the past in Euskara it can result in a monotonous and repetitive text. To avoid this however there are various alternatives: ellipsis, the use of false commonplaces and change of order within the sentence.

About courtesy expressions and other matters

The matter in question is to avoid the imperative (too 'strong') in questions and requests. Periphrasis with 'poder' (can) is often used in these cases in Spanish, now, 'poder' is one of the most complicated modal auxiliaries in Spanish. Some of these expressions can be translated directly into Euskara but there are lots of other cases (mainly when 'poder' comes into it) in which a direct translation gives way to wrong and what's more affected and complicated expressions.

Neither an absolutely parallel graduation nor the same grammatical structure need to be used in order to achieve a correct equivalence. Reformulation will take us away from the original but that will be precisely the most approximate and appropriate translation.

Itzulpengintza: Terminolodi eta sintaxi mailako zenbait arazo

Mikel Garmendia Ugarte

Lan honen helburua

Euskal itzulpengintzaren historian zehar nabarmena dugu, lehenik eta behin, erlijio gaien itzulpena askoz ere ugariagoa izan dela erlijioaz besteko gaietan baino. Hala ere, egin da euskal itzulpenen historian zehar azken arlo honetan hainbat ahalegin. Itzulpenak egiterakoan azaldu izan diren zailtasunak ez dira bereziki erlijioaz besteko gaien alorrean azaltzen. Esan nahi bait da, zailtasunak berdin azal daitezkeela erlijiozko gaiak itzultzerakoan. Hala ere, eta terminologiari bagagozkio bereziki, areagotu egiten zaizkigu orohar erlijioaz besteko alorrean kokatuko ditugun teknologia, administraritzaz, merkataritzaz eta honelatsuko alorretako gaietan.

Aipatutako alorrekoak genituzke, esate bateko, Donostian 1888. urtean izenik gabe argitaratu ziren **Usurbil-ko Erriyaren Ordenantzak**, legezko testu baten adibide izan daitekeena, edota **Tresora Hirur Lenguayetakua**, 1620. urtean gutxi gora behera ateratako merkatalgintzari buruzko liburu laburra, etabar.^(*)

^(*) Euskal Itzulpenen zerrenda nahi izatekotan K. Zabalak HAEE-IVAP Erakundearentzat egindako fitxeroa oso baliagarri gertatzen da.

Aipatu ditugun zailtasunei eman dizkio Euskaltzaindiak berak hainbat irtenbide hizkuntz normalizazioaren premiei jarraiki.

Kontutan hartu beharrekoak ditugu, batetik, informatika, teknologia berriak etabar gaur egun inoiz baino abiada biziagoan ari zaizkigula sartzten eta, bestetik askatasun politikoarekin batera hainbat eta hainbat testu euskaraz emateko aukera ez ezik beharra ere sortu dela. Esan bezala, Euskaltzaindiak emandako irtenbideak ez dira, ordea, itzuli behar honetan sortzen diren arazo guztiekiko panazea. Alde batetik, terminologia berriak itzultzen dihardutenek urratutako bideetatik joko du gerora finkatuko den terminologiak eta, bestetik, sintaxi mailan, zailtasun berriak sortu ahala emandako irtenbide desberdinen artean nagusituko diren irtenbideak geldituko dira finkatuta.

Beraz, lan honetan euskal itzulpengintzaren historiako zenbait testu aztertuko ditugu, azterketa egiterakoan hiztegia, erlatibozko esaldi korapilotsua eta jatorrizko testuarekiko atxekitasuna ikusiko ditugarik.

Nolanahi ere, testu azterketari ekin aurretik ikus dezagun historian zehar itzulpengintzan, eta bereziki hiztegi eta erlatibozko esaldiei gagozkiela, izandako hainbat joera eta bide.

Azkenean, gaur egungo zenbait testu tekniko aztertu ondoren, gehien aipatzen diren zailtasunak, dauden hiztegi eta sintaxi mailako joerak eta hauei buruzko balorazio antzekoa emango dut.

Historia apur bat

Terminologiari gagozkiola, leku berezia egin behar diogu oraindik argitaratzeke dugun Silvain Pouvreauk XVII. mendean egindako hiztegiari, oso gaur eguneko irizpideei jarraiki ematen bait ditu hitzak, hau da, elkarketa, eratorketa zein mailegu bidezko izan daitezkeela.

Ondorengo mendean hasten dira, alabaina, gauzak okertzen, euskararen apologistetarikoa dugun M. Larramendik bere **Diccionario Trilingüe** famatuan emandako asmakeriak direla medio.

Honen kritikoez ez dituzte, ordea, haren oinarrizko aurreiritziak gainditzen. Alde batetik, S. Aranek elkarketa eta eratorketa arauak ongi ezagutzen zituen arren gehiegikeria edo garbizalekerian erori zen eta ez zuen mailegubidea onartu. Honek asmatutako hitzak ditugu “*txadona*”, “*jaupa*”, “*abestu*” etabar. Bi lehenengoak bazterturik gelditu diren arren, larria ez bada ere aztertzeke modukoa dela dirudi hirugarrenak gaur egun duen hedadura.

Azkuek, bestetik, Aranaren neologismoak gaitzetsiz, hizkuntzan bizirik dauden hitzak onartu zituen soilik, baina mailegubidea euskarak beste baliabiderik ez duenean besterik ez du onartzen, honela hedadura, sustrai eta maiztasun handiko hitzak baztertu zituelarik. Akats guzti hauek S. Altubek kritikatu zituen beranduago “**Euskel Itz Barrijak**” izenburupean emandako hitzaldian.

1959.ean Euskaltzaindiak adierazpen bat egin zuen argi eta garbi utziz hizkuntzan antzinatik sakonki finkatutako maileguak benetako euskal hitz gisa hartu behar direla eta, hortaz, ez dela komenigarri aipatutako maileguen ordez hitz berririk erabiltzea. Honek ez du esan nahi behar denean goian aipatutako hiru baliabideak erabiliz hitz berririk ez sortzeke aholkatzen duenik.

Gaur egun tabu izaten jarraitzen du neologismoei buruzko arazoak: alde batetik zein, erreakzioz, bestetik egindako gehiegikeriek hainbat eztabaida sorrerazi dute, honen erakusgarri argi dugularik oraintsu Koldo Mitxelena UZEIren hiztegigintzari egindako kritika zorrotza.

Erlatibozko esaldiei gagozkiela ere terminologia mailan historian zehar izandako eztabaida guztien oinarri bera izan da gakoa, hots: zenbatetaraino onartu zein, nor eta antzekoekin eraturako erlatibozko esaldiak. Aurkakoek (Orkaiztegi, Azkue eta honen jarraitzaileek) horiek galdetzaile soil zirela esatez gain, erdal kutsua omen zutelako baztertu zituzten.

Ukaezina dugu, ordea, euskal idazle eta itzultzaileek aspaldidanik ikusi zutela zenbait erlatibo korapilotsuri irtenbidea emateko bide hori erabili beharra edota bide horren baliagarritasun, ulerteztasun edo dena delakoa.

Adb.: *Cer vici dá, non Jangoicoa eztaiquen guciz gozátu?* (Lizar. Koplak). Jakina denez, euskarak lau bide nagusi ditu erlatibozko esaldiak eratzeko.

- a) *-(e)n* ekoa.
- b) *zein, nor* eta antzekoekin eraturia.
- d) *bait* soilik duena.
- e) erlatibo laburtua.

Nolanahi ere, lau bide nagusi hauek zilegitzat jota ere, gaztelezko “*en los cuales*”, “*para los cuales*”, “*de cuyos*” eta antzerako loturez eratutako erlatibozko esaldiek hainbat buruhauste sortu eta sortzen ditu horiek euskaraz ematen saiatzerakoan. Hauei behin betiko irtenbide egokia emateak berebiziko garrantzia du kontutan izanik lege, administrazio eta, orohar, teknika mailako erdal testu asko honelakoez josita azaldu ohi direla. Guri ez dagokigu, alabaina, honelako jatorrizko testuen “galimatías” edo alferreko zailtasunei buruzko eztabaidatan sartzea.

Beraz, eta besterik gabe, hona lan honen aztergai izango ditugun lau testuak:

- I.– Bizenta Mogelek 1803.ean itzultako Luis de Borbon-en gutun baten zati bat.
- II.– Usurbil-ko Erriyaren Ordenanzak, Donostia, 1888. Zati bat.
- III.– Gerra garaiko Euzkadiko Agintaritzaren Eguneroko-tik hartutako zati bat.
- IV.– Gaur egungo lege-testu bat: **Euskal Funtzio Publikoaren Aurregitasmoa.**

I.– Bizenta Mogelen itzulpena

La union y la virtud forman la base mas esencial y la estabilidad de los Gobiernos y de las Naciones, y úno y ótra proporcionan los sazonados frutos, que abundantemente hacen la cosecha

Batasuna, eta virtutia dirá Aguintaritzta eta Jaioterri edo Nacionea guztien cimendu, eta sendagarrijac, eta borondate onez Evangelijo santubaren onerechi edo caridadian batzanduten diranac,

espiritual y temporal del que gustoso se presta y somete á quanto inspira la caridad del Evangelio. Esta verdad sabeis bien todos que no es una máxima abstracta, ni un interes meramente ideal, sino que el rudo y el sabio el ignorante y el ilustrado la ve, conoce, observa y palpa; no ignorando tampoco, que en la ciudad y en la aldea, en el palacio y en la cabaña es el buen Cristiano el hombre de bien, el buen ciudadano, el prudente, el activo, el tolerante y el ilustrado cuando manda, y es asf mismo el sumiso, el diligente y el generoso cuando obedece. Esta verdad, cuya práctica cada dia siempre es y ha sido del mayor interes de todos, es ahora mas conveniente presentárosla cuando el Rey nuestro siempre amado FERNANDO VII, cuya vida guarde Dios nuestro Señor largos y prósperos dias, dirige á todos los Españoles su paternal palabra en el 10 de este mes, asegurándoles, que ha jurado la Constitucion, por la que suspiraba nuestra heroica Nacion, de la cual será siempre su mas firme apoyo: en este plausible dia, en que nos manifiesta que se gozará de concurrir á la grande obra de la prosperidad Nacional; en este dia, en que con universal alegría de la Capital de esta vasta Monarquía por el juramento á la observancia de la Constitucion fundamental del Reyno, formado en Cádiz en el año de 1812 por las Córtes generales y extraordinarias, ha cambiado su forma de gobierno sin los azares, desgracias y desdichas de que casi siempre los Pueblos y Naciones no supieron evadirse, aun en crisis de menores peligros. Leed, y no ceseis, las espresiones preciosas y dignas del manifiesto que nuestro amado REY dirige á todos nosotros.

emoten ditubé frutu eldu, eta ugarijac arimiari, nai gorputzari daocazan gaucétan. Eguija au guztioac daquizu ez dana veguitancinoe edo asmo utsecu; Guizon illunac, eta arguijac, ez jaquinac, eta jaquitunac, dacuz ezagutu, eta igarten dau, eta daqui Uri andijan, nai Alderrijan, Jaureguijan, nai chabolan, Cristinau ona, dana beti guizon prestuba, Uritar ona, zurra, eguillia, erualia, eta arguija aguinduten dabenian: menderatuba, vizcorra, eta prestuba besteren aguinduba eguiten dabenian. Eguija au, cein izan dan beti guztiz biarra, eta defien premiinia egunerice egunera gueituten dan, ifios baño gueijago biarda zuben beguijén aurrean imini egun onetan, zucenduten deuscupian bere gurasozco verbia, beti maite izan dogun gueure Erregue Fernando VII garrenac, ceñen vicitzia Jaungoicuac gorde deigula urte luce, eta egun zorionecuetan. Berac dirauscu artu dabela, eta juramentubagaz sendotu Zucengarri edo Constitucinoe Nacinoe andi onec aimbeste gurarigaz icharoten ebana, eta bera izango dala onen abe arriric senduena. Egun zoragarri onetan aguertuten deuscu bere gurarija, eta poza lagunduteko Nacionaiaren aurre-rapeneco eguitada andijan. Egun onetan ceñetan guztien atseguinic andijenagaz, Bacaronda edo Monarquiija zabal onetaco Erriburuban, juramentu eguinic gordetaco Erreinuco Zucengarriaren cimendu edo Constitucinoia, eguiña Cadi-cen 1812 garren urtian Batzaar betico, eta banacacuetan, aldatu dan aguintaritzza edo Gobernuba, arace jazoera negar-garri, zori chaar, eta atsacabegarri baga, ceintzubetatic nequez aldendu oi dirian Errijac, au baño arriscu guichiagoco demporétan bere. Iracurri eguizuz bada azpeltu baga gueure ERREGUE maitiac zucenduten deuscuzan verba, bacarric bere viotz samurraren duin dirianac.

1.1. Terminologia

Ez du mailegubideari dagokionez jarrera ausartik azaltzen. Beranduago hainbat idazlek erabiliko duen teknika darabil, hau da hitz garbia eman bai, baina jarraian maileguzkoa ematen du *edo* partikularen ondotik. Mailegua *edo*-ren ondotik jartzeak badu garrantzirik, testua irakurtzen duenaren gogoan azken gelditzen dena baita. Beranduagoko idazleek alderantziz erabiliko dute teknika hau, begibistako denez, hitz garbiaren alde eta maileguaren kaltetan.

Hona testuan azaltzen diren adibideak:

Jaioterri edo Nacinoe
onerechi edo caridade
Zucengarri edo Constitucinoe
Bacaronda edo Monarquija
Aguintaritzta edo Gobernuba.

Eztabaidagarria da, noski, *onerichi* eta *caridade* hitzak esanahi bereko diren, *Bacaronda* asmakeria den e.a. Guri, ordea, hitz garbiaren ondoan mailegua jartzen duela interesatzen zaigu. Honen zergatia argi eta garbia da: besterik gabe *Jaioterri*, *onerechi* eta abar emanaz gero ez da ziur irakurleak horien baliokidetzat *nazio*, *caridade* eta abar ulertuko lituzkeenik. Beraz, bada ez bada ere jartzen ditu maileguak.

Erlatibozko esaldi korapilotsuei irtenbidea emateko ez du eragozpenik, klasikoek egiten zuten bezala, *zein* eta abarrez baliozko.

B. Moglek honelako erlatibozko esaldiak egiten ditu: *zein*, *zeinaren...* + *aditza* + (*e*)*n*. Testuan azaltzen direnak:

“Eguija hau, *cein* izan dan beti guztiz biarra...”

“...*Erregue FERNANDO VII garrenac, ceñen vicitza Jaungoicuac gorde deigula urte luce.*”

“Egun onetan *ceñetan* guztien atseginic andijenagaz...”

“...*araco jazoera negargarri, zori chaar, eta atsacabegarrri бага, ceintzубetatik nequez aldendu oi dirian Errijac...*”

Kontutan hartzekoa *zein* partikula, mugagabeen deklinatzen duela, Axularrek ere berdin egiten zuelarik. Honek badu garrantzi-rik hainbat idazlerengan mugatuan deklinaturik ikus bait dezakegu: *zeina*, *zeinarena*. Badirudi jatorragoa litzatekeela mugagabeen deklinatzea.

Dena dela lehenengo esaldia *beti guztiz biarra izan den eguija au* bihur dezakegun bitartean, ez dirudi bigarrenarekin, gero ikusiko dugunez zenbait idazle horretan saiatu arren, gauza bera egin deza-kegunik.

Jatorrizko testuarekiko atxekitasunari bagagozkio, itzulpen ona izan arren zenbaitetan libreegia dela esan genezake. Esate bateko:

“...las espresiones preciosas y dignas del manifiesto que nuestro amado REY dirige a todos nosotros.”

“...gueure ERREGUE maitiac zuzenduten deuscuzan verba, bacarric bere viotz samurraren duin dirianac.”

II.- Usurbil-ko Erriyaren Ordenantzak

Art. 2º Se prohíbe todo trabajo corporal en público los domingos y días festivos reconocidos por las disposiciones que hoy rigen.

Art. 3º Si en casos de necesidad fuese indispensable continuar el trabajo en las labores del campo ó en cualquier oficio, se pedirá el correspondiente permiso á la autoridad municipal, que lo concederá, si la causa alegada es justa, de acuerdo siempre con la autoridad eclesiástica.

Art. 4º Los que perturbáren los actos del culto ú ofendieren los piadosos sentimientos de los que á ellos concurren, de cualquier manera que fuese; serán entregados á la acción del Juzga-

2.garrena Debakutzen da igande ta jai-egun ezagutu guztietan, agirian lanik egitea.

3.garrena Premiya aundiren bate-gatik, kanpo-lan edo beste lanen bat egin behar izango baltiz, eskatuko zaio eskubidea erriko autoridadeari. Onek emango du eskatzen zaion baimena, bidezkoa bada, orretarako entenditurik Eleizako autoridadearekin.

4.garrena Eleiz-funzioak galeragiten dituztenak, edo beretara joaten diranen sentimentuak edozein modutan minberatzen dituztenak, izango dira Tribunaletara entregatuak, kastigatu

do municipal, si el acto no constituyese delito, ó á la de los tribunales ordinarios si llegase á serlo.

Art. 5º Las calles ó sitios por donde hayan de pasar las procesiones, deberán estar perfectamente barridas y limpias con una hora de anticipación por lo menos, siendo responsables los vecinos de las casas, que no observáren al efecto las reglas dictadas sobre limpieza pública en las ordenanzas.

ditezen legeari eta beren utsegiteari dagokion moduan.

5.garrena Prozesioak pasa behar duten kaleak, egongo dira chit ongi garbituak, gichienez Prozesioak pasa behar duen baño ordu betez lenagotik. Ala egiten ez duten bezino guztiak eranzungo dute behar dan tokian, eta izango dira kastigatuak ordenanz'oe, garbitasunari dagokion buruan, agintzen duten erara.

2.1. Terminologia

Oso kontutan hartu beharrekoa dugu testu honetan zuzenean herriari helarazi nahi zaizkion aginduak jasotzen direla. Horregatik darabiltza, besteak beste, zenbaitentzat “erdal kutsuko” izan arren herriak normalean erabilitako hitzak: *prozesioak, bezino, ordenanza, kastigatu, Tribunalak, autoridadeak...*

Testu honek, hortaz, testu teknikoak itzultzerakoan estetika baino garrantzitsuagoa den maila erakusten digu: ulergarritasuna. Honen aitzakitan edozein gauza esaterik ez dagoela bezain argi dago lehentasuna eman behar zaiola ulergarritasunari testu teknikoak itzultzerakoan eta, batez ere, testu horiek irakurlearen adimenera hel daitezen nahi bada.

2.2. Erlatibozko esaldiei gagozkiela oso erlatibozko esaldi interresgarria azaltzen zaigu testu honetan:

“Las calles o sitios por los que hayan de pasar las procesiones,”

“Prozesioak pasa behar duten kaleak,”

Hemen azaltzen zaigu irtenbide bat baino gehiago izan dezakeen, eta idazleek ere irtenbide desberdinak emandago arazoa, hau da, nola eman euskaraz erdaraz *por las cuales* eta antzeko partikulez osatutako erlatibozko esaldiak.

Dakigula, hiru bide dauzkagu gutxienez euskaraz perpaus horiek esateko:

- a) *-en(eko)* — Pasa behar duteneko
- b) *-en* — Pasako diren
- d) *-zeinetatik... -bait dira* — Zeinetatik pasako bait dira (pasa beharko bait dute)

Lehenengo bidea, idazle klasikoek ere erabili bait zuten, denbora eta lekuzko erlatiboetan erabiltzen da⁽¹⁾. Eskuarlean dugun kasuan argi eta garbi dago prozesioak direla pasako direnak eta ez kaleak. Beraz, nahasbiderik sortzen ez denez aski dela dirudi *-en* erako erlatiboarekin. Besterik gertatuko litzateke “gizona doan kotxea” eta antzekoetan, haietan beharrezkoagoa dela bait dirudi *-eneko* erako erlatiboa erabiltzea.

Hirugarren bidea erabiliko bagenu erlatibozkoa esplikatibo huts bilakatuko litzazguke eta ez dirudi jatorrizko erlatiboaren funtzioa hori denik, zein kale diren zehaztea baizik. Beraz ordenanza hauek itzuli zituenak bete-betean asmatu zuela esango genuke.

2.3. Jatorrizko testuarekiko atxekitasunari buruz hau dugu, seguraski, jatorriko testuaren esanahia zintzoen jasotzen duen testua. Ez da harritzekoa, bestalde, aurrerago ere esan dugunez ordenanzak ulergarri izan behar izateaz gain, oso arriskutsua bait litzateke erdarazko testuak gauza bat eta euskarazkoak beste bat esatea edota euskarazko testuak erdarazkoak jasotako zenbait alderdi ez jasotzea.

Halere ikus dezakegu hutsen bat edo beste, hala nola:

“Se prohíbe todo trabajo corporal en público los domingos y días festivos reconocidos por las disposiciones que hoy rigen.”

“Debekatzen da igande eta jaiegun ezagun guztietan, agirian lanik egitea.”

Begibistakoa da euskarazko testuak ez duela erdarazkoa azpimarratutakoa jasotzen.

⁽¹⁾ Villasante Fr.L., *Sintaxis de la oración compuesta*, Ed. Fr. Aránzazu, Oñate, 1979, 99 or.

III.— Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa

DECRETO

El Gobierno Provisional de Euzkadi, cuya preocupación por las manifestaciones de índole cultural es bien notoria, no puede menos de conceder la debida atención a uno de los problemas más interesantes que pueden plantearse con respecto al régimen escolar: es el de la implantación de una Sección de educación física que venga a llenar la laguna, que a este respecto existe actualmente en el sistema educativo que le ha venido aplicando.

No hay, en efecto, hombre de ciencia que no haya cantado las excelencias de esta educación, ni país que no haya legislado sobre esta materia. Prácticamente, sin embargo, la labor estatal en cuanto a ella, no ha sido lo que hubiera sido de desear en el régimen escolar, tanto público como privado, del Estado Español.

Nos encontramos, pues, ante una labor a iniciar, ante un objetivo completamente nuevo para nosotros, y de cuya trascendencia no se puede dudar, habida cuenta, sobre todo, de las características especiales que adquiere en su aplicación a Euzkadi.

3.1. Terminologia

Testu honetan azaltzen zaigu argi eta garbi garbizalekeriaren joera. Ez dugu inondik inora mailegurik aurkituko:

Departamento de Justicia y
desarrollo
Decreto
Gobierno Provisional

OROAGINDUA

Euzkadi'ko Bitarteko Jaurlaritzak alako aretaz artzen ditu erriaren gogolantze arazoak, ezin ikastolari buruzkoa dan onoko au alde batera utzi dezake: soin-azikera. Utsune galanta nabari baitda landu bear oneri buruz.

Soin-azikera aipatu ez duen jakintza-gizonik ez da arkitzen. Ezta gai au legeen bidez landu ez duan erririk ere. España'ko Laterriak ez du ordea ezer aundirik egin izan erri-ikastoletan eta ikastola itxietan.

Ona lan bat asi bearrean. Ona elburu berri bat lortzeari ekin bearrean. Garrantzi aundikoa noski. Euzkadi'ri buruz ainbat areagoa berriz.

Zuzentza eta Gogo-Lantze
Zaingoa
Oroagindua
Bitarteko Jaurlaritza

Educación física
Estado

Soin-azikera
Laterri

Garbizalekeriari buruzko eztabaidatan sartu gabe, ez bait da hau lan honen asmoa, eztabaidagarri behintzat badirela esango dugu *gogo-lantze*, *soin-azikera* e.a. Honelako asmakeriek benetako terminologi arazoa sortzen bait dute. Esan nahi dut, euskarazko testua hartu, azaltzen diren hitzak hartu eta halako hiztegitxoak osatzen saiatuko bagina izugarri gertatuko litzatekeela, esate baterako, erdarazko *cultura* hitzaren euskarazko baliokidea zein letratan begiratu. Okerreko bidea esango ez badugu ere, bide arriskutsua dugu garbizalekeriarena bai teknika mailako testuak itzultzerakoan, eta baita hiztegiak egiterakoan ere.

3.2. Badirudi dekretu hau itzuli zuenari oso zail egiten zaiola erdarazko erlatibo korapilotsuei irtenbidea ematea. Aski da dekretu honen lehenengo zatian darabilen sintaxi aldrebesa ikustea. Zailtasun honen aurrean, erlatibozko esaldi hauek azaltzen direnean esaldia moztu egiten ditu (puntuaren, puntu eta komaren bidez):

“Nos encontramos, pues, ante una labor a iniciar, ante un objetivo completamente nuevo para nosotros, de cuya transcendencia no se puede dudar,”

“Ona lan bat asi bearrean. Ona elburu berri bat lortzeari ekin bearrean. Garrantzi aundikoa noski.”

3.3. Ezin esan jatorrizko testuari atxekitzen ez zaionik. Hala ere hainbat eta hainbat alderdi eta xehetasun itzuli gabe uzten ditu, jatorrizko testuaren funts eta mamia laburtu eta euskaraz ematen saiatzen delarik. Jatorrizkoaren mamia ongi laburtu arren ez dirudi lege mailako testuak itzultzerakoan bide hau zilegi denik, honelako testuak zehatz-mehatz itzuli behar bait dira, ezin ahantzi dezakegularik legeetan xehetasunak berak ere garrantzi handiko izan daitezkeela.

IV.- Euskal Funtzio Publikoaren Lege-Aurregitasmoa

“Sección Sexta: El Consejero de Hacienda y Finanzas

Artículo 11.

Corresponde al Consejero de Hacienda y Finanzas:

a) Proponer al Gobierno, en el marco de la política general económica y presupuestaria, las directrices a que deberán ajustarse los gastos de personal de la Administración de la Comunidad Autónoma.”

4.1. Terminologia

Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoaren testuarekin erkatuz gero ez darabil hark bezain hiztegi garbizalea. Bada, halere, honelakotzat jo daitekeenik:

Hacienda

Consejero

Finanzas

Herriogasun

Sailburu

Dirubideak

Hiru adibide hauek aukeratu ditugu eta ez halabeharrez, zeren gaur egungo hainbat itzultzailek hitz horien lekuan Hazienda, Kontseilari eta Finantzak hitzak jarriko bait lituzkete. Bizirik dirau, beraz, teori mailan ez bada ere bai praktika mailan bederen, terminologiari buruzko eztabaidak.

4.2. Honako erlatiboeko perpausa azaltzen zaigu:

“las directrices a que deberán ajustarse los gastos de personal de la Administración de la Comunidad Autónoma.”

“Autonomi Elkarteko Administrazioiko langilegoaren gastuak haiei atxikiko zaizkieneko arau orokorrak...”

Lehen ikusi dugunez *-eneko* partikula lekuzko zein denborazko perpausetan erabil daiteke. Eztabaidagarria da eskuartean dugun

kasua lekuzkotzat jo daitekeen. Dena dela ez dirudi euskaraz *joango natzaioneko* gizona esaten denik *joango natzaion gizona* baizik. Alferrikako dela esango genuke, beraz, *-eneko* partikula kasu hone-tan. Hona erlatibo hori emateko beste bi era:

“gastuak atxikiko zaizkien” (haiei eta *-eneko* gabe) *edota*

“arau orokorrak proposatzea, hauei atxikiko bait zaizkie gastuak”

4.3. Aztertu ditugun testuetatik jatorrizkoari zehazkien atxeki-tzen zaion testua dugu hau, zalantzari gabe. Kontutan izan behar dugu, lege-alorreko testua ez ezik, legea dela eta, beraz, bere baitan eskatzen duela aparteko zehaztasuna.

Ondorio gisa

Testu hauen azterketak itzulpengintzaren zenbait arazo konkretu azaldu dizkigu, gaur egun bizirik dirautenak eta gai teknikoak itzul-tzerakoan hainbat eta hainbat eztabaida eta buruhauste sortzen diz-kigutenak.

Terminologiari bagagozkio, euskal itzulpengintzaren ezaugarri-rik izatekotan terminologi anabasa dela esan genezake. Horixe isla-datzen dute Mitxelenaren hitz hauek ere: “No será fácil hallar, a través del ancho mundo, una tradición léxica más abigarrada que la nuestra, confusión casi inextricable de fantasía y realidad”.⁽²⁾

Gaur egungo itzulpengintzan mailegubidea, orohar, onartua bada ere, bada bide hau gehiegikeriaz darabilen itzultzailerik eta baita inondik inora horrelakorik onartzen ez duenik ere. Lehenen-goaren adibide UZEI-k egindako hiztegiak genituzke eta bigarrenaren, berriz, gaur egun autonomi administrazio mailan egiten den hainbat itzulpen garbizale. Sintaxiari gagozkiolarik, argi azaldu zaigu azterketan zenbait erlatibozko esaldi korapilotsuk arazo handiak sortzen dituztela, erdarazko “en los cuales”, “para cuyos”, eta antzerakoek, alegia.

⁽²⁾ Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue, 25. or.

Ikusi dugunez, honelakoak euskaraz emateko honako bide hauek erabil ditzakegu:

- a) Leku-denborazkoetan, *-eneko* erakoak.
- b) Erlatibozkoa esplikatiboa denean: *zein... -n, zein... bait*, edo *bait* soilik.

Bada, ordea, idatzi mailan gaur egun gutxi erabiltzen den arren klasikoek⁽³⁾ erabilitako eta ekialdeko euskalkietan mintza mailan ere erabiltzen den beste bide bat: *bait*-en aurretiko gisa erakuslea erabiltzea, alegia.

Hona adibide bat: "Aipatutako arazoak, hauetan ere eztabaida asko sortu izan bait da".

Azkenik, eta jatorrizko testuekiko atxekitasunari dagokionez, argi gelditu da teknika mailako testuek ez dutela literatur testuak itzultzerakoan izan dezakegun askatasunez aritzeko bide ematen, testu hauek zehatz-mehatz eman beharra bait dago. Beraz, estiloa ere ezin literatur testuen itzulpenetako bezain zaindua izan, euskaraz aditzak beti azkenean joan behar duela eta antzeko mitoak behin betiko alde batera utzi beharko lirakekeelarik.

Erabilitako Bibliografia

Eusko Legebiltzarra, *Agintaritza-aldizkarietatikako hitz-bilduma*, Gasteiz, 1985.

Euskaltzaindia, *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*, Bilbo, 1986.

Villasante Fr. Luis, *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Aranzazu ed. Oñati, 4. ed. 1986.

Villasante Fr. Luis, *Sintaxis de la oración compuesta*, Aránzazu ed., Oñati, 2.ed. 1979.

⁽³⁾ Larrarte Garmendia J.M. El prefijo *bait*- en "Onsa Hilceco bidia" de J. Tartas, 74-75.

SINTESESIS

Linguística y Traducción: Algunos problemas de terminología y sintaxis

En este trabajo se analizan varios textos de la historia de la traducción vasca, a fin de estudiar el léxico, ciertas oraciones de relativo y la fidelidad con respecto al texto original. Al mismo tiempo veremos las diferentes soluciones dadas a estos problemas a lo largo de la historia.

Haciendo un pequeño repaso, diremos que en el campo de la terminología destaca el diccionario de Silvain Pouvreau (s. XII), por sus criterios modernos; más tarde sin embargo, el "Diccionario Trilingüe" de Manuel de Larramendi supondrá un paso atrás, por sus neologismos y términos inventados. Sus críticos no mejoraron mucho las cosas. Hoy todavía puede decirse que los neologismos constituyen un tema tabú, pues, por reacción, ha habido quien ha pasado al otro extremo, con un claro abuso de los calcos.

En lo que respecta a los relativos, constituye un problema el llamado "románico", denostado por muchos por no ser auténticamente vasco. Es innegable, sin embargo, que para escritores y traductores es además de necesario, muy cómodo.

Del análisis de los textos (traducción de Bicenta Mogel de una carta a Luis de Borbón, 1803, Ordenazas de Usurbil, 1888, un texto de técnico de la época de la guerra civil, y una ley actual), se desprende que todavía hoy existe confusión en el campo de la terminología. Lo decía Koldo Mitxelena: "No será fácil hallar, a través del ancho mundo, una tradición léxica más abigarrada que la nuestra, confusión casi inextricable de fantasía y realidad". Así, vemos que subsisten todavía las dos tendencias extremas; la de los puristas que no admiten préstamos y los que prácticamente no usan otra cosa. También en la sintaxis, los relativos antes mencionados siguen siendo fuente de problemas. Por último, en lo que respecta a la fidelidad al original, está claro que los textos técnicos obligan a que la traducción sea más fiel al texto original, lo que obliga a abandonar algunos mitos de la escritura "castiza" vasca.

SYNTHESIS

Translation: Some of the problems of terminology and syntax

In this report various texts on the history of Basque translation are analyzed, in order to study the lexis, certain relative clauses and the accuracy in respect to the original text. At the same time we will see the different answers given to these problems throughout history.

Looking back, we can say that in the field of terminology the dictionary by Silvain Poveau (c.1 17), for its modern approach, however the 'Trilingual Dinctionary' by Manuel de Larramendi, meant a step back, because of its neologisms and invented terms. The critics did not do any better. Still today neologisms are taboo, in answer, there have been people who have gone to the other extreme, with a clear abuse of borrowing.

With respect to relative clauses, a problem arises, the so called 'Romance', condemned by many as not authentic basque. It is undeniably and undoubtely very cconvenient for writers an translator, as well as being necessary.

For the breakdown of the text (a letter to Luis de Borbon, 1803, translation by Bicenta Mogel, The decrete of Usurbil, 1888, a technical text from the time of the civil war, and a current law), the implication is that even to this day confusion exists in the field of terminology. As said by Kolko Mitxelena 'It won't be easy to find, across this wide world, a lexical tradition more disjointed than ours, confusion intricately mixed with fantasy and reality'. In this way we can see that both extreme tendencies exist: the purist which does not accept copies and those who hardly use anything else. Also in syntax, the relative clauses carry on causing problems. lastly with respects to originality, it is clear that the translation of technical texts is compelled to be as accurate as possible, which forces us to abandon some of the myths of pure written Basque.

AGENCIA EFE, **Manual de español urgente**, 5. argitalpena, Cátedra, Madril 1989.

Koldo Biguri

Efe Agentziaren Manual de Español Urgente hau (MEU aurreantzean), atariko orrian dioenez, gazteleradun komunitatean argitaratu dirennetatik aintzinakoena da, bai eta zabalduena ere. Haren bidez halako konponbide bat eman nahi zaie kazetaritzaren hizkuntzak —eta ez bakarrik kazetaritzarenak, gehitu beharko genuke guk, zeren eta alor horretatik haruntzago ere aise iristen bait da— dituen arazo larriei, Espainiako Hizkuntz Akademiaren Hiztegia berriz noiz argitaratuko zain egoterik ez bait dute. Hitzaurrean gehiago zehazten da betekizun hori, esanez gerta daitezkeen hizkuntz-okeerrei aurrea hartu, zalantzak argitzeko laguntza eman, eta gaur egun hizkuntzaren alorrean dagoen iraunezkortasun handia dela bide hitz berrien erabilerari buruzko irizpide bateratuak eskeintzen saiatzea dituela helburu.

Eskuliburu hau 1976an plazaratu zen lehen aldiz, eta dagoeneko bosgarren argitalpena iritsi da, datu nahikoa argigarria haren balioaz eta arrakastaz. Gaur gaurko gaztelaniaren beharrak erabakitzen eta hizkuntza modernoaren auzien korapiloa askatzen gehiengotan geldo samar ibiltzen den Hizkuntzaren Akademiari aurrea hartu eta halako edo bestelako bide bat seinalatu izanak eman eta ematen

diote balioa MEU-ari; lantegi horretan baditu filologo talde bat, eta batzorde aholkulari bat, Efe Agentziak eskeintzen dituen albisteen hizkera findu eta orrazte lanetan, batez ere gaztelaniaren esakera jatorren tokian erabiltzen diren alferreko hitz arrotzak baztertu eta gaztelaniaren beraren erabilera okerrak zuzentzearen. Antolakera horren seriotasunaren frogagarri, aski da aipatzea batzorde aholkularia osatzen dutenen artean Manuel Alvar, Real Academia Española-lako zuzendaria, eta Fernando Lázaro Carreter eta Valentín García Yebra, akademiakideak biak, daudela.

Esan bezala, MEU-aren eginkizuna, edo baliagarritasuna, kazetaritzaren munduko hizkuntzatik haruntzago iristen da, eta gaztelaniaren beste hainbat alorretara zabaltzen; izan ere, liburuaren helburua aurkezteko orrietan adierazten denez, “gaur egun askoz eragin handiagoa dute hizkuntzaren baitan prentsak, irratiak eta telebistak, hezkuntz sistemak berak baino”. Horrela, ematen diren adibideetatik eta zuzentzen diren erabilera okerretatik hainbat eta hainbat ia hizketa molde arruntetara ere pasa direla baieztatu daiteke.

Halako oinarriak eta abiaburuak izanik, liburua zazpi zati nagusitan banatuta dago:

- Idazketa: ortografia, morfologia, lexikoa eta gramatika, azken hau preposizioen bidezko esamoldeen zerrenda batez osatua.
- Alfabeto arrotzen transkribapena.
- Leku-izenei buruzko oharrak: gaztelaniaz tradizioa dutenei eusteko beharra azaltzen da batez ere (“*Pekín*” erabiltzeko, eta ez “*Beijing*”, esaterako); eta bestelakoak grafiaren aldetik nola gazteleratu (“*Azerbaiyán*”, eta ez “*Azerbaidzhan*”).
- Okerbide gerta daitezkeen jentilizioak: dexente zabaldu da pasarte hau —ia hamahiru orri gehiago; lehenago bakarra zeukan—; euskaldunoi dagokigunik ere bada, ezen nork daki Miarritzeko biztanleei nola deritzaiei gazteleraz?— Gobernu eta nazioburuen zerrenda: aldakorra izanik berez, hau ere aldatu da bosgarren argitarapen honetan.

- Sigla eta laburdurak: asko zabaldu da, zazpi orritik hogeitalaura hain zuzen.
- Lexikoa: liburuaren pasarterik luzeena izanik, edizio honetan askotxo handiagotu da hau ere: 60 orritik 82ra, 267 sarrera berri dituelarik —1.700dik gora ditu guztira—. Gauza ohargarria da sarrera berri horietatik laurdena baino gehiago ingeles hitz mailegatuen ordeztzatzen diren esamoldeei dagokiela; lehengo argitalpenetik oraingora igaro diren sarreretatik ere beste horrelako hainbat daude. Argi dago, beraz, nondik datozkion gaztelerari ajeak. Bestalde, lehenagoko edizioko sarrera batzuetan okerrekoztat jotzen ziren zenbait esamolde onartu egin ditu Akademiak bere hiztegiaren azken argitalpenean, eta MEU-an hala jaso da.

Hemengo erreseina honen helburua ez da, ordea, berrargitarapen honen albistea emate hutsa, baizik eta eskuliburu honek guri, euskal itzultzaileoi, eta euskaraz idazten dugunoi ere esan beharko, ematen dizkigun ikaskizunak agerian jarri eta goraiatzea. Ezen elebidunak garen aldetik, eta erdaraz baliatzen ohituak, gureak ere bait dira neurri oso handian liburu honetan salatzen diren okerrak, eta ez bakarrik gaztelaniaz ari garenean, baita erdal testuak euskaratzen ditugunean eta, orobat, euskaraz idazten dugunean ere.

Neure esperientziak eta eskarmentuak erakutsi didatenez, eta niri bezala beste hainbati ere bai, administrazioan aritzen garen itzultzaileoi oso testu kaskarrak eta era guztietako okerrez beteak iristen zaizkigu haiek euskaratzeko aginduaz. Eta ez bakarrik administrazioan aritzen garenoi, ez bada. Horregatik, on da tankera honetako liburuaren laguntza gure esku edukitzea, kaskartasun eta oker guzti horien arriskuetatik begira gaitezen, euskarara ere aldatu eta susturriak aterako ez badituzte. Eta hainbatek atereak ditu jadanik, tamalez, segituan ikusiko dugunez.

Adibideetara igaro aurretik, interesgarria izango da gogoratzea gure artean ere honelako lanik agertu izan dela; Pello Salaburuk eta Xabier Kintanak 1984. urtean argitaratu zuten *Euskara hobean hobe* liburuaz ari naiz, jakina. Izan ere, liburu honen sorrera ere

antzekoa da, parte batean behintzat, haren lehenengo zatia, Salabururen ardurapekoa hain zuzen, Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio-Zientzien Fakultateko euskaldun ikasleen idaztankera lantzeko apunteek osatzen bait zuten; bestetik, gainera, Kintanak tajaturiko pasartean gaur egungo euskaran dauden trakeskerien artean erdarakadei zor zaizkienak ugari dira. Tamalez, liburu hark bost urteotan ez du argitalpen gehiagorik izan, eta bere balioa ia lekukotasunaren mailan geratu da horrenbestez.

Dena dela, ez liburuška hartan, ez geroxeago Gotzon Garatek plazaratu zuen **Erderakadak** luzeagoan, ez da ezer aipatzen erdaraz ere gaizki eratuak diren erdarakadei buruz, eta horiexek nabarmendu nahi ditut nik oraingoan. Egiazki, ezin esan daiteke euskaldunon artean irizpide-batasunik dagoenik erdarakaden auzian ere; alferrik ez bait da euskal esamolde jatorra “herrik bere lege, etxek bere haztura”; baina zerbaitez bat etorri behar badugu, erdaraz ere erabili behar ez direnak tintontzian uzteaz etorri beharko gutxienez. Hona hemen horietako batzu.

a.- Ortografia eta morfologiaz

- **Datak**: astegunen eta hilen izenak, eta bai urte-sasoiak ere, letra xehez idatzi behar dira, eta urteak punturik gabe; beraz, ezin da idatzi “26 de Noviembre de 1.989”, baizik eta “26 de noviembre de 1989”. Ez da alferreko gauza izango Kintanak berean ez duela lege hau betetzen aipatzea, hil izenak letra xehez emateari dagokionez behintzat.
- **Hamarkadak**: hamarkadei deitzeko ez da zuzena “*los treinta*” edo “*los noventa*” esatea, ingelesaren moduari jarraituz; hortaz, “*90ak urrian hasten dira*”, arestiko hauteskundeen lelo gisa dexente aldiz entzun eta ikusi genuen hura ere linboan utzi beharko. Era berean, MEU-ak ez du ontzat ematen esandako haren ordeaz erabiltzen den “*los años treinta*” ere, guretzat oso ohizkoa izan arren, eta bai, ordea, “*el tercer decenio del siglo XX*”, edo berriagoa den “*la tercera década...*”. Akademikoez erabakiko dute horren zuzentasunaz.

Euskaraz ere buruhauste usua izaten da hori, denetarik ikusten bait da, eta ez dena urre-legezkoa —ez behintzat “*hirurogeigarren hamarkada*”, erruz entzuten bada ere—.

- **Maiuskulak:** edo letra larriak, noski. Gehiegi erabiltzen dira, eta gero eta gehiago, letra larriz jartzen den izenari ohore edo egin nahian; nere eritziz, MEU-ak ez du behar bezain luze jorratzen puntu hau, eta horretarako, J. Mtz. de Sousa-ren **Dudas y errores de lenguaje** (Parainfo argitaletxea) gomendatzen dut, maiuskula/minuskula gora beheraren inguruko zalantzen zerrenda oso samarra bait dauka.

b.- Gramatikaz

- **Aditz perifrasiak:** gero eta gehiago ikusten dira aditz partizipio soilen ordeztuak “aditza + osagarria” moduko itzuliak; MEU-ak dionez, zentzurik ez du “*dar comienzo*” edo “*darse por terminado*” nahiago izateak, “*comenzar*” eta “*terminar*” baino. Euskaraz ere ugaltzen ari dira honelakoak, jadanik hil ez baina “*hilda suertatzen*” direnak lekuko.
- **Esaldi pasiboak:** gaztelaniaz perpaus pasiboak guztiz jatorrak izanik ere, ingelesaren eraginez neurrikeri gabe ari dira ugaltzen, beharrezkoak ez direnean, hau da, era aktiboko perpausa erabiltzerik badagoenean; horrela, “*Un crédito ha sido votado por el Congreso para los damnificados...*” esan ordeztu, gaztelania ez bait da, “*El Congreso ha votado un crédito...*” ipin zitekeen besterik gabe. Euskaraz are kontu handiagoz ibili beharko genuke honelakoak itzultzean, jakin-neko arrazoiengatik behar ere.
- **Gerundioa:** sarri askotan erabiltzen da gaizki erdaraz, batez ere gerundioz agertzen den menpeko esaldiak esaldi nagusiko ekintzaren ondorengo zerbitu azaltzen duenean —“gerundio de posterioridad” esaten zaio—: “*El agresor huyó, siendo detenido a las pocas horas*” oker egina dago, eta “*El agresor huyó, y/aunque fue detenido...*” esan behar zen haren

ordez. Beste horrenbeste gertatzen da “gerundio del BOE” deitzen denarekin: “*Se publica un decreto regulando la exportación de vinos*”, “*que regula...*” esan ordez. Euskaraz ere maiz ikusiko ditugu honelakoak: “*Lehen pausoa ikastole-tako esperientzia elebidun ezberdinak jasotzea izan zen, horretarako inkesta bat prestatuz*”. Baita BOEko gerundioaren euskal kimuak ere: “*Foru-Erabakia, 1989.eko otsailaren 14ekoa, Erakunde Harreman eta Toki Administrazioeko Zuzendaritzarena, Autonomia Elkarteko udalerrien izen ofizialak argitara emanéz*” - Alegiazko geroa: ez da erabili behar gaztelaniaz “condicional del rumor” deitzen dena, hau da, zalantzazkoa den edo ustez gertakizun dagoen zerbait adierazteko erabiltzen den baldintzazko aditz forma; esate baterako: “*El gobierno estaría dispuesto a entablar negociaciones con los sindicatos*”, edo “*Según fuentes del Pentágono, un grave accidente nuclear habría tenido lugar en...*”. Frantsesetik datorren erabilera hau behin eta berriz azaltzen da albisteetan, eta euskaraz ere agertzen hasia dago: “*Gobernua prest legoke sindikatuekin negoziaketan hasteko*”. Erdaraz bezala euskaraz ere hori bera adieraziko dugu “*Parece ser que el gobierno está dispuesto a...*”, edo “*prest omen dago*” esamoldeekin, konparazio baterako.

d.- Lexikoaz

MEU-ak arreta berezia ematen die gaztelania modernoan, esan edo idatzitakoari halako goimaila eman ustez, erabiltzen diren sasi-teknizismoei, eta ez du lotsarik horiek “pedantesco” edo “abominable” bezalako deituraz bataiatzeko. Itzultzaileak garen aldetik, hau da inork egin duen testu bat beste hizkuntza baten hitzunengana helarazteko beharrezko diren bitartekari hutsak, iristen zaizkigun hitz-esaldiak zuzentzeko uzkur ibiltzen gara, haiekin batera ideiak ere aldatuko ditugulakoan; eta hori pekatu da. Alabaina, ez zaizkigu gaizki etorriko erabilera horiei buruz EFE Agentziaren eskuliburuak azaltzen dituen iritziak eta jarrai-bideak ezagutzea.

Ziur nago gutako askori aspaldidanik ez zaigula egokitu halako arautegi, egitasmu, txosten edo dena delakorik filosofia batean oinarrituta ez dagoenik, edota ondorioetara iristearren nola edo halako parametroak eta premisak kontutuan hartzen ez dituenik.

MEU-ak dioenez, badirudi jadanik ahuleriak jota daudela irizpideak, ikuspegiak, funtsak, eta abar ezertxoren oinarri izateko; eta, beste horrenbeste, alferrik ditugu arrazoiak, zertzeladak, gertakizunak edo gorabeherak *“La opinión pública cambia con arreglo a parámetros imprevisibles”* euskaratu behar dugunean. Txakur txiki batek adina balioko digute uste, iritzi, baldintza edo planteiamenduek halako *“La valoración de lo producido bajo estas premisas no es tarea fácil”* bat aurpegiatzen digutenean.

Dotore usteko hizkuntzarekin jarraituz, begien bistan dago gure gizarte dohatsu honek aspalditik ez duela problemarik, baina ez gaitezen alaitu, problematikak barra-barra dituelako: gazteriaren problematika, emakumeena, edo *“hirugarren adineko”* ena, puripurian daudenak aipatzearren. Eta okerrago dena, arazo guzti horiek konpontzeko moduak, bideak eta abar aski ez izan, eta metodologiak baino ez zaizkigu geratzen, gu dohakabeoi. Ez erdaraz, ez euskaraz ere.

Nolanahi ere, gaztelerari esker esandako horiek guztiak gero eta gutxiagotan ari dira gertatzen Euskal Herrian, edo Gipuzkoan, edo estatuan: denak Euskal Herri mailan, Gipuzkoa mailan eta estatu mailan gertatzen dira eta. Gainera, denak ez dira munta handiko gorabeherak, eta bakanka azaltzen dira, edo jende gutxiri dagozkio; bada, horiekin ez dezagun irtenbide, neurri edo ezer berezirik erabil, inondik ere ez, neurri espezifikokoak behar ditugu eta. Horiek horrela —testuinguru honetan, barkatu—, Jaungoiko errukitsuak lagun gaitzala gure lege-antolakuntzaren markuan —hau da, gure legedian edo gure legeen artean— horrelako kinka larrietarako konponbideak aurrikusten duen dekreturik ez badugu eskura-konponbideak erabaki, ezarri, aipatu edo esatea ez zaio nahikoa dekretuari-. Horrelakorik gabe, agintariak nekez implementatuko ditu behar direnak; nekezago betearaziko ditu, edo abian jarriko, edo...

Horrelako bidegabekerien aurrean, hobe du itzultzaile ohar-gabeak —euskalduna izan zein beste edonongoa— alferreko hiztegien ondoan **Manual de español urgente** hau eduki, larrialdietarako hain zuzen ere. Zerrenda luzea osa genezake: *dimensionar, economicidad, emblemático, especulación, dimensionar, nucleizar, retroalimentar, redimensionar, vehicular, versus...*

Bukatzeko, badira beste oker batzuk euskarara ere igaro direnak, baina ez dagozkionak hizkera “pedante” horri, izatez ez behintzat. Horrela, gutxik dakite políglota edo autodidacta emakumezkoak baino ezin direla izan, eta, ohitura ez izan arren, “*polígloto*” eta “*autodidacto*” esan behar dela, are gehiago halako en eraginez horren alderantzizkoak, “*amigos/as*” esaterako, barra-barra ugaltzen ari direlarik. Probetxugarria izango zaigu jakitea, halaber, “*encuentro*” hitza (gure “*topaketa*” ospetsua) ez dela zuzena gaztelaniaz, oraingoz behintzat; edo “*al objeto de*”, gaizki egoteaz gainera - “con el objeto de” esan behar bait da-, “*para*” batekin konpon daitekeela lasai-lasai, eta guk ere ez dugula “*-tzeko xedez*” itsusi horren beharrik, batzuk nonahi sartzeko zazpi ahaleginak egin arren.

Bada, erdi barrez erdi serio, hona hemen esandako eskuliburutik ateratako ohar bakan batzuk, haietaz baliatu nahi direnentzat. Ase geratu ez denak badaki nora jo.

SINTESIS

AGENCIA EFE, *Manual de español urgente*, 5. edición, Cátedra, Madrid 1989.

Este Manual, uno de los más antiguos y más extendidos en la comunidad hispanohablante, quiere poner los medios para llegar a la solución de los urgentes problemas que tiene hoy el lenguaje del periodismo. En efecto, es tal la situación que no se puede esperar a que la Real Academia de la Lengua publique de nuevo su Diccionario. El libro señala errores lingüísticos, trata de aclarar dudas, de dar criterios unificados para resolver la inestabilidad creada por el aluvión de nuevos términos. En él han trabajado un grupo de filólogos de gran talla, así como un consejo asesor. Y hay que señalar desde el principio que todo esto va más allá del periodismo: “Hoy en día influyen mucho más en la lengua la prensa, la radio y la televisión que el propio sistema educativo”.

El libro está dividido en 7 partes:

- escritura (redacción): ortografía, morfología, léxico, gramática.
- transcripción de alfabetos extranjeros.
- notas sobre los nombres de lugar.
- gentilicios que puedan dan lugar a equívocos.
- siglas y abreviaturas.
- Léxico. Este el capítulo más largo, con más de 1700 entradas; la mayor parte de ellas son propuestas para sustituir neologismos ingleses, lo cual es muy significativo.

El objetivo de este comentario no es sólo dar cuenta de este libro, sino al mismo tiempo darlo a conocer a los traductores euskaldunes y escritores en general. Porque, siendo como somos bilingües y acostumbrados a utilizar el castellano, también son nuestros muchos de los errores que aquí se tratan, y no sólo en castellano, sino, lo que es más grave, cuando traducimos, y, en general, escribimos en euskara.

En efecto, muchos de los textos que nos llegan para traducir, son textos repletos de errores; por ello le puede ser de gran ayuda al traductor este libro, no sea que además traslade esos errores al euskara.

Por otro lado, hay que subrayar especialmente un problema que rebasa las anteriores clasificaciones, y nos referimos al estilo lamentable, pedante, cada vez más en boga y cada vez más incomprensible, que a todos nos amenaza; así, "la opinión pública cambia con arreglo a parámetros imprevisibles..." y añadiremos que no sólo a nivel de Estado, también a nivel de Comunidad o a nivel Comarcal...

SYNTHESIS

AGENCIA EFE, Urgent Spanish Manual, 5th. edition, Cátedra, Madrid 1989.

This manual, one of the oldest and best known within the Spanish speaking community, tries to take the necessary measures to solve the urgent problems of today's journalistic style. Indeed the situation is such we can not wait for the 'Real Academia de la Lengua' to publish its new Dictionary. The book points out linguistic errors, throws light upon doubts, and gives tries to give unified criteria to solve the problem of instability created by a flood of new terms. A group of philologists of great standing have worked on this edition, as well as an advisory commission.

It should be said from the start that all this goes much further than journalism. 'Nowadays, the media has greater influence upon the language than the education system itself'.

The book is split up into seven parts:

- Writing: Orthography, morphology, lexic and grammar.*
- Transcription of foreign alphabets.*
- Notes on place names.*
- Regional names which may cause confusion.*
- Initials and abbreviations.*
- Lexic. This is the longest chapter with more than 1,700 entries. Most of them are suggestions on the substitution of English neologisms, which is very significant.*

Our aim is not just to comment on this book but also make it known to Basque translators and writers in general. because being, as we are bilingual and used to using Spanish, many of the mistakes mentioned here are ours too, and not only in Spanish, but even worse, when we translate and write in Basque.

Indeed, many of the texts which come to us to be translated are full of errors, therefore this book can be of great use to the translator in avoiding that these errors be passed on into Basque.

Special emphasis should be made on a problem which cannot be classified along with the aforementioned ones. We refer to the pitiful, affected style which is becoming more and more 'in vogue' as well as more and more incomprehensible, and by which we are all threatened: eg —'Public opinion changes in accordance with unforeseen parameters'— we might add that this is happening not only as far as the State is concerned but also in the Autonomous Communities and Regions.

Jatortasun egokitu beharrekoak

Txiliku

Ia zazpi urte badira Euskal Telebista sortu zela eta harez geroko honetan hor gabiltza hainbat itzultzaile eta egokitzaile mundu zabaliko edozein bazterretan egiten diren filme, marrazki bizidun, tele-sail, etabarrak euskarara bikoizteko egokitzen.

Euskal idazleak —gure kasuan itzultzaileak— beti izan ditu burutik behera mokoka gaizki esaleak, eta orain ere ezin falta. Lehen, ez hain aspaldi ere, idazlearen etsaietako bat garbizaleak ziren. Baina zorionez, isilduz joan dira hauek, edo inork kasurik egiten ez zielako etsita edo, gehienak seguraski, burututzat eman dutelako beren eginkizuna. Guztiz positiboa eta eskertzekoa, ezagutu beharra dago, ze gauza jakina bait da oker datorren zuhaixka zuzen haz dadin nahi bada bestaldera okertu behar dela aurrena, eta horrela lortzen dela zuzentasuna, erdiko bidea.

Orain beste “etsai” batzuk dauzkagu geure lanaren kalitatea neurtzen. Jatorzaleak deituko nieke nik. Guztiz beharrezkoak hauek ere, horretan ez dago zalantzaren izpirik, itzulpenetan lardaxkeria gehiegi egiten bait dugu, gehiegitan itzultzen dira hitzez hitz sorburu-hizkuntzako esamoldeak, euskarak horietarako dituen baliokide jatorrak erabat baztertuz.

Baina, eta baliokide hori ez dagoenean? Hor dago kokka. Orduan berria asmatu edo kalkatu egin behar. Eta hauxe da hain zuzen sarritan gertatzen zaiguna: sorburu-hizkuntzako zenbait egoera, zenbait esakera zeharo arrotzak direla guretzat, eta ez daukagula esamolde egokirik ideia hori adierazteko. Horrelakoetan kalkoak egin behar izaten dira maiz. Perifrasia da itzultzaileak daukan beste bide bat, baina gure kasuan ez du balio, sinkronia dela-ta itzulpenak ez bait du jatorrizkoa baino luzeago izan behar.

Kalkoak, jakina, ez dira "jatorrak" baina inoiz ezinbesteko irtenbide gertatzen dira. Adibidez:

- *Suerte!*
- *Bonne chance!*
- *Luck!* edo: *Good luck!*

Horra bina silabako hiru esakera zori ona opa diogula adierazteko. Geure hizkuntzan ez genuen aurkitu hau euskaratzeko esamolde labur eta egokirik eta *zorte on!* esatea erabaki genuen, nahiz eta jakin ez dela "jatorra", ez duela inongo tradizioz. Eragozpen hau euskararen ezezik, gehiago edo gutxiago, hizkuntza guztietan gertatuko da. Hara, esate baterako, iaz Britainian gertatu zitzaigun pasadizo bat: hango herritarra batean bretoierraz mintzo ziren zahar batzuei hauxe galdetu genien: ea nola esaten zuten *bonjour* (egunon), eta inork jakin ez! Azkenean erabaki zuten horrelakorik ez zela esaten bretoierraz. Halere argi dago bretoierrara itzuli nahi duenak aurkitu beharko duela formaren bat, jatorra ez den formaren bat, egunon hori itzultzeko.

Maiz agertzen den beste esaldi bat hau dugu:

- *Te echo en falta / de menos*
- *Tu me manques*
- *I miss you...*

Baina nola euskaratu esaldia gehiegi luzatu gabe? Faltan botatzen zaitut... Hori ez! Ezin dut etsi zu gabe? Beti zauzkat gogoan? Zure falta daukat? Hauxe agian. Gotzon Garateren **Erderakadak** liburuak honako hauek dakartza:

- *aren falta aundia billatzen da etxean*
- *an amaren palta ederra nabaritzen da*
- *amaren mentsa nabaritu zun*
- *amaren faltia etzian sometan da*
- *amaren falta sumau uen*
- *amaren falta ezautzen du aurrak*
- *amaren faltia sometan daue umiek*
- *aren eskasa ez da ageri... etab.*

Denak ere luzetxoak; bikoizketarako ez digute balio.

Guretzat sobera ezaguna den arazo honetan luzatu banaiz, zera-gatik izan da: gainean dauzkagun jatorzale horiek ez diezazkiguten sistematikoki gaitzetsi esakera berri guztiak. Nik dakizkidan batzuk, oso oker ez banago, Gotzon Garateren **Erderakadak** liburua oinarritzat hartuz —ia ebanjeliotzat esango nuke— euskal literaturan edo Euskal Herriko baserrietan erabiliak ez direlako, esamolde asko eta asko arbuiatzen dizkigute. Ez noa ni hemen liburu horri bere meritua ukatzera; badauka eta handia gainera, eta kasu askotan gertatzen zaigu lagungarri, baina beste askotan, ez! Eta hemen beste puntu bat azpimarratu nahi dut: kontuan hartu behar dela, egileak hitzaurrean dioen bezala, liburu horretan datozen esakera gehienak zazpi euskal probintzietako baserrietan jasoak direla, **hizkuntza maila jakin batekoak**, beraz. Hala, esate baterako, *temperatura* hitzari buruz honela dio: “ia ez diezu zazpi probintzietako baserri-tarrei hitz hau entzungo”. Jakina, eta ziur nago Burgosko artzainek eta nekazariak ere ez dutela esango: *hoy tenemos una temperatura alta / baja*; haiek ere, *hoy hace calor / frío* esango dute. Eta itzultzaile despistatuena ere badauki, *hace calor/frío = bero/hotz dago* euskaratu behar dela; sorburu hizkuntzan *temperatura* dioenean, ordea, euskaraz ere *temperatura* esan behar da. Hizkuntzan maila ezberdinak daudela, alegia, eta guretzat, asfaltoko euskaldunontzat, itzultzaileontzat batez ere, baserriar mailako euskara ez dela beti baliagarri. Koldo Mitxelena honako hau esan zuen behin (hitzak gutxi gora-behera): “Xenpelarrek oso ondo zekien euskaraz, nik baino askoz hobeto, baina haren euskarak niri ez dit balio”.

Beste adibide bat, amaitzeko. Euskal Irrati-Telebistako euskara arduradunek atera berri duten liburuxka batean, (**Euskara-Erabileraz**...ren ondorioz)

“*Istripuaren ondorioz / gaisotasunaren ondorioz...*” etab., itzulpenak dira.

Euskaldunagoak dira, adib.

- *Istripua dela eta / istripua dela bide / kausa / medio*
- *Gaisotasuna dela eta / gaisotasuna del bide...*

Euskaldunagoak ez, beste maila batekoak dira.

Murió a consecuencia del accidente, euskaraz esateko modurik egokiena, nire ustez, *istripuaren ondorioz hil zela* esatea da. Ez deritzet batere egoki beste hauei:

- *Istripua zela eta hil zen*
- *Istripua zela medio hil zen*
- *Istripua zela bide hil zen*
- *Istripua zela kausa hil zen.*

Eta istripuan bertan hilbazen, ba hori: *istripuan hil zela*, eta sobran dago gainerako guztia.

Beste honetan bai: *Pilota-partidua zela medio jendetza handia bildu zen Donostian*. Edo: *hauteskundeak direla eta badabil istilua ugari kaleetan*.

Laburtuz: esamoldé guztiok daukate beren tokia. Aukeratzen jakin behar. Eta hauxe egiaztatzeko Camilo José Celaren **La familia de Pascual Duarte** irakurtzen jardun dut. Erdia edo irakurriko nuen eta aurkitu dudanez, Almendralejoko nekazari hark ere kausa-ondorio erlazioa adierazteko ez du behin bakarrik ere erabiltzen *consecuencia* hitza.

Zenbait belarri minbera zauritzen baditugu ere, guk ezin ditugu mintzarazi New York-eko polizia edo Sherlock Holmes detektibea Altzagako baserritarrek hitzegiten duten bezala.

SINTESIS

Algunos casticismos que hay que ajustar

Los traductores de ETB —y ajustadores—, además de los problemas propios de la profesión, tenemos que luchar a veces contra otro enemigo: las críticas de los casticistas a ultzanza, que nos echan en cara, a menudo con razón, la baja calidad de nuestras traducciones, que recurren a calcos muchas veces sin necesidad, dejando a un lado las expresiones equivalentes naturales en euskara.

El problema se plantea sin embargo cuando esos equivalentes no existen. En esos casos no hay más remedio que recurrir a calcos. Hay otra posibilidad de traducción, la perfrasis, pero a nosotros, que estamos obligados a utilizar una longitud de texto muy determinada, cuando se trata de películas, la perfrasis no nos vale. Es decir, que el calco es inevitable. A esto se le suma otro problema, el de los niveles de lenguaje. Si recurrimos como vía de solución, como hacen muchos, al libro *Erderismos* de Gotzon Garate, vemos que las expresiones “auténticas” que en él se recogen proceden, prácticamente todas, de los caseríos de todo el País Vasco. Pero a nosotros, los euskaldunes de asfalto, y sobre todo a los traductores, ese nivel de euskara no nos vale.

Aunque a algunos no les guste, nosotros no podemos hacer hablar a los policías de Harlem o a Sherlock Holmes como a los caseros de Altzaga.

SYNTHESIS

Some Purities that need to be settled

Apart from the problems typical of our profession, we, translators of Basque T.V. (ETB), sometimes have to deal with another enemy: The criticism coming from the purists. These people —sometimes rightly so, accuse us of resorting to copying rather than using equivalent expressions which are natural in Basque.

Nevertheless, problems arise when those equivalent expressions do not exist. In such cases, all we can do is copy. There is another possibility, that of periphrasis, but when it comes to translating films, we find that we are limited by the length of the text and such a possibility is of no use to us. We must copy, there is no other way. There is an additional difficulty, namely the “level” of the language. If, as a way out, we resort to Gotzon Garate’s book “Erderismos”, we find that nearly all the “pure” expressions appearing in it come from farmhouses from all over the Basque country. That level of Basque, however, is not good to us — the asphalt Basques, not to mention to us, the translators.

Although some may disapprove, we cannot make the “cops” from Harlem, or Sherlock Holmes, talk like the farmers from Altzaga.



Aparteko zailtasunak

Andoni Sarriegi

Administrazio-arloan agertzen zaizkigun espainierazko testuak orohar oso gozoak izaten ez badira ere, tarteka-marteka bitxi bereziak azaldu ohi dira eta normalean ni behintzat, horietako bat euskaratu ondoren, ia inoiz ere ez naiz oso gustora gelditzen lortutako itzulpenarekin.

SENEZ aldizkariak orain arte Administrazio-arloko itzultzaileon berri handirik ematen ez duenez (geuk bidaltzen ez dugulako noski), garaia dela uste dut arlo honetako zailtasunak nolabait ere plazaratzen hasteko. Horregatik bada gaurko hau.

Lehenik espainierazko testua ipiniko dut eta horren ondoren, nik une jakin batean, presa eta baldintza jakin batzuetan egin behar izan nuen itzulpena. Egia esan, ez nintzen neure buruarekin oso gustora gelditu, baina ez dakit espainierazkoarekin ere gustora gera ote daitekeen... Herritarren ulermen-ahalmena kontutan hartuta ez behintzat.

Dena dela, hona bada bi testuak eta atsegin handiz ikusiko nuke norbaitek edo norbaitzuek honen azterketa zehatza eta proposamenen batzuk egitea. Ireki dezagun beraz geure lanen azterketarako eta eztabaidarako leihoa.

Jatorrizko testua:

“...se acuerda:

Primero.— Interponer recurso contencioso-administrativo contra el acuerdo adoptado por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Guipúzcoa en sesión celebrada el día 7 de diciembre de 1988 resolutorio del recurso de reposición interpuesto por este Ayuntamiento mediante escrito de 6 de mayo de 1986, contra el acuerdo adoptado por el expresado Consejo de Diputados en sesión celebrada el día 17 de diciembre de 1985 sobre el derecho a participar y a la asignación de cuotas y recargos a este Ayuntamiento y a los de Lazkao y Ordizia en las cuotas tributarias que por el concepto de Impuesto de la Licencia Fiscal de Actividades Comerciales e Industriales abone la razón social “Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles S.A.” (CAF).”

Itzulpena:

“...ondorengo akordatzen da:

Lehenik.— Udal honek 1986ko maiatzaren 6ko idazkiaren bidez Gipuzkoako Foru-Diputazioko Diputatu-Kontseiluak 1985eko abenduaren 17an egindako batzarraldian, Udal honek, Lazkaokoak eta Ordiziakoak “Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles S.A.” (CAF) izen sozialdun enpresak abonatzen duen Merkatal eta Industri Ihardueren Lizentzia Fiskaleko Zergaren kontzeptuagatiko zerga-kuotetan eskuhartzeko eta kuota eta gainkarguak esleitzeko eskubideari buruz onartutako akordioaren aurka tartejarritako birjarpen-helegitea ebazteko aipatu Diputatu-Kontseiluak 1988ko abenduaren 7an egindako batzarraldian onartutako akordioaren aurka, helegite kontentzioso-administratiboa tartejartzea.”

Besterik gabe, agur t'erdi eta lehenengorarte.

IRUZKINAK



Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea

META. Journal des traducteurs. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Vol.33, N. 1, mars 1988.

Traduction et interprétation au Japon
Translation and interpretation in Japan

Sommaire-Contents

Introduction

Some Untranslatable Aspects of the Japanese Language: A General Semantics View. *Yuzuru Katagiri*

L'enseignement de la traduction japonais-français: une formation à l'analyse. *Daniel Gile*

Understanding the Silent Culture of the Japanese. *Fujiko Hara*

The Inception of Translation Culture in Japan. *Tsutomu Sugimoto*

News Translation in Japan. *Akio Fujii*

Le traducteur indépendant au Japon. *Osamu Kanamori*

Technical Translation in Japan. *William A. Lise*

Kinds of Ambiguity: Reflections on English Translations of Japanese Verse. *A.J. Pinnington*

Simultaneous Interpreting in Japan and the Role of Television: A Personal Narration. *Sen Nishiyama*

Japanese Interpreters in Their Socio-Cultural Context. *Masaomi Kondo*

Observations sur l'enrichissement lexical dans la progression vers un japonais "langue passive" pour l'interprétation de conférence. *Daniel Gile*

Les interprètes japonais en Algérie. *Michihiro Nohara*

Terminology in Japan: A Descriptive Overview of its Development. *Masanobu Fujikawa*

Éloge de la traduction. *Toru Shimizu*

Aptitudes of Translators and Interpreters. *Atsuko Szuki*

Les publications japonaises sur la traduction: un aperçu. *Daniel Gile*

Meta 33-1 zenbakia japonierari eta Japoniako itzulpen-interpretaritzari eskainitako ale monografikoa da. Alde batetik, hizkuntza berez oso urrutikoa gertatzen zaigunez gero, pentsa daiteke ez diogula aplikapen zuzenik aurkituko bilketa honi; baina, bai hizkuntzalariak itzultzaileak hizkuntza guztien aurrean duen jakinminagatik, eta bai japonierak dituen berezitasunengatik, ez da ez bil-duma hau alde batera uztekoa.

Tokyoko unibertsitateko zenbait irakasleren lanak ditugu, Japan Foundation elkartean jasotakoak. Aleak hiz-

kuntza berberari buruzko zenbait zati ditu, hala nola: japonieraren berezitasunak eta zailtasunak itzultzeko orduan, ikuspegi kulturala eta horren eragina hizkuntzan, literatur testuetan oinarritutako bi itzulpen moduen —maximalista eta minimalista— konparaketa, japonian interpretaritzak izan duen garapena eta aldi bereko itzulpena iristeko telebistak izan duen eragina, terminologia eta enpresetako lanen eraginez japonierak izan dituen aldakuntza bizkorrak, eta azkenik interpretari eta itzultzaileak hobeto ezagutzeko egindako inkesta bateko emaitzak eta ondorioak.

META. Journal des traducteurs. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Vol. 33, N. 2, juin 1988.

L'enseignement de la traduction au Canada
Teaching Translation in Canada

Sommaire-Contents

Avant-propos

L'apport de la stylistique comparée à l'enseignement de la traduction. *Jean Darbelnet*

Cohesion and the Teaching of Translation. *Barbara Folkart*

Pour un modèle rétroactif d'enseignement de la traduction générale anglais-français. *Jean-Marc Gouanvic*

The Role and Teaching of Theory in Translator Training Programmes. *Roda P. Roberts*

Comparer pour traduire. †*Irène V. Spilka*

Aspects pédagogiques de la traduction littéraire. *Denis G. Gauvin et Daniel Slote*

L'enseignement de la traduction scientifique. *Ginette Demers*

L'initiation à la traduction économique. *Jean Delisle*

L'enseignement de la traduction littéraire dans le cadre d'un baccalauréat spécialisé en traduction. *Christel Gallant*

The Pedagogy of "Thème spécialisé". *Alan Manning*

L'enseignement de la version commerciales. *Frédéric Grogner*

L'enseignement de la version sociologique. *Solange Vouvé*

La révision didactique. *Paul A. Horguelin*

Le rôle de la terminologie et de la documentation dans l'enseignement de la traduction spécialisée. *G. Mareschal*

Conception d'exercices de style dans l'optique de la traduction. *J. Bossé-Andrieu*

Teaching Précis-Writing: Objectives and Methodology. *Judith Woodsworth*

La Traducción del francés al español (Lengua Segunda Terminal) en Una Perspectiva Textual. *Ricardo Serrano*

Enseignement de la terminologie: une pratique pédagogique. *Marthe Faribault*

La traduction juridique: art ou technique d'interprétation? *Jean-Claude Gémard*

L'enseignement de la traduction juridique: une formation technique et universitaire. *Michel Sparer*

Meta 33-2 alean kanadako Unibersitatat itzulpen ikasketek izan duten arakastaz eta garapen bizkorraz ari zaizkigu. Eskola edo ikasketa berri horien ugaltzea dela eta zenbaki honetan *Meta*-k prestaketa horretan lanean ari diren irakasleen metodologia ariketak eskaintzen dizkigu.

Senez ale honetan aipatzen denez gero itzulpen ikasketen programaketa eta egituraketa, zuzen zuzenean horretarako bideratua dirudi ale honek, eta horrenbestez, aztergai eta ikergai dugu bertan eskaintzen zaiguna gai horiez ardura duen edonorentzat.

Barbara Folkart, Roda P. Roberts, Alan Manning eta abarren artikuluetan erreferentzia egiten zaio zenbait gai garrantzitsuri, alegia, estilistika testuala, itzultzen hasi aurretik egin beharreko azterketak, testuaren barne eta kanpoko elementuak, eta testu eta paragrafo mailan —esaldiak eta morfemak baino gorago— azterketa estilistikoa egin beharra. Era berean, denek azpimarratzen dute ikasketetan praktikak izan behar duen garrantzia itzultzaileek be-

netako prestaketa izan dezaten. Bide honetatik azterketa zehatzak ematen zaizkigu adibide gisa, eta testu konparaketa, azterketa, itzulpen zati, eta adibide pila eskaintzen zaigu ale osoan zehar beti ikuspegi didaktiko atsegin eta zehatza kontutan hartuz.

Beste bi aipamen besterik ez ale interesgarri honi buruz; bata gaztelaniazko artikulua, Ricardo Serrano irakasleak egina, bertan frantsesetik gaztelaniara itzultzeko Kanadako ikasleek izaten dituzten arazoetatik abiatu eta metodologia osoa eskaintzen digu testua aztertu eta itzultzen hasteko; bigarrena itzulpen juridikoaz Jean Claude Gémardek aurkeztutakoa. Izan ere **Senez** ale honetan gai berbera aztertzen da, hau da, testu juridikoez sortzen dituzten arazo nagusiak, hots, zehaztasuna, ulergarritasuna, gardentasuna... , eta arazo horiek nola neurtu eta modu egokian erabili testu horiek itzultzean. Interesgarri deritzogu eskaintzen digun zailtasunen sailkapen ereduari, nolabait testu horiek mailakatzeko saioa denez gero.

META. Journal des traducteurs. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Vol. 33, N. 3, septembre 1988.

Sommaire-Contents

La traduction en français des jeux linguistiques de Bach. *Robert M. French et Jacqueline Henry*

Le commentaire de version. *Michel Ballard*

Accès au métalinguistique naturel de la langue 2 par la traduction métalinguistique. *Claude Delmas*

Concept of Constrained Translation. Non-Linguistic Perspectives of Translation. *Robert Mayoral, Dorothy Kelly and Natividad Gallardo*

The General Bilingual Dictionary as a Working Tool in "Thème". *Ingrid Meyer*

Information Processing among Conference Interpreters: A test of the Depth-of-Processing Hypothesis. *Sylvie Lambert*

Linguistic Experiency and/or the Quest for a Poetic Mode: Translation Strategies in Okot p'Bitek's Poetry. *Ogo A. Ofuani*

Études terminologiques et linguistiques

Quelques termes sur les moteurs thermiques. *Jacques Lethuillier*

Les postes de soudage à l'arc. *Geneviève Henry*

Listes terminologiques relatives au vocabulaire de la télédétection aérospatiale. *Serge Paul*

Terminologie de l'informatique. *A.-G. Ferre*

Documentation

Bibliographie.

Comptes rendus.

Bloc-Notes

Authenticity and Quality of translation. *Peter Gawn*

L'enseignement de la traduction à l'École supérieure Roi-Rahd de traduction, Tanger (Maroc). *Samia Barrada*

Multilingual Technical Dictionary on CD ROM. *Walters Lexikon*

Dictionnaire universel des traducteur. *Henry Van Hoof*

R. Hofstadter-en *Gödel, Escher, Bach, an Eternal Golden Braid* obra frantsesera itzultzea neke handiko itzulpen esperientzia izan da R.M. French eta J. Henry-rentzat. Poetikazko joku bereziak entseatu behar izan dituzte, obra horrek jatorrizko testuan dituen baliapideak frantsesez isladatu ahal izateko.

Michel Ballard-ek ez du hau itzulpenak hizkuntz irakaskuntzan duen erabilerrari buruz idatzi duen lehendabiziko lana. Frantzian, izan ere, hizkuntz irakaskuntzatik erabat gaitzetsia eta desherratuta bezala egon da orainsura arte itzulpena, aldizkari honetan bertan, gai horri buruzko ale berezi batean, idatzi zen bezala. Bertsio ariketa guztiz interesgarriak proposatzen ditu itzultzaileontzat ere.

Claude Delmas-ek hizkuntzalaritza kontrastibozko ariketak proposatzen ditu, itzulpena hizkuntzalaritzarako gogoetagai eta informazio iturri bezala jarriz.

R. Mayoral, D. Kelly eta N. Gallardo, Granadako EUTiKo irakasleek, testu soilaz gainera, komunikazio egoeran bestelako komunikazio baliapideak ere

parte duten egoeretako itzulpengintzaren azterketa egiten dute: testuaz gainera irudiak, filmeak, bestelako zeinuak ageri direnekoa alegia: propaganda, antzertia, etab. "Itzulpen behartua" deitzen duten honetan, itzultzaileak itzulpen duen testua mezuaren zati bat besterik ez da, eta haiek baldintzatzen dute.

Itzultzaileak normalean burutu ohi duen bertsioaren orde (bere ama hizkuntzarako itzulpenaren orde) itzulpen ariketa "tema" denean, hizkuntza hartako jaiotarrak ohi duen berezko ezaguerarik ezean, askoz ere gehiago erabili ohi da hiztegia. I. Meyer-ek, itzultzaile ikasleek tema horietan egin ohi dituzten akatsak aztertuz, ikasleek erabiltzen dituzten hiztegien akatsak aztertzen ditu; eta azkenik, beste hiztegirik ezean, daudenak egoki erabiltzen irakasteko estrategiak proposatzen ditu.

Sylvie Lambert-ek, interpretarien psikologian sarturik, beren ihardueran etengabe jasotzen ari diren informazioa prozesatzeko dituzten estrategiak aztertzen ditu bere artikuluan. Horretan parte duten memoria moten azterketan oin harturik, hipotesi orokor bat proposatzen du.

META. Journal des traducteur. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Vol. 34, N. 1, mars 1989.

Humour et traduction
Humor and translation

Sommaire-Contents

Humour et traduction au contact des cultures. *Anne-Marie Laurian*

L'humour est-il traduisible? Des notes sur un extrait de *Babbitt*.
Jacques Laroche

Effets d'humour, ambiguïté et didactique de la traduction. *Michel Ballard*

La récré du traducteur. *Alain van Crugten*

L'ambiguïté; un défi traductologique. *Ronald Landheer*

Regard sur la poésie ludique ou le jeu est dans le jeu (et réciproquement). *Guy Leclercq*

Translating Jack London's humor. *Jacqueline Tavernier-Courbin*

Humour and Translation: Evidence from Indian English. *Qaiser Zoha Alam*

'My Grandfather the Hunter': A Humorous Translation from Afrikaans to English. *Pieter de Bruyn*

Humor for Intellectuals: Can it be Exported and Translated? The case of Gary Trudeau's *In Search of Reagan's Brain*. *Roland Diot*

Comparative Analysis of Russian and American Humor. *Emil Draitser*

Humor and Satire in Mexican Immigration

Corridos: A Study of Languages and Cultures in Contact. *Celestiono Fernandez*

Parody and Paraphrase: Translation and C.K. Ogden's Basic English. *W. Terrence Gordon*

The Happy Adventure of Translating German Humorous Verse.

Max Knight

The Translation of Humor; Who Says It Can't Done? *Anne Leibold*

Better than the Original: Humorous Translations that Succeed. *Don*

L.F. Nolsen

Linguistic Patterns and Devices in American Jewish Humorous

Discourse. *Jacob L. Ornstein-Galicia*

On the Feasibility and Strategies of Translating Humor. *Debra S.*

Raphahelson-West

Anne-Marie Laurian-ek META-ren ale berezi honen sarrera egiten duen artikulua buruan bertan esaten duen bezala, humorea tarteri barreneko gauza bezala hartu ohi da gehienetan, misteriozko gauza, hatzematiko ere bereziko hizkuntz gaitasuna eta kontestu ezaguera behar duena, eta sortzeko, hala ere, ikasketa luzea eskatzen duena. Inoren umorea mires daiteke; ikasketa guztien buruan, ordea, arrakastarik ez da izaten maizenik. Esandako hau elebakardunen artean hala bada, areago da hizkuntzaz arrotz den umorearekiko, horixe bait da, izan ere, —umore arrotza— umorearen gaietako bat. Horrexegatik da umorea, hain zuzen, itzulezinen bezala ageri den literatur generoa —itzulezintasunaren ezintasunak ezintasun gradurik onartzen badu—. Hala

ere, itzultzen delako, besterik ez bada, umorea ere itzulgarri da, itzulpenaren desafiorik handienetakoa baldin bada ere, olerkiarekin batera, eta haren neurri berean.

Ale berezi honetan, aipatu Laurian-ek hasieran egiten duen umorezko itzulpenaren zailtasun bilaketa eta sistemati-zaziotik hasi, eta hainbat itzulpen esperimentzia deskribatzen dira. Umorezko testuaren oinarriak teorizatzen dira, eta orobat umorezko testuaren itzulpena hizkuntz irakaskuntzarako eta itzulpen irakaskuntzarako baliabide nola izan daitekeen deskribatzen.

Itzulpena, noski, umore gai da, hemendik kanpora ere, eta irribarrea eragiten du gure artea ez denean gurearen islada egoki litzatekeena topatzeak

META. Journal des traducteur. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Vol. 34, N. 2, juin 1989.

Sommaire-Contents

La matérialité du texte: la traduction comme récupération de l'intradiscursif. *Barbara Folkart*

Translated Literature and the Literary Polysystem: The Example of May's 'Évangéline'. *E.D. Blodget*

The Role of Translation in the Reception of Claude Simon. *M.G. Rose*

Le travail perlocutoire de la traduction 'Macbeth' québécois. *A. Brisset*

Conflits de juridiction, la double signature du texte traduit. *S. Simon*

Translation: The Relationship between Writer and Translator. *K. Mezei*

A Poet in Search of a Medium? An Analysis of the Graphological Structure of Taban lo Liyong's 'Another Nigger Dead'. *O.A. Ofuani*

Translation is a Two-Way Street: A Response to Steiner. *E. Neild*

Loaves of Bread and jugs of Wine: Three Translation of Omar Khayyám. *S. Jermyn*

Charles Baudelaire and his Translation Edgar Allan Poe. *P. Fader*

On the Translation Of the Chinese Poetry into English. *Xin Ling*

L'échec du Faulkner comique en France: un problème de réception. *A. chapdelaine*

Études terminologiques et linguistiques

Cinq notions de télédétection aérospatiale: un exemple de structuration d'un champ terminologique. *L. Depecker*

Arrêté relatif l'enrichissement du vocabulaire économique et financier. *É. Baladur*

Documentation

Bibliographie.

Comptes rendus.

Bloc-Notes

Les terminologies spécialisées: approche quantitative et logico-sémantique. *H. Béjoint*

Lexitem. *D. Pulitano*

Colloque sur l'enseignement de la terminologie. *C. de Schaetzen*

La traduction en Amérique latine. *J.-C. Gémar*

Dictionnaire universel des traducteurs. *H. van Hoof*

Antoine Berman-ek jarraitzaile asko ditu itzulpenaren terorilarien artean, literatur itzulpenaz dihardutenen artean batez ere. Barbara Folkart irakasle kanadiarrak haren "matérialité du texte", testuaren arrotzasunaren kontzeptuan oin harturik lantzen du bere itzulpen teoriaren ardatza. Mezuaren baitan hizkuntza bararen presentzia hatzemateko tresna gisa erabil daiteke hitzez hitzeko itzulpena.

Kanadako literaturan bi sistema elkarren desberdin daudela esan daiteke: ingelesezko literatuta, eta frantsesezko literatura, bertako ahozko literatura autoktonoak albora utzita. Literatur sistemen bikoiztasun horrek ez du esan nahi, ordea, elkarrekiko loturarik eta eraginik izan ez denik. Oso bestela baizik. Eragin horrek, bestela ezin bait da, itzulpena du joan etorriko bide. Horren adibide bikaina dateke Longfellow-en *Évangéline* obraren itzulpena. Berez ingelesez idatzia, L.-P. Le May-k frantsesera itzulirik, frantsesezko testuan egokitzen eta moldapen ugari izan zituen.

Guztiaren buruan ordea, Acadiako frantsesen kultur identitatearen oinarri mitikoetako bat izatera iritsi da.

Sherry Simon-ek itzultzaileak literatur testuaren egilearekiko eta testuarekiko berarekiko duen statusa aztertzen du. Status horrek historian zehar izan duen bilakaera eta era askotako izatea, itzultzaileak testuaren moldapenerako zuen eskua eta bere produktioan izan duen erantzukizuna aztertu ondoren, gaur egun gai honi buruz dagoen teoria eta zehazki itzultzaileak dituen egile eskubideen arazoa aztertzen ditu.

Kathy Mezei-k dakarren testu bilduman, zenbait itzultzaile kanadiarrek beren itzultzaile lanean oinarriturik autotoreaz duten pertzepzioa ematen dute aditzera.

Itzulpenaren historiaren kapitulurik interesgarrienetako bat Charles Baudelairek Edgar Allan Poeren lanetatik frantsesera egindako itzulpenari dagokiona da. Amerikarraren lanek hartzen dituzten hamabi tomoetatik bost itzuli

bait zituen, eta frantses hizkuntzan obra klasiko bezala geratu dira geroztik. Hala ere, literatur zaletasunaren onspen ikuspegitik begirata, Poeren frantses jantziak ingelesezkoak baino erakarmen handiagoa duenez, onspen handiagoa behintzat, zer pentsatua badu

Baudelaireren itzulpenak. Poe-zaleen artean gauza jakina da Poe-zale sutsuenak frantsesak direla, Poeren etsairik setatienak anglo-mintzodunak diren bezala. Pamela Faber-ek Baudelaireren itzulpenean aurkitu dituen eraldaketak aztertzen ditu.

META. Journal des traducteur. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Vol. 34, N. 3, septembre 1989.

1. Actes du colloque Les terminologies spécialisées: Approches quantitative et logico-sémantique.
2. Actes du colloque Terminologie et industries de la langue.

Sommaire-Contents

Éditorial. *André Clas*

1. Actes du Colloque Les terminologies spécialisées: Approches quantitative et logico-sémantique (Deuxièmes Entretiens du Centre Jacques-Cartier)

Présentation. *André Clas*

Sur les relations entre terminologie et lexique. *Michel Le Guern*
Niveaux linguistiques et terminologie de l'intelligence artificielle.
Sylvia Pavel

Étude comparée des modes de formation des lexies complexes dans deux domaines différents. *Dorothy Nakos*

Le statut du syntagme dans les dictionnaires généraux monolingues.
J.-Cl. Boulanger

Approche quantitative de l'étude des marqueurs du niveau de spécialisation dans les textes scientifiques anglais. *Malcolm Clay*

Repérage d'unités terminologiques dans le contexte de l'enseignement de la traduction spécialisée. *G. Mareschal*

L'organisation conceptuelle des dictionnaires automatiques pour textes techniques. *A. Kukulska-Hulme et Frank Knowles*

Syntagmes et paradigmes. *C. Portelance*

À propos de la monosémie en terminologie. *Henry Béjoint*

Apport contrastif des dictionnaires généraux de la langue au problème de l'indexation automatique dans le discours technico-scientifique. *Jacques Jansen*

Le syntagme nominal: une nouvelle approche des bases de données textuelles. *Richard Bouché*

La topographie des termes. *Ph. Thoiron et D. Serant*

La synonymie en langue de spécialité. *J. Lethuillier*

La terminotique et les industries de la langue. *Pierre Auger*

Vers un produit unifié en terminologie et en documentation: le thésaurus terminologique. *L. Larivière*

Mesure des relations lexico-sémantiques dans des textes scientifiques: problèmes méthodologiques. *N. Ménard*

2. Actes du Coloque Terminologie et Industries de la langue

Avant-propos. *Pierre Lerat*

Informatique et terminologie: revue des technologies nouvelles. *Pierre Auger*

Exemples de continuité dans le traitement de données terminologiques. *J.-M. Henning*

REFTEX: un progiciel pour la traduction assistée par ordinateur. *P.S. Kjaersgaard*

Systèmes-experts et terminologie. *P.H. Wijnands*

Recherche d'utilisation optimale d'un SGBD en traduction automatique avec aides informatiques: le dictionnaire bilingue d'écologie des eaux continentales (DIBEEC). *Ph. Thoiron et D. Maniez*

- La place du syntagme dans un dictionnaire de langue. *J.-C. Boulanger*
- La définition de termes scientifiques. *A. Hermans*
- Dictionnaires informatisés et traduction. *A. Kukulska-Hulme*
- Le vocabulaire électrotechnique international de la Commission électrotechnique internationale. *P. Feintuch*
- Terminologie multilingue de l'énergie, évolution des techniques et défense de la langue française. *M. Kleinpeter*
- La terminologie catalane: bilan des activités. *M.T. Cabré*
- La linguistique et l'informatique, des alliées. *C. Ouellon*
- Les conquérants espagnols et les terminologies indo-américaines. *V. Huyngh-Armanet*
- Facteurs financiers dans la mise au point d'une banque de terminologie. *C. Galinski*
- Les industries de la langue et la recherche terminologique à l'ONU. *M.-J. de Saint Robert*
- L'élaboration de produits terminologiques dans les domaines de pointe: quelques constants. *M.C. Cormier*
- La mise sur DOC d'une banque de données linguistiques: l'exemple de TERMIUM. *S. Dupont*
- L'apport de MINITEL à la diffusion terminologique, l'expérience de NORMATERM. *C. Cambours*
- Le miroir aux alouettes. *N. Kalfon*
- Recherche d'une synergie entre développement linguistique informatisé et systèmes experts: importance de la terminologie. *R. Parent*
- A Concept-Oriented Approach to Terminology Work on PC. *C.-H. Stoll*

Metaren ale berezi honetan terminologiaren arazoez ospatu diren garrantzi handiko bi topaketetan jaso diren ondorioak biltzen dira: Bata Montreal-go unibertsitatean 1988ko urrian ospatu zen

Les terminologies spécialisées: Approches quantitative et logico-sémantique et la bestea Terminologie et les industries de la langue, Terminologia eta neologia Zentruak Parisen antolatua.

Lehendabiziko bileratik jasotako txostenetan terminologiaren egiturari buruz mintzatzen da batez ere, espezializazio alor bakoitzean burutzen diren termino bilketen analisi kuantitatiboak, berorien oinarriko azpiegituz, matrize terminologikoez eta terminologiako ereduak mugaz. Ikerketa horietako askotan terminologi sormenaren eta askatasunaren mugak nahi dira aztertu, analisi baten bidez ereduak finkatu, eta era horretara, irizpideak objetibatuzko ahalgin batez, jakintzaren aurreramenturako oinarri zientifikoa den teorizazio ihardueraren hesparrua mugatu.

Bigarren aipatzen den topaketari dagokionez, informatikak eta telematikak terminologiaren bilketarako, analisisirako eta zabalkunderako eskaintzen dituzten baliapideak aztertzen dira batez ere. Hala bere gai nagusia den terminologia bankuen egitura eta ihardueraz gainera, itzulpen automatiko, eta ordenagailuzlagundutako itzulpenarako, edo itzulpenean zuzenean kontsulta egiteko dauden baliapideak (programa, datu kontsultategi, datu eta terminologia bankuak, etab.) ere aztertzen dira.

Cuadernos de Traducción e Interpretación. Quaderns de Traducció i Interpretació. E.U.T.I. Escuela Universitaria de Traductores e Intérpretes. Universidad Autónoma de Barcelona. Bellaterra. 10.

Indice

Informe: Experiencia y problemas de la traducción

Carlo Emilio Gadda, Traductor expresionista, *Gianfranco Contini*.

Notas sobre la traducción de textos dramáticos shakespearianos, *Purificación Rives Traver*.

Sanciones aduaneras en la frontera lingüística anglo-española al traducir los sonetos de Shakespeare, *Carmen Pérez Romero*.

Reflejos en una porcelana azul, *Pedro Gandía Buleo*.

Oscas Wilde: poemas, *version de Pilar Gandía Buleo y Pedro Gandía Buleo*.

La traduction humaine, *Marianne Lederer*.

Kiswahili. Un poema d'Ahmad Nassir Juma, *M. Carme Junyent i Figueras*.

Las traducciones de la obra de Balzac en la prensa periódica española del siglo XIX (II), *Lidia Anoll*.

La traducción priápica. Antología de "El Hermafrodita", *José Luis García Martín*.

El "Palomar" que no escribió Italo Calvino, *Liliana Piastra*.

Artículos

Contribution à una pédagogie de l'interprétation (II). Les principes pédagogiques et la pédagogie des prérequis, *Philippe Curvers, Jean Klein, Nina Riva y Claude Wuimart*.

Entrevista

Marià Manent, *J.N. Santaaulàlia*.

Entrevista amb en Marià Manent, *Lourdes Güell*.

Marià Manent en castellano, *Lourdes Güell y Fernando Valls*.

Reseñas

Literaturazko antologi itzulpenak paradero txarra izaten duela ematen du, hemen eta hemendik kanpora ere. Gianfranco Continik gaztelerazko literatura-tik italierara itzulirik argitaratu den antologia zahar batean (*Narratori spagnoli*, Bompiani, Milan, 1941) C. Emilio Gadda idazleak egindako itzulpenak salbatzen ditu, aztertu eta eredu bezala proposatzeko.

Antzerkirako testuen itzulpenak arazo bereziak jartzen dizkio itultzai-leari, komunikazio modua berezia delako. Purificación Ribes Traver-ek Shakespeare-ren testuen itzulpenari buruz

dihardu bere artikuluan, ondoren Carmen Pérez Romerok autore berberaren sonetoen itzulpenak jarraitzeko. Bi testuok, dirudienez, aldizkari honek beronek Shakespeare-ren itzulpenari buruz argitaratu zuen ale monografikoaren segida dira.

Marianne Lederer, itzulpenaren teorian ezaguna denak, itzulpenaren baldintzez dihardu bere artikuluan: gizonak egiten duen itzulpena eta makinaz egindako itzulpena elkarrekin kontrajartzen ditu, gizonak egiten dituen hainbat itzulpen —halakoxeak bait dira, izan ere— makinak ere egin litza-

keela ukatu gabe haatik; hitzez-hitzezko transkodaketa soila makinaren ezinbesteko mekanika ez ezik, gizonak libre duen pekatua ere bai bait da. Makinazko itzulpenaren abiapuntua, transkodaketa, jatorrizko testua eta itzulpen burutuaren arteko konparaketan dago, konparagarri diren aldetik; analisi mota horrek, hizkuntz konparaketarako balio balezake ere, itzulpen prozesua aztertzeko ez du balio, Lederer-en iritzian. Itzulpena doitu eta hobetuko bada, itzulpen ekintzak, gizonak itzultzean duen iharduerak eta iharduera horretarako baldintzek izan behar dute aztergai.

Ph. Curvers, J. Klein, Nina Riva eta Cl. Wuilmart, Mons-eko unibertsitateko irakasleek interpretari ikasketei buruz zenbait argitasun ematen dituzte beren artikuluan. Lau zatitan banatu duten saio baten bigarrena da hau. Lehen-dabizikoan interpretaritzarako baldintzak aztertu zituzten. oraingo honetan

interpretaritzak ikasketen pedagogiazko printzipioak finkatzen dituzte, eta nola baliatu printzipio horiez interpretaritzarako aurrealdintzen alorrean: kultura eta ezagumenduz nola jabetu, inoren pentsakera nola hatzeman, memorizazio teknikak, ahozko adierazmena nola landu.

Azkenik, aldizkari honek ale bakoitzean Kataluniako itzultzaile ezagun bana aurkezteko duen ohiturari jarraituz, oraingo honetan Marià Manent olerkari, itzultzaile eta literatur kritikoa aurkezten du. Marià Manent, Bartzelonan 1898an jaioa, Kataluniako literaturak izan duen belaunaldirik aberats eta oparoenetako partaidea izan da: Josep Pla, Carles Riba, J.V. Foix, Josep M. de Sagarra, J. Salvat-Papasseit, Carles Soldevilla, beste askoren artean. Itzultzaile lanetan, ingelesezko literaturako olerkarien obrak itzuli ditu batez ere: Blake, Keats, Elliot, Thomas, Dickinson, McLeish eta beste hainbat.

Bibliografia

STOLZE, Radegundis: **GRUNDLAGEN DER TEXT-ÜBERSETZUNG**, Julius Groos Verlag, Heidelberg, 1985.

Aurrean daukagun ikerketa hau hizkuntza eta itzulpenari buruz atergabeke gogoeta batetik sortutako liburua da, Lexemaren analisiaren alor mugatutik abiatu eta hitz-eremuen ikerketan barrena testu-linguistikaraino eramán du bilakabideak autoreá. Itzulpenaren behaketa enpiriko batetik sortu da liburu hau egiteko beharra: autoreá oharturik zegoen testu bat "esaldiz esaldi" itzultzeak zeharo emaitza ezberdinak ematen zituela testua osotasun bezala itzultzearen aldean. Ikerketa hau hizkuntzalaritza aplikatuaren markoaren barruan ulertzen da eta testuaren linguistikatik itzulpen-zientziarako ekarpen bezala hartu behar da, honetara bi disziplinen

arteán dauden mugak gáinditzeko.

Testulinguistikazko Orientazio deritzon lehen ataleán planteamentu inductiboa deductiboari kontrajarririk, testua zientzi-objektu bezala, testuaren definizioa eta testuaren osagaiak bezalako gaiak aztertzen ditu.

Bigarren ataleán testua osotasun bezala aztertzen du eta testuén burutzapen-modalitateak (indibidualitatea, gainbatukortasuna, itzulpenaren besterik-eza) aipatu ondoren ulertzearen dimentsioak aztertzen ditu, hizkuntz filosofiazko hermeneutika, testuén ulerkuntza, ulertzearen modua eta gízabanako ulertzailea bezalako gaiak harrotuz. Azkenik, hizkuntza-

rentzat egokia den zientzi kontzeptuaz, hermenutika eta tetulinguistikaz eta argitzeaz eta ulertzeaz aritzen da.

Hirugarren atalean testu-teoriaren fokoratze ezberdinen berri ematen digu, hiru ereduren azterketa egiten duelarik: testu-eredu linguistikoa, kontakizun-testuen eredu eta komunikazio-teoriazko eredu.

Laugarren atalean Testusemanti-karen eremuan sartzen da eta semantika estrukturalaren kontzeptioa landu ondoren esanahiaren deskribapen dinamikoaren alderdiak (polisemia-polimorfia, etimologia eta erabilera-historia, esanahi-egitura dinamikoa, hitzeremu-kontzeptzioaren dinamizazioa, testuan zentzua nola eratzen den eta testuzentzua aurkikunde bezalako gaiak sakontzen ditu.

Bostgarren atalean testu-tipologiaren auziari lotzen zaio eta aurrena ikerketa-objektua zedarritzeari hel-tzen dio, ondoren hizkuntz funtzioaren arabera egindako testu-sailkape-naz aritzeko (K. Reissen testu-moten eredu eta beronen kritika eskaintzen du) eta testu-funtzioaren zedarriketa burutzean testu-moten dikotomian sartzen da berezketa-irizpideak, testu espezialduak eta "forma" irizpidea jor-ratuz. Banako testuaren planoko ezaugarriak aztertzen ditu azkenik.

Seigarren atalean itzulpen-teoriazko arazoetan sartzen da eta hemen itzulgarritasunaren problematika, testuen azaleko egituren analisia, testuen analisi pragmatikoa, testuen analisi intentzionala eta itzulpenera zuzen-duriko testuen deskribaketa aipatzen ditu ondoren itzulpen-prozesuen defi-

nizioetan sartzeko. Definizio orokor-ren aipamena egin ondoren definizio soziolinguistikoen eta antropologi-koen sakonketa berezia egiten du.

Ondorengo atalean —zapigarre-nean— itzulpenari buruzko edozein estudiantan klasikoa den baliokidetzaren auziari lotzen zaio: itzulpen-uni-tatea eta baliokidetz-harremana az-tertzetik hasten da eta itzulpen ororen eskakizun ezinbesteko eta funtsezkoa den adieraziaren berrematea araka-tzen du "zehaztasuna" eta "baliob-erintasuna" sakonduz, azkenik itzul-penaren dimentsio hermeneutikoan testu-interpretazioa, itzulpena testu-transmisio gisa eta itzulpenaren buru-tugabetasuna bezalako gaiak lantze-ko.

Zortzigarren atalean, hizkuntza espezialduzko testuen itzulpena derit-zonean, hizkuntza espezialduak zer diren esaten du eta naturzientzia eta teknikazko testu espezialduen aur-kezpen bat egin ondoren testu ekono-miko eta juridikoak miatzen ditu.

Bederatzigarren atalean testu-deskribapen eredu bat burutzen du, hasi testuaren egitura edukizkoa ikustetik eta testuaren gainbatukorta-suna eta testuaren erakuntza estilisti-koa agerian jartzeraino, ondoren fran-tsesezko testu berorren itzulpena bu-rutzeko.

Hamargarren eta azken atalean, identitatea eta diferentzia gaia lantzen du eta bete-betean itzulpen-kritikaren auzian sartzen da. Itzulpen-kritikaren irizpideak sailean abiaburu orokorrak eman ondoren itzulpen-kompetentzi-az aritzen da itzulpen-konparaketa

metodo gisa aurkezteko. Gainbatu-kortasunak itzulpenean duen muntaz, eta testuaren tematikaz mintzatu ondoren itzulpen literarioa aztertzen du eta liburua Verlaineen poema ezagun baten alemaniarara egindako itzulpen desberdinen konparaketa eta kritikarekin maitzen da.

Laburbilduma bat, zenbait eranskin eta bibliografia zabal bat dakartza liburuak azken orrialdeetan. Bibliografiari dagokionez, Erteuropako ikerketarien ekarpenez hornitua dago

gehien bat eta Nida eta Vinay-Darbelnet bezalako klasikoren bat aipatzen bada ere bai sobietarren eta bai ingeles-frantsesaren munduko teorikoen hutsune nabaria dago aipuetan. Ekarpenean interesgarria, alemaniarrek hain maitea duten testu-linguistikaren alorretik itzulpen-teoriara egin duena Stolzek, baina beste behin sintesi orokor bat egiteko oraindik urrats bat baino gehiago eman beharra daukagula adierazten duena.

X. Mendiguren

REISS, Katharina/VERMEER, Hans J: GRUNDLEGUNG EINER ALLGEMEINEN TRANSLATIONSTHEORIE, Niemeyer, Tübingen, 1984.

Sarrera baten ondoren, obra bi atal nagusitan banaturik dator: lehen atala oinarrizko teoria edo teoria orokorrari buruzkoa da eta bertan zortzi azpiatal ageri dira:

- Terminologiari buruzko oharrak
- Hizkuntzaz eta munduez
- Itzulpena "informazio-eskaintza" gisa
- Helburuaren lehentasuna (skopos-teoria)
- Oinarri-teoriaren laburbilduma
- Oinarri-teoriari buruzko beste zenbait ohar

- Translazio-teoria orokorraren laburbilduma
- Teori eskema

Bigarren atalean teoria bereziak aipatzen dira eta bertan lau gai nagusi lantzen dituzte autoreek: sorburu-testuaren eta xede-testuaren arteko harremana, baliokidetzeta eta egokitasuna, testu-moten teoria eta testu-motak eta translazioa (ohar bedi translazio hitza erabiltzen dutela autoreek itzulpena eta interpretaritzeta bere baitan biltzen dituen izendapen besarkatzaile gisa).

Liburua Bibliografia mugatu batekin eta izen eta gai-zerrenda batekin amaitzen da.

Bigarren atalaren amaieran ezarritako hitzatzean diotenez, autoreek ez dute itzulpen-teoria agortzaile bat eskaintzeko asmorik, baizik eta itzulpen-teoria orokor baterako materialak eta ideiak eskaintze bat bezala areago

ulertu behar da bi traduktologo eta irakasle hauen ahalegina; zentzu honetan komunikazio-zientzien eragin nabaria ageri da beraien planteiamendu eta tratamenduan.

X.Mendiguren

KOLLER, Werner: EINFÜHRUNG IN DIE ÜBERSETZUNGSWISSENSCHAFT, Quelle & Meyer, Wiesbaden, 1987, (3^o arg.)

Alemanierazko itzulpen-eskuli-buruen artean dagoeneko ia klasiko bihurtu den obra honek 3. argitarapena izan du orain bi urte. Izan ere, inon gutxitan bezala ageri bait dira bere baitan Itzulpen-zientziaren garapena, egoera eta oinarrizko arazoak azaldu eta argiturik. Itzulpen-zientzia disziplina autonomo gisa legitimatzeko ekarpen baliotsua da eta Unibertsitate eta itzultzaile eskoletan itzulpen eta interpretaritza-ikasketak burutzen ari direnenetzat ezinbesteko liburua da eta erabalgarría hizkuntza arrotzak irakasten ari diren irakasleen artean ere.

Lehen kapitulu batean oinarrizko alderdiak lantzen dira: itzulpena praktika bezala, hizkuntza "handi" eta "txikiak", itzulpen-historia, hizkuntz hesien gainditze-ahalbideak, nazioarteko hizkuntza laguntzaileak eta hizkuntzen araukuntzak, itzulpenaren automatizakuntza eta hizkuntz arazo eta kontzeptu nagusiak.

Bigarren kapitulan itzultzaileen prestakuntzaren gai interesgarria jorratzen du, beronen premia, edukinak eta funtsatze zientifikoa ukitzen dituelarik.

Hirugarren kapitulan itzulpen-teoriaren fokoratzeak, garapena eta egoera eskaintzen ditu. Horretarako aurrena itzulpenaren rol eta balioaz, itzulpen-metodoei buruzko gogoetak egin eta oinarrizko arazoez jardun du, eta ondoren testu-mota desberdineta-ara zuzenduriko itzulpen teoriak aipatzen ditu, Kloepfer eta Levyren itzulpen literarioari buruzko teoriak, Jumpselt-en naturzientzia eta teknikazko itzulpen-teoria, itzulpen-teoria linguistikokoak (Kade, Neubert, Jäger) eta itzulpena komunikazio-egintza bezala ulertzen dutenen planteiamenduak aztertzen ditu.

Laugarren kapitulan itzulpen-zientziaren objektua, betekizunak eta egitura lantzen ditu: itzulpen-kontzeptuaren erlatibitatea, itzulpena

zentzu zehatzean eta birlanketa, itzulpenaren birlanketa-mailak eta abar sakontzen ditu.

Bostgarren kapituluan Itzulpen-prozesua eta beronen azalpena burutzen du, definizioak eta ereduak eskainiz, ondoren itzulgarritasunaren arazoari bete-betean ekiteko.

Zazpigarren kapituluan baliokidetzaren gaia lantzen du hizkuntzalarriz kontrastiboan baliokidetzaz zer den adierazten duelarik lehendabizi eta ondoren korrespondentzia eta baliokidetzak alderatuz. Azkenik, baliokidetzak itzulpen-zientzian hartzen duen esanahiaz aritzen da.

Zortzigarren eta azken kapituluan itzulpen-kritikaren krisiaz eta itzulpenaren krisiaz hitzegiten du Kollerrek, ondoren itzulpen-konparaketaz eta itzulpen-kritikaz eta bereziki Popovic, Wilss eta Reissek itzulpen-kritikaz dituzten iritziak azaltzen ditu. Atal berean sorburu-testuari loturiko itzulpen-kritika, itzulpen-kritika mota desberdinak, itzulpen-kritika zientifiko baten metodologiarako materialak, itzulpenerako muntaduna den itzulpen-kritika, itzulpen-konparaketa eta itzulpen-baloraketa bezalako gaiak lantzen ditu.

Hamargarren sailean zortzi kapituluei dagozkien oharrak datoz, bibliografia aski zabal eta hornitua hiru sailetan banatua: itzulpen-zientziari buruzko bibliografiak, itzulpen-arazoari buruzko banakako obrak eta erabilitako edota aipaturiko literatura.

Hamaikagarren eta hamabigarren izenen eta gaien zerrendak datoz.

Oro har, Werner Kollerren eskuliburua ohargarria da eskaintzen duen sintesiarengatik eta agerpen didaktikoarengatik. Liburu hau, aditu eta gaian sarturik dabilzanezat ezezik, irakurle gozagarriaren erantzun gisa ere mesedegarri izan liteke itzulpenaren munduaz eta zientziaz ikuspegi argi bat lortu nahi izanez gero. Bestalde, bigarren argitalpenari ezarri zion hitzaurrearen oinean 1978an lehen argitarapena egin zenetik 1983an bigarrena egin zenera bitartean plazaratutako bibliografia garrantzikoena ematen du eta bertan Barchudarov, Ladmiral, Lefevere, Newmark, Wilss, Kade eta abar bezalako lan garrantzikoak jasorik datoz. Nabari da Koller profesoreak traduktologiaren eremuan herrialde desberdinetan egiten diren ahalegin nabarien lekuko ohartua dela.

X. Mendiguren



**BERRI
ETA
ALBISTE**



Interpretaritzari buruzko ikastaroak Gasteizen

Koldo Biguri

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatuturik, hirurogeina orduko bi ikastaro egin ziren Gasteizen interpretaritzaren inguruan, Lurdes Auzmendi eta Koldo Tapiaren ardurapean. Lehen, esanosteko interpretaritzari lotu zitzaion 1988ko azarotik 1989ko otsailera bitartean; bigarrena, aldiz, aldiberekoari, eta 1989ko maiatzetik ekainera bitartean egin zen, 15 klase egunetan zehar. Lehendabizikoan bederatzi ikaslek hartu genuen parte, eta horietatik bost bakarrik aritu ginen bigarrenean; gehienok itzultzaileak ginen, eta interpretari-lanetarako apenas trebatuak, horrek berekin dakartzan alde on eta txar guztiekin.

1. Esanosteko interpretaritzaren ikastaroa

Esanosteko interpretari batek, izenak berak iragartzen duen bezala, mintzatzaileak bere hizketaldia amaitu ondoan hasi behar du hizketaldi hori errepikatzen beste hizkuntza batean. Horregatik, eta alde batera utzita hizkuntzen arteko itzulpenak berez eragin ohi dituen arazoak, bere jarduna egokiro burutu ahal izateko aurkituko dituen oztopo nagusiak bi dira: ulermena alde batetik, eta oroimena

bestetik. Arazo berberak aurkituko lituzke, jakina, hiztunak erabilitako hizkuntza berean errepikatu beharko balu ere horrek esandakoa. Zentzu horretan, bi alderdi horiek dira interpretari-gaiak, itzuliz zein itzuli gabe, landu behar dituenak, eta lantze hori izan zen ikastaro honetan egin nahi zena. Haren parterik handiena ulermena lantzeko ariketek bete zuten, ulermena bait da, hain zuzen, oroimenaz baliatzen hasi baino lehenago interpretariak erabili behar duen ezinbesteko dohaia. Hortxe zegoen ikastaroan parte hartu genuenok, edo nik bai behintzat, hartu genuen lehen ezustekoa, zeren eta esperientziarik ezak —edo esperientzia murriztak— eraginda, interpretatzean ahalik eta hitzik gehienak isladatu behar direla uste bait nuen (lehen pertsonaz arituko naiz zuhur beharrez), bai eta hala jokatu ere, ondorio tamalgarri samarrez, pentsa daitekeenez. Lehen ikasgaia, hortaz, interpretazioa hizkuntzarekiko operazio bat ez, baina hizkuntzaren bitartez esaten den mezuarekiko operazioa dela gureganatzea izan zen. Beraz, ulermena lantzeko saio ugari eta era askotakoak egin ziren ikastaro guztian zehar; ezjakintasunak ematen duen ausardiaz esan liteke hizketan ikasten dugun une beretik lantzen dugula ulermena, bestela itxurazko komunikaziorik betetzen nekez asmatuko bait genuke elkarrizketa batean, esate baterako. Baina ikastaro honetan, interpretaria entzule huts baino zerbait —askoz— gehiago dela eta, beraz, entzule hutsak baino lan gehiago egin behar duela konturatzeko aukera izan genuen, gutxienez. Izan ere, interpretariak testua aztertu behar izaten du, deskodifikatu edo biluztu, baten batek esango lukeen eran, eta ideiak atera: ideia nagusia edo nagusiak, beste maila xeheagokoak, eta gainerako osagaiak (lotura elementuak, esaterako, baina baita edergailu eta betegarriak ere). Irakasleek erabilitako hizkeran esanda, gakoa eta zirkunstantziak. Eta horretarako, era askotako testuak, idatzizkoak eta grabatuak, aztertu ziren, eta inoiz ere ikusi ahal izan zen ideia nagusiari zehatz antzematea beti ez dela iduri dukeen bezain lantegi erraza. Lehen ikastaro horren bigarren partean, berriz, giza oroimena zeinen ahul eta ezleiala den ohartzeko egokiera izan genuen. Zeruari eskerrak, hala ere, irakasleek berehala lasaitu gintuzten “oroimenak ez duela berebiziko garrantzirik interpretatze-prozesuan, lagungarri gertatzen den arren” abertituz. Izan ere, oroimena bitan banatzen da in-

terpretarien zereginari dagokionean: testuaren oroimena dago alde batetik, eta zentzuarena bestetik, eta berau, ulermenaren ondorio dena, da testua berregiten lagunduko diguna. Errepikatu beharreko hizketaldia laburra denean arazo askorik ez da egongo, baina bai testua luzea edo konplexua denean. Holakoetan, interpretariak notaketaz baliatu behar izaten du oroimenaren, zentzuaren oroimenaren lagungarri bezala. Hortaz, ikastaroaren bigarren parte honetan halako zeinu grafiko edo laburduren bidez ideiak —eta ez horrenbeste hitzak— irudikatzeke teknikaren edo tekniken hasi-masiak gureganatzen saiatu ginen. Hemen, nagusiki, ikasi genuen kontua ez dela den-dena notatzea, ulertu edo oroimen “pasibo”-an gelditu den ideiarene eduki semantikoa baizik, geroago zeinu horien laguntzaz jatorrizko testua berremán ahal izateko. Hala, bada, jakin genuen notaketa ez dela hizketaldiaren transkribaketa, ezpada lagungarri hutsa, gure oroimen pasibo horretan erdi ilunean geratu dena gogoratzeko bitartekoa, eta hortaz notek ahalik eta bisualenak izan behar dutela, begiratu batez erraz ulertzeko modukoak. Zentzu honetan, idazketaren kulturak baitaratu digun horizontaltasunarekin borrokan ibili behar izan genuen uneoro, hitzak, ideiak edo dena delakoa lerro jarraietan kokatzeko ohiturarekin, alegia.

2. Aldibereko interpretaritzza ikastaroa.

Aurrekoan labur samar gertatu ziren hirurogei ordu haien osagarri, aldibereko interpretaritzari beste horrenbeste denbora eskaini zitzaion bigarren honetan; ikasleak bost baino ez ginen, baina denok lehengo hartan parte hartutakoak, oso lagungarri izan zelarik hori beste ikastaro honetako ariketei aurre egiteko. Are gehiago, haren lehen partean landu ziren ariketak esanosteko interpretaritzarekin oso lotuta zeuden, bi ikastaroen arteko zubi modura, aurreko hartan hartutako trebeziak berriz fintzeko helburuz. Asmoa zen kontzentrazioa eta entzundakoa sintetizatzeke gaitasuna lantzea, idatzizko nota lagungarriak gutxinaka alboratuz joanaz; zaila izan zen oso notaketaren babesari uztea, eta beharbada gehiago insistitu beharko zen puntu horretan. Tamalez, denbora faltak galerazten zuen gureganatuta geneuzkan bizio asko zuzentzea.

Ordea, mintzamina lantzeko burutu ziren ariketak beste bizio bat nabarmenki galtzeko baliagarri izan ziren: hitz jarioan alferreko lotura elementuez eta soinu betegarri edukingabeek baliatzeko ohitura oharkabekoa, alegia. Izan ere, bigarren ikastaro honetan lehen-dabizikoan lantzeke utzitako alderdi garrantzitsu bat —ahoskera, deklamazioa, mintzoaren zuzentasuna eta modulazio egokia— joratu ahal izan genuen, hain zuzen, guztiz dohaia funtsezkoa baita interpretariarentzat, adi edukiko duen entzulea gogaituko ez badu. Ikastaroan ezegokitzat hartu zen, baina ondo pentsatuta landu beharreko gauza da, elkarrizketa mailako testuak erabiltzea. Beharbada ikasten ari garenontzat, eta bidenabar irakasleontzat ere, frustragarri gertatzen zen elkarrizketa edo bapateko solasak itzultzen saiatzea, halako mintzaldi prestatugabeek sarritan izaten dituzten anakoluto, amaigabeko esaldi eta aurrera-atzerakoengatik; baina begien bistan dago interpretariak ezin duela mahuka hutsa den hizlaririk eskatu beti, eta, beraz, kalitate oneko testuak bezala txarrekoak ere txuliatu beharko ditu suertatzen zaion plazan. Aieneka berriz hasiz, denbora gehiagoko ikastaldi batean horrelako lanketa zorrotzak burutzeko parada egongo da, ez ordea guri egokitu zaigun erakoetan, eta, beharbada, kontutan hartu beharreko gauza izango da etorkizunari begira. Ikastaro-emaileak saiatu ziren azken partean langaien graduazio bat tajutzen, zailtasunak gutxinaka ugalduz, solasaren abia da bizkortuz, eta gaiak ere trinkoagotuz. Agian, hutsunerik bazen, nola den administraziorako interpretariak trebatzeko logikoki erabili beharko diren euskarazko langai administratiboen urritasuna, kontutan hartuz gure administrazio sailetan jarduten garen itzultzaile/interpretariok, salbuespenak salbuespen, euskarazko mintzaldiak erdaratzen baino ez gabela aritzen gehienetan. Hau noski administrazio horri leporatu beharreko errua da, baina interpretaritzaren egitateaz at dagoen kontua denez gero, bego hartan; hori bai, honetan bezala egiten diren ahaleginei zernolako errentagarritasuna ateratzen zaion, argitu gabeko galdera da oraindik. Izan ere, 120 ordu gauza askorik egiteko aski badira ere, dudarik ez dago bai ikasleok bai irakasleok hainbat alderdi ezinbesteko sakontasunaz landu edo ikutu gabe utzi izanaren sentsazioaz geratu ginela. Egin zitezkeen artean, batzuk aipatzearen, kabinetan grabaturiko geure interpreta-

zioak entzun eta iritzi orokor edo azalekoak komentatu ez ezik, emandako testu osoak transkribatzea dago, geroago haien azterketa xehea egiteko parada aberasgarria izango bait genuen horrela; edota gaztelania eta euskararen arteko konparazio/kontrastaketa egitea, lan ezinbesteko eta egin gabe dagoena, interpretarientzat bezala itzultzaile hutsentzat ere. Edota, eskatzen hasita, ikasle gutxi ginela probetxatuz, bakoitzaren puntu ahulak eta pausu okerrak zuzentzeko ariketak egitea. Zentzu honetan, ikastaroan parte hartu genuen guztiok, ikasle zein irakasle, geure kontura trebatzen jarraitzeko beharra ikusi eta hartarako hitza eman genuen, grabatutako testuak interpretatuz eta taldeka interpretazio-lan horiek aztertuz ikastaroan gureganatutako dohaiak zorrozteko. Interesgarria litzateke, hala ere, premia hauek borondatez ez ezik bitarteko egokiez ere beteko balira, etorkizunak ezustean harrapa ez gaitzan. Geure aldetik begiratuta, bi ikastaroetan ibilitakook zer ikasirik franko izan genuen ehun ordu motz horietan. Alabaina, ikasitako hori gure lanerako nahikoa ote den, edota Euskal Herriak gero eta gehiago behar eta beharko dituen interpretariak prestatu eta trebatzeko era horretako ikastaldiak aski ote diren, bestek erantzun beharko dituen galderak dira.



Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak

Jose Inazio Berasategi

Aurtengo ekainaren 8 eta 9an egin ziren Jardunaldi hauek Gasteizen, eta orain argitaratu dira han aurkeztutako hitzaldiak. Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak eta Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatuta, gai hauekin zerikusi zuzena duten hogeitamar lagun inguru bildu ziren Jardunaldiotan, jatorri eta iritzi ezberdinetakoak, Herri-Administrazioetatik, Euskaltzainditik, Unibertsitatetik... etorriak.

Jardunaldi hauen helburuak:

- Administrazio-eremuko hizkera eta terminologian euskaraz azken urteotan egindako bidea aztertzea.
- Gaur egungo egoera aztertzea eta elkarren arteko iritziak jorratzea.
- Aurrerantzerako elkarlanerako bideak jartzea.
- Terminologia lantzeko eta bateratzeko bideak eta bitartekoak zehaztea.

Sei gai eta txosten nagusiren inguruan bildu ziren iruzkin eta eztabaidak:

- 1.—Administrazioko euskararen hizkera-mailak eta terminologi arazoak. Andres Urrutiaren txostena.
- 2.—Arazo ez-linguistikoak administrazio arloko terminologian. Gotzon Egiaren txostena.
- 3.—Administrazioko terminologiaren sorkuntzarako bideak. Andoni Sagarnaren txostena.
- 4.—Hizkuntza bakarretikako itzulpenez eta bestez. Ibon Sarasolaren txostena.
- 5.—Administrazioko terminologia eta inguruko arloekiko harremanak. Araceli Diaz de Lezanaren txostena.
- 6.—Administrazioko euskararen terminologia bateratzeko erizpide eta bideak: lantzekoak eta antolakuntzazkoak. Eneko Oregiren txostena.

Bi egunetan zehar eztabaida zabal baterako bide eman zuten txosten hauek eta mota askotakoak izan ziren ekarpenak, administrazioko hizkera eta terminologiaren gaiari zuzen-zuzenean lotuak batzuk, gaia bere zabaltasun osoan ukitzen zutenak beste zenbait. Horiek nolabait laburbildu beharrez eta, zenbait gauza interesgarri alhora uzteaz gain, orokorregi gertatu eta jardunaldiotako ekarpenen zehaztasuna gutxieteko arriskuz bada ere, honako puntuok azpimarratzera ausartuko nintzateke neu:

a) Jardunaldiotako giroa bera. Hainbat urtetan zehar gai hauetan nagusi izan dugun zatiketaren gainera, bildu eta lasai eztabaidatzeko aukera izan da egun hauetan. Bakoitza bere bidetik ibili ondoren azken urteotan elkarren arteko bide bat, nolabaiteko elkargune bat sortu dela esan daiteke eta horren gain beste urrats batzuk emateko giro egokiagoa nabari da orain. Horretan oinarritu dira Jardunaldiok eta, inork bere iritzia mugatzen ibili gabe, lasaitasun eta zabaltasun haundiz eztabaidatu ahal izan dira gaiak. Azkenean honelako foruak sarriago antolatu beharra ere argi utzi duenik izan da.

Terminologi lanak emaitza onak izan ditzan erabiltzaileen arteko adostasuna landu beharra dago oinarri-oinarrian. Terminologian

adostasuna ez da batez ere irizpide kontua, baizik eta onartze eta partaidetza-kontua eta hori lortzearren elkarlanerako, jadanik urratutako bideen azterketarako eta guztion partehartzearen bidez landutako gomendioetarako bide eta bitartekoak jartzea on litzake.

b) Bereziki bi arlotako jendea izan da batzar hauetan: hizkuntzaren inguruan (itzulpengintzan, hizkuntza normalkuntzan, hiztegi-gintzan,...) dabiltnak batetik eta lege-munduaren inguruan (abokatu, irakasle, notario,...) dabiltnak bestetik, eta bien arteko harreman eta tirabirak argigarri izan dira benetan.

Hizkuntzaren autonomia beharra azpimarratu zen hizkuntzalarien aldetik. Beste hizkuntzetako hitzek bide bat egin dute eta, sarritan, hasierako esanahia zabalduz, aldatuz, edo dena delakoz, esanahi zehatz bat hartu dute administrazio edo lege-munduko hizkeran. Hitz —edo hitz-kate— baten ordaina euskaraz ematerakoan ez dugu gaztelerazkoari estu-estu lotu beharrik; horren mezua, inguruko hizkuntza nagusiak (frantsesa, ingelesa, alemana eta katalana kasu) ere kontutan izanda, eta euskaldunak eta euskarak, hizkuntza gisa, behar duen autonomia, duintasuna eta batasuna (eta honetan Iparraldea ere kontutan hartu beharra aipatu zen behin eta berriro) gogoan izanda urratu behar dira bideak eta irtenbideak. Administrazio-munduen artekoa izan behar du itzulpenak hizkuntzen artekoa baino gehiago. Azken finean hitzen artean konbentzio-sare bat antolatu behar da eta konbentzio-sare hori euskararen izaerari eta euskaldunaren adierazpen-beharrei erantzunaz antolatu behar da. Konbentzior ulertzen da esanahia zer den eta konbentzio horiek euskaraz ere landu behar ditugu.

Zuzenbidearen alorrean hitza jadanik mugatua izatea, eta haren esanahia zehatz-mehatz eman beharra ziurtasun juridikoa ez galtzeko, azpimarratu zuten berriz legelariak. Hizkuntzalariak nahi adinako askatasunik ez legoke hemen eta erdarazko (eta, gure kasuan, gehienbat gaztelerazko) hitz bakoitzari euskaraz ere ordain zehatz eta bakar bat eman beharra azpimarratu dute. Arau, doktrina eta jurisprudentzia hitzek garrantzi berezia dute eta hauetan euskarak inolako maniobrabilitaterik ez du.

Bai batzuk eta bai besteak bat etorri dira, ordea, elkarrekin saiatu beharraz. Administrazio eta lege-munduko hiztegia lantzeko hizkuntzalariek eta legelariak batera lan egin beharko dute. Guztion artean osatu beharko da konbentzio-sare hori nahiz eta bat etorri ez zenbaitetan sare horren autonomi mailan.

c) Administrazioan erabiltzen den hizkerak eta hiztegiak maila asko ditu eta horiek ongi bereizi beharra dago, guztiei ezin zaizkie eman eta irtenbide berberak.

Politikagintzaren, epailaritzaren, legegintzaren, administrazioaren hizkerak berezi daitezke batetik, baina baita zuzenbidearen hizkera zientifikoa, arau eta kontzeptu juridikoak, arau juridikoen exekuzioa eta, azkenik, administrazioak herritarrekiko harremanetan erabiltzen dituen hainbat informe, gutun, jakinerazpen... ere. Bakoitzak bere ezaugarri eta lotura bereziak ditu eta bakoitzean, eta batipat itzulpenetan, jokamolde eta irizpide ezberdinak erabili beharko ditugu.

Hiztegi kontutan ere antzeko zerbaite dugu. Espezialitateko hizkuntzak eta bere nomenklaturak aztertzen dituen zientzia-teoriatzat hartzen badugu terminologia, administrazioan —eta administrazio-ko zenbait mailatan bereziki— darabiltzagun hainbat hitz hiztegi arruntari dagozkionak eta hizkuntza standardaren hurbilekoak dira; batzuetan eta bestetan ezin beraz berdin jokatu, eta kasu bakoitzean non gabiltzan oso ondo jakin beharko dugu.

Bestalde, berriz, administrazioak oso esparru zabalak hartzen ditu bere baitan eta alor bakoitzeko adituekin elkarlanerako bideak jartzen ahalegindu beharko du. Termino askok (saila, sailordetza, adz.) erabilera-eremu espezifikoa izango du administrazioan; beste askorentzat (pagadi, hegazkin, adz.) berriz, erabilera-eremu atxekia izango da eta, beraz, oso kontutan hartu beharko dira hauen erabile-ra-eremu espezifikoetan gerta daitezkeen garapenak.

d) Hitza ez da bere hartan hutsean hartu behar ingurukoarekin zerikusirik ez balu bezala. Diskurtsuaren baitan du lekua terminoak eta diskurtso osoari erantzun behar dio. Termino artean dagoena, dis-

kurtsuaren egitura, begiratu behar da, askotan eragozpenak ez bait datoz terminoetatik, terminoen arteko loturatik baizik. Eta horren adibidetzat administrazioko hizkeran esapide, esaldi, hitz-kate edo lokuzioek zernolako maiztasuna eta garrantzia duten ikusi besterik ez dugu. Bestalde, hizkuntza batetik bestera igarotzerakoan —eta gehiago oraindik euskara eta gaztelera bezain hizkuntza ezberdinen kasuan— kategoria gramatikal bakoitza bestean kategoria berberaz zertan emanik ez da; aspaldiko baliabideak ditugu trasposizioa, parafrasia eta beste hainbat.

Askotan legea eta ekintza administratiboa itzultzen ari gara eta ez bitarteko diskurtsua, —esate baterako, literatura juridikoa—, eta hortik datozkigu arazo asko; euskaraz sortuko bagenu errazago iritsiko ginateke ziur aski zehaztasunera eta lehen aipatutako konbentzio-sare hura osatzera. Eta hemen ezin aipatu gabe utzi Legebiltzarrean ere lege-proposamenak eztabaidatzerakoan euskararen erabilpenak lukeen garrantzia.

e) Eta hain zuzen ere, administrazioan euskarak dituen arazo nagusiak ez datoz terminologiatik, erabilpen eskasetik baizik. Administrazioko terminologia ezin dezakegu estu-estuaz aztertu, terminologia horien erabiltzaileak eta erabilguneak kontutan izan gabe, eta bide honetatik abiatuta, terminologiak beregaintasun apala du; hizkuntza gaitasunaren arazoa da nagusi; hiztunen mintzagaitasun ahul, erasan eta kaskarra da, sarri eta neurririk handiengan, benetako arazo-iturria.

Honi aurre egiteko, euren artean nahiz herritarrekiko harremanetan, bere lanean euskaraz jardungo duten administrazio-guneak antolatu behar dira. Euskarazko erabilpenaren eta sorkuntzaren bidetik abiatu behar dugu orain arterainokoan baino askoz ere kemen handiagoz. Eta Administrazioari buruz esandakoak inguruko beste hainbat alorretarako ere balio du. Euskaraz administrazio-eta lege-literaturarik sortzen, erabiltzen eta ezagutzen ez dugun bitartean itzulpenaren, eta neurri haundian gaztelaren, morrontzaketik irtetzea oso zaila izango zaigu.

f) Terminologiaren arazoa itzulpengintzaren eskutik datorkigu askotan eta itzulpeneko lan-baldintzak berriz oso txarrak dira gehie-

netan. Itzulketaren emaitza eta horren eraginari dagokion heinean administrazioko euskara hobetu nahi badugu, alde askotatik eragin beharra dugu:

- Itzultzaileen eta administrazioko langile (eta batez ere teknikari eta testu-sortzaileen) prestakuntza hobetzeko bideak jarritz.
- Euskarazko administrazio-testuen azterketarako bideak ugaritu eta aniztu behar dira, Unibertsitatearen eta hizkuntza erakundeen laguntza ere bideratuz.
- Itzulpengintzaren antolakuntzazko baldintzak erabat hobetu behar dira, testua sortu duenarekin harreman zuzenean jarritz itzultzailea eta lanerako bitarteko egokiak eskainiz.
- Itzuli behar diren testuen kalitatea hobetu behar da eta testua sortzerakoan nahiz itzultzerakoan kontutan izan behar dira hartzailearen nolakotasuna ere, honen baldintza soziolinguistikoa oso gogoan izanik.

g) Antolakuntza aldetik irizpideak bateratzeko eta batera jokatze bideak jarri beharra txosten eta iruzkin batean baino gehiagotan azpimarratu arren proposamen zehatzak ere eginaz, azkenerako utzi eta puntu hau ez zen sakon aztertu eztabaidetan. Aipatu dugu jadanik honelako forumak maizago antolatu beharra. Horrez gain ordea, antolakuntza sendoagoak beharko lirатеke hainbaten ustez.

Antolakuntzan atal bat baino gehiago berezi beharko lirатеke; hiru behintzat:

- 1.-Terminologia lantzen duen taldea edo taldeak, terminologilari eta adituz osatuak.
- 2.-Kontsultategia eta honen azpiegitura, terminologiako datubanku eta guzti.
- 3.-Erabilpenerako erabaki, gomendio eta proposamen bateratuak egingo dituen taldea.

h) Egun hauetan administrazioko hizkera eta terminologia lantzeko irizpideez jardun genuen gehienez, eta kasuistikara oso sa-

rritan murgildu arren, helburua ez zen hitzez-hitz eztabaidari ekin eta adostasunera iristea. Argi dago ordea, irizpideetan bat etorri arren gero irtenbide konkretuetan orpoz-orpo topo egiten dugula. Eta behin baino gehiagotan nabarmendu zen hori ere.

Horregatik, hitzez-hitzezko eztabaidarako bideak ere jarri beharra legoke, aurreko puntuan aipatutakoak edo bestelakoak. Lehenik hitz, esaldi eta esapideen onargarritasun edo "euskalduntasunaren" irizpide-sail edo baremo modukoren bat aztertu beharko litzateke eta, gero, hori aplikatuz, hitzez-hitzezkoari ekin. Eta ildo horretan han zenbait proposamen eta eztabaida izan arren, bide hori eginkizun geratu zen gehienbat.

Beste puntu asko ere aipa genitzazke baina niri puntu hauek iruditu zazkit hemen gogoragarrienak. Nolanahi ere, argitaratu berri da txostenak, txostenei partaide bakoitzak egindako iruzkinak eta elkarrizketan izandako eztabaida eta ekarpen nagusiak biltzen dituen liburua eta hara jo beharko du zehaztasun gehiago nahi duenak.

Edonola ere urrats berri bat izan dira Jardunaldi hauek. Gai asko eta garrantzitsuak mahaigaineratu ziren eta elkarlanerako giroa egokia, duela urte batzuk mundu honetan nabari zitekeen baino hobea, izan daitekeela gaur egun erakutsi zuten. Arazoak eta akatsak non aurkituko ditugun ere ongi nabarmendu zen. Eta bide honek aurrera egin behar du oraindik fruiturik emango badu. Agintaritzak du orain herronka hor esandakoak bereganatu eta irtenbide bat eskaintzeko. Lantalde bat sortua da jadanik zenbait erakundee-tako ordezkari osatua, han aztertutakoa jaso eta, administrazioko hizkera eta terminologiari dagokionez, hiru punturen inguruan proposamenak egin ditzan:

- Terminologi alorrean zer behar izan ditzake administrazioak datozen urteotan.
- Administrazioak terminologia, eta hizkuntza eredu bera, bateratzeko zernolako bideak erabil ditzake.
- Egitasmo hori burutzeko zernolako egitura antolatu behar du administrazioak eta zernolako harremanak behar ditu termi-

nologia eta hizkuntza-ereduen inguruan lanean hasi diren pertsona eta erakundeekin.

Gai honek izango dituen aurrerabideez eztabaidatzeko aukera berririk ere izango al da beraz! Eta partaide batek azaldu bezala, hor dugu berehala Larramendiren ehunurteurrena, gai hauen jorratzeari berriro ekiteko aukera ezin hobea eskain dakigukeena.

SINTESES

Encuentros sobre lenguaje administrativo y terminología

Estos encuentros se celebraron los días 8 y 9 de junio en Gasteiz, organizados por el Secretariado de Política Lingüística y el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP). En él se reunieron profesionales de distintas procedencias (Euskaltzaindia, Administraciones locales, Universidad) y diferentes criterios, que de una manera u otra tienen relación directa con estos temas.

Los objetivos de los encuentros eran:

- analizar la labor llevada a cabo sobre estos temas durante los últimos años.
- analizar la situación actual, e intercambio de distintos puntos de vista.
- poner los medios para realizar una labor conjunta en el futuro.
- determinar los medios para elaborar y unificar la terminología.

Las discusiones se llevaron a cabo alrededor de seis ponencias:

- 1.- Niveles del lenguaje administrativo y problemas de terminología. Andrés Urrutia.
- 2.- Problemas no lingüísticos en la terminología del campo administrativo. Gotzon Egia.
- 3.- Medios para la creación de la terminología de la Administración. Andoni Sagarna.
- 4.- Sobre la traducción a partir de una sola lengua y otros asuntos. Ibon Sarasola.
- 5.- La terminología de la Administración y sus relaciones con campos próximos. Araceli Díaz de Lezana.

6.- Criterios y medios para unificar la terminología del euskara de la Administración. Eneko Oregi.

Uno de los aspectos más interesantes de este encuentro fue que en él se contrastaron los puntos de vista casi divergentes de lingüistas y juristas: los primeros abogaban por la autonomía de la lengua, subrayando que la traducción, más que entre lenguas, ha de ser entre las distintas Administraciones; por ello, teniendo en cuenta que trabajamos con convenciones, hemos de tratar de crear redes de convenciones en euskara. Los juristas, en cambio, resaltaban la necesidad de la precisión terminológica, y de términos jurídicos estrictamente equivalentes a los, en nuestro caso, del castellano, lo que iría en contra de la antes mencionada autonomía lingüística.

En cualquier caso, se subrayó que el problema terminológico es también un problema de discurso, es decir, que hay que situarlo en un contexto más amplio que el puramente léxico; y si fuéramos capaces de crear ese discurso en euskara, sin limitarnos a la traducción, llegaríamos antes tanto a la deseada precisión como a la creación de la red de convenciones de la que hablan los lingüistas; aunque, dada la importancia de la traducción en este campo, también se insistió en la necesidad de poner todo tipo de medios para mejorar las condiciones de trabajo del traductor.

Estos encuentros han constituido un paso importante en este tema, con un intercambio de distintos criterios nuevo e importante. Además, de él ha surgido un grupo de trabajo que va a continuar trabajando regularmente en este campo.

SYNTHESIS

Meetings on Administrative Language and Terminology

These meetings took place on 8th and 9th June in Vitoria. They were organized by the Secretary of Linguistic Policy and the Basque Institute of Public Administration (IVAP).

Different professionals attended these meetings. People from the Basque Academy of Language (Euskaltzaindia), Local Administration, the University, etc: all having in one aspect or another a direct relation with this subject. The objectives of these meetings were:

- to analyze the work carried out on this subject in recent years.*
- to analyze the present situation.*
- to exchange different points of view.*
- to take the necessary measures towards working together in the future.*
- to determine the means by which the elaboration and unification of the terminology should be attained.*

Discussions were held on six reports:

- 1. Levels of Administrative Language and Terminology Problems.*
- 2. Non-linguistic Problems in Terminology within the Administrative Field.*
- 3. Means for creating Administrative Terminology.*
- 4. Translation from only One Language, and other Matters.*
- 5. Administrative Terminology and its relation to neighbouring fields.*
- 6. Criteria and Means to unify Administrative Terminology in Basque.*

One of the most interesting aspects of this meeting was the contrast between the almost opposite points of view between the linguists and the jurists. The former advocated the autonomy of the language insisting that the translation rather than being between languages should be between administrations; for this reason, and bearing in mind that we work with conventions, we must try to create networks of conventions in Basque. The jurists, on the other hand, pointed out the need for terminological precision, and for legal terms exactly equivalent to those in Spanish which would go against the aforementioned linguistic autonomy.

Nevertheless, it was said that the problem of delivery, which means that it should be looked at from a viewpoint which is wider than the purely lexical one; and if we could create this type of language in Basque without having to resort to translation we would achieve both; the so longed for precision one and the creation of a network of conventions, the one the linguists talk about: Although bearing in mind the importance of translation in this field, also insisted upon was the need to provide all kinds of means in order to improve the conditions of work of the translator.

These meetings have meant an important step forward in the subject, with a new interchange of different opinions and the birth of a work team which is going to continue working regularly in the field.

Klasikoen itzulpen plana dela eta

Juan Gartzia

Euskal Gobernuak klasikoen itzulpengintzarako eratu duen lehiaketan epaimahaiko gertatu izanak eragin dizkidan zenbait burutazio ekarri nahi nituzke orriotara, hain errebindikazio zahar sentitua mamitzen hasi den honetan, nondik abiatu garen eta zertara behar genukeen interesatu guztion artean berandu baino lehen erabakitzen laguntzeko asmoz.

Antolaketari dagokionez, ohi bezala, epeak gainera etorri eta azkenean prozesu guztia behar litzatekeen baino presa handiagoz burutu ote den nago. Burokrazi arazorik ere izan da tartean, lizentzia fiskalen gorabehera zela eta, eta kontu hori negoziatu aurreko eta ondorengoak bi txandatan onartu dira, bakoitzean zentzuak eskatzen duen baino asti-patsada gutxiago izan delarik epaitzerakoan lan bakoitzari zor zitzaion arreta guztia eskaintzeko. Hizkuntza "exotiko"-etatiko itzulpenak juzkatzeko arazoa ere ez dago behar bezala konpondurik. Plana abiarazteko premiak barkagarri egingo ahal ditu akatsok.

Aurkezturiko lanen kalitateari dagokionez, hona nire iritzia (nire-nirea, noski):

Badago itzultzaile mordoska bat plangintza horrek ustez bete behar lituzkeen gutxieneko baldintzak ziurtatzeko gauza dena, alegia, orain arteko euskal itzulpenen izen txarrari buelta emateko baliogarri izan daitekeena. Gure itzulpen bekatu ohizkoak hauek dirateke:

- Testu itzuliak “ez du funtzionatzen”, ez da irakurketarako baliogarri. Baina bada oraindik “nolanahi” itzul daitekeela uste duenik, eta halako irakurle espartano bat eskatzen duenik, bere bihurrikeriak, ezinbestekoak izatez gain, irakurlearen arazo balira bezala jokatzeko duenik. Gure egoeran, alderdirik larrirentzat daukat nik hori, gure asmoak itzulpenok liburu-apaletan hautsa biltzetik harago badoaz, behintzat.
- Estiloaren gehiegizko neutrotasuna. Testu teknikoetan ohiturik edo, hainbatek tonu berbera darabil edozertarako. Ez hinkuntz maila, ez erregistro, ez dramatismo, ez bizitasun narratiborik... Bakarren bat oraindik konturatzeke badago, garbi esan behar da ez dagoela tresneria eta trebakuntza berdinez testu pragmatiko bat eta literatura itzultzerik, paretak pintatzeko egoki den brotxa lodi arruntez matiz delikatuzko koardorik nekez egin litekeen moduan. Hau ere garrantzizko kontutzat daukat, bai itzulpen konkretu bakoitzaren kaliterako eta bai gure literatur mundutxoaren aurrerabiderako. Izan ere, sortze lanetan ere horretan hain eskas gabiltzanez, itzulpen bidez zabaldu eta aberastea genuke aukera aproposa.
- Jatorrizkoarekiko leialtasunaren gorabehera. Orohar, badirudi kasu honetan bekatu zaharra garbitzeko bidean bekatu berritara makurtu ote garen. Jatorrizkora gabe gaztelerazko itzulpena oinarri hartu eta hari estu-estu loturik ohituak ginen, jakina. Fideltasun asmo berberak dirau, eta egoki da hala izan dadin, jatorrizkotik ari garela. Kontua da ea “estu-estu loturik” hori nola hartzen den, zeren itzulpen leialtasuna baliokidetasun kontua bait da, literaltasun kontua bainoago. Lehengo tarteko itzulpenaren errebotetzko desbideratze bixiak ebitatzen badira ere, literalegitasunak ez dio mesederik

egiten itzulpenari. Zoritxarrez, baliokidetasun ez literalak ego-kiagoak bilatzeak sena eta imajinazioa eskatzen dute —bai eta denbora ere—, garesti dabiltzan jeneroak izanik (itzulpenon prezioaz ere balegoke zer esanik...).

- Hankasartze arruntagorik ere egon ohi da gure itzulpenetan, eta badago aurkeztu direnetan ere: ortografia, morfosintaxia, joskera, espresioa, itzulgaia oker ulertze eta okerrago ematea... baina isil ditzadan, hipokritenak ere aitortua bait du gure egoeraren eskasa, inori koloreak ateraraz ez diezazkiodan. Tamalgarri zait, hala ere, bestela itzulpen egoki direnak ere, arreta handiagoz orrazten ez badira, oker arrunt puntua-lez apainduak argitaratuko direla pentsatzea: ez dakit munduan beste herririk dagoen praktikan hizkuntz zuzentasuna hain axola gutxi zaionik. Nik neuk, korriente dabilen jarrera anarko-zabarzalearen kontra, zuzentzailearen figura errebin-dikatzen dut berriro lerrootatik, bai bait dirudi idazle eta itzul-tzaileentzat gehiegiko zama dela zuzen idazten ere (!) jakitea.

Esana dut gorago, badagoela —edo hala iruditu zaidala— itzul-tzaile multzo bat onik ateratzen dena azaldu dugun oztopo-froga horretatik. Euskal Gobernu eta gizarteak benetako asmo sendoa balute euskal kulturaren premia horri behar bezala erantzuteko, hala ere, ongi pentsatu beharko lukete nola jokatu etekinik onena ateratzeko. Hasteko, onak gutxi dira, eta lehiaketak ez du onartzen itzulpen bana baizik ematerik. Aukeratuenean behintzat, hain genero bakana izanik, mereziko lukete —etekinak mereziko lukeela esan nahi dut— dedikazio osoan jardutea, ez orain askotan bezala ia enblematiko gertatzen diren lan mekanikoetan, literatur itzulpengintzan baizik. Horixe bait da oraingo martxa: halakoak udal aktak edo itzultzen, eta literatur itzulpena, berriz, bi sotesan egiteko prest dagoen edozeinen eskutan.

Antolaketak antolaketa, eta itzultzaileon alderdiak boterera iritsi zain, bagenuke guk ere, Elkarteak eta norberak, erantzukizun eta egitekorik. Plangintzaren lehen entrega honek aitzakia polita ematen digu geure literatur itzulpengintza konplexurik gabe kontrastatu,

eztabaidatu eta irizpide bateratze bat saiatzeko. Halako mintegi batek, bide batez, mesede egin liezaguke, ez bakarrik geure itzulpen lanetarako, baizik eta besterenak epaitzeko ere. Hala beharko bait dugu, goragoko katedrarik ez dagoen bitartean behintzat.

Euskal Autonomi Elkartzeko Itzulpen- Zerbitzu Ofiziala sortzekotan

Eneko Oregi Goñi
H.A.E.E.

Euskal Herriko administrazioetan itzulpen-lanak dituen ajeak eta arazoak, latzak eta larriak izanda ere, aski aztertuak eta, itzultzaile-giroan, kasik topiko bilakatuak ditugu honezkeru. Topiko izan arren, urteak joan eta urteak etorri, ez zitzaizen irtenbide egokirik ematen eta etsipenak jotako itzultzaileak behar baino gehiago ugalduta dira azken urteotan gure artean.

Eusko Jaurlaritzak oraingoan aldarrikatu duen ekinbideak, hots, HAEE-IVAP-en baitan Itzulpen-Zerbitzu Ofiziala sortzekoak, zenbait esperantza eragin du, berria zabaldu bezain laister. Planteamentuak, nik ezagutzen dudana neurrian, ez du berritasun haundirik. Europan zehar eta mundu zabalean aspaldi diharduten zerbitzuen parekoa da, hitz bitan, honako helburu hauekin:

- Eusko Jaurlaritzaren Lege-egitasmo guztiak euskaratzea;
- Euskal Autonomi Elkartean kokatutako administrazio ororen adierazpen eta mezuak euskaratu nahiz gazteleratzea;
- Epaigintzari lotutako agiri eta paperak itzultzea;
- Inork agindutako itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetzatza egiaztatu eta ziurtatzea;
- Epaitegietan eta administrazio-bileretan interpretaritzatza egitea;

- Administrazio guztietako itzultzaileei laguntza ematea, arazo zehatz eta jakinekoei erantzunaz.
- Euskal lege eta administrazio-terminologia biltzea eta, aztertzea, erabilerarako arteztarauak landuz eta finkatuz.

Horretarako, zerbitzuak bi atal lituzke, Itzulpen eta Interpretaritza-atala eta Terminologia-Datutegia. Itzulpen eta Interpretaritza-atalak, bere aldetik, itzultzaile eta zuzentzaileez osatutako lau lantalde izango lituzke, eta Interpretari-buru eta interpretariz osatutako bat.

Nire ustez, zerbitzu berri hau taxuz antolatuko balitz, itzultzaileei behar-bezalako lan-aitorpena emanaz eta tresneria eta baliabidez hornituz, aurrerapauso ederra litzaziguke administrazio eta legemunduan itzulpengintzan gabiltzanoi:

- Hainbat urtetako eskarmentua eta hainbat itzultzailearen ahalegina baterabildu, azterbidean jarri eta garatzeko modua eman go lukeelako, itzulpen ofizialaren erdigune eta biltegi izanez.
- Administrazio askoren itzulpen-beharrei modu arrazoizkoagoan erantzuteko ahalbidea eskainiko lukeelako, administrazio bakoitzean oso noizean behin egiten diren zenbait lanetarako (interpretaritza, kanpainak, oso testu teknikoak) bide egokia emanaz.
- Terminologia-datutegi apropos bat eskainiko lukeelako, itzultzaile orori irekia eta itzultzaile guztion laguntzaz gizenduko litzatekeena.
- Eta, azkenik baina ez azkenekoz, herritar euskaldunei administrazioarengandiko euskarazko zerbitzua ahalbideratuko lukeelako, besterik ezean. Auzitegietan, bereziki, euskalduntze-lanak aurrera egiten dueino, behar-beharrezkoa dugu itzulpen eta interpretaritzaren bidez bermatzea euskaldunen esku-bidea.

Horregatik, eta itzulpen-lanaren gizarte-balioa gehituko den esperantzan, itxaropentsu nauzue egitasmo honekin. Geroak esan beza.

Itzulpen sariketak eta beste

Ugalduz doaz azken urteotan Euskal Herrian itzulpengintzaren inguruko sariketak, beka, diru-laguntza eta honelakoak. Artikulu honetan, gainerik besterik ez bada ere, hauen nondik norakoa eta azken hiru urteotako emaitzen berri ematea da. Besterik izan bada ere, honako hauek izan ditugu ezagunenak:

Euskadi saria

Antolatzaile: Kultura eta Turismo Saileko Ondare Historiko-Artistikoaren Zuzendaritza.

Xedea: Honela dio 1989ko ekainaren 26ko aginduko 7. artikulua: «Itzulpenaren “Euskadi” Saria 1988. urtean zehar argitaratutako eta edozein hizkuntzatatik euskarara egindako literatur itzulpenik nabarienari emango zaio».

Epaimahaiak Itzulpenaren “Euskadi” Saria Xabier Mendigurenek Robert Laxalt-en **Sweet promised land** obratik egindako ***Dominique artzain xiberotar bat Nevadan*** izeneko itzulpen lanari ematea erabaki zuen, saria 800.000 pezetakoa izanik.

Iokin Zaitegi III Itzulpen Laburren Sariketa

Antolatzaile: Arrasateko AED Elkarte.

Xedea: Orohar, sariketa honen ezaugarriak munduko edozein hizkuntzatatik -gazteleratik izan ezik- itzulitako lanak izatea, jatorrizko testuak azken hiruzpalau urteetan argitaratuak izatea, gai jakin bati buruzkoa izatea eta gutxienez 12 eta gehienez 25 orrialdekoak izatea dira.

1987.ean «Bizimoduaren Hobekuntza» izan zen gaia eta Juan Martin Elexpuru saritua. 1988an «Biogenetika», eta Maider Etxaideri eman zioten saria. Aurtengoa «Soziolinguistika» da eta azpimarratu behar da aurten Aurrezki Kutxa Munizipalaren laguntza izan dutela Udalaren babesaz gainera.

Orixe Saria

Antolatzaile: Gipuzkoako Kutxa.

Xedea: Honela diote deialdiko lehenengo bi oinarriek:

Lehena: «Literatur obrak behar dute izan, klasikoak eta/edo modernoak. Epaimahaiak batez ere obra hauen interesgarritasunari erreparatuko dio, berauen gaia, idaztankera eta onarpen-ospea kontutan harturik».

Bigarrena: «Lau literatur genero hauetariko batekoak behar dute izan: elaberria, olerkia, saiakera edo antzerkia».

Aurrekoak bezala, hirugarren urtea bete du aurten sari honek ere. 1987an honako hauek izan ziren sarituak: Flaubert-en **Mme. Bovary**, Patxi Apalategik itzultzekoa, nahiz eta gero itzuli gabe geratu den; Navokov-en **Lolita**, M^a Jose Kerejetak aurkeztua; Marguerite Duras-en **L'amant**, Roger Lubianok proposatua; eta T. Mororen **Utopia**, Piarres Xarritonek itzultzekoa.

1988an honako beste hauek, berriz: Friedrich Nietzsche-ren **Honela hitz egin zuen Zaratustrak**, X. Mendigurenek proposatua;

Truman Capoteren *Gosaria Tiffaniy's-en*, K. Navarroren ardura-pean; XX mendeko ingelesezko 200 poema onentsuenen antologia, Ruper Ordorika, A. Garitano eta Bernardo Atxagak egitekoa; eta azkenik J.D. Salinger-en *The Catcher in the Rye*, Iñaki Iñurrieta-rentzat.

Aurten 23 obra itzultzeko proiektuak aurkeztu dira eta abendua-ren erdi aldera jakineraziko dira saritutakoak eta irabazleei jakinera-zi eta gero bi urteko epea izango dute lan horiek burutzeko.

Bizkaiko Aldundiarena

Antolatzaile: Bizkaiko Aldundiaren Kultur Hedapena.

Xedea: Erakunde honek antolatzen dituen literatur lehiaketen barruan itzulpengintzari ere leku bat egin diote azken hiru urteotan. 1987an Margueritte Yourcenar-en obra baten itzulpen lanak jaso zuen saria. 1988an Iñaki Ibáñez-ek Graham Green-en **El tercer hombre**-ren itzulpenak. Eta 1989.ean, Elhuyar taldeko J. I. Abris-keta eta I. Irazabalbeitiak egindako I. Assimov-en **The universe** obraren itzulpenak.

Eusko Jaurlaritzaren Bekak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Ondare Historiko-Artisti-koaren Zuzendaritzak honako beka hauek banatu ditu aurten:

Itzultzaile profesionalentzat: Diru-laguntza: 650.000 pta. Beka jaso dutenak: Ramon Etxezarreta, Eduardo Blancoamor-en **A Esmorga** itzultzeko; Tahar Ben Jelloun-en **La reclusion solitaire** itzultzeko, Begoña Montorio; Nikos Kazantzakis-en **Alexis Zorba** itzultzeko, Luis Berrizbeitia Agirre; eta Juan Mari Mendizabal, Karen Blixen-en **Patuaren anekdotak** euskaratzeko. Itzultzaile hasberrientzat: Diru-laguntza: 250.000 pta. Beka jaso dute: **Esta es nuestra fe. Teologia para universitarios** itzultzeko, Kepa Mujikak. Alexander Bengoetxeak, **The strange case of Dr. Jeckill and Mr. Hyde** euskaratzeko. Machado de Assis-en **O Alienista**, Joseba

Urteagak itzultzeko; eta azkenik, Milán Kunderaren **Smene Laski** itzultzeko, Carlos Cid Abasolok.

Literatur Ondare Unibertsala Euskaratzeko proiektua

Eusko Jaurlaritza, Editoreen Elkarte eta Itzultzaileen Elkartearen artean literatur ondare unibertsala euskaratzen hasteko asmotan sinatutako komenioa gauzatzen hasi da; aukeratu dira jadanik lehenengo bederatzi obrak itzuliko dituztenak.

Hona aukeratutako obrak eta itzultzaileak: Chejov-en **Ipuinak**, Xabier Mendiguren; Joseph Conrad-en **Ilunpearen bihotzean**, Iñaki Ibáñez; Jonathan Swift-en **Gulliver-en bidaiak**, Iñaki Mendiguren; Edgar Allan Poe-ren **Ipuinak**, Migel Anjel Unanua; Gustave Flaubert-en **Madame Bovary**, Patxi Apalategi; Rudyard Kipling-en **Kim**, Koro Nabarro; Mark Twain-en **Huckleberry Finn**, Aintzane Ibarzabal; Hamsum-en **Gosea**, Juan Mari Mendizabal; eta Prévost-en **Manon Lescaut**, Antxon Narbaiza.

Mikel Garmendia

Testu Filosofikoen itzulpenak

Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailaren eta Filosofia eta Hezkuntz Zientzietako Filosofia Sailaren artean hitzarmen bat sinatu da testu filosofikoen itzulpenerako. Filosofia Sailaren Zuzendaria, Zorroagan, Dr. Victor Gomez Pin Irakaslea da, eta honetan itzulpen proiektuaren arduraduna ere bera delarik Unibertsitatearen aldetik, erantzulea berriz Eusko Jaurlaritzaren aldetik Josu Legarreta Jauna da, Euskara Arazoetarako Zuzendaria, Kultura eta Turismo Sailean.

Proiektuaren markuari “**XVII eta XVIII mendeetako testu filosofiko laburren itzulpena**” deritzo. Zehazkiago, ondorengo testuok dira Eusko Jaurlaritzak Filosofia Sailari itzultzeko enkargatuak:

DESCARTES: Méditations métaphysiques

SPINOZA: Ethica I

LEIBNIZ: Discours de Métaphysique, Systeme nouveau de la nature, Principes de la Nature et de la Grace fondés en raison

ROUSSEAU: "Diskurtsu" biak

HOBBS: Pasarte hautatuak

BERKELEY: Treatise Concerning the Principles of Human Knowledge

HUME: Enquiry Concerning Human Understanding

SHAFTESBURY: The Moralists

TOLAND: Letters to Serena

Eusko Jauraritzaren Kultur Sailak lan honetarako koordinatzaile bat edo gehiago izendatuko ditu, ahal bada Filosofia eta Hezkuntz Zientzi Fakultatearen onespenerekin.

Itzulpen kalitatearen kontrola: Filosofia Saileko irakasleek edo/eta beraiek izendatutako hirugarren batek hartuko dute beren gain itzulpenaren kontrola (sinatutako Hitzarmenaren A.1 eta A.3 klausulak).

Itzulpenak egin eta entregatzeko epea: 1989ko abenduaren 31 baino lehen.

Xabier Apaolaza
Filosofia Saileko Idazkaria

UBI mailako filosofi testuak euskaratzeko proiektua

Fakultate, Goimailako Eskola Tekniko eta Unibertsitate-Ikaste-gietara sartzeko gaitasun-probei buruz Espainiako Hezkuntza eta Zientziarako Ministraritzak 1987ko irailaren 3an emandako aginduak ezartzen zuenez, aipatu proba horien artean —selektibitateko azterketetan, hitz arruntagoetan esanda—, filosofia ikasgaiari zego-kionean, testuak erabili behar ziren hurrengo ikasturteetan, ikasleari galderak egin eta testu-iruzkina edo testuaren inguruko idazlana eginerazteko; gauzak horrela, ordurarte erabiltzen zen gai-zerrendaren sistema alde batera uzten zen, eta ondorioz UBiko ikas-egitaraua bera eta hura emateko modua ere egokitu beharra zegoen, ikasleak ondo prestatuta joango baziren azterketa egitera. Gauzak horrela, ikaskizunak ikuspegi berriaren arabera moldatu behar izateaz gainera, estatuko komunitate elebidunetan arazo gehigarria sortzen zen testu horiek gaztelaniaz ez ezik, lekuan lekuko hizkuntzaz ere paratu beharko zirelako. Gure artean, esaterako, apenas zegoen filosofo klasikoen ez eta modernoagoen lanik euskaraz, halako moldez non ezinbestekoa bait zen UBI mailako egitarauan erabiliko ziren testu guztiak itzultzea. Horri gehitu behar, gainera, berez filosofiaren irakaskuntzak euskal ereduetan euskarazko testu bateratu egokien beharra zuela, gero eta handiagoa izan ere.

1987-88 ikasturtean ezin izan zen selektibitatearen aldaketa hori praktikara eraman, ez gaztelaniazko ez euskarazko azterketetan. Baina 1988. urtean Xabier Palacios, Gasteizko Filologia eta Geografia-Historia Fakultateko Filosofiaren Historia irakasle titularra Euskal Herriko UBI mailako Filosofia koordinatzaile izendatu eta bere bizkar hartu zuen Ministraritzaren agindua gauzatzeko lana; horrela, bada, halako testu antologia bat prestatzeari ekiteko proposamena eraman zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia Sailera, eta beste hainbat pausu eta bilera egin ondoren UBIrako filosofia egitarauaren aurreproiektu bat tajutu zen, ikasturtea bost gai nagusitan eta lau arotan —aintzinatea, erdi aroa, aro moderno eta gure garaia—

banatzen zuena, hamabi filosofo sartuta guztira: Platon, San Agustín, Descartes, Rousseau, Kant, Hegel, Marx, Nietzsche, Wittgenstein, Heidegger, Habermas eta Foucault.

Aukeraturiko testuen euskal bertsierei zegokienez, itzultzaile egokiak aurkitzean zetzan lehen zailtasun nagusia, zeren eta filosofigaien itzulpenak izatez dauzkan arazoez gainera —hizkuntza maila, lexikoa, halako hizkuntza jakin batean pentsatuak eta sortuak diren kontzeptuen bihurkera, eta abar—, jatorrizko hizkuntzetatik itzultzea bait zen planteamendua. Azkenik Zorroagako Fakultatearen birtartez lortu zen itzultzaile sorta batekin eta itzulpenen egokitasunaz —hizkuntzaren aldetik batez ere— arduratuko zen aditu batekin harremanetan jarri, eta proiektuaren alderdi praktikoari ekitea. Bien birtartean, Eusko Jaurlaritzak unibertsitate mailako testu liburuak argitaratzeko dirulaguntza deialdia egin zuen, eta hara aurkeztu zen ordura arte filosofia irakasle batzuen borondate ona baino ez zen proiektua.

Proiektuaren bultzatzaileen asmoen artean, bestalde, antologia osatuko duten testuekin batera, haiei eta haien egile eta garaiei buruzko aurkezpen-lan bana egitea ere bada, eta horretarako filosofiaren munduan Espainian eta baita kanpoan ezagun eta ospetsuak diren adituengana joko da; jakina, beste testu hauek ere bi hizkuntzetan agertu beharko dute. Dagoeneko badirudi lehen aurre-lana burutua dagoela, eta ziur aski ikasturte honetako selektibitate-azterketan lehiatu beharko dira euskal ikasleak filosofi testuok, jadanik Katalunian hangoek egin behar izan duten bezalaxe.

Esan beharrik ez dago proiektu honekin euskarazko irakaskuntzari beste tresna bat, ezinbestekoa eta zer irabazirik franko emangodiona, inguratzen zaiola. Ikasleek aukera aproposa izango dute, horrela, euskara mailarik zailenetako batera ohitzen, irakaslearen laguntzarekin, noski, eta honelako gaiez ere euskaraz pentsatzen jartzeko. Itzultzaileen eginbeharrekoak amaituta, ez dute, ez, nolana hiko lana izango bai ikasle bai irakasleek ere.

Primer Coloquio Internacional de Traductología

1989ko Maiatzak 2, 3 eta 4an, Valenciako Unibertsitateko Frantses eta Italiar Filologiako Departamentuak antolatu zituen jandunaldiok, laguntzaile zituela Generalitateko Kultura, Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritza; Valenciako Udaletxea eta Aurrezki Kutxa; eta baita ere Belgikako Frantses Komunitatearen Ministeritza.

Hirurogei itzultzaile bildu ziren Valenciako Unibertsitate Literaria, Estatu Espainolekoak gehienak eta banaka batzuk Frantzia eta Belgikakoak. Euskaldunak, Martuteneko Itzultzaile Eskolatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik bana joan ziren, eta bi EIZIETik.

Egitaraua, hiru sail nagusitan banatuta zegoen: Konferentziak, goiz partean, eta Komunikazioak eta Mahai Inguruak arratsaldean.

Hamar konferentzia aurkeztu ziren:

- 1.-**Sinonimia intralingual e interlingual** . A. López. (Valenciako Unibertsitatekoa)
- 2.-**Semántica y Traducción**. J.R.Ladmiral. (Paris X-eko Unib.)
- 3.-**Diccionarios Bilingües**. J.M. Alvar Ezquerria. (Malagako Unib.)
- 4.-**La traduction scientifique**. A.M. Laurian. (CNRS, Pariseko Unib.)
- 5.-**Traduction et pédagogie**. H. Besse. (CREDIF)
- 6.-**Traduction pédagogique**. Bruneau. (Bruselaseko I.S.T. koa)
- 7.-**Informes actuales de la significación y sus implicaciones en la traducción**. J. Murillo (Barcelonako Unib. Aut.)
- 8.-**La traduction de presse**. A.H. Ibrahim. (Pariseko B.E.L.C. koa)
- 9.-**Baudelaire o la eterna tentación del traductor español**. J.Bravo. (Gaztela-Mantxako Unib.)

10.- **Los estudios de traducción en España: estado de la cuestión.** J.C. Santoyo. (Leongo Unib.)

Komunikazioak, hiru sail nagusitan banatuak zeuden: Itzulpen literarioa, Semantika eta Itzulpena, eta Itzulpen zientifiko eta teknikoa. Hauentzat areto bana antolatu zen eta hiruretan aldi berean, ordu laurdeneko denbora mugatuaren barruan, hamaika irakurketa azkar egin zen arratsaldeko laurak eta seirak bitartean egunotan. Aurkezleek gehiagotarako astirik ez, eta txosten oso puntual eta kondentsatuak ekarri zituzten, norberak interes berezirik izan ezean astunegiak egiten zirenak.

Mahai inguruak bi izan ziren: **La traducción de los clásicos de la literatura**, eta **La traducción en el curriculum de los estudiantes no traductores**. Lehenegoan, mahaikide izan ziren E. Real, A. Ferrando, J. Talens, J. Espinosa eta J. Leal, antzerki munduan eta klasikoen itzulpengintza inguruan mugitzen direnak hauek. Bigarrean izan ziren, F. Díaz-Plaja, F. Fernández, A. Melero, V. Salvador eta A. Giordano.

Maila honetako Jardunaldiak lehenengo aldiz antolatzen zituztelako edo, inaugurazioa aurretik materiala banatzeko orduan eta Jardunaldien hasiera eta lehenengo eguneko hitzaldietan, antolaketa hutsuneak oso nabariak izan ziren. Orduak eta egunak igaro ahala konponduz joan ziren batzuk, halere.

Hitzaldi eta ponentzien nobedadeengatik baino, interesgarriagoak izan ziren Valenciako egunok, itzultzaileen arteko elkar topatze eta harreman berrien gauzatzeko aukeragatik.

Beatriz Zabalondo





1-2

Gaiak

Ale honetan / Euskal Itzultzaileen Ikasketak: Hamarkada baten ikuspegia / Martuteneko Itzultzaile Eskolaren ibilbide historikoa: sorrera, emandako pausoak eta gaurko egoera / Euskal itzulpengintzaren gaurko egoera / Euskal Itzulpenaren Berezitasunak (Zenbait gogoeta) / Itzultzaile ikasketen etorkizunerako argibideak / Itzultzaile ikasketen diseinua / Espainiako Estatuko hizkuntzen arteko literatur itzulpena: Euskara / Hegoaizea eta euskal itzulpena / Itzulpenaren benekotasuna eta kalitatea / Itzulpenaren etorkizuna 93ko Europan / Zinpeko interpretariak / Interferentzia ikustezinen xerkan / Itzulpengintza: Terminologia eta sintaxi mailako zenbait arazo / Manual de español urgente / Jatortasun egokitu beharrekoa / Aparteko zailtasunak / Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea / Bibliografia / Interpretaritzari buruzko ikastaroak Gasteizen / Administrazioeko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak / Klasi-koen itzulpen plana dela eta / Euskal Autonomi Elkarteko Itzulpen-Zerbitzu Ofiziala sortzekotan / Itzulpen sariketak eta best / Testu filosofikoen itzulpenak / UBI mailako filosofi testuak euskaratzeko proiektua / Primer Coloquio Internacional de Traductología.